

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Muxika



Aurkibidea

Udalerria: Muxika

Sarrera



Busturialdeko udalerria, Amorebieta-Etxano eta Gernika-Lumo bitartean, eta Oiz eta Bizkargi mendiguneen artean kokatua. 1.320 biztanle besterik ez dituen arren, Bizkaiko herririk handienetakoa da. 1965era arte independenteak izan ziren Ibaruri, Muxika eta Gorozika elizateetatik sortuta. Hirigune nabarmenik gabe, hainbat auzotan dago banatuta herria: Ibaruri, Mauma, Ajuria, Gorozika, Zugastieta, Ariatza, Kurtzero, San Roman, Ugarte... Auzoen arten lotura handi samarra izan da urteetan zehar, baina bakoitzak bere izaera eta historia ere izan du, auzoen arteko distantziak handiak direlako. Antzina Muxikako Ugarte deitzen zitzaion, San Roman auzoan zegoen Muxikako Torreagatik; izan ere, lurraldeko leinu boteretsuenetako baten egoitza izan zen hori. Hizkera aldetik ere, auzo batetik bestera ezberdintasuna dago, auzo batzuetan Amorebieta-Durangorako (Durangaldea) joera dagoelako, eta beste batzuetan Gernikarakoa (Busturialdea). Gernika-Lumo, Morga, Errigoiti, Mendata, Ajangiz, Munitibar, Amorebieta-Etxano, Iurreta eta Berriz ditu mugakide. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAko (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

- **Biztanleak:** 1.334
- **Euskaldunak:** %93,29

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **44**
- Zintak: **68**
- Pasarteak: **749**
- Transkribatutakoak: **103**
- Audioak: **36**
- Bideoak: **713**

Proiektuak

- Bittor Kapanaga, Otxandioko aztia
- Dialektologia-EHU
- Diasporako Ahotsak
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal Herriko txori eta animaliak
- Fondo partikularrak
- Gazte gara gazte
- IRALERen Bizkaiera Bilduma
- Muxikako ahotsak
- Zornotzako aditz-eren karinkara

Hizlariak

Nati Agirre Basterretxea (1922-2017)

1922. urteko Natibitate egunean jaio zen Ibarrangeluko Zobarangoikoa baserrian. Ama Kortezubikoa zuen eta aita bermeotarra; zortzi neba-arrebatatik hirugarrena izan zen. Sei urterekin hasi zen Zendokizko eskolara, baina bederatzi urterekin neskame lanetan hasi zen eta ez zen gehiago Ibarrangelura bueltatu. Hainbat lekutan egon zen neskame: Kortezubiko Urtubin, Begoñan (Bilbo), Mundakan eta Gautegiz-Arteagan. Gerrak Bermeon harrapatu zuen eta bere aitak Palentziara egin behar izan zuen alde. Hogei urte egiteko zegoela, Muxikako Mingolarra baserrira ezkondu zen, "Kiputxene" izenez ezaguna den etxera, eta bertan bizi izan da ordudanik. Bost seme-alaba izan zituen.



Jose Mari Ajuria Duñabeitia (1927-2022)

1927. urtean sortu zen San Roman auzoko (gaur egun Amona izenez deitua) Etxerre baserrian eta bertan bizi izan da beti. Aita bertakoa zuen eta ama Berroja auzoko Arandia baserrikoa. Bere aita 25 urtez herriko zinegotzia izan zen. Hamar neba-arrebatatik bigarrena da. Umetan Kurtzeroko eskolan ibili zen. Baserriko beharretan ibili izan da beti eta Elorriagan ere urte askoan ibili zen erretiratu arte. Zilloniz auzoko Erregene baserriko alabarekin ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituzten.



Gregori Ajuriagojeaskoa Loroño (1913-2012)



1913an jaio zen Zarragoikoa baserrian, Bizkargi mendiaren magalean. Aita bertakoa zuen eta ama Larrabetzuko Erkingokoa. Umetan Eleizaldeko eskolara joaten zen, etxetik hiru ordutara, eta baita Kurtzeroko klase partikularretara ere. Boanerenean ikasi zuen josten eta josteko makina eskuan hartuta etxerik etxe ibiltzen zen. Gerra garaian, gudarien txamarrak jostearren herriko beste bost emakumerekin batera atxilotu eta sei hilabetez kartzelaratu zuten Bilboko Orue txaletean. Ondoko etxean bizi zen bere lehengusua gerra garaiko ertzaina izan zen. Bere aita uztargilea zen eta ama emagin lanetan ere ibili zen sasoi batean. Oso ondo gogoratzen zituen errepublika sasoiatik Francoren sasoiara arteko kontuak. Herri bereko Txakale auzoko Egiluze "Egiluz" baserrira ezkondu zen. Beti aritu zen baserriko beharretan.

Feli Ajuriagojeaskoa Undabeitia (1927-2020)



Feli, Felipa izenez, 1927ko abuztuaren 17an jaio zen Ibarruriko (gaur egun Muxika) Ajuria auzoko "Goisko" baserrian, bere abizenari izena ematen dion baserri berean. Aita bertakoa zuen, ama ondoko baserrikoa, Euzokoakoa. 3 neba-arrebatan zaharrena izan zen. Gaztetan Portugaletera joan zen han zuen izekoa zaintzera eta gero bertan bizi izan zen; hala ere, beti eutsi zion bere jaiotetxearekin, auzoarekin eta bertakoekin zuen loturari.

Fernando Alegria Goiri Inpernu (1923-2018)



"Inpernu" 1923. urtean sortu zen ezizen bereko etxean, Ugarte auzoko Bidekurtzen. Aita bertakoa zuen eta ama Arrietakoa. Hamar neba-arrebatatik zazpigarrena da bera. Elizaldeko eskolara joan zen 14 urtera arte eta gero Gernika-Lumora joan zen arotz lanbidea ikastera lau bat urtez eta beste 3-4 urtez Bilbora. Gerra sasoiaren, bere aita herriko lurperatzailea izan zen, gerrako hildakoak-eta lurperatzen. 23 urterekin kamioneta batekin esne-saltzaile hasi zen eta ostean obretan hasi zen kamioi-gidari legez: Gernika-Lumon, Miranda de Ebron eta Valladoliden, besteak beste. 44 urtez ibili da kamioiarekin. Tarte horretan, 1960an hasita, 9 plazadun autoa erosi eta taxilari bezala aritu zen 13-14 urtez astelehenetan eta ezkontza egunetan. Berak izan zuen inguruetan lehenengo autoa, 17.000 pezetako "Plimut" markakoa, eta baita telefonoa ere, garraiolaria zelako jarri zioten telefonoa. Baserrian bizi arren nagusitan hasi da baserriko lanetan; txakolina egiten dute etxean. Bere jaiotetxe ondoko Zizperrene baserriko alabarekin ezkondu zen.

Asentzio Badiola Zuazo (1927-2015)



Ibarruriko (gaur egun Muxika) Irazabal auzoko Okolo baserrian jaio zen eta bertan bizi izan da beti. Gurasoak Mendatako Albizkoak zituen, eta Asentzioren aitarien etxera joan ziren bizitzen, Okolora. Zortzi senidetatik zapigarrena izan zen. Umetan, gutxi joan zen eskolara, Ajuriara bide luzea baitzuten; hori dela-eta, Oka auzoko Itziar Erzillaren eskola partikularretara joan zen gerora. Hamahiru urtegez, basoko beharretan hasi zen eta horrexetan eta baserriko lanetan aritutakoa da. Muxikako Ordorika auzoko emaztearekin ezkondu zen.

Serafin Baraiazarra Albizu (1929-2019)



1929an jaio zen Ibarruriko (gaur egun Muxika) Mauma auzoko Santamañe baserrian. Aita Burdaria auzoko Otxortia baserrikoa zuen eta ama Mauma auzoko Irudieta "Aixenbeko" baserrikoa. Sei neba-arrebatatik bosgarrena izan zen. Eskolara gutxi joan zen, zazpi urte zituenerako artzain lanetan zebilelako 120-160 ardi ingururekin. 1945ean, ardiok saldu eta Durangoko Anpueroren basoan eta Zornotzako "Compañia Vizcaina" k Mauman zuen zerrategian hasi zen beharrea pare bat urtez. Handik lurretako Txonpolonera joan zen morroi lanetan eta han zegoela hiltegia ere aritu zen. Soldaduzka garaian Lizarran, Carrascalen eta Ibañetan egon zen eskaladan. Urte bete eta erdira etxera bueltatu eta betiko beharretara bueltatu zen. Urtean bi hilabete eta erdiz-edo Munitibarrera joaten zen gari-jotzera eta bertako esnea Lekeition saltzera. Beti bizi izan da Santamañen bere familiarekin.

Jesus Barandika Berrojalbiz (1921-2012)



1921. urtean sortu zen Barandika auzoko Aldekoan. Aita Ugarteko Ugartenagusikoa zuen eta ama inguruko Untxekartekoa. Hamar neba-arrebatatik laugarrena da Jesus. Beraien familiakoak esne-saltzaileak izan ziren eta aita ogi-banatzaile bezala ibiltzen zen. Umetan Elizaldeko eskolara joan zen. Gerra sasoiari, karretero bezala ibili zen gorpuak batzen. Etxea utzi behar izan zuten eta beheragoko etxe batera joan ziren, Izabalera. Gerra ostean, hiru urte eta erdiz soldadu joan zen Loiolara, Jaizkibelera eta Martutenera. Buluku baserrian jaio, baina Elizaldeko Ugarte Etxebarrian bizi izandako [Feli Goikoetxea Enbeita](#) rekin ezkondu zen etxe horretara eta bost seme-alaba izan zituzten. Azken etxe hori denda-taberna ezaguna eta garrantzitsua izan zen. Bere emaztearekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Felisa Bilbao (1946)

Bittor Duñabeitia Arginzoniz *Piperra* (1918-2015)



Muxikako Ordorika auzoan jaio zen, "Piperrere" izenez ezaguna den baserrian, bederatzi senideko familian (bera bigarrena zen neba-arreben artean). Gerrak gazterik hartu zuen, 18 urte zituela. Zazpi urte pasa zituen etxetik kanpo: lehenengo frontean, geroago hainbat kuarteletan. Itzuleran zerrategi batean hasi zen lanean, eta gero, 25 urtez, Astran (Gernikan). Ajangizera ezkondu zen eta Gernikan bizi izan da azken urteotan.

Ricardo Duñabeitia Gandarias (1929-2024)



1929ko apirilaren 3an jaio zen Ibaruriko (gaur egun Muxika) Berroja auzoko Arandia baserrian, eta ordudanik bertan bizi da. 1950ean soldadutza egitera Ceutara joan zen 15 hilabetez eta orduan baino ez da egon kanpoan. Bere aita bertakoa zen eta ama Mauma auzoko Goikoetxe baserrikoa. Lau neba-arrebatatik bera da gazteena. Gerra garaiko kontu ugari kontatu ditu grabazio honetan. Elkarrizketatzailea bere senitartekoa da.

Balendin Enbeita Goiria (1906-1986)

Muxikako Usparitxa-Jauregi baserrian jaio zen Balendin Enbeita. Aita bere jaiotetxekoa zen eta ama lbarruriko (gaur egun Muxika) Pozuaundi baserrikoa. Aitari jarraiki, txikitandik erakutsi zuen bertsolaritzarako zaletasuna. Hogeita hiru urte besterik ez zituela irabazi zuen bere lehen Bizkaiko Txapelketa, 1929an eta 36ko Gerraren ondorengo lehen bi txapelak ere beronek jantzi zituen.

Gerra garaian, Eusko Gudarostearen barnean, Bizkaiko frontean izan zen eta 1937ko abenduaren 1ean hamabi urteko espetxe zigorra eman zioten. 1941era arte kartzelan izan zen.

Bertsolari eskolen mugimendua Balendinekin batera sortu zela esan liteke, beronek eman baitzituen lehen urratsak bertsolarien eskolaratze-bidean Garriko bertso-eskola sortuz.

Baina plaza-gizona izateaz gain, idatziz ere eman zituen bertsoak. Eta bestelakorik ere paratu zuen paperetan: garaiko aldizkarietan hainbat poesia eskaini zituen eta baita Jesukristoren bizitza kontatzen duen antzerki-obra musikal bat ere.

Baserriko teilatua konpontzen ari zela erorita hil zenean, "Bizitzaren Joanean" liburuaren bigarren partea prestatzen ari zen.

Gaur egun, Bilboko Areatzako parkean bere omenezko irudia dago.

Onintza Enbeita Maguregi (1979)

1979 urtekoa da Onintza, maiatzaren 19an Muxikan jaioa. Muxikan bizi izan da beti eta guraso biak ere muxikarrak ditu. Hiru ahizpatan gazteena da, kazetaritza ikasketak egin zituen, kazetari moduan ibilitakoa da, baina egun politika lanetan dabil. Bere bizitza beti egon da bertsolaritzari lotuta, bertsolaria baita, Onintza. Areatza auzoko eskola zaharrean egin genuen zita eta hizkuntza, hezkuntza, moda, ikus-entzunezko, IKT, musika zein ohitura zahar-berriei buruzko kontu asko esan zizkigun.



Juanita Esturo Orue (1924-2024)

1924ko abenduaren 27an jaio zen Gorozikako Urebarro baserrian eta bertan bizi izan da beti. Urebarro berez Zornotzako herriko lurretan dago, nahiz eta auzo bereko etxeak Gorozika (gaur egun Muxika) izan eta elizaz ere Gorozika izan. Beraz, udaletxez Amorebieta-Etxano da, baina Juanitak bere burua gorozikartzat du, bertan egin baitu bizimodua. Bizpahiru herriren arteko bidean dagoenez antzina estraperlo-etxea zen. Aita ere bertakoa zuen eta ama Arratiako San Kristobaleko Suña baserrikoa (Dima), hiru neba-arreba izan ziren. Gorozikako eskolan ibili zen eta umetatik hasi zen baserriko lanetan. Bere aita gaztetatik hasi zen Zugastietako auzoko Irurak bat zentrolean beharrean eta handik Iberduerora pasatu zen; hori dela eta, bere aitak 15 urte zituenetik telefonoa zuten etxean. Gerratean, aitaren lana kontuan hartuz Larraskitura joan ziren, eta handik Gueñesera, Karrantzara, Santanderrera eta Torrelavegara. Bien bitartean, beraien baserria zaurituentzako botikin bezala erabilia izan zen. Beraien etxe ondoan jolas lekua eta bolo-jokoa zegoen eta txakolina egiten zuten. Muxikako Elizalde auzoko gizona izan zuen, Zugastietako tren-geltokiko arduraduna, eta lau seme-alaba izan zituzten.



Mari Etxeandia Etxeandia (1926-2019)

1926. urtean sortu zen Gorozikako (gaur egun Muxika) Asua auzoko Asuabekoan eta bertan bizi izan da beti. Gurasoak ere gorozikarrak zituen; bost neba-arreba izan ziren. Gerra sasoiaren, Sodupera joan ziren etxekoa ganaduak hartuta. 23 urterekin josten hasi zen eta horretan aritu izan da beti; gorozikar askok jantzi izan dituzte berak jositako arropak. Senarra Gorozikakoa bertako zuen, Atxertekoa. Bere auzoko [Amaia Isasi Amurizarekin](#) batera egin zitzaion elkarrizketa.



Pilar Etxeandia Legina (1926)

1926. urtean munduratu zen Gorozikako (gaur egun Muxika) Munaguren "Munune" baserrian eta bertan bizi izan da beti. Aita bertakoa zuen eta ama eliza ondoko Goirietxebarrikoa "Goiridxena", "Sakristauena" izenez ezaguna den etxekoa. Zazpi urtetatik 14ra arte ibili zen eskolan, hasierako urteetan Asua bertako etxe batean. Gaztetan bere amaren jaiotetxean zegoen tabernan aritzen zen beharrean. Bilbora joan zen neskame lanetan eta bertan egon zen 5 urtez osaba batenera joan arte. 30 urterekin bere auzoko batekin ezkondu zen, Asua Bekoko [Rufino Etxebarria Petralanda](#)rekin. Bi seme-alaba izan zituzten. Bere senarrarekin batera egin zitzaion elkarrizketa.



Rufino Etxebarria Petralanda (1922-2011)

1922. urteko abenduan jaio zen Gorozikako (gaur egun Muxika) Asua Bekoan. Aita bertakoa zuen eta ama Dimako Indusi auzoko Zamakola errotako alaba. Aita otzaragilea zuen, eta Ortuellako meategietan beharrean jardundakoa. Bederatzi senidetatik laugarrena izan zen. Bi urterekin Dimara joan ziren bizitzera eta bertan egon ziren lehenengo jaunartzea egin arte. Bere anaia zaharrena gerrako "Crucero Baleares" ontzian hil zen. Gerra garaian, Sodupera joan ziren ebakuatuta, eta handik bueltan, Diman egon ziren hiru urtez. Herrira bueltatzerakoan, bertako harrobian hasi zen lanean: Gernika-Lumoko herria berreraikitzeke harriak ateratzen eta Ajuria auzoko ponte-ontziko harriekin, besteak beste. Urte askoan Bilboko zilargintza eta bitxigintza enpresa batean aritu zen. Bere auzoko Munaguren "Munune" baserriko [Pilar Etxeandia Legina](#)rekin ezkondu zen etxe horretara. Bi seme-alaba hazi zituen. Bere emaztearekin egin zitzaion elkarrizketa. Arratiako kontuak kontatzerakoan, sarritan, batik bat besteen esanak eta hango elkarrizketak azaltzerakoan, Arratiako euskara darabil.



Feli Goikoetxea Enbeita (1930)

1930. urtean jaio zen Bulukun, kanposantu gainean. Ama alboko etxekoa zuen, Pelotxakoa; aita Barakaldon jaiotakoa, baina Bulukun bizi eta hazitakoa. Bederatzi neba-arrebatatik hirugarrena da bera. Buluku etxea gerran erre zitzairen, eta ostean, izeko batengan joan ziren Kurtzeroko Zubietara eta handik Pelotxara. Hamabi urtetik aurrera, Elizaldeko Ugarte Etxebarrian bizi izan da. Etxe hori denda-taberna ezaguna zen, gerraostean errazionamendua banatzen zuten bertan; bizartegia eta ile-apaindegia ere izan zuten bertan, eta basoko beharginek bertan hartzen zuten ostatu. Beraz, umetatik taberna zarratu arte bertan ibili izan da lanean. Barandika auzoko [Jesus Barandika Berrojalbiz](#)ekin ezkondu eta bost seme-alaba izan zituzten. Bere senarrarekin batera gin zitzaion elkarriketa.



Pablo Irazabal Ertzilla (1930-2015)

Zornotzako San Migel kalean jaio zen 1930. urtean. Aita Gorozikako (gaur egun Muxika) Asua auzokoa zuen eta ama Ibarruriko (gaur egun Muxika) Okakoa. Sei neba-arrebatatik bigarrena izan zen. 3-4 urte zituela, Okako Olatxura joan ziren eta gerraostean Zugastietako "Estaziño"ko etxera. Geltokian zegoen taberna bakarra izan zen beraiena. Gerra aurretik zein ostean, Zugastietako eskolan ibili zen. 13 urte gaz aitagaz batera hasi zen arotz lanetan eta Zugastietan bertan jarri zuten martxan gerora zerrategia izango zen tailerra. Bertso munduarekin lotura zuzena izan du beti Pablok, gaztetatik baitu zaletasuna; 1962. urtetik BECen ospatu arteko final guztietan egondakoa da. Grabekata hau Muxikako herrian kokatu dugu, batez ere Zugastietako kontuak kontatu dituelako eta bertako berbakera darabilelako.



Maria Irazabal Izundegi (1921-2015)

1921. urtean sortu zen Gorozikako (gaur egun Muxika) Pagaigoikoa baserrian. Aita bertakoa zuen eta ama Garaikoa. 12 urte zituela hil zitzaion ama eta sei neba-arrebatatik zaharrena zenez, etxeko martxa hartu behar izan zuen eta arin bizkortu eta heldu zela dio. Bere aita errepublika garaiko EAJ-PNVko Gorozikako alkatea izan zen, herriak bozka bidez aukeratutako lehena. Hori dela eta, aita preso izan zuten Larrinagako eta Donostiako kartzeletan. Bere aitagarreba ere preso egondakoa zen, heriotz-zigorra kondenatutakoa. Eskola garaian, hasieran udaletxean bertan ibili ziren neska-mutilak elkarrekin; ostean, Asuako etxe batean jaso zituzten eskolak; eta, azkenik, bere aitaren aginpidean eraikitako herriko eskolara joan ziren, beraiek izan ziren eskola hori erabili zuten lehenak. Gerra garaian, herritik alde egin behar izan zuten, Gueñesera joan ziren bertako alkatearenera beste gorozikar batzuekin batera; Gueñeseko "Casa Goti"n egon ziren bi hilabetez. Gorozika bertako Goirietxebarri "Go;ridxe" etxera, "Sakristauena" izenez ezaguna dena, ezkondu zen; etxe horretan, taberna egon zen luzaroan. Bi alaba izan zituen.



Carmen Irusta Alakano (1922-2016)

1922ko urriaren 10ean jaio zen Ibarruriko (gaur egun Muxika) Altamira baserrian. Bere aita Erandiokoa zen eta ama Izebal auzoko Etxenagusi baserrikoa. Lau neba-arrebatatik gazteena da bera. Umetan Ibarruriko eskolara joan zen. Bere auzokoa zen Bitoriano Arandiagaz ezkondu eta bi seme izan zituzten. Ezkondu ostean bere jaiotetxearen izen bereko baserrira joan zen bizitzera. Bete bizi izan da baserrian eta baserriko lanetan aritutakoa da.



Amaia Isasi Amuriza (1930)

Amorebieta-Etxanoko Larrabiden jaio zen 1930ean. Aita bertakoa zuen eta ama Gorozikako (gaur egun Muxika) Pagai baserrikoa. Zazpi neba-arreba izan ziren. Umetan leku batek bestera ibili ziren bere aitaren lana zela-eta, kimikaria zen: Leioan, Lemoan eta Leonen bizi izan ziren. 16 urterekin Gorozikara joan zen amonarenera, baina bere etxeok Leonen gelditu ziren bakoitzak bere bidea hartu aurretik. Leioako Udondoko eskolan ibili zen umetan. Aita eta aitita preso izan zituen gerra denboran. Gorozikako Agarre baserriko semearekin ezkondu zen; bere senarra urtez luzez izan zen Gorozikako aguazila eta postaria, eta herriak batzerakoan, baita Muxikakoa ere. Asuagoikoa baserrian bizi izan da. Bere auzoko [Mari Etxeandiar](#)ekin batera egin zitzaion elkarrizketa.



Felix Iturri

Aita Muxikakoa zuen eta ama Mendatakoa. Ariatza eskolara joan zen umetan. Jaiak, sorgin kontuak... kontaktzen ditu 1986. urtean egin zioten grabazio honetan.

Juana Juaristi

Isidro Juaristi Alberdi (1901)

1901. urteko San Isidro egunean sortu zen Ibarruriko (gaur egun Muxika) Ajuria auzoko Antxustieta baserrian. Bere aita Gerrikaitzekoa zuen, Zabale baserrikoa; eta ama, Mallabikoa. 64 urterekin Zornotzara joan zen bizitzen. "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat da. Emaztea Gerrikaitzekoa zuen. Ibarruriko antzinako kontuak kontaktzen ditu.

Jose Luis Lejarcegui Inunciaga Joe (1942)

Guraso biak Ibarrurikoak ziren, baina Muxikara joan ziren bizitzera, Agarre baserrira. Bertan jaio zen Jose Luis; 7 senide ziren, bera 5.a. 11 urtera arte ibili zen eskolan. Gernikako Taberna Vascara joan zen lanean eta bost urte egin zituen han, sukaldari. Lekeitioko Emperatriz Zitan ere ibili zen sukaldari. Gero Ameriketara joan zen: bi arreba zituen han, Gran Viewn (Bruneau, Idaho). Serafina arreba Segundo Totorikaguenarekin zegoen ezkondua eta arrantxoa zuten: ardiak eta behiak. Hara joan zen lanera, Totorica konpañiara. Artzain eta "campero" ibili zen sei urtean. Ondoren Boiseko Valenciaga euskal hotelera joan zen lanera, sukaldari. 1969an Cloverdale Nursery enpresarentzat hasi zen lanean eta 42 urtean aritu zen bertan. Amerikar batekin ezkondu zen eta seme bat izan zuten.



Jesus Lopategi Lauzirika Jess (1938)



Aita Mungiakoa zuen eta ama muxikarra. Aita Ameriketara ibili zen 10 urtean eta bueltan Aldori baserria erosi zuen. Hantxe jaio zen Jesus, hamar senidetan zortzigarrena. Muxikako eskolan ibili ostean Tolosan egon zen fraideekin lau urtean. 15 urterekin zerrategi batean ibili zen lanean Muxikan eta gero baita zilar lantegi batean ere, Gernika-Lumon. 1957an Elkora (Nevada) joan zen artzain eta bertan geratu zen bizitzen, Denise Arregirekin ezkondu (euskal jatorrikoa baina bertan jaioa); bi seme-alaba izan zituzten. Burniaren negozioan egin zuen lana 30 urtean. Elkoko euskal klubeko kidea da hasieratik eta euskal etxearen sorreran hartu zuen parte. Euskarazko irratsaio bat ere izan zuen, Elkoko irratan. Jesusen anaia Jon bertsolari ezaguna izan zen.

Jon Lopategi Lauzirika (1934-2019)



Muxikako Zabalde "Zabale" auzoko Aldauria "Aldori" baserrian jaio zen 1934. urtean. Ama ondoko auzoko batekoa zen, Besangizekoa; aita, ordea, mungiarra. Hamar neba-arrebatatik seigarrena eta lehen semea izan zen. Gerra aurrean jaioenez, lehen urteak gogorak izan ziren: erreketek sartu, behi uztarria hartu eta Mungiara joan ziren Barakaldora eta Bilbora joan aurretik. Gerraostean, hamabi urte izan arte, Kurtzeroko eskolara joan zen maistra azpeitiar batekin Tolosako sakramentinoetara joan arte. Batxilergoa, nobiziatua, filosofia eta teologia apur bat ikasi ostean, botoak hartzekotan zegoela, etxera bueltatu eta soldadu joan zen. Gerora, Gernikako [Dalia](#) lantegian, pentsu-saltzaile eta bertso irakasle moduan aritu zen irakasle. Izan ere, Jon bertsolari txapeldun bezala da ezaguna denontzat. Soldadutzatik bueltan hasi zen bertsoan Muxikako [Iturri](#) gaz eta herriko beste askorekin batera. 1962. urtean, lehen txapela irabazi eta gero hasi zen Jon Azpillagagaz batera Euskal Herriko ehunka plazatan abesten; batez ere, Gipuzkoako Goierrin eta Bizkaiko Txorierrin. 1962, 1964, 1967 eta 1987ko Bizkaiko bertsolari txapelketak eta 1989ko Euskal Herriko txapelketa nagusiak eskuratu zituen, besteak beste. Frankismoko garai gogorrenetako plaza gizona izan zen. Debekuak debeku, sekula ez zioten abesteari utzi eta astebetaz Basauriko kartzela ezagutzea ere egokitu zitzaion.

Zeperino Mandaluniz Gorroño (1918-2016)

1918ko abenduaren 26an jaio zen Ibarruriko (gaur egun Muxika) Unda auzoko Barrenengo etxean. Ama bertakoa zuen eta aita Larrabetzuko Erkiko etxekoa. 11 neba-arrebatatik zortzigarrena da bera. 12-13 urtera arte Ibarruriko eskolara joan zen. Gero hiru urterako Arriandiko Akañana baserrira joan zen morroi kortako eta soroko beharrak egiteko. Gernikako bonbardaketako lekuko izan zen. Bonbardaketa ostean, gerrak irten zuenean, soldadu joan zen frontera, Amaiur batailoiko Arrasate konpainiako kide: Barakaldoko "trabajadores"en, Bilboko Eskolapioetan, Bizkargin, Solluben, Artxandan, Santander aldean, Laredon, Castro-Urdialesen, Lizarran, Teruelen... Guztira sei urte egin zituen soldadu; lizentziatu ostean bi urtez. Bertan burututako lanengatik fronteko medaila eman zioten. Ganaduaren salerosketan eta baserriko lanetan aritu izan da lanean; bi urtez aritu izan zen Gernika-Lumoko Sokan lanean. Asteiko (Ibarrurin bertan) Felisa Arrazolagaz ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituzten. Ezkondu ostean Asteira joan ziren bizitzera eta bertan bizi da orain ere. Tartean, 30 urtez, Gernika-Lumon bizi izan da.



Odon Mandiola Baraiazarra (1911-1993)

Ibarruriko Etxezar baserrikoa. 14 urtera arte morroi ibili zen. Ondoren, itsasontzi merkante batean hasi zen lanean. Gerrak harrapatu zuen eta Sollubeko guduan borrokatu zuen. Asturiasen preso hartu zituzten eta "Batallón de Trabajadores"-era eramán. Garaiko Pilar Arrieta Ormaetxearekin (1911-1993) ezkondu zen Etxezuri baserri-etxera eta bost seme-alaba izan zituzten. Patalako zentrolean lan egiten zuen eta azeriak, azkonarrak eta horrelakoak harrapatzen ere ibiltzen zen tranparekin. Saskigilea ere bazen.



Felipe Martitegi Iturrioz (1919-2015)

1919ko ekainaren 6an jaio zen Gorozikako (gaur egun Muxika) Egiartegoikoa baserrian eta bertan bizi izan da beti. Aita bertakoa zuen eta ama arratiarra, Dimako San Kristobal auzokoa. Aita gizon ikasia zen, Lizarrako ikastetxean ibilitakoa: politikan murgildua, komiteko jueza, eta udaletxeko kontribuzio-biltzailea; kartzelaratu ostean, heriotza-zigorrrera kondenatua izan zen. Kantabria aldera joan zen gaztetatik morroi lanetan. Zazpi urtez egon zen soldadu: lehenengo, "Cuarta división de Navarra"rekin Iruñean, Castellón de la Planan, Ebron, Sagunton, Aranjuezen, Madrilen, Bilbon...; eta, etxera bueltatzerakoan Nafarroa aldera joan zen muga zaintzera Izaban, Auritzen, Elizondon, Beran... Bilbon zegoela, bertako burdin-hesia eraikitzen parte hartu zuen eta Nafarroan zebilela, Iruritan zauritu ostean, sukaldari-laguntzaile bezala hasi zen lanean. Frankismo ostean, lau urtez Muxikako zinegotzia izan zen. Emaztea alboko baserri batekoa zuen, Urrebarrokoa, elizaz Gorozika izan arren, Amorebieta-Etxanoko lurretan dagoena.



Esperanza Mendiola (1942)

Felix Ortuzar Iturri (1942)

Basilio San Anton Baraiazarra (1927-2016)

1927ko ekainaren 14an jaio zen Ibarruriko (gaur egun Muxika) Mauma auzoko Txorillena baserrian eta ordudanik bertan bizi da. Aita bertakoa zen eta ama Burdaria auzoko Otxortia baserrikoa. Bederatzi neba-arrebatatik hirugarrena da. 54 urtez artzain lanetan aritu da. Auzo bereko Usinbaltza baserriko Begoña Arrazolarekin ezkondu zen; bi seme-alaben aita da. Begoña Arrazola (1933-2010) bere emazteak era parte hartzen zuen elkarrizketan.



Deunoro Sardui Enbeita (1934-2022)

Ariatza auzoko Zubikoa etxean, "Fuentebarri" izenez ezaguna den etxean, jaio zen 1934. urteko urte berri egunean. Aita bertakoa zuen eta ama Usparitxa auzoko "Jeuri"koa (Jauregi). Bere ama Kepa Enbeita "Urretxindorra" bertsolariaren alaba nagusiena zen. Gazterik hasi zen bertsoan Deunoro, eta Bizkaiko hainbat txapelketako finalista izan zen. Ariatzako bere jaiotetxean sortu zuten Euskal Herriko lehen bertso-eskola, "Garriko" bertso-eskola. Gerra Zibilean bi urtez etxetik kanpo egon ziren, Kantabriaraino joan baitziren. Bere aita eta hainbat osaba eta izeko bat ere kartzelan egon ziren beraien abertzaletasuna tarteko. Ariatzako eskolatik, 11 urtegez Igorreko marianistetara joan zen 13rekin Arteako seminariora joan arte. Urtebetegarrenean, seminarioa utzi eta lanean hasi zen. Bertsolaritzaz gain, euskalgintzako eta kurturgintzako hainbat ekimenen partaide eta bultzatzaile izan da: Gernikako gizarte-etxeko tabernan euskarazko lehen gau-eskolak eman zituen, Seber Altube ikastolako sortzailea Altube berarekin batera, hainbat aldizkaritan hartu du parte "Alper" ezizenarekin, Ariatzako Zaragiaren hiletako antzezlea...



Gloria Susaeta Onaindia (1929-2016)

Ibarruriko (gaur egun Muxika) Irazabal auzoko Aurtenetxe baserrian sortu zen lau neba-arrebatako familia batean. Ama bertakoa zuen eta aita Zornotzakoa. Gerraostean, Oka auzoko okindegiko eskolara joan zen Itziar Erzilla irakaslearekin eta ostean Gernikara joan zen maistra berarengana. Eskola utzi eta Ajuria auzoko Uxarte baserrian neskame lanetan aritu zen. Beti aritu izan zen baserriko lanetan eta bere etxeko zaintzan, sei seme-alaba izan baitzituen.



Elena Ugalde Uribe (1921-2011)

Muxikako Areatza auzoan jaio zen, Auzokoa baserrian. Aita bertakoa zuen eta ama beheragoko baserri batekoa. Bederatzi anai-arreba ziren, baina bat ez zuen ezagutu, bera jaio aurretik hil baitzen. Aita ere ez zuen ezagutu ia, berak bi urte zituela hil zitzaien eta. Amak zortzi seme-alabak aurrera ateratzeko gogor lan egin behar izan zuen. 13 urterekin neskame joan zen Gernikara eta handik Bilbora. Gernikara ezkondu zen, baina handik urte batzuetara Australiara joan zen bizitzera familia osoa. 12 urte egin zituzten han eta denbora horretan fabrikari ibili zen lanean. Euskal Herrira itzuli eta berriz ere Gernikan jarri ziren bizitzen.



Maximo Undabeitia Zabala (1919-2010)



1919ko abuztuaren 8an jaio zen Ibaruriko (gaur egun Muxika) Ajuria auzoko Auzokoa baserrian. Aita bertakoa zuen eta ama Mendatako Lamikizekoa. 11 neba-arrebatatik hamargarrena da bera. Ajuriako eskolara joan zen umetan. Meza-laguntzaile eta medikuari abisua ematen aritzen zen umetan. Gerra sasoiari, Teruelen eta Bilbon ibili zen soldadu, besteak beste. Baserriko eta basoko lanetan aritu izan da batik batik; Urrutxun bizargin beharretan aritutakoa ere bada. 1945ean Ibaruriko Aluze baserriko Lucia Aldairekin ezkondu zen eta 5 seme-alaba izan zituzten. Bertan bizi izan zen ordudanik. Grabaketan bere alabak ere parte hartzen du.

Jose Uriona Jaio (1957)



Muxikako Oka auzokoa, sei senideten zaharrena. Gurasoak Mendatakoak ziren. 1980ean AEBetara joan zen, artzain, Wilbor Wilson arrantxora, Hammett herrira (Idaho). Sei urteren ondoren, beste sei egin zituen arduradun moduan, "mayordomo". 1993tik aurrera, 26 urte egin zituen eraikuntzan lanean. Kim izeneko emakume amerikarrarekin ezkondu zen (aita Nabarnizkoa zuen eta aitona-amonek ostatua izan zuten Mountain Homen: Bideganeta familia). Mountain Homen bizi dira, Idahon.

Inaxio Urkiaga Jaio (1939-2024)



Muxikan jaio zen Esperantza baserrian eta gerora Ereñora joan zen bizitzera, Akorda auzoko Kasarrike baserrira ezkondu zelako. Zortzi neba-arrebatatik bosgarrena da. 1966. urtean Amerikara joan zen eta artzain ibili zen bertan. Muxikako euskara darabil.

Juan Mari Urkiola

San Roman auzokoa. Baserriko bizimoduaren inguruko azalpenak eman zituen Euskal Herriko Unibertsitateko "Dialektologia" ikasgairako egin zioten elkarriketan. 42 urte zituen grabazioa egin zenean.

Erramon Urkiola Mandaluniz (1934-2011)



1934an jaio zen San Roman auzoko Urkieta baserrian eta bertan bizi izan zen beti. Ama bertakoa zuen eta aita Ziortzakoa. Hamar neba-arrebatatik bosgarrena. Umetan Kurtzeroko eskolara joan zen, Inama lantegia dagoen ondora, baina doktrinara Elizaldera joaten zen. Gerra sasoiari, berak hiru urte zituela, Gerekizetik Morgako Andra Marira joan ziren gurdi eta guzti. Beraien etxeak Mendatetik zetorren kanoikada bat jaso zuen, eta etxera itzuli zirenean ez zuten ezer, ganadua ere kendu egin zieten-eta. Hamabost urtegar basoko lanetan hasi zen, eta beti aritu izan da basoan zein baserrian lanean. 60tik gora behi izan zituzten, eta Ona esne-saltzaileari saltzen zioten esnea 42 litroko kantinetan.

Jesus Urkiza Etxebarria Txaparro (1929-2011)



1929. urtean munduratu zen Lemoako Lauretan, baina jaio eta segidan etorri ziren Gorozikako (gaur egun Muxika) Mendigurenera. Bere aita jaiotzez Mendatako Albizekoa zen, baina Gorozikako Mendigurenen hazitakoa eta bizi izandakoa; ama, ostera, Lemoako Lauretakoa zen. Bere aita bera jaio aurretik hil zen. Bost neba-arrebatatik gazteena izan zen. Gerraostean bederatzi urte zituela hasi zen Gorozikako eskolara, eta gero Oka auzoko Ertzillako Itziarren zuen eskola partikularrera joan zen. Hamaika urterekin zapatuetan Zugastietako Bitturiñarenean bizargile lanetan hasi zen. Beti ibili izan zen baserriko beharretan eta horri lotutako zaletasunak eta lanak izan zituen. Idiak izan zituzten etxean eta idi-probetan ibilitakoa da. Gorozikako hare-harrobian aritu zen 30 urtez erretiratu arte, eskabadorako txofer eta artezilari ibili zen. Gorozikan bertan eta inguruko auzoetan etxerik etxe gari jotzen ibilitakoa da. Emaztea Gorozikako Asuako du eta bertara ezkondu zen.

Carlos Urriolabeitia Gorroño (1931-2017)



1931ko abenduaren 15ean jaio zen Ibarruriko (gaur egun Muxika) Unda auzoko Etxetxiki baserrian eta bertan bizi da ordudunik. Ama bertakoa zuen eta aita Mauma auzoko Olakoa. Bi anaia dira; bera zaharrena. Umetan Ibarruriko eskolara joan zen eta tarte batean osabagaz artzain beharretan ibili zen Mauman. Beti aritu izan da baserriko lanetan edo artzain legez: soldaduskan ere, horrelako zereginetan aritu zen; hamar urtez Ameriketako Idahon ere egon zen. Arbaiztegiko Matxineko Carmen Iriondogaz ezkondu ostean bi seme-alaba izan zituzten.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Ajuriako eskola

- **Hizlaria(k):** Duñabeitia Gandarias, Ricardo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-007/006
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:03:59. **Bukatu:** 00:06:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Lau neba-arrebatatik gazteena da. Ajuriako eskolara joan ziren; inguru ume guztiak joaten ziren bertara oinez. Neskak eta mutilak elkarrekin ibili ziren eskolara maistra batez, gaztelaniaz jaso zituzten eskola guztiak. Eskolan ezkaratz bat zegoen maistrarentzako.

Transkripzioa

- Zuek izen ziñien lau neba-arreba.
- Bai.
- Zu zematgarrena izen zara?
- Ni gaztiena
- Zu gaztiena. Eta hemen zuek eskolara joan ziñien umetan?
- Bai eskolara Aixuxera (Ajuriara).
- Aixuxeko eskolara Joan ziñien.
- Bai.
- Berton, danok joaten ziñien hamendik Aixuxera edo... Nungo umiek batzen ziñien Aixuxen?
- Honetakuek danak, honetakuek Aixuxera joaten zien, danak.
- Ta oiñez?
- Ai, ze ba? Oin pentseten dozu kotxien halan ta astoaz ala? Oiñez, oiñez, eta txokolatie eta ogidxe karteran eberdidxen jateko, ta gero bidxen bittartien ba han olgetan-ta, holakoxe geuzak.
- Ta Aixuxen ze egoten ziñien neskak eta mutillek danak batera?
- Han danak batera egoten zien.
- Danok alkarregaz.
- Danak batera.
- Eta eskolie nok emoten otsuen edo...
- Orduen zerak be bai, maistriek. Han maisurik eta holakorik ez zan egon, maistrie egoten zan.
- Danontzako maistra bat.
- Bat, bat egoten zan.
- Ta zein zan akordetan zara? Izena-edo?
- Bai zera! Beran zerak eitten, orduen eskuseurik be ez zan egon ta, zera unikamente lapiko bat egosteko koziñie, txapie-ta, ta ha hara erretireten zan. Gero kanpoan be egon zien baia harek kanpoan barik barruen.
- Ta eskolie nun emoten zenduen Aixuxen?
- Ba untxe dauen lekuen. Betiko lekuen, hantxe, hantxe bertan.
- Eta hori maistriori nungoa zan? Kastellanie zan edo euskeldune? Euskeldune zan edo erdeldune?
- Orduen ha erdaldune zan bera, erdeldune zan; euskeraz ez dot pensetan ekizenik be.

- Orduen eskolan erderaz ikesi zenduen?
- Horixe bai. Ta eurreko alderdixen Franco, ha zera kuadrue ta azpiko alderdidxen kurtzie dala ta ez daitz zer eukitzen ban; baia Franco eukitten bana bai. Ta “Cara al sol” kanteten gendun kanpora urtenda, banderie zertunde. Ta gero bajatukeran be “Cara al sol” bajatukeran be. Horren danak. Jesus!

1.2. Dotrina eta lehen jaunartzea

- **Hizlaria(k):** Duñabeitia Gandarias, Ricardo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-007/009
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:09:40. **Bukatu:** 00:10:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
- **Laburpena:** Dotrina abadeak erakusten zuen. Berak Muruetako Orbegaz ikasi zuen. Frontea azaldu baino astebete lehenago egin zuen lehenengo jaunartzea.

Transkripzioa

- Eskolan erderaz ikesi zendun haregaz maistriegaz. Eta dotriñe?
- Dotriñe zerak emoten ban, abadiak emoten ban dotriñe.
- Ta nor zan abadie han sasoi?
- Orduen denporan, bueno... Orduen ez daitz ba, nor egongo zan Orbe.
- Orbe?
- Bai, horixe zera, zerekue, Moruetakoa egon zan orduen.
- Amorebietakoa?
- Moruetakoa.
- A, Muruetakoa!
- Bai, haixe egon zan.
- Eta zu zemat urtegaz hasi ziñen eskolan. Gerra eurretik?
- Gerra eurretik, horixe bai. Gerra eurretik hasi nitzen ni ze primera komunio in nauen eurreko, hamen frentiek etorri zienien, eurreko zortzi egun-edo ariñau ta! Nik esaten in naben primera komunio in eta hil in bihar izaten nixoa ta, esaten in naben! Zortzi bai, horretaxik.

1.3. Erreketeen meza; auzoko etxe batean luzaro

- **Hizlaria(k):** Duñabeitia Gandarias, Ricardo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-007/015
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:14:25. **Bukatu:** 00:16:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak

- **Laburpena:** Domeketan auzoko atarte batean meza ematen zuten erreketiek; beraiek zuten beraien kapilaua. Auzo bereko Agarrebelean egon ziren luzaro bera eta ama etxean ez zuten ezer.

Transkripzioa

- Hemen zerak-ta, reketiek egon zien eta hor mezie-ta entzuten genduzen domeketan-ta.
- Nun?
- Hametxe, zerien, Joxepan zerien etartien.
- Joxepan etartien...
- Mezie emote ben, kapillaue egon zan hor, erreketiegaz e, ta mezie ta horrexek entzuten genduzen guk.
- Ta reketiek emoten bien mezie?
- Bai. Reketiek emote ben, eurek kapillaueu eukien ta.
- A, euren kapellana.
- Bai.
- Ta eurek nun egon zien, etzeren baten egon zien?
- Hor ez daitz zelan manejetan zien, nun egoten zien edo behintzet domeketan edo zeretan-ta mezie emoten ban hor kapillauek. Bai, horidzek zerak.
- Ta zuek zelako relaziñoa euki zenduen bertokoak reketiekaz?
- Guk relaziñoa ze euko gendun ba guk? gu ba isilik ta zerien. Beste, beste zerik ez gendun eukitzen guk. Guk han beherego etzien hantxe, zuk ez zenduzen ezetuko, Gaizka bai zuk, Gaizka horkoa ezetuko zendun ba, Gaizka hildde dau baia, Agarrebehekua esate jakona,
- Agarrebehekua bai, baia Gaizka hori ez.
- Gaizka ez zendun ezetzen?
- Ez, ez naz akordetan.
- Karmelo bez? Lourdes bez? Harek hiru neba-arreba zien ta.
- Ba ez daitz, ez daitz.
- Harek, harexek. Ba han egon giñen gu luzeroan be gero.
- Agarrebehekon?
- Bai Agarrebehekoan egon giñen gu. Hemen ezer ez euen ta.
- Baiña zer dala ta egon ziñien han ba?
- Ba han ba, hamen ezer ez euen ta han ba jaten-ta, ta zerien-eta, hantxe egoten giñen gu.
- Seirok han?
- Ze seirok, seirok. Harek bestiek zera-ta euren etxien planteu zien Joxepa-ta, Joxepan zera eta Xixili difuntue eta Joxepan amagiñarreba eta harek. Harek beste anaidxe bidxek, harek hara zertu zien baiña gu hara junda egon giñen.
- Zu ta ama bakarrik.
- Bai. Ta eurek? Eurek euezan zera ta tia difuntie ta Bittor difuntie ta harek, ta zerakin, gu han egon giñen. Bai historiala bakogu hor. Hortik Okatik etor giñen zerera, hortik Okolo azpittik hona arte etorri giñen.

1.4. 46 ume Maumako eskolan; etxe bakarrea 21

- **Hizlaria(k):** San Anton Baraiazarra, Basilio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-008/003
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:01:31. **Bukatu:** 00:03:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Soldadutzaz gain artzain lanetan egondako hiru hilabetez baino ez da egon etxetik kanpo. Eskolara astean behin edo bitan joaten zen; etxeko lanetan lagundu behar izaten zuten. Maumako eskolara joan zen, garai hartan 46 ume zebiltzan bertako eskolan; etxe baten 21 seme-alaba ziren.

Transkripzioa

- Beti bizi izen zara hemen, ezta?
- Ni bai.
- Orduen iñoz ez zara egon etzetik kanpo? soldadutzan-edo bakarrik edo...
- Bai. Soldadutzan eta neure denpora danien hiru hille bete ein nittun beste hortxe negu baten ardidxek zaintzen. Gehidxau ez dot ein ez kridxau ezta ezetan bez, etzien, biherria palue eta gosie, ta hementxe.
- Bueno zuk gerra eurretik be eskolara joateko astidxe be eukiko zendun, ezta? Gerra eurretik eskolara joan ziñen?
- Bai, baia ez oingo moduen egun danetan ez, astien egun bat edo bi. Aitteri behidxekaz soloan biher eitteko ittaurren eitten han ta jakin ha, ta eskolan zemat denpora ein pentsetan dozu? hamabi urte euki genduzenin basora piñu botaten trontziaz.
- Ta nungo eskolara joan ziñen?
- Meumera.
- Meumeko eskolara.
- Meumen egon zan eskolie. Berrogeta seidxen asientu egon zien Meumen ta danak beteta, hondiño zutunik egoten giñen. Ta lau etxe, baia etxe bakoizan bederatzi, hamar, zortzi. Etxe baten hogeta bat izen zien, hogeta bat, "Zela". "Zela" zein den jakingoik hik ba? Han Zela hantxe, hogeta bat ta hemeretzi bautidxauek. Hogeta bat izen ein biher dabe e! han egon zan biherrik ta astidxe edozetarako be baia.

1.5. Maistra gogorra

- **Hizlaria(k):** San Anton Baraiazarra, Basilio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** MUX-008/004
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:03:01. **Bukatu:** 00:05:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Neskak eta mutilak elkarrekin ibili ziren eskolan. Maistrak zigortu eta jo egiten zuen; handik Anbrera (Mendata) joan zen. Harekin derrigor ikasten zela dio. Basilio umetan lodia ei zen.

Transkripzioa

- Eta ze egon ziñien neskak eta mutillek Meumeko eskolan danok batera?
- Danok batera.
- Ta maisue edo maestrie zer euki zenduen?
- Bidxetara euki gendun, baia en jeneralien maestrie, en jeneral maestrie euki gendun.

- Ta nor zan hori maistrie?
- Bai, esango dotsut ba, bueno. Zemat urten diren, ta gero hortik Anbrera joan zan, maistra baltz bat. Joder. Harrapeu baneke hor hortxe kurban hilko neuke. Hak emoten oskuzen emotekuek guri. Baia emon be zelan, hotz dauenien, pentseu e, atzamarrak holan ipiñi erain oskuzen drauegaz goittik behera. Mekauen, sartute agoan harek negar eindde baiña hantxe mokue daridxola. Negar eittiegaittik ha berez ta gero Anbrera eroan ei dxuen ha.

- Eta nungoa zan hori maistriori?

- Ba horidxe, ez dakitz nungoa zan. Maestra morena bat zan. Nik e joder, orduen zer esango dotsut ba? Gerrate eurretik egon zan ze Meumeraiño joan ezin, nik bestieri segidu ezin. Berez be eskasa izen ei nitzen ta gero maestriek iñoz ba beragaz lo eitteko esan eta mekauen la puta, zabaldu atie eta emon ariñeri ta etxera. "Neuk, neuk ein zugaz lo?" ta etxera! Ze esaten dabe txikitten ba lodidxe nitzela-ta, baia nik gero ba pentse eizu, hamazortzi urtegaz soldadutzarako tallarik ez nabela harrapeu ta ibilli nitzen. Zelakoa izen nitzen umetan. Ta gero gora hazten itzi be ez, ze gottitik beherako palukadakaz bajatu beti hankak.

- Eta eskolara orduen esan dozu, maistrie zer zan txarra? maistrie txarra izen zan?

- Txarra ez zan izen, baia ikesi derrigor ein biher gero. Baia joder, joten hasten zani. Ta zu, berrogeta sei umeri maestra baten zoker ein ein biher, ta batzuk ba orduen gero eskolatik urtenda beste eskola batera eta eskolatik urtetan bazun ta bihera izeten zan. Ta batzuk gizon zatidzek, honako gizon zatidzek batzuk eskolan. Ta hainbeste domiñetako jo edo zeuzer ein ein biher, ostantzien maestrie bera jan ingo eben eta, ingo eben ez, ein ingo gendun.

1.6. Undako San Markos jaiak; letania

- **Hizlaria(k):** Mandaluniz Gorroño, Zeperino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-012/041
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:21:22. **Bukatu:** 01:22:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- **Laburpena:** Undako San Markos jaietan letania egoten zen. Sermoirako kanpoko fraidea ekartzen zen. Abadearen eta fraidearen bazkaria kofradiako denek ordaintzen zuten. Letania zer den azaltzen du.

Transkripzioa

- San Markosetan-eta zoker eitten zeuden zuek Unden?

- Bai.

- Ze eitten zan?

- San Markotan egoten zan letaiñie. Egoten zan mezie ta gero sermoie-eta eitteko kanpoko fraillie ekarten zan horra. Ta hak frailliek, abadiak-eta eitten eban orduen [...] egunien ipintzen otsien bezkarixe danena. Ta ha pagetan giñun kofradi guztidzek, hango gastue pagetan giñun danak. Hor sartzen gintzezan bat, sei zazpik, hamar, hamalau edo hamabost-edo sartzen zan. Frailliek pageu frailliena eta bezkari eta danak beti eitten zan.

- Eta letaiñie esan dozu ta espliketako dozu zer dan letaiñie?
- Nik entzune bakar-bakarrik. Ba letaiñie, letaiñie ba kantetan zerien urten
Iborrin eta zer artien. Zer artien etorri San Markora artien errezuek bidien
eindde. Hori izengo da, ez? Bai ba!

1.7. Bizkargi eguna

- **Hizlaria(k):** Ajuriagojeaskoa Loroño, Gregori
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-015/081
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 01:52:52. **Bukatu:** 01:55:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- **Laburpena:** Ariatzako Santa Kurtzeak beti antzekoak izan direla dio. Bizkargi eguna, maiatzaren 3an ospatzen da; egunean bertan joaten ziren, ez hurrengo domekan. Mezara joan ostean, Aita Kurtzearen gurutzean txantelak ematen zituzten herritarrek eramandako zahagitik ardoa debalde edateko. Letainia egoten zen ermitara arte, eta txantela heltzen zirenei ematen zieten.

Transkripzioa

- Hamen Ariatzako Santa Kurtzek-eta lehen zelakoak izeten zien?
- Santa Kurtzek oingo antzekoak lehen be. Bai, nik beti antzekoak ezetu dotaz /ezetutaz/ hemengoak hemengo Santa Kurtzek.
- Ta Bizkergikoak?
- Bizkergikoa Santa Kurtz egune, maietzan hirue.
- Bai, laster, hille bete barru. Eta gero hurrengo domekan be bai joaten ziñien?
- Ez, ez zan egoten. Hurrungo domekan egoten zala esaten eben, baia hurrungo domekan ez zan joaten.
- Maiatzien hiruen. Ta zer egoten zan Bizkergin? Bizkergin zer egoten zan han sasoi zu umie ziñenien?
- Ba erminttie dau han. Ta Aitte Kurtzekoa dau han Bizkergin.
- Ta zer, mezatara joan eta listo?
- Ba mezatara joan ta han kurtzien txakur zera txantelak emoten zittuezan eta gero herridxe zaragidxe eroaten eban ta haregaz txantelaz ardaue debalde.
- Ta zer zan hori txantela?
- Ba txantela emoten ban ba zelan hara kurtzera, letaiñie egoten zan, ta hara zelan allege egon garien letaiñien.
- Ta letaiñie nundik nora joaten zan ba?
- Letaiñie joaten zan: Besaizera urtetan eban ta gero Besaizetik gora hona Billaure, ta Billautik Kurtziatik Bizkergire.
- Eta han batzen ziñien ezta, Larrabetzukoak gaztiek, Zorrontzako gaztiek, Gorozikeko gaztiek?
- Bai, jente asko, jente asko joaten zan, asko, asko.
- Bai?
- Bai, asko joaten zan.
- Ta Muxiketik be asko?
- Danetik. Bizkergire, Bizkergi famosoan zan.

1.8. San Juan bezperako abestia

- **Hizlaria(k):** Ajuriagojeaskoa Loroño, Gregori
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-015/083
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 01:55:30. **Bukatu:** 01:56:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak
Aisia » Jai-giroa » San Juan
- **Laburpena:** San Juan suaren inguruan abestu egiten zuten: "San Juan bezpera gabien, abadiak hasarratu ziren..."

Transkripzioa

- San Juan suek bai etxien ein.
- Eta inguruen jantzan edo kanteu-edo eitten zenduen?
- Bai eitten zan.
"San Juan bezpera gabien
abadiak hasarratu zien
ez zebeu besterik egiten
alkarri musturrek heusitte."

Baia ez zebeu entzun gure izeten.

- Eta zer sorgiñek erretako edo izeten ei zan, ezta San Juan suek? sorgiñek erretako ta
- Bai. "Gure soloan suberik bez!" esaten gendun lehen lelengo lelengo, sugiek emoten oskuen /emoteskuen/ billurre ta, suberik bez.

1.9. Herriko istorioak, kontakizunak

- **Hizlaria(k):** Ajuriagojeaskoa Loroño, Gregori
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-015/091
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 02:00:11. **Bukatu:** 02:01:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Herriko gizon batek mozkor handiak harrapatzen zituen, eta bere emazteak tabernan sekula gehiago hankarik ez jartzeko esan zion. Gizonak kasu egin zion, tabernara joan zen, eta ardoa edan zuen hankak taberna kanpoan zituela.

Transkripzioa

- Mozkorra hartute otson /hartutetson/ andra bateri gizonak. Ta esan otsen baze: "gehidxau" esan otsen andriek etxera etor zanian: "gehidxau ez dozu tabernan hankarik ipingo" esan otson. Ta gero ba gizonak e hurrungo tabernara joan zanian ba tabernan hankarik ez ipintzeko esan otson ta hankak kanpoan diela baia ardaue edan biher.

- Suhia: Ta hori bestie jeusi zana basa artera ta bestiek "[...]" ez otson esan ba jeusi zanak? Basa artera jeusi zen legune.
- A bai. Mozkorragaz baserrire, basie dauen lekure jeusi. Ba bestie joan zanian ha be jeusi basa artera, ta ba: "joño! hor dxauk hemen" esan ei otsen bata bestieri. Ta "tapeu hadi tapeu" bestiek, basiegaz tapetako.
- Hori zer muxikarrak?
- Ez daitz nor izen zan.

1.10. Astoa kanpaiak jotzen

- **Hizlaria(k)**: Alegria Goiri, Fernando
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MUX-019/026
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 01:01:32. **Bukatu**: 01:04:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kanpaiak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena**: Gaztea zela, abadeari egin zion gaiztakeria kontatzen du: elizako kanpaietako sokak astoaren gurdari lotu zizkion. Berak ez daki zelan, baina abadeak jakin zuen bere astoa izan zela. Etxean hilabeteko zigorra jarri zioten.

Transkripzioa

- Bueno erronerixetakoak ba. Trastokeri batzuk-eta bai eiñikoak-eta bai bueno. Abadieri ein notsen nik hamen bat handitxue, handitxue ein notsen. Abadieri ya euko nittuzen hamasei-hamazazpi urte-edo holan. Hor kanposantu, torrien azpizen dauz sokak, kanpaien soka handixek dauz hor, ta akorde dxaten burdi-sokie eroan biher dotela /bitela/, burdixen honek burdixek amarretako azpigarrixegaz-eta horrek geuzekaz, kordel luziek egoten zien orduen, hogeta bost metro ingeruko sokak. Hartun etxeo sokie ta joan hara ta hareri amarre notsen, -erretire ein biherko dogu /biku/ hamendik-, amarre notsen kanpaien kanpa-sokari, ha burdixe, sokie. Ataa neuen kanpora, kanpora ataa neuen kanpora eta solo bat alboan, tabernien han baserri-etxie dau, haren atzien dau solo bat, bedarragaz, on be holantxe dau. Astoari amarreu ha sokie, ta astoa mobitzen zalez bedarra jotzen, kanpaie jotzen: "danba ta danba, ta danba ta danba". Ezkuteute ni, hor dator abadie, illuntzie e, illuntzie ya gaba gaba eitten, hor dator abadie nor dabillen ukusten, ta tunel moduen eitten harek entradie kanpa zerak-eta argixe botaten eban nor dan ukusten, ta klaro han iñor ez eban ukusten, sokak dabizela harantza edo honantza. Ta ez zan atrebiduten gehixau kanporantza urtetan, eta hor doa abadie hori billurregaz etxera ta nire astoa kanpak jotzen. Ta gero ein eban han egunien, partide bat denpora asko ein banien, solte neuen asto hori alboko zerekoa zan- ta, baserrikoa, solte neuen astoa hori ta ein neuen bakie, baia gero nor zan tope biher zan, nok ein eban hori. Nik ez daitz nundik edo handik, tope neue hille beteko bakaziñoak euki nittuzen etxien domekatan, hille osoa urten barik aittek kastigue emon osten, hamazapi urte-edo holan eukiko nittuzen.

1.11. Eskolan banderari musu eman behar

- **Hizlaria(k):** Etxeandia Etxeandia, Mari; Isasi Amuriza, Amaia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-026/010
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:17:38. **Bukatu:** 00:19:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
 - Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena:** Ez dute errepublika garaiko akordu askorik. Mariren aitita Gorozikako batzokiko nagusietako bat zen. Eskolan banderari musu eman behar izan zion eta eskuari eman zion Marik. Ez dute gogoan gurutzeak kendu zituztenik errezoak beti egiten zituzten-eta. Francoren argazkiak horman zutela, sarreran eskua altxatu eta abestu egin behar izaten zuten. Elizara sartu orduko ere elizpean abestu egin behar izaten zuten.

Transkripzioa

- Mari: Nik errepublikako akordurik ez dekot. Orduen, orduko akordue ez dakitz nik besterik adxuntamentue egon zan oin soziedadie dauen lekuen, ta gero batzokidxe egon zan ¡Maria bizi dan lekuen. Ta nik akordue gure aittitte zan izen zan batzokiko neusixetaiko bat, ta republikan akordurik ez dekot nik.

- Ez? ze eskolan kurtziek-eta kendu ebiezan...

- Oin baten bai, umiek izeneittik be, gure instintoa euki gendun. Eta emon oskuen zer bat, esplikaziño batzuk, ta orduen etor zien, oin ez naz akordetan, baia kanpoko batzuk. Ta banderie ekarri eben, oin ez dakitz zelako, oin por ahora ez dakitz, ta ha diskursoa ein nauenien nik librutik / esastien/ esan eustien ba banderieri mosue emoteko. Ta nik beti euki dot neurie, ta bakizu ze ein notsen? holan, hartu banderie ta eskueri mosue emon banderieri emon barik. Umie izeneittik. Oin ha igual izengo zan errepublikako banderie, nik ez dakitsut hori.

- Amaia: Franco hasi zanien, gerraostien.

- Mari: Gerra eurrien joan nitzen ni eskolara.

- Amaia: Bueno, zuk gerra eurrien be, ni lau urte gara, nik sei urte zuk hamar urte. Asko gehixau ez, ze sei urtegaz hasi eitten zintzen eskolara ta gero urten [...] bete orduko

- Mari: Ez dakitz zer izen zan hori bai akorduen, baia nik...

- Amaia: Ta gero Francon sasoi ba banderie. Ta eskue altxeu ta kanteu ta hala!

- Mari: Hareri banderieri mosue ez notsen emon, banderie bai hartu, baia neure eskueri emon mosue. Umiek izenaittik hantxe egoten da beren zertxue. Hori ez jast ahaztuten. Horixe ez.

- Amaia: Baia guk kurtzie beti eukin geñun eskolan e. Bai, guk bai, gure eskolan bai.

- Mari: Nik be ez dot ezetu kurtzie-eta kendu deuenik-eta, zer erreziek-eta eitten genduzen-ta.

- Tere (atzetik): ta Francok erretratue.

- Amaia: Bai hori bai, ta banderie ta hareri kanteu eskue [...].

- Mari: Guk ezetu dogu, ezetuko gendun, gurien be egongo zan Francon erretratue, nik itzi orduko eskolie egongo zan, ze hamalau urtegaz izten zendun eskolie.

1.12. Garizuma eta bekatuak

- **Hizlaria(k):** Etxeandia Etxeandia, Mari; Isasi Amuriza, Amaia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-026/012
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:22:04. **Bukatu:** 00:23:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Komulgatzera baraurik joan behar izaten zen. Konfesatzerakoan beldurrez egoten ziren, baina derrigorra zen. Dena kontatu behar izaten zen. Garizuman ez zen erromeriarik egoten, baina kanpoan egotea ere bekatu ei zen handik pasatzen zirenek sortarazi zitzaiketen pentsamenduengatik.

Transkripzioa

- Mari: Ta gero komulgetan joan orduko, bareurik, beti bareurik, komulgetan joan goizien, goizeko mezara joan ta komulgetako. Ya arratsaldien eta hori eitten dan moduen lehen pentseu bez. Bareurik joan biher izeten zan komuniñoa hartzeko. Ta gero konfesetan ariñau, billurretan, ze orduen konfesoriek be, dana izeten zan pekatu-ta, panteu iladan ta lantzien bat konfesionarixora kontuek kontetan abadiari.
- Ta zematero joaten ziñien konfesetan?
- Mari: Nik ez dekot akorduen, baia hillien baten-edo igual joango gintzezan gu orduen konfesetan.
- Amaia: Baten baiño gehixau igual. Komulgetan joateko konfese ein biher izeten zeñun lelengo-ta.
- Mari: Ta dana zan pekatu lehen-ta.
- Amaia: Jantzan ein dozule domekan, ba hurrungo domekan konfeseu ein biher kolmulgetako.
- Mari: Halan izen zan lehenau.
- Dana kontetan zenduen?
- Amaia: Ba karo baze.
- Mari: Dana.
- Amaia: Konfeseu ezkeru, konteu ein /bizu/ biher dozu.
- Mari: Preguntetan otsuen eta dana, gordetie pekatu izeten zan. Gure sasoiien halantxik izen zan. Barre eitten dozu Mari Sol? Halantxik izen zan gure sasoiien. Baia, erromerixera joaten gintzezan domeketan.
- Ta horrek be konteu, han eitten zienak.
- Mari: Ta baten /esaskun/ esan oskun ba, garizumen-ta ez gendun jantzarik eitten, ta egoten gintzen han solo munetan-ta jarritte ta itxaoten, abadiiek esaskun baten, han egotie be pekatue dala, ze han paseten danan pentsamendue pekatue dala. Lehen dana zan pekatu-ta.
- Amaia: Berentzat izengo zan pekatu han egotie, dauzenentzat ez.
- Mari: Oin be ez da eitten pekatu rik ta lehen ez zien egongo be.
- Amaia: Oin be pekatue pekatu izengo da. Lo ke pasa pekatutzat hartu ez duu eitten.

1.13. 12etan txapela kendu eta erreztatu

- **Hizlaria(k):** Irazabal Izundegi, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-028/004
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:07:10. **Bukatu:** 00:07:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Lehen soloan lanean zeudela, 12etako kanpaiak entzuterakoan, txapela kentzen zuten erreztatzeko.

Transkripzioa

- Ze danak biherrien dabiz, oin lehengo moduen ez da. Soloan jentie ta behixekaz-ta, ze ta hamabixek jo ta txapela kendu eta errezeu te eitten zeuezan zerien. Oin ez dau ez errezurik.

- Hamabixetan izeten zan?

- Antziñeko denporatan, zure aittitten denporan-ta, soloan ariekaz-ta ibiltzen zan, zuk ez dakizu oin arie zer da ze danak desaparezidu die-ta, ta hamabixek entzuten zienien eberdikoak, txapela kandu ta errezeu eitten zan. Soloan dauenak, bera bakarrik badau bakarrik, ta lagune badeko itteurrekoa-edo, ba orduen sasoien holantxik eitten zan, ni gaztie nittenien.

1.14. Eskolara eta gereziak ostutzera

- **Hizlaria(k):** Esturo Orue, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-037/005
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:08:31. **Bukatu:** 00:10:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Gorozikako eskolara bazkari eta guzti joaten ziren. Gereziak ostu ostan maistrak zigortu egiten zituzten. Maistrak ondo gogor jotzen zien.

Transkripzioa

- Ta gero bittu ba, hamen gu eskolara hametik, pentseizu, joaten gintzezan geure bezkarixue hartute egun guztireko Gorozikera. Ta kuadrillie joaten gintzezan. Hamen tunelien eoten zan ta eon zan etxetxu bet. Ta hor eoten zien beatzi, beatzi ala hamar? Ta hortxe bizi zien, gero! Ama handi bet euki eben, Maria; baia aitte, Pedro Txiki, juergiste bet, txikitxue. Ta harek be hametixik guaz jueten zien. Ta zemat biderrez: "badarozue bezkarixe?" gure amak. "Ez Juana". Ta zemat biderrez gure amak tortilletxue eindde ogi barruen sartute geuaz. Oin ez litzeke eingo holakorik. Ta gero Gorozikara joan han, ta bezkarixe jan biher izeten giñun, han jarritte-ta. Zelakuek umiek eitten dittuezan orduen sasoiene! Kerixe sasoiene-ta dana frutie etxien. Ta "Ene! Han goixen dau kerixe bat heldute. Honek bezkeitten dauezan arte, hantxe ein biher dogu /biou/guk, tripie bete biher dogu keixekin"-ta. Joan ta igual, zaratak atara-ta. Gero maistriai esan eta kastigaute. Zelako plametazakadoak eskuetan hartute. Ta oin jotzen

dittuezelako be hasarre. Ta gu? Eskuek be igual handittute. Ta etxera etorri te isilik, amari ezin ezer esan; ostien beste palize bat. Gu honantza, hona, bakizu, Pagai ta Maria-ta be, horrek be lau aizte zien. Ta danok gintzezan edade bardiñek. Bakizu, hor beste etxe bi dauz hamen gora. Hor be bai. Hainbeste. Neska-mutil juntetan gintzezan honantza.

1.15. Ur eta argi falta

- **Hizlaria(k):** Esturo Orue, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-037/015
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:33:27. **Bukatu:** 00:35:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena:** Telefonoa beti ezagutu du etxean, baina argia ezkondu ostean jarri zuten. Ordura arte petrolioa eta karburua erabiltzen zuten. Ur bila eta arropak garbitzera errekarara joaten ziren. Jaietan eta jendea etxean jende asko zegoenerako, sagardo kupelak betetzen zituzten urez.

Transkripzioa

- Argixe bakizu noz etorri zen? Oin, nire semie bai, jaixoteko dauela oniño. Ni ezkondu gero. Ta bakizu zeaz bizitzen zan? Karburo-ontzixe, kandelak, petrolioa...Ta orduen be bizi, bizi. Ta urik bez etxien. Hametik gora errekarara joan biher. Itturixe. Oin, danak etxien Eta halan ta guzti be.

- Errekie zer dau, hurre?

- Bai, hor hurtxuen dau.

- Danetan ganauentzako-ta eukiko zenduen zeozer?

- Ez. Ganaduek hara joaten zien edaten. Errekara. Erropak be errekarara. Beno, etxien jaboneu, ezta? Baia hara delabetan, ur ederra hor, etorten zan. Haraxe, hartu buruen-ta.

Bai. Jaixek, gero Gorozikakuek etorten zien ta beti, gurien jente asko. Beti. Nik ez dakit honek etxiek zer euki dauen baiña beti jente asko. Ta klaro ur asko biher izeten zan /bizetezan/. Ta bittu, gure aitte difuntuek horren barriek sidrienak, horren handixok, litroko zerak-eta, holako bi hartu burdixen errekarara joan, harek betetu zen honek hartu zen. Gero handik, ibili barik errekatik handik ha ure baldietan hartu ta etxien jaiexetan-ta zertzeko, usetako. Ta oin dana etxien ta...

1.16. Hildakoaren koltxoia erre

- **Hizlaria(k):** Esturo Orue, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-037/018
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:40:45. **Bukatu:** 00:41:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- **Laburpena:** Bere ama Arratiakoa zen eta hari entzundakoa kontatzen du. Etxean baten bat hiltzen zenean, haren koltxoia erre egiten zen.

Transkripzioa

- Ta beittu eizu zu, Arratixen lehenau usetan ei zen, gure amak kontaten osten: baten bat hiltten zanién, ezta? Etxekoren bat hiltten zanién, ba atara ha koltxoie ta erre. Zelako geuzek, ezta? Erre “ta zegaittik ama?” Nik ez daitz. Han haxe zera zan etxe guztixetan. Baten bat erreten zanién o hiltten zanién, atara koltxoie ta kapatxa [...]. Haxe.

- Hilnikoana?

- Bai. Ta gero barriro ba koltxoie barrixe telie zertu te kapatxaz bete.

1.17. Arto kapatxak erre

- **Hizlaria(k):** Esturo Orue, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** MUX-037/019
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:41:33. **Bukatu:** 00:42:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
- **Laburpena:** Amaren aldeko aititek, arto kapatxén barrualdea erretzen zuén.

Transkripzioa

- Gure aittitte Arratixekuak, gure amen aitte? Guk bakizu papelake fumetako zertzuk gordeten otsuzén? Kapatxak. Honek, arto-kapatxak. Barruen, ganién ez, baia barruen fin- fintxuek dekíez, ez? Ta harek fin- fintxuek kendu ta montaute ipini puntetxuek ebaitte-ta. Ta gure aittitte etortén zan Arratixetik: “Ta zer lobak, apartatu ostezue?”, “Bai”. Holako partidie eukittén gendun, kapatxue. Tabakue, haraxe erretén zeuén gero, e! Papel barik, harexaz. Kapa eta, Jesus! Artuén kapatxaz.

- Pipan edo zelan erretén eban?

- Ez, papelan moduén ein zera-ta. Ta beittu eizu.

1.18. Tabakoa ereiten

- **Hizlaria(k):** Esturo Orue, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** MUX-037/020
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:42:33. **Bukatu:** 00:44:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

- **Laburpena:** Gerraostean, tabakoa falta zela-eta, jende askok ereiten zuen tabakoa, baita bere aitak ere. Beste aldeko aititeri ematen zion tabakoa.

Transkripzioa

- Ta tabakoa erein ez zan eitten, hemen parajien?
- Bakizu noz ereitten zan? Gerraostien ez zan egon tabakorik. Geuk be erein geñuzen /ereindduzen/. Gure aittek ekarri euen. Ta upilakoak hartzen zien, holako orrizarrak-eta. Ta gero ha siketu, kamaran eukitzen zan. Ha birrin-birrin ein. Usiñe eukitzen ebanik, ez daitz. Ta gure aittek defuntuek, bere aittegiñerrebari Arratixera eruten otsen. Ze ez zan orduen estankorik. Dana zertu zen-ta. Ta gixajoa pozik, beren kapatxaz ta zerakin-ta. Beittu eizu. Ta gure aittek gero, zertu zaniñen, aitte: "Tabakoa ez, oin kapatxak ez, papela". Gixajoa, gero papelaz ez eban jakitten ondo zera zigarrue eitten. Gero, akostunbreu zan, baia. Ta gure aittek bakizu ba, irebazi eitten ebent-ta beti aittei eroaten otsen ardautxue ta zerak-eta. Tabakua barriz, horrek kartoiek gero urten euen; holako tamañozkoak. Halako kartoa bi zerien-ta. Ta lelengotaz amari esaten ei otsen: "Ai alabie, hori ez dakit, zuretzat hori elegantieixe da. Horrek, soloan-ta biher eitteko". Eske gure aitte majoa zen, altue ta zera-ta. Ta beti umore onaz. Ta gero aittegiñarreba, bakizu: suhiñek eroan eitten otsen jeneroa-ta tabakoa-ta hori ta bestie-ta. Enamoraute suhiñegaz.
- Mimeu eitten eban-ta?
- Gixajoa, sekulo holakorik zertu ez-ta. Baia gure amak esaten euen, eurek goserik behintzet eurenien ez ebela pasetan. Beti txarrixue ta zeziñe, txahaltxuren bat hiltten euela ta ba harexeaz jan. Bizi ta kittu!

1.19. Zugastietako ermita

- **Hizlaria(k):** Irazabal Ertzilla, Pablo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-044/040
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:52:07. **Bukatu:** 00:53:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eraikuntza erlijiosoak
- **Laburpena:** Zugastietako ermitan urtean behin-edo ematen zuten meza Gorozikako jaietako errepikapenetan. Maiatzeko loretan ere jendea bertan batzen zen. Gerraostean, jendea beldurrez joaten zen elizara derrigorrezkoa baitzen; joaten ez zena "rojo separatista" zela zioten.

Transkripzioa

- Zugastietako elizie ez zendun ezetu? ermittie?
- Ermittie bai. Ermitta txikitxue Zugastietan, bai.
- Martxan ezetu zenduen?
- Ba martxan ba hori, urtien baten eitten zan hor mezie, jaixek, osake Gorozikeko errepetizñoa-edo eitten zan eta gero ba ostantzien ez daitz lantzien meza bat edo egongo zan, bai, bai. Ta gero, han bertako batek be, errosarixoa maietzien be, maiatzeko lorak-eta, ta hara hara jentie ba joaten zan, batzen zan eta errezeu errosarixoa eta holan. Gusture ez asko, baia behintzet gerraosatien, joaten ez baziñen gorrixue, "rojo separatista"

deitzen otsuen eta orduen ba jentie joan eitten zan billurraz edo bestiaz. Ta han illuntzetan-ta han behintzet errosarixoa errezeu ta errezeu.

- Azkenien danak elizara.

- Bai, bai. Ordun indderra euki eban ordun eliziek oin dau mantsotxuau, baia orduen aginddu eitten bien, bai.

1.20. Okako ermita eta ingurua

- **Hizlaria(k):** Irazabal Ertzilla, Pablo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-044/042
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:54:13. **Bukatu:** 00:56:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena:** Okako ermitara, Edurretako Smaren ermitara, karmeldarrak joaten ziren sarritan. Pablok bertan egin zuen lehen jaunartzea bakar-bakarrik. Okako abadea don Julio zen. Ermita ondoan eskola zegoen gerra aurretik. Bertan ondoan dagoen etxeari "Txurixene" deitzen diote, Txoriona.

Transkripzioa

- Ta esan dozun Okan be ermittie egon zala.

- Okan ermittie bai, eta oin be bai, oin be badau.

- Eta han egoten zan zozer, mezarik jairik-edo?

- Okan honbre! Jai guztixetan eta mezie egoten zan. Honek karmelitten joaten zien hara mezie emoten. Han Okan antziñen nik lelengo jaunartzie be Okan ein nauen. Baia orduen egon zan abade bat Okako ermitten, abade bat. Orduen abadien-eta frankoauak egon zien eta abadie egon zan plantillakoa bertan. Bertako Okako abadie, don Julio. Eta han ein neuen nik lelengoko jaunartzie, Okan. Neuk bakarrik, Bai, lehen bakarrik izen zan, bai. Raroa, baia hori. Orduen ume asko egoten zien, baia niri bakarrik suerte jaten, bai.

- Eta ni ez naz egon sekule Okako ermittan, baiña ermittie zelakoa da?

- Ermitta txikitxu bet, zera Ama Birjiñe Edurretakoa amana, Ama Birjiñe da.

Eta alboan eukin eban eskolie, hor eskolie egoten zan gerra eurretik antziñen hor, eskolie eta abadie, eta bai inportantie zan. Gero, urek uridxolak eta be eroan bien zati bet eroan otsien /eroantsien/ eta ointxe ermittie dauela pentsetan dot eta baserrixe. Bera Txuridxene esaten otsien hareri etxieri izena Txuridxene bai, Txuridxene. Eta ha eta ermittie horrek oin be han dauz trokan han, han dauzela pentseten dot.

1.21. Sorginkerien jatorria

- **Hizlaria(k):** Sardui Enbeita, Deunoro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-049/002
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:01:19. **Bukatu:** 00:04:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak
- **Laburpena:** VIII. gizaldian, Amagoia izan zen Euskal Herriko sorginkerien eta sinesmenen buru; Amaia haren biloba zen. Amaiaren sasoian kristautasuna indartu zen. Elizak ermitak egin zituen edonon eta orduan hasi ziren ezkontzak, elizaren ospakizuna baita ezkontza. Herritarrak erromerietan batzen ziren eta gizon-emakumeak hantxe batzen ziren. Sorginkerien jatorria hortxe ei dago.

Transkripzioa

- Bueno zortzigarren gizaldixen, "siglo ocho", Amagoia egon zan hondiño Euskal Herrixen sorginkerixe edo orduko ohitturen buru. Eta haren loba bat izen zan Amaia. Ta orduen Amaia sartun zaniyen ya kristautasune ya sartute egoan. Ta honek arbolak-eta testigu ta honek geuzek, eliziek sartu zaniyen danak kendu bazen, baia danak. Eta ermittie hamen ein, ermittie han beste puntan, ermittie han eta lehen ohitturek horrek ohitturek egoten zien lekuen ermittie ipiñi eta elizatik paseu erain eta orduan hasi zien ezkontzak, elizakoak. Ezkontza da elizako sakramentu bet, eliziek ipiñi eban sakramentue edo eskarmentue, ez dakit, baia bardin dotso. Ta ariñau, egozan honek lekuek herrixe batzen zanak, herrixen jentie batzen zan, ba erromerixe eitteko, orduko instrumentuek, hor ikusi dogu txirula bat edo alboka soiñue edo instrumentu zaharrak, orduko sasoietaoak, eta harekin eitten zan erromerixe. Ta oingo aldien, oingo edo gure gazte denporako aldien, askatasun haundixe egoan ar-emiien artien. Erromeri askotara joan ta bata bestieri konbenziduten eben edozegaittik, edo edozelan-edo. "Ene, ba itxura poltte dekozu" edo "Berba politto eitten dozu" edo ha edo bestiegaittik. Ta hor eitten zien barrabaskerixek, ezta? Oin hori be ez da biher, ze nik dakittenez, "Zu beittu hori mutille, koño horrexeaz kapritxo bat ein biher dot /biot/". Joan, berari esan ta joan nonora, hala ein ta kittu,ezta? Ta hori horrenbeste bez, oin hori dau. Horrenbeste bez, baia nehiko askatasun handixe oingo aldien gure bizitzeko aldien. Ze gu nehiko gogor hartu ginttuezan jaixotzatik, gure gurosoak be bai. Ta hortik dator sorginkerixek-eta. Ez zien sorginkerixek. Jentie batzen zan lekuek. Ze horra be etorkoko zien Mendatatik, Albizetik, Muxiketik, inguruetatik domeka arratsaldien horra, erromerixera. Ta haixe izeten zan akelarrie, akelarre.

1.22. Gorozikako ipuina

- **Hizlaria(k):** Sardui Enbeita, Deunoro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-049/005
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:08:10. **Bukatu:** 00:08:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak
- **Laburpena:** Gorozikako auzoko ipuin bat kontaktzen du.

Transkripzioa

- Historidxe ez hil edo holan. Baia sorgintzet egozanak asko, asko. Goroziken be zelan da hori? Goroziketik batan bat ikesten-edo Zornotzara-edo ta goizien andra batek: "Estudiante, chula gorri". "Esaizonak Kaputxeri

hil dala Txirrimirri". Esakera bat. Kaputxe be sorgin moduen, bidera urten otsona be sorgin moduen eta Txirrimirri sorgiñe hil, beste andra bateri. Holako geuzak badauz, badauz, baia ez sorgin moduen esan gure dot / guot/.

1.23. Peru eta Marixen jatorria

- **Hizlaria(k):** Sardui Enbeita, Deunoro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-049/009
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:18:50. **Bukatu:** 00:21:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena:** Peru eta Marixen ipuin askotako pertsonaiak dira. Horien jatorria kontatzen du pasarte honetan.

Transkripzioa

- Bueno. Hori be bakizu gizaldixek zortzigarren gizaldixe baiño eurreraukoak die horrek. Barandiaranek-eta, arkeologoak, ta Luis Mitxelenak hizkuntza alderdittik batera ingeru zazpi mille urte ingeru hor egon ziela Peru eta Marixe. Hor zerera bidien, Santimamiñera bidien, estaziñotik gora igonda, Ajangizera bidien. Ointxe dabiz, barrero ipintteko hori. Hori neuri aginddu ostien, Barandianegaz ibillitte hortik, Jose Migeleaz. Ta Klaro, orduen sasoi Peru eta Marixe izen zien personaje bi gizona eta andrie izetie lez, gizon bat eta andra bat, ba izenak Peru eta Marixe ipinitte eta Marixek ez deko Ama Birjiñegaz zerikusirik Marixek izenak e! Marixe da andra bat nibel bajukoa esan gure deu eta Peru ba haren agintarixe-edo. Gizona eta andrie beherau orduen. Ordukoak die. Ta haren izenak askotan erabiltzen zien, edozetarako. "Hor doa Marixe bidietakoa" esaten zan igual, esaten eben neure amumak-eta be, erromerixetara eta beti neskatiillen bat beti eurretik-edo, eurrera xamar ibiltten bazan-edo: "Hor doa Marixe bidietakoa". Bidietakoa, etxetik urten eta erromerixera bidien. "Marixe beti ernegetan eta Peru argaldu" beste esakera bat, ezta? Holako esakerak asko dauz, tripe haundixeri be Poto, Poto izen ei zen lodixe. "Hor doa Poton buzkentza beti eurretik". Poto baiño eurrerau buzkentza beti. Ta eurretik ibiltzen bazan hara edo hona: "Hor doa Poton buzkentza" edonori, Poton buzkentza Poto baiño eurrerau. Holako esakerak herrixek baeukezan, bai, eta hortik dator Peru eta Marixen historitxue.

1.24. Lehen, ezkondu barik elkartu egiten ziren

- **Hizlaria(k):** Sardui Enbeita, Deunoro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-049/010
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:21:04. **Bukatu:** 00:22:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

- **Laburpena:** Peru eta Marixen ipuinagaz lotuta, Barandiaranek bertako leku batean ezkontzak egiten zirela esan zuen, baina Deunorok ez du uste horrela zenik, kristautasuna ezarri zenetik ezkontzak ermitetan egiten zirelako. Muxikako parrokia ere sasoi hartakoa da, duela 1100 urte ingurukoa. Galdutako hainbat ermita daude. Lehen, ezkondu barik elkartu egiten ziren.

Transkripzioa

- Gero hori erabili zen alkartziek-eta eitteko-ta. Barandiaranek ipintten deu horko Ajangizera bidekoagaittik be, hor eitten ziela ezkontzak eta tratuek. Ta nik ez dot siñestuten hor ezkontzarik eitten zanik. Ze elizie sartun zanién hona eta ermittek eta istorixek eta dana horrek danak kendu bazenien, hor ez zan eitten ezkontzarik, edo traturik. Ezkontzak ermittetan eitten zien eta elizetan. Eta Muxikeko eliziek be mille ta ehun ta piku urte dekoz, Muxikeko parrokixek be. Honexen ostetxuen, honek Peru eta Marixen eta honen atzetik. Hamen erminttie eta hamen Txakalen egon zan ermitte bat, Madaleniena eta beste bat Uspitzan (Usparitzan) San Isidro eta beste bat, beste asko egon zien! Oin galdute dauzenak be, berton-berton ingeruen. Horrek eitten hasi zienien ya akabeu zien Peru eta Marixe, sorgiñek ta horrek ezkontzak-eta eittie, ezkontzak ez, batzarrak eittie. Ta ezkondu barik elkartu eitten zien, elkartu. Gero etor zien anilloak-eta ipinttie eta istorixek eta horrek.

1.25. Abarkak ezkutatu eta zapatak jantzi

- **Hizlaria(k):** Susaeta Onaindia, Gloria

- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea

- **Erref:** MUX-051/012

- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:17:53. **Bukatu:** 00:20:22

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

- **Laburpena:** Erromerietarako ez zuten arropa berezirik; izan ere, ez zuten arropa askorik izaten. Abarkekin joaten ziren edonora, baina gero abarkak kendu eta zapatak jantzen zituzten; ezkutuan uzten zituzten etxerako bidean berriro jantzeko. Abarka-galtzak etxean egiten zituzten.

Transkripzioa

- Ze pentseten dozu? Erropa asko euki bez. Erropak garbittu ta siketu be patxadaz ein barik jantzitte joaten gintzezan gu, erropa askorik be ez gendun eukitten. Oin? ez diñotsut, nik baiño gehidxau makiñe batek eukiko dittu /eukikottu/, baia neuk be zein ipiñi be ez dot jakitten. Baia igual beti batzugin joaten naz.

- Ta oiñetakoak?

- Oiñetakoak. Lehen abarkakin, abarkakin Gorozoikera ta danera abarkakin. Eta bertan elidxién ondoan edo eskolien ondoan abarkak kendu eta zapatak jantzi. Bai. Bai. Ta Adxudxera be mezarara joaten gintzezan, hortidixik behetik gora, Adxudxera be, eta han itturidixe dau elidxie baiño beheratxuau ta hantxe mudetan genduzen oiñetakoak eta hantxe be

zapatak jantzi abarkak kendute.

- Eta nunun ezkuteu-edo?

- Bai, ezkuteu. Ezkuteu eitten genduzen han, baia iñok ez bazen ostuten eta ba!

- Eta abarkak narruzkoak edo gomazkoak?

- Gomazkoak. Erosikoak.

- Ein ez?

- Ez. Galtzetin zuritxuekin eta politto joaten gintzezan, baina hantxe kendu.

- Eta galtzak ez zenduezan eitten?

- Baia lehen etxien bai lehen. Lehen bai. Edurne be, aitzie, bizi zen gugaz ezkondu artien eta harek be ezkondu eta gero be eitten bazen. Lau orratzaz ein galtzak eta hala jantzi ta ibili!

- Eta haridxe-eta zelan eitten eban?

- Haridxe ein eitten eben ardi-laniegaz ta ein eitten eben ostantzien be ein eitten eben ta haridxe egoten zan. Haridxe.

- Eta mutillek be kanbidxetan biezana oiñetakoak?

- Mutillek be bardin. Edo botak edo eroaten ez babezan narruzkoak edo holako botak eroaten ez babezan bai, bai. Guk esan doguzen berbak hor hartuko bazen.

1.26. Bismu, azala zuritzekoa

- **Hizlaria(k)**: Susaeta Onaindia, Gloria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MUX-051/013
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:20:22. **Bukatu**: 00:21:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Apaintzea
- **Laburpena**: Soloan beharrean aritzen zirenez, azala belzten zitzaien, baina beraiek azala zuritzekoa ematen zuten, Bismu deiturikoa. Bernatako ileak ere kentzen zituzten. Ilea-apaindegira joateko joerarik ere ez zuten.

Transkripzioa

- Ta pintxeu-edo?

- Orduntxe oin baiño gehidxau. Oin bapez ez dot eitten, baia lehen?

Morena gu han soloan-ta ibilte, baltz-baltz. Ta bakit "Bisnu" izena dekona, holan zuritzekoa halakodxie emoten gendun arpeidxen zuritteko.

Holakorik!

- Ezpanak-eta.

- Ezpanak bai ta ez, ezpanak bai ta ez.

- Ta zuridxe zan politte-edo?

- Bai zuridxe politte orduen, ta oin baltza politte, ta baltzak makiñe bat dauz.

- Ta bernatako ulak-edo kentzen zien?

- Bai, bai. Bernetako ulek eta zera kaminilliegaz edo zereaz.

- Aitteri kendu-edo...

- Holakodxiekin Nerea, oin ez dau holakorik.

- Ta pelukerire-eta joaten ziñien? holan orrazteko-ta edo?

- Keba! ein txori bet-edo ta hala! Lotute ondo.

2. Familia eta harremanak

2.1. Eskola garaiko olgetak

- **Hizlaria(k):** Duñabeitia Gandarias, Ricardo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-007/008
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:08:20. **Bukatu:** 00:09:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Zertara olgetan zuten azaltzen du: intxaurrekin, txopinke, arineketan... Neskak eta mutilak elkarrekin jolasten ziren. Tabaka neskak baino ez ziren aritzen.

Transkripzioa

- Zetan olgetan zenden? Gogoratzen zara? Akorduen dekozu?
- Ba hamen danak. Intxaurren sasoie zanienez, ipiñi intxaurrek ta bat erdidixen ta ha erdikoa ataten bazendun, dnak intxaurrek guztidixek noberantzako. Horrek bai. Txopinke ta zerien ariñeketan eta horrek, holakoxiek.
- Zelan esan dozu?
- Txopinke! Txopinke esaten dxakon, bata bestieri ikutu eta ariñeketan haixe harrapetan-ta, ba holakoxiek, holakoxe geuzak eitten zien. Bai.
- Eta neskak eta mutillek danok batera?
- Bai, bai, bai, han danak batera ibiltzen zien; han ez zeuen problemarik, neskak eta mutillek danak batera.
- Orduen intxurrekaz, txopinke...
- Danak.
- Zer gehidixau ibiltzen ziñien? Holan beste jokorik, tabakaz-eta ez ziñien ibiltzen?
- Bai, tabaka be ibiltzen zien, baia gu mutillok ez e! neskak ibiltzen zien, ipiñi zerak eta... Baia tabak eukitzeko lehelengo artxoa nunundik zuzendu bi(her) zen, artxoa. Ha artxoa jan eta gero beste batek emonikue badan harek tabak, harexek, danataixik. Holakoxe geuzak.
- Taban jokue zelakoa izeten zan, bakizu?
- Hori neskak ibiltzen zien eta hori ikusi bai baia zerak zelako jugadie eitte ben ezin, hori ezin nittuen esplikeu ta, danataixik.

2.2. "Tokadak"

- **Hizlaria(k):** San Anton Baraiazarra, Basilio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-008/014
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:17:06. **Bukatu:** 00:17:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kanpaiak

- **Laburpena:** Jendea hildakoan "tokadak" jotzen ziren, kanpaiak. Etxeren bat erretzen zenean denak batzen ziren laguntzeko prest; etxe errearena batzen zuten, diruz laguntzeko.

Transkripzioa

- Lehen kanpaiak, geur egun kanpai danak die bardiñek.
- Bai, baia hiltzen zaniene bat tokadak esaten dxakon hamen, tokadak, tokadak, kanpaiak jotene zien, dra-dra-dra-dra. "Ene ze paseu ete da?" ta ensegida danak enteretan zien. "Zer?" eta "Fulano hil da", kanpaiak jotene zien lehen, oin ez die jotene hemen be.
- Baiña ez zenduen diferentzidxetan kanpai kopurue andrazkoa izene, gizonexkoa izene?
- Ez, ez, ez gendun...
- Ta etxe bat edo baso bat-edo erretan bazan?
- Bo, etxe bat erretan bazan ba gero etxe erriena batzen lagun bi. Hantxe batzen zan dirue.
- Emaztea: etxie erretan bazan, suek urtetan ebanien kanpaiak.
- Kanpaiak.
- Bai hori.
- Kanpaiak jotene zien.
- Gogor.
- Gogor. Ensegida jente dana batzen zan, ensegida jente dana batzen zan.

2.3. Dokumentatu barik zegoelako kartzelara

- **Hizlaria(k):** Martitegi Iturrioz, Felipe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiorea, Nerea
- **Erref:** MUX-023/007
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:11:50. **Bukatu:** 00:13:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiorea, Nerea
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Kantabriako Ampuero herrian morroi lanetan zebilela, milizianoek dokumentuak eskatu zizkieten, baina 16 urte zituen ez zuen dokumenturik. Hori dela-eta, Santoñako kartzelara eraman zuten. Santanderreko Sardinero egon zen Eusko Jaurlaritzako egoitza eta bertara joan zen dokumentu bila.

Transkripzioa

- Etor zien milizianuek eta: "aber, dokumentuek!". Dokumentuek ta dokumentuek beti "hamasei urte" esaten netsien, baia hamazazpi ya eitteko edo holan egon nitzen, Ampuero egon gintzezanien, ta: "aber dokumentue", ta ez dekotela dokumenturik, eta ez noala zertuten. Ta "bueno pues, a la carcel!", Santoñara. Hartu behixekaz nauen lekuen kortan ta Santoñara, kartzelara. Santoñan be nik haixe, eurrera segidu ta gero Santoñatik zertun Gobierno Vasco egon zan Madrilene, edo Sardiñerone, ba Santanderren Gobierno Vasco, ta joan nitzen Gobierno Vascore Santanderre, ta ataa gendun dokumentaziñoa Gobierno Vascon. Esan ban baze: "ez solte hau eskuetatik" /esasten/ esan osten [...], ta [...] bakotzien eskatzen otsien dokumentaziñoa, ta dokumentaziñoa erakutsi ta horrek danak, ta erakutsi ta: "pasa, pasa, pasa, pasa, pasa". ta apur bet

lagunek eindre eukin geñuzen, bai neska ta bai mutil, koadrillie juergan ibiltzen gintzezan-ta. Ta lagunek danak euki nittun estaziñoan itxeroten, Sardiñeretik etorritte, estaziñoan itxeroten, upilako rezibimientue /eistien/ ein eustien ta bueno horretara bagauz.

2.4. Umetako gaiztakeriak

- **Hizlaria(k):** Esturo Orue, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-037/006
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:10:43. **Bukatu:** 00:13:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Eskolatik etxerako bidean, Urrieldutik pasatzerakoan, madariak ostu zituztenekoa kontaktzen du. Etxe horretakoa neska zaharra zen eta beraietako baten "Neskazaharrak joaten dira" abestia kantatu zion. Maistrak bazkaldu barik zigortu zituen. Umetan beti aritzen ziren mutilekin borrokan. Egiarte baserriaren atzean batzen ziren.

Transkripzioa

- Ta beste bat be konteuko dotsut. Bagatoz hortik paseuetatik eta Goroziken, paseu honantza apurtxu bet ta pielako madarixek. Ta bizi zien han Urrieldun, Goroziketik han, Urrieldun zerien, neskazahar bat eta beno, matrimoniño edadeko bat orduen. Ta beste neskazahar bat euki eben Markiñetik etorritte, ba andrien aitzie. Berori gizona zan horkoa. Ta andrien aitzie-ta, gu haraxe ba madarixek hartzen ta gixajoa, edadekoa-ta zarataka handik goittik. Eta "handik ha etorri orduko guk boltsak beterik dekuz". Ze bakizu boltsak lehen telaskotxuek eindre, geure bezkaritxue eroateko. "Ba guk beteko doguz /betekuz/". "Ointxe noa neu eskillariaz". Gizajue eskillariaz etorri zanerako, gu hamen bestekaldien planteute madari jaten. Ta haren koiñetie, neskazahar batek, badiño: "Neuk esango dotset maistriari ta ez daitx zer"-ta. Gero [...], hamengo beheko neska batek, badiñotso kantaute: "Neskazaharrak joaten dia Madalenara, Madalenara , Madalenara, santuari eskatzen nobio debana, nobio debana, santuek esaten dotso: oin bapere ez, oin bapere ez, zegaittik akordau ez ariñago".

Ta ez dakit zelako kantak-eta. Badoa maistrana, esaten dotse maistriari, egun osoa kastigeute, ez jan ez ezebe barik euki gaittuzen maistriek zu. Ta zelako palizie emonda!

- Hurrengoan be bardin egingo zenduen?

- Bardin-bardin, bardin-bardin. Ta beti mutilekin burruke. Pentseizu, Goroziketik etorten zien mutilek, hona Egixartera. Eonda zauz Egixarten? Felipen-ta etxien atzien eoten zan larrin bet, haraxe. Ez hasarretu ez ezer. Gorozikeko mutilek etorten zien, karterak itxi beheien, jo ta su burruke geuk. Ni ta hemen goixen beste Juanita bat, nire izendune? Guk haustu eitten genduzen danak. Hango orroiak, hango negarrak! Gorozikara joaten zien barriro. Baia gure sasoi jo! diferentie zan. Ni akordeten naz, Jesus!

2.5. Artilezko eta kapatxazko sehaskak

- **Hizlaria(k):** Esturo Orue, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-037/017
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:38:50. **Bukatu:** 00:40:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- **Laburpena:** Umeen sehaskak ere artilezkoak ziren. Lehenago, bere amonak-eta kapatxarekin egiten zituzten. Bere ama bertara ezkondu zenean ekarri zituen artilezko koltxoiak.

Transkripzioa

- Ta koltxoiak esan dozu, lanazkoak. Eta kunak-eta umienak zelakoak izeten zien?

- Guk, geure sasoiak zera, zerakin, laniaz be bai. Ta lehenau-lehenau ba, gure amumak Arratixen, kapatxaz. Bakizu kapatxa zer dan? Artuen hori, ez dakizu, artaburue?

- Bai, bai.

- Harexaz eindde. Bai. Hamen euzuen, hamen Pagaixen Marin-ta hamen hori etxie, oin zera eindde dauena, ez dakizu? Casa Ruralako... Ba, hor be, zer bi, bizi...Bai, bibienda bi zien. Ta hor be, ba, nire lagune zan-ta: hor be, zu, kapatxa. Ta bakizu hango mutille, hondiño, ontsu hil zen, karrerarik baikue zan ha. Ta hona etortzen jaten gixajoa, ha be bakarrik, erdi...: "Juanita banator". Beti be, etortzen zan, neu bazkarixe jan ta ba, "café con leche" hartzen nauela-edo ta. Ba, mutilloi etorri ezkerro, personie, nik ez dot balixo ezer emon barik, geratzeko-ta. Ba, "café con leche" hartu te euzkittera urtetzen gendun. Harei be lehenako kontuek kontetie gusteten jakon. Ta "guk be ein duuzen! Hiruk, lo ein biher ta kapatxaz zera". Ta lelen joaten zana, sartu zonan barrure ta bestiek ganien. Nik ez jakiñat / etxakiñat/, itto zelan ez gintzenan eitten orduen. Orduen dana kapatxa. Gure ama hona etorri zanien, ekarri zittuzen lanazko zerak, koltxoiak. Ostien, hamen dana kapatxa.

2.6. 1901. urtean Ajurian jaioa eta bizitakoa

- **Hizlaria(k):** Juaristi Alberdi, Isidro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zelaieta Gerediaga, Luis Mari
- **Erref:** MUX-042/002
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:00:45. **Bukatu:** 00:03:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** 1901. urteko San Isidro egunean jaio zen. Jubilatut ostean joan zen Zornotzara bizitzera. Ibarruriko Ajuria auzoko Antxustietan baserrian jaio zen. Bere emaztea Gerrikaitzekoa zen. Bere aita Gerrikaitzeko Anbre auzokoa zen eta ama Mallabikoa.

Transkripzioa

- Zein dan zure izena eta apellidu bixek.
- Isidro Juaristi Alberdi.
- Isidro Juaristi Alberdi. Eta noiz jaixoa zara zu, zein urtetan?
- "Mil nobezientos uno"an maietzien hamabosgarren, goizeko seiretan.
- Edarto. Osake, milla bederatzirehun eta batien jaixoa zara zu.
- "Veinti uno"ko kinttoa.
- Eta oin nun bizi zara?
- Ni hamentxe, trabesian Otaegi. "Calle Otaegi", hortxe paso a nibelen ondoan, pelukerixe deukogu kanto-kantoiien han, "Hermanas Juaristis" pelukerixe, errotulua fijetan bazara, hantxe primer pisoan, lelengoko pisuen.
- Eta nun jaidxoa zara zu? Nun jaidxoa?
- Ni "Aidxuridxen" (Ajuria) Antxustieta etxiek izena.
- Ajuria.
- Ajurias, baia erderaz da "Ajurias", "Aidxuridxe" euskeraz. Ibarruriko barriadie.
- Ibarrurikoa zara zu orduen, jaidxotez.
- Jaidxottez Ibarrurikoa, baia "Barrio Ajurias".
- Eta zure emaztie nungoa da jaidxottez.
- Gerrikaizkoa. Arbazegi-Gerrikaitz.
- Arbaizegi-Gerrikaizkoa.
- Eta zure aitte nun jaidxoa da?
- Nire aitte Zabalien, Ambre baiño harantzatuau, Zabale esaten otsien kaserioan, etxien.
- Zein herrixen edo zein barridxotan?
- Ba Gerrikaitzen.
- Gerrikaizten, Gerrikaizkoa da zure aitte. Ta zure ama?
- Nire ama Mallubikoa.
- Mallubikoa, edo Mallabi. Zelan...
- Mallabi, Mallabi eta "Madxebi". Erminttie San Juan deko eurrien, etxe esan gure dot /quot/ afanekoa, San Martin Mallabin.
- Ta bueno zu Zornotzara bizitten zemat denpora daroazu Zornotzan bizitten?
- Hogeta lau urte ontxe zemendidxen paseuko diez. Ontxe oktubrien, nobienbrien.
- Osake, hogeit ta lau urte Zornotzan herridxen bertan bizitzen daroazuz. Eta Zornotzar bizitten etorri aurretik nun bizi ziñen?
- Hantxe! Ibarrurin.
- Ibarrurin denpora guztixen.
- Hiruroge ta bi urtien.
- Hiruroge ta bi urtien Ibarrurin. Ta oin ya hogeta lau urte Zornotzan bertan.

3. Politika

3.1. Etxetik irten beharra

- **Hizlaria(k)**: Duñabeitia Gandarias, Ricardo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MUX-007/013
- **Iraupena**: 0:03:36. **Hasi**: 00:10:40. **Bukatu**: 00:14:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea

- **Gaia(k):**

Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

- **Laburpena:** Frontea etorri zenean, amagaz batera, bera eta auzoko batzuk Ariatzarantz bajatu ziren eta handik Okara joan ziren, Okako Arandian; Muxikarako bidea zarratuta zegoen. 8 bat egun egin zituzten bertan. Etxetik derrigorrean egin behar izan zuten alde; auzoko beste askok ere alde egin behar izan zuten. Etxera bueltatzerakoan, mantak eta balak baino ez zituzten aurkitu; ez zegoen ezer. gero auzoko beste etxe batean ere egon ziren.

Transkripzioa

- Ta frentie nun egon zan hamen ba?

- Hortik etorri zien eta gu kanpora atar genduzan. Hortik ziher joan giñen Aritzara. Aritzara, Aritza jun horrek be bai zerera, baia horrek hartu eben Muxikerantza ta g u joan giñen, ama difuntie ta bixok, ta hamengoak Joxepan amagiñarreba ta gizona, lñaxio difuntue ta beste bat be bai anaixie, Anizeto, harek gu etor giñen zerera, Okara. Guri zarratu ein oskuen, horrek paseu zien, ta horrek gu Okara aginddu oskuen Muxike hartu ebenien, ta horrek justo basorantza. Haixe. Gero Okan egon giñen Arandianien egon giñen, han ein gendun guk, igual zortzi egun eiñ . Behi bi guk, behi bi euki genduzen, ta behidxeekin gero hona sartu zienien, behidxeekin etorri giñen hona, ta istoridxe itzela. Gero hamen egon giñen. Etzien hamen ez eben ein ezer, manta zahar batzuk ta balak baiño ez zeuen hamen besterik, ezer ez zeuen. Txakurre ikusten ei zen hor goiko bentanan ta txakurrik be ez zeuen, txakurre hil edo zozer eingo ben. Danataixik. Gero honantza etorri giñen baiña dana zeuen, danak zertute euezan hamen.

- Orduen etzera sartu jatzuezan.

- Etxetik atara ein genduezan gu. Zerak asturianuek -edo, hortik Urrutxutik bezperan etor zien hona ta hamen harrapetan ben konejue, ollue ta danak ta zerien. Gure ama, ama difuntie, hamen zerak emoten, esnie ta zerak emoten, ta benga bidxamonien: "Benga kanpora!, kanpora urten gure ez bazue afusilleu ta...", ta behidxok-eta solte biezan hor kortan, hortik ziher zerera Aritzara gu paseu giñen. Ta historiala haidxe.

- Ta Aritzan nun egon ziñien ba?

- Aritzan egon paseu ein giñen, guk Aritzara urten ein gendun. Gero Aritzatik Okara paseu genduzan gu, ta horrek gero Muxikera jun zien, bota bezan ta horrek be paseu zien Muxiken ha zarratu, ta gu baiño ariñau zertu zien horrek kontizu, eta zerien eta gu Okara. Haidxe, haidxe historiala.

- Ta Okan etzeren baten-edo egon ziñien?

- Bai, Arandianien egon giñen. Arandianien han egon giñen gu; gu ez bakarrik, Aixuxe (Ajuria) aldeko zerak be bai Isidro ta horrek Patxiko eta horrek... Zuk e... horrek danak hara juenda billurregaz hamendik, Aixuxetik hara Okara junda egon zien.

- Ta zu zure amagaz bakarrik?

- Ama ta honek auzokoak be bai. Lehen esan otsutana, Xixili ta Benanzio difuntue ta Anizeto difuntue eta horrek danok gu gu alkarregaz egon giñen Okan. Mobidie dana, pasilloatan-ta koltxoiek botata-eta, guk egunek ein genduzen Okan be.

- Orduen asturianuek egon ziren hemen?

- Asturianuek egon hamen, asturianuek atara ei bezan hamendik zerera, hora Bizkergi aldera edo horra atara ebezan . Hemen gero reketiek sartu zienien, hamengo tio difuntue etor jakun guri, Gizitzakoa, hona etor diela eta oin pase in iziela gora eta gu atzera etorri ein giñen hona gora, bai.

Gero hor auzo auzoan, auzokoak ez zebiezan erun danak, harek ez zebezan atara, ta harekin egon giñen gu ostabe, han panteute. Hori historiala.

3.2. Gorriak Askarin

- **Hizlaria(k):** Duñabeitia Gandarias, Ricardo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-007/016
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:16:38. **Bukatu:** 00:18:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Okatik gora, beraien auzora igotzerakoan, Askari menditik tiroak jasotzen zituzten; gorriak zeuden bertan. Gauetan Ajuriarantz erasotzen zuten, beraien balkoitik ikusten zuten. Askaritik Oka bajatu eta Bizkargira igotzen ziren; erasoaldia gauez izaten zen. Ajuriako eliza gorpuz beteta dagoela zioten lehengoek. Egunez abioak ere ibiltzen ziren.

Transkripzioa

- Baiña Askaritik orduen be tiroak botaten oskuezan guri, ze han gorridxek euezan han Askarin. Ta harek tiroak botaten ebezan, ze behidxen adarrak guk bat ta amantalak ta ama difuntie amantala botata-ta ikusi ez dizen baiña harek, han ezeunek egongo zien. Ostantzien gu hilko genduezan ze harek bazkidxen gu handik gatzela ta, gu behi bi ta gu ba sei lagun, e bost: harek hiru ta gu ama difuntie ta ni bi, bost etorri giñen.

- Orduen Askarin egon zien gorridxek.

- Askarin gorridxek egon zien.

- Ta asturianuek berton?

- Ez, orduen hemen reketiek euezan. Reketiek euezan hamen baiña han gorridxek. Handik, handik gabetan urteten ben zerera hona, fuego eitten ben Aixuxerantza (Ajuriarantza), hor bazterrok, gabetan guk hametik balkoatik ikusten genduzen, hor urrera ataten bien zera, sue ataten ben. Ostabe gabaz urteten ben hona gora Okatik, ta ostabe bidxamonien han goittik behera Bizkargirantza atate ben.

- Nundik goittik behera esan dozu?

- Okatik, Askarittik behera, Okara behera, ta handik ganera gora urtete ben ostabe defenditako ostabe, ta gabetan kontratakie emoten (zo)tsien, hor Askarittik emote (zo)tsien. Hor esaten eben elizie be beteta dauela hilekin, esaten eben hor.

- A bai? Nungo elizie?

- Aixuxekoa (Ajuriakoa). Hor fuego ataten ben gabetan; gabetan urteten ben handik Okatik gora, ta Aixuxen bestiek defendidu eitten zien mendidxen ta ha mendidxe eukikeran bestiek fuego eitten ben, gorridxek. Bai, hor luzero ibil zien.

- Luzero?

- Bai. Hor denporie ein ben. Abioiekin etorte zien ta abioiekin zertzen biezan harek, abioiek bai.

3.3. Etxeko balkoitik eraso askoren lekuko; Lemoatxako erasoak

- **Hizlaria(k):** Duñabeitia Gandarias, Ricardo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-007/018
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:18:57. **Bukatu:** 00:19:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Askariko zein Bizkargiko erasoez gain, Lemoatxako erasoak ere ikusten zituzten etxeko balkoitik. Lagun asko hil ziren bertan.

Transkripzioa

- Eta esan dozu Askaritik Okara bajatzen ziela eta gero Bizkergire.
- Bai defenditako hara altxeten ben ostabe harek. Baia ostabe gabetan zertzen zien, ta ostabe gabetan jote eben harek kontratakie. Aixuxen (Ajurian) hor hor leuetan, hor gabaz ataten eben egur hotsa ataten eben. Hor eta zerien be bai guk, hamen Lemoatxien be bai; Lemoatxekoak be guk edarto ikusten genduzen ama difuntiek eta bixok gabetan hortik balkoatik. Lemoatxien be bueno gabetan! Bua! Ataraten ben...
- Lemoatxe esan dozu?
- Bai. Lemoatxekoa. Hamendik ondo ikusten zan, oin piñuegaz-eta tapeta egongo da. Lemoatxe bakizu nun dauen?
- Ez, ez daitz nun dauen.
- Ba Lemoatxe, Lemoan goiko alderdittik.
- A Lemoa herrixen, bale bale.
- Ba handixik.
- Pentseu dot lekuren bat dala Askari ta honek...
- Han be lagunetan hil bi(her) zen ban. Lagunetan jesus! Kantidadiek hil bi(her) zeban han be.

3.4. Auzoan fusilatutakoak

- **Hizlaria(k):** Duñabeitia Gandarias, Ricardo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-007/019
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:19:56. **Bukatu:** 00:21:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena:** Gerra garaian, auzoan bertan ere hil zuten jendea: "kamiñero" bat eta bere osabaren anaia bat aipatzen ditu; horietako bat non fusilatu zuten ere azaltzen du.

Transkripzioa

- Hemen bertoko jentie-edo hil bien? Esan dozu hor Askarin egoten ziela ta tiroka...
- Bai. Hemen bertokuek be hil biezan. Horrek zeren-ta aitte ta be hil ben zerak gorridxek hil ben, zerak honek zerena ta, Begoña, Begoña maistrie-ta?

- Bai.

- Bai, Solaegiña. Horren aitte be zeren dauela hil ben, zeren kantellan ezkuteute. Bai ha zera zan, kamiñerue zan ha. Ta ha txapel gorridxegaz ibiltzen zien orduen kamiñeruek kontizu, ta ha be hil ben.

- Gorridxek hil bien?

- Bai, gorridxek, gorridxek hil ben ha, bai gorridxek. Ta beste bat hamengo zera be bai, ha Posuaundin egon zegaz, hamengo Izebalkoa zana, honen zeren-ta, Juan Kruzen-ta, Juan Kruz difuntuen-ta aitten anaidxie.

- Juan Kruz, zuen lehengusue?

- Bai, Gizitzakuena! Ta haren aitten anaidxie, ha be zeren zertute, ez daitz ba, olloak harrapetan-edo zeren ta, ha aittek be badaki hori! Han landien beheko alderdire eruen hara, kamiñoan hegaleko zerera, ta han han zertu ben hil ben.

- Fusileu ben.

- Bai. Gorridxek e, gorridxek!

- Nungo kamiñoko beheko aldetik?

- Han, han harek sagarrak badauz ba? Posuaundiko zeren, Goikoerrotta partetik goiko ganeko alderdidxen sagarrak-eta?

- Bai.

- Han mailak egon zien, oin ya ez dau mailarik eta baia mailak egon zien eta han han aldien nunun hil ben seguru.

- Posuaunditik...

- Bajatu hara ta han. Horrek aittek badakiz!

- Neure etze ondoan orduen?

- Bai, zuek etze ondoan. Behintzet handik goittik behera bajatu beheraiño ta...

3.5. Amaiur batailoiko Arrasate konpainiako gudaria

- **Hizlaria(k)**: Mandaluniz Gorroño, Zeperino
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MUX-012/006
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:11:12. **Bukatu**: 00:12:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Barakaldon Langileen Batailoietara eraman zituzten trintxerak egiteko. Hantxe bertan osotu eta altxatu zituzten frontera kintak. 15 egun baino lehenago, fusila lepoan hartuta, Bizkargira joan ziren. Bizkargiko frontea gogorra izan zen, baina gogorragoak beste asko. Sollubetik Artxandara joan ziren gero. Batailoi guztiak euskaldunak ziren, beraiena Amaiur batailoiko Arrasate konpainia.

Transkripzioa

- Eta esan dozu hasikeran Barakaldora joan ziñiela eta gero "trabajadores"etara eroan otsuela. Zer zan hori?

- Trintxeragiñen, trintxeragiñen frenterako. Frentietarako trintxerak eitten.

- Eta zenbat denpora egon ziñen han?

- Denpora gitxi, ze kinttak diar ein gaittuen derrepente-ta. Barrero kinttek. Ta kinttak altxeu ta eskolapiosta Bilbora. Eskolapidxuetan ez geñun ein hamabost egun Bizkergiko frentera, fusil handidxe emon lepora-ta.

- Ta zelakoa izen zan Bizkergiko frentie?

- Gogorra. Bueno horren aldien gogorra Teruel eta horrek! Bai horrek bastante gogorra. Gero hortik zerera, Sollubera. Sollubetik Artxandara. Artxanda be Artxanda gogorra. Ze bonba! ba!

- Euskeldun asko egongo ziñien.

- Bai gure batailloiek danak euskaldunek zien-ta. Batailloa gurie euskaldunek zien danak.

- Zein batailloi zan zurie?

- "Batallón Amaiur, Compañía Arrasate". Akorduen dekot oin be.

3.6. Anaiak anaien kontra

- **Hizlaria(k)**: Mandaluniz Gorroño, Zeperino
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MUX-012/013
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:25:05. **Bukatu**: 00:27:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Seguru asko anaiak anaien kontra aritu zirela dio, ezin jakin. Horrelako kasu asko egon ziren, bando ezberdinetan egoten baitziren. Tiroka zabiltzanean, ez dakizu nor jo edo nor hil dezakezun. Zeperinok ez zuen senitartekorik galdu, lehengusua larri zauritu zuten, baina aurrera atera zen.

Transkripzioa

- Eta iñoz ez jatzu paseu zure anaixan baten kontra edo famelikoren baten kontra edo edo ibilttie?

- A hori eingo genduzan, alderdi bixetatik ibilli gintzezan eta ein ein biher hori. Ibiliko gintzake. Zenbat ibilko zien? Zematek hil eta deu anaixak anaixatara, anaixak anaixatara be igual jakin ez eta tiro-tiroka. Ze bata batetik eta bestie bestetik, han nor hiltzen dan iñoz ez daki, edo nok bota dauen tiroa, edo nun dauen bez.

- Nortzuk dienik barik.

- Klaro, klaro. Ze frente bat hemen dekezu, bestie hamendiko etxien dekezu, eta tiroka zabiz hamendik trintxeran handik trintxeran eta zuk ez dakizu hametik botata nor hiltzen dozun edo iñoz hiltzen badan, joten bozun bez.

- Karo ezin jakin.

- Karo, anaixak anaixetara asko horretara, asko. Asko. Anaixak anaixatara be hilko zien, jakin ez, ze bixek dabizenak...

- Ta zuk famelikorik ez zenduen galdu?

- Ez. Baliaz jo bai, baliaz jo eta zerien geldittu bai. Bixotzan kontra geldittu balie ein jakon. Gero opereu ei eben handik, geroetara. Lelengotik operetako ibil zen eta Madrillera joan zan eta han be zertute eta gero,[...] hareixe operaziño klasie,ez daitz nungo mediku batek ein bihero dotsola eta gero balie atara otsoien /atatsoien/. Undekoa. Bai, lehengusu karnala, lehengusu karnala. Bai. ta beste baten euzokoa be, zerena, Felix Undabeitia, ha be bai. Ha [...] sartu otsien balie, [...] lekutik, zulue einde.

- Aidxudxeko (Ajuriako) Felix?

- Ez. Haren parientie izengo zan, Iborrikoa, Felix. Horrek hiru neba-arreba zien. Eta anaixe bik ez ben euki famelirik eta bestie neska zahar lotu zan. Eta oin propiedadiek eta propiedadiek eta lobak ba, ez daitz ba nora

urriñera joan da beñipein herentzixe. Ha be bai. Ha be "por milagro" salbe zen, bestie baliek holako lekuen [...].

3.7. Etxeandin banatzen zuten errazionamendua

- **Hizlaria(k)**: Mandaluniz Gorroño, Zeperino
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MUX-012/016
- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 00:35:03. **Bukatu**: 00:37:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
 - Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: 1929-1941 arteko kinta guztiak joan ziren gerrara. Gerra sasoian herrian ez egon arren, gerraostea ezagutu zuen. Tabakoa, ogi beltza... errazionamenduan ematen zieten. Ibarrurin Etxeandin ematen zuten.

Transkripzioa

- Gerra denporan harrapeu eben dana, dana. Ta kintta asko, bua! Ba "cuarenta y uno" artien diar ein oskuen, "cuarenta y uno"ko jentie diar ein euen. "Cuarenta y uno"ra artien. Veinti nuevien hasi eta "Cuarenta y uno" arteko kinttiek. Ze gure anaidxek "veniti ocho" marina zan "veinti nueve tierra hasta el cuarenta y uno", horrek kintta danak altxau euezan-ta. Kintta asko.

- Biherrizena egongo zan.

- Ba klaro! biherrizena euelako diar eitten euen.

- Orduen zuk hemen Iburin jentiek sufridu ebana zuk ez zendun ezetu berton gerran: milizianuek zelan ibiltzen zien hemendik, errazionamentue kontue...

- Horrek errazionamentuek? hori bai. Bai, ezetuko ez nabena ba errazionametue eta horrek? Jesus, Maria ta Jose. Tabako-orridxe errzaionamenduen euan. Bai!

- Ta zelan izeten zan hori?

- Ba errazionamendue, ba herridxen bakize nun saltzen eban. Ba errazionamentuek ba bakotzak honexen beste paketa hillien-edo. Geuza gitxi.

- Baia famili danari bardiñe jartzen otsien?

- Danari igual, danari igual, bai, bai, bai, danari erraziño bat.

.- Eta ze emoten otsuen errazionametuen.

- Errazionamentuen emoten ebana ogidxe be bai. Txuskotxu bet, baltza bera, baltza, zahidxeaz eta zereaz eñikoa. Haidxe zan emoten ebena gero. Guk zenbat biderrez soldadutzan ha txuskotxue emoten eben eta zera jaten hasi orduko ha txuskotxue akabeu eta hurrengo eguerdira artien bape bez, eta iñok saldu gure bez kalien be, ez zeuan-ta!

- Ta azukerie eta holako kontuek.

- Errazionamentuen hori be, errazionametuen dana, dana, dana, tabakoa ta dana, dana euen errazionamentuen, dana. Errazionamentue Iborrin euen Etxandin, Iborriko danana Etxandin egon zan.

- Ta Iburri danetik hara joan biher izeten ziñien, Meumetik eta dana Etxandire?

- Bai, bai, Iborrikoak Meumekoak be [...] errazionamentue altxetan Iborrire, Iborrire joan biher izeten eban.

3.8. Burdinazko gerrikoa; lehengusua ertzain

- **Hizlaria(k)**: Ajuriagojeaskoa Loroño, Gregori
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MUX-015/013
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:21:05. **Bukatu**: 00:22:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Bilbo hartu ez zezaten, jende asko aritu zen burdinazko gerrikoa egiten, bere neba ere, besteak beste. Bere lehengusua ertzaina izan zen eta kartzelan sartu zuten.

Transkripzioa

- Nungo jentie egon zan hori "cinturón de hierro" eitten? Nungo jentie, nungo gizonak egon zien hori zintturoie eitten?

- Hor orduen jente asko. Trintxerie "cinturón de hierro" trintxerie izen zan Bilbora gerra denporan sartu ez deitzezan, gero hor gerriek urten eban ta.

- Bertoko seme asko be egongo zien, ezta?

- Han soldadu? bai, asko. Nebie be joan zan ta.

- Zure nebie marinan esan dozu.

- Bai, baia hori gero izen zan. Hori "cinturón de hierro", hori gero. Bai, mariñetik bai eurrerau, bere berari toketan jakon zerien, baia gero urte batzuk paseute izen zan bestie.

- Eta zure lehengusuek-eta be egon zien gerran?

- Bai.

- Frentien?

- Bai, ertzaiña izen zan bat.

- A bai?

- Bai. Ertzaiña izen zan ta kartzelan euki eben ta.

- Ta nun egon zan kartzelan ba?

- Kartzelan Bilbon.

- Larrinagan?

- Bai, han egongo zan, Larrinagan orduen egoten zien-ta.

3.9. Preso gudarien txamarrak jostearren, beste 5 muxikarrekin kartzelara

- **Hizlaria(k)**: Ajuriagojeaskoa Loroño, Gregori
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MUX-015/015
- **Iraupena**: 0:05:02. **Hasi**: 00:22:58. **Bukatu**: 00:28:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Gerran 23 urte zituen. 6 hilabetez kartzelan egon zen, auzoen salaketa bat tarteko. Muxikan boluntario asko joan ziren gerrara eta "emakume"etan afiliatua zenez, beste emakume batzuekin batera gudarietzako txamarrak josi zituen. 6 emakume atxilotu zituzten, seiak muxikarrak, "las seis mugiquesas": Miren Enbeita, Margari Euba, Miren Iza, Ziriaka Uribe, Gregori eta beste bat. Kartzelan ondo ikusiak zirela dio. Ur botila batekin konpondu behar zuten seiek, garbitzeko zein edateko. Botilak beraien izena zeraman: "las seis mugiquesas". Kartzelariak beraiei ematen zizkien berari oparitzen zizkioten pastelak-eta.

Transkripzioa

- Zuk gerra denporan hogeta hiru urten euki zenduzen.

- Bai. Nik hogeai urte edo ez dakitz zenbet eukiko nittun.

- Hogeta hiru.

- Neu be kartzelara.

- Bai?

- Bai. Kartzelan sei hille bet eindde nau ni.

- Ta, zer dala ta hori?

- Txarra izen nitzelako.

- Zer pase zan ba? edo zelan harrape zaittuen edo?

- Bakizu zegaittik? Euzoak asko gure izen zostielako /izestielako/, euzoak asko gure izen.

- Ze pase zan ba, Gregori?

- Esan be ezin leike ein. Iñuzentiek halakoak! Ba boluntaridxok urten eben gerra denporan Muxiken, boluntaridxoak bardin joan biher soldadu ta bardin joan biher deuelez boluntaridxoak. Eta gero, ba emakumek-edo esaten otsienak ba afiliue izen nitzen ni be emakumetan, ta ba akorde jakun jakiek eittie hareri, boluntaridxo doazenari, jakiek eittie. Ta ein gontsiezan, txamarrak orduen eroaten zien eta, txamarrak-eta, ein gontsiezan. Ta gero ba [...] ba boluntaridxo joan zienari emon be bai ta josten ibil giñezan ta josten ikisten ta koadrille bat ibil giñezan, ta sei egon giñezan gu kartzelan.

- Sei, nungoak? Nungoak ziñien?

- Gu hamen berton bueltakoak. Hortxe hurrungo etxekoa, han han kamiñoan handiko alderdikoa bat. Orduen hortxe behien bizi izen zan ha gero hara ezkondu zen baia. Ta gero beste bat, Enbeita, Miren Enbeita, beste bat. Ta Margari Euba beste bat. Ha ta Miren Iza. Sei, sei sartu giñezan, "las seis mugiquesas". Ta baia ondo ikusidzek izen giñezan kartzelan, ondo ikusitte izen giñezan, hori bai. Ta ondo ikusitte giñezan ta, Margari Euba horko Kurtzerokoa izen zan, tabernakoa, ta ha ha aparteu ein jakun koadrilletik baia beste bostok horko hurrungo horko euzunekoa beste bat, Miren Iza ta Miren Enbeita bestie ta Ziriaka Uribe, Ziriaka Uribe izen zan ta sei izen giñezan. Ta botille bete urraz arregle biher izeten gendun, holako botille bataz, botille bet ur emoten oskuen ta harexeaz arregleu, garbittasun dana harexeaz ein biher izeten gendun. Ta botilleri ipiñi otsien izena "las seis muxiquesas". Geu be okerrak izen giñezan. Baia kartzeleriek ondo ikusitte izen genduzen e! kartzelerie ondo, ondo ikusitte izen giñezan. Gero kartzeleriek lagune euki biher eukitten ban ta hareri erregaluek asko eitten dotsiezan /eittentsezan/ ta pastela-eta asko erregaletan otsiezan ta harek jan ahala baiño gehixau emoten otsien eta guri emoten euskun, ondo.

3.10. Kartzelan jateko txarra

- **Hizlaria(k):** Ajuriagojeaskoa Loroño, Gregori
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-015/016
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:28:00. **Bukatu:** 00:29:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Kartzelako jatekoa ganora bakoa zela dio. Sototik deitzen zioten jaten joateko; baina, jatekoaren kolorea ikusita, buelta hartzen zuten jan barik. Txerriaren ozalearen kolorea zutela dio.

Transkripzioa

- Maletak euki genduzen artien pepin bizi giñezan han, baia gero maletak kendu. Ta bertako jatekoa jan ezin guk, eurek emoten ebena.

- Zeba?

- Ba ganora bako jatekoa. Ha kafesnie sotanoan egoten zan holako untzi baten, Ta eskillarak bueltakoak egon zien hara sotanora ta "¡el desayuno!" zarata eitten eben, ta txarridxen ozaliek bakizu zelako kolorie eukitten ban? eukitte ban haixe modukoa, goittik behera ikusten gendun goazela ta atzera bueltea ta gora. Jan barik.

3.11. Lau lagun sei hilabete preso; beste bi, urtebete

- **Hizlaria(k)**: Ajuriagojeaskoa Loroño, Gregori
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MUX-015/017
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:29:08. **Bukatu**: 00:31:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan
- **Laburpena**: Gregorik 6 hilabete egin zituen kartzelan; Miren Enbeitak eta Ziriaka Uribe urtebete; Ziriakak "Pro Avi6n Euzkadi"rentzako (Euskal Selekzioaren partidu batean dirua batzeko sortutako batzordea) dirua batzearren egin zuen denbora gehiago. Boanarenean josten ikasten zebiltzanen delitu bakarria gudarien txamarrak jostea izan zen. Bilboko Orue txaletean egon ziren preso, kartzela baino goragoko txalet batean.

Transkripzioa

- Ta luzero egon zihien holan, sei hilliek?

- Sei hille ein nittuzen nik.

- Zuk eta danak?

- Bik ein eben urte betena. Miren Enbeitak eta Ziriakak "Pro Avi6n Euzkadi" dirue batzen ebizela ta Ziriaka, Ziriaka eken izena, Uribe, diru batzen ibil zala ta kartzelara. Ta Mirenek, Mirenek ez dakitz zer euki eban intendentzidxe, ez dakitz zer euki eban. Ta gu josten ibil giñezan Boanien, Boana esaten gontsen hor, josten ibil giñezan ta. Guk ba boluntaridxo urten ebanari lelengoan txamarrak batzuk josi geuntsiezan ta haidxe izen zan gure delittue: txamarrak josten ein genduleko. Gu josten ikisten ibil giñezenak, hantxe.

- Ta nun egon zihien? nungo kartzelan?

- Kartzelan?

- Nun?

- "Chal6 Orue".

- Durengon?

- Bilbon han goidxen. Kartzelien, kartzelie baiño apur bet goratxuau.

Kartzelie beherau egon zan, ta goratxuau. Txalet bat izen zan kartzela ipiñitte.

3.12. Kartzelan etxetik eramandako koltxoiekin

- **Hizlaria(k):** Ajuriagojeaskoa Loroño, Gregori
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-015/019
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:31:18. **Bukatu:** 00:34:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939)
 - Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan
- **Laburpena:** Kartzelara joan zenean baino negar gehiago ez duela sekula egin dio. Etxera joan zitzaizkien atxilotzera. Gurasoek idazten askorik jakin ez arren aitak idazten zion. Indultua baino 10 egun gehiago eginarazi zizkioten. Lau etorri ziren etxera eta beste biak urte betena egin zuten. Etxetik eramandako koltxoietan egiten zuten lo.

Transkripzioa

- Negar gehidxau ez dot ein haraxe joan nintzenien baiño. Negar ein nabela.
- Ta nun harrape zaittuen zuori? nun harrape zaittuen bertan josten zauziela?
- Gu? etxetik eroan.
- Etxera joan jatzuen? Zarrara edo hona?
- Ez, ez soltera egon nintzen hondiño. Bai, nik hemeretzi-hogei urte eukiko nittuzen, ez dakitz hemeretzi edo hogei urte ingeru eukiko nittuen.
- Ta zure amak eta aittek-eta disgustoa?
- Disgustoa harek.
- Eta ama eta aitte zer? joaten zien bisittan edo kartak idazten biezana-edo?
- Bai, asko ez eben jakitten, eskribitan asko ez baia aittek zeuzer kartie esbrikitan eban, ta hantxe, harik eta etxera boteu arte. Gero indultoa dala ta hamar egun gehidxau erain erazo eusten, Francok indultoa ein dabela ta, ba gero ba propagandie ein eben Francok indultoa ein dabela ta, ta hamar egun gehidxau erain erazo kartzelan.
- Eta indultoa zer dala ta etor zan?
- Ai, ez dakitz nik zer! indultoa eskatu eben ta, zer izen zan.
- Ta libre?
- Bueno, indultoa ba kartzelan dauzenak ataratie-edo izengo zan.
- Eta bestiek be bai zugaz batera urten zien?
- Gu etor giñezan lau etxera boteu ginduezan eta bi itzi zittuzan, harek urte betena ein eben. Ziriakak Uribek eta Miren Enbeitak harek urte betena ein eben.
- Eta lo nun eitten zenduen kartzelan?
- Lo? koltxoiek euki genduzen eta harexen ganien.
- Bakotzak bat?
- Etxien etxetik eroanda.
- Zuen etxeko koltxoie? orduen zuen bille joan zien etxera ta ganera zuek hartu biher etxetik koltxoie eroateko.
- Ba guk koltxoiek euki giñuzen ta ez dakitz nik. Mirenek e holako koltxoia txikitxu bet euki ban, aittek eukitten bala esaten eban, beren aittek ta ba han egon giñezan ta. Ha be ikusi gendun ta.

3.13. Gerrara derrigortuta joan baino, hobe boluntario

- **Hizlaria(k):** Ajuriagojeaskoa Loroño, Gregori
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-015/021
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:34:37. **Bukatu:** 00:36:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Boluntario joan ziren muxikarrak berez joan beharra zuten, baina beraien burua aurkezten zuten destino hobea lortu asmoz.

Transkripzioa

- Hori Francon denporan.
- Francon denporan.
- Bai. Franco famosoan denporan.
- Ta zuek be famosak eingo ziñien herridxen, ezta? sei andra kartzelan egotie normala ez zan izengo.
- Ez zan izen normala, baia hantxe egon biher guk, eroanda. Normala ez zan izen. Normala izengo zan ba josten hareri boluntaridxo joan zienari txamarrak josi dotsiezela-eta, hori hori hori delittue da ba?
- Nortzuk ziren horrek boluntaridxoak-edo, muxikarrak zien?
- Muxikarrak zien boluntaridxo joan zirenak, ostantzien bardin joan biher ezta, soldadu? ze eroan eitten zittuezan, ta harek ein ziren leku hobatxuauak atrapetako-edo ba boluntaridxo presenteu. Baia egun asko ez, ostantzien be joan biherko eben /bikoben/ ta.
- Ta ze batallotan-edo ibil zan bertoko jentie bakizu? bertoko jentie ze batallotan-edo ibil zan-edo?
- Bertoko jenite ez dakitz.
- Danetarik egongo zan.
- Ez dakitz, ze etxekorik ez gendun euki han ta.

3.14. Franco ez zen palioaren azpian eramateko gizona

- **Hizlaria(k):** Ajuriagojeaskoa Loroño, Gregori
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-015/023
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:37:05. **Bukatu:** 00:39:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Politika » Politika eta Franco
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- **Laburpena:** Primo de Rivera ostean etorri zen Franco. Zornotzako (Amorebieta-Etxano) jaietan egon ziren Francok agintea hartu zuela enteratu zirenean eta gerra etor zitekeela pentsatu zutenean. Antzina, Gorpuzti egunez-eta, gure Jauna palioaren azpian eramaten zen; Franco ere palioaren azpian joaten zen. Bere ustez Franco ez zen palioaren azpian eramateko gizona.

Transkripzioa

- Franco aurretik Primo de Rivera be egon zan.

- Bai, Primo de Rivera egon zan. Ta Primo Riverari itzi ez eittiarren sublebeu ein zen Franco, Francok urten eban. Ta akordetan naz gu Zorrontzan egon giñezen, Zorrontzako jaidxek izen zien ta. Ta hantxe ba Francok urten dabela ta gerrie egongo ete dan jentie endredetan hasi zen. Ta halantxik endredeu.

- Halantxik endrede zan.

- Bai. Franco Franco legez ipiñitte ez zan egon. Franco egon zan derrigorrez urtenda egon zan. Ta gero, santu bet edo gure Jaune niri nik arrabidhoa hartu naben ikusi nabenien be. Zera, lehenau Gure Jaune palidxoan azpidxen eroaten zan atziñe.

- A bai?

- Bai. Gorpuzti egunez-ta palidxoan azpidxen joaten zan, eroaten eben. Ta Franco palidxoan azpidxen hartun eben, eta Gure Jaune eroateko lekuen Franco eroan eben palidxoan azpidxen. Ta nik Franco ez zala gizona palidxoan azpidxen eroatekoa modukoa pentseu naben, txarri bet zan ta.

- Txarri bet. Itzelak ein bazen, ezta?

- Bai. Franco, Francok biher dan modukoa /bidamodukoa/ izeteko, orduen errepublikiek urten eban ba itzi errepublikien zerien artien ein biher eban, harek harek ondo segiten ez badeu orduen pareu, ez berak urten ta bazterrak gizonok kartzelara eroan.

3.15. Gerraostean zaku-prizkinekin nahastutako ogia

- **Hizlaria(k):** Ajuriagojeaskoa Loroño, Gregori
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-015/025
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:39:55. **Bukatu:** 00:43:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Francok larregi iraun zuela dio, ez zela gizona. Bizimodua asko aldatu zen errepublika garaitik. Gerraostean, zaku-prizkinekin nahastutako ogia jaten zuten. Errementari baserriko gizonak zuen egunkariak gosearen inguruan zioen aipu bat kontatzen du.

Transkripzioa

- Franco Franco existidu larrei ein euan, larrei. Franco ariñau kendu biher zan /bizan/, Franco ez zan gizona ta.

- Eta hemen parajien frankista asko egon zan?

- Ez dakitz nik. Egongo zien, beti egoten die lagunek-eta.

- Bai, ezta? danetariakoak egoten die beti.

- Egongo zien ta. Beti egoten die batan batzuk.

- Eta bizimodue zemat kanbidxe zan errepublika sasoittik Francon garaire?

- Bizimodue? Bakizu hor, hor behien gizon bat egon zan, gizon bat egon zan hor behien bizi izen zan, ta ba gerra ostien zaku-priztiñekaz eñiko ogidxe jaten gendun. Zaku-priztiñek bakizu zelakoak dizan? Zakuek ekarten dotsuzen /ekartentsuzen/ priztiñek? harexekin nahastien ogidxe, gerra ostien jaten giñun. Ta gizon batek hor behien bizi zen ha gizona, ta esan eban /esaban/ ba "¿qué dicen los papeles?" esan osten /esasten/ periodikuek ba urten eban orduen be, ta tabernara joan zani: "¿qué dicen los papeles?" ta esan dotsien /esantsien/. Erderaz ein biher izeten zan sarritten ta, "¿qué dicen los papeles?" ta "pues esto y esto y" ba

esaten eben eurek zer ta: "decian". Zelan esaten ban? "decian", ahaztu jat. "Decian" ez dakitz zelan, baia "pero más grande es el hambre", baia ez dakitz zelan esaten eban harek gizonak.

- Ahaztute?

- Baia zelan izen zan ba? sarri akorduen euki dot eta, oin ahaztu jat.

- Trankil. Eta hori gizona nungoa zan ba?

- Hor behekoa izen zan.

- Zelan deitten da hori etxie?

- Horrek etxiek "Errementaridxe", "Errementaridxa" deko etxiek, baia oin harek Gernikera joanda dauz.

3.16. Libe izena

- **Hizlaria(k)**: Ajuriagojeaskoa Loroño, Gregori
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MUX-015/037
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:57:38. **Bukatu**: 00:59:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Euskara eta politika
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena**: Bere amaginarrebak alabari Libe izena jartzea nahi zuen, baina Franco garaia zen. Abadeak bataioan esan zien Libia izena jartzeko eta beraiek Libe deitzeko. Bertako abadeak Francoren aldekoak ez zirenez beste nonbaitera bidali zituzten, baina bertara bidalitakoak ere ez ziren Francotarrak, beraz, ez zuten arazorik izan.

Transkripzioa

- Euskerazko izenik ez?

- Euskerazko izena esango dotsut /esangotsut/. Ni hona ezkondu nitzenien famelidxe izen nabean, ta hemeko amak, gizonan amak, Libe gure izen ban ipinttie izena nire alabieri, ta halantxik ipini be ein jakon. Ta Francon denporakoa izen zalez, ba esan euskun /esaskun/ abadiak, kastigeute beste leku batetik hona etorritte egon zien abade bi kastigu moduen, ta harek abadiak esan euskun /esaskun/: "nik Libia ipingo dot" esan zetan /esasten/ esan euskun /esaskun/ bautidxetan joan giñezenien, "Libia ipingo dotset, baia zeuek Libe deittuko dotsezue" esan euskun /esaskun/. Bestetarikoa izen zan, Francotarra ez zan izen abadie, ze kastiguz hona botaniko izen zan ta hemekoak beste leku batera bota zittuezan, berton egon zienak. Abadiak majoak egon zien hemen ta botau boteu ein zittuezan hemetik, ez dakitz nora bota zittuezan. Ta hona etor zien beste batzuk kastigu moduen. Ta horixe esan euskun /esaskun/ abadiak: "beittu, nik Libe ezin dot ipiñi" esan euskun /esaskun/, "baia Libia ipiñi eingo dot hemen, baia Libe deittuko dotsezue" esan euskun /esaskun/ abadiak.

- Eta Libia jarri dotsazun orduen alabieri.

- Ta Libe deittuten jakon. Ta nire alabiek Libe eken izena.

3.17. Gorpuzkinen datuak botilan gordeta

- **Hizlaria(k)**: Alegria Goiri, Fernando

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MUX-019/010
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:24:46. **Bukatu**: 00:26:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena**: Gerran hildako soldaduak identifikatu barik lurperatzen zituzten bata bestearen gainean. Gorpu asko zatituta egoten ziren. Hasieran, gogorra egiten zitzaion betebeharrak, baina gero gogortu egin zen; bere aita oso ausarta zela dio. Aitak gorpuetan identifikazio-daturen bat aurkitzen baldin bazuen botila batean sartzen zuen gorpu ondoan. Hiruzpalau gorpu horri eskerrak atera zituzten, eta Gipuzkoa aldera eraman.

Transkripzioa

- Kanposantuen zer danak zulo baten enterretan biezana eta nun enterretan biezana danak?

- [Plegan] joaten zan. Karo bat edo bi alkarren ganiena bai, sardiñe lez.

- Nortzuk dien jakin barik?

- Nortzuk diezan harek inok ez zittuzen jakin, horra apurtute etor zienta. Ta apurtute etor zienta, odola ta dana, nik harek danak ikusi nittuzen eta ya pareute egon nitten, lelengoan billur handixe emoten osten, baia ya gero akostunbre neuen aitteaz, aitte euki nauen horretarako oso baliantie, balixo handiko gizona zan. Batzuri berak ipitten otsien zeuzer tope otsen seiñen batzuk-edo boltsilloan-edo topeten otsenari, gure aittek bastante euki eban eskola eskolatxue orduen denporatarako, ze ariñau han ibil zen Gernikeko letxeridxara ibil zen ha be, kaballuaz karratoieaz, esniek eroaten-ta, apur bet euki ban eskolatxue. Papeliene eskribiduten eban nor zan-edo, eta botillien ipintten eban kortxoia ipinitte, berana zera hori zen. Ta etor jakezan batzuek Gipuzkoa aldetik, eta atara eta eroan be ein zittuezan, hiru edo lau-edo dekot memorixen eroan zittuezala hara atarata, hori badekot akorduen hori badekot.

- Zure aittek apunteu bazelako izenak.

- Bai izenak apunteu ta botillien barruen ipiñi kortxoaz-ta. Ta nik orduen hamalau urte, bai hamalau urte euki nittuzan, hamalau urteaz ya apur bet, apur bet espabilleute egon giñen ze gosiek espabilletan deuela esaten deue personie.

3.18. 1923koak erregistratu gabekoak

- **Hizlaria(k)**: Alegria Goiri, Fernando
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MUX-019/019
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:44:42. **Bukatu**: 00:46:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena**: Errepublika garaian mitinak egiten ziren, baina bera gaztea zen eta ez du askorik gogoratzen. 1923an jaiotako 25 egon ziren Muxikan eta sasoi hartan Primo de Rivera zegoen agintean. Udaletxeko idazkaria alper hutsa zen eta beraien izenak ez ziren azaltzen

erregistroan. Baldomero abadeak datuak eskatu ostean, Frantziara egin behar izan zuen alde idazkari horrek.

Transkripzioa

- Eta errepublika sasoiko ze akordu dekozu? Muxiken eitten zien holan mitiñek edo errepublikanuen geuzek-edo?
- Bai, bai, mitin batzuk-eta hor eitten zien. Mitin batzuk, baia oniño ba guk hamalau urtegaz ba holako [zoñorik] oniño. Zera egon zan Primo de Riverak-edo pare zaniien errepublikako zerien, harek bai ein zittuzen aiuntamientuko rebisiñoak eta geuzek eta gu egon giñen hogeta bost giñen du kinttoak, "veinti tres"koak, nire kinttoak hogeta bost izen gara Muxiken. Ta hor egon zan sekretarixoa zan gixajoa, bago bat, bagoa izen ei zen bagoa, gero etor zaniien aitutamientuko errebisiñoa gu falta giñen hor, papeletan falta, eta hor egon zan abadie, don Baldomero abadie, zintzoa eta militar gogorra, haregañe joan zan sekretarixoa, pasetako libruetan bille eta harek negeu, bape emon ez, ta Frantzixera eskape biher izen eban sekretarixoak. Frantzixen pare zan tranbiarixoa ha, kobradore. Dirudun gizona, dirudun gizona zan, eta Frantzixene gon zan harik eta hau asuntoa kanbixeu artien.
- Zer zan muxikarra sekretarixoa?
- Bai, muxikarra bai. Hongoxe tabernako, tabernan euki eban arrebie.

3.19. Ezpata-dantzan "Gora ta gora Euzkadi" abestearren kuarterlera

- **Hizlaria(k):** Martitegi Iturrioz, Felipe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-023/009
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:15:25. **Bukatu:** 00:19:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
 - Politika » Euskara eta politika
 - Lanbideak » Polizia
- **Laburpena:** Bilbon zegoela, karneta bertan utzita, domeka batean Zugastietako erromeriara joan zen. "Txikito" aritzen zen ezpata-dantza erakusten jendearekin "Gora ta gora Euzkadi" abesten. Baina, egun hartan, "Txikito" uhaleria (korreaje) bikoitzarekin eta bi pistolarekin ikusi zuen. Hurrengo egunean, Gernikako Guardia Zibilen kuarterlera joateko agindu zion "Gora ta gora Euzkadi" abestearren, berak irakatsia izan arren.

Transkripzioa

- Ba bertan, bertan, bertan itzi giñun karneta bertan itzi naben, ta etor nitzen neu zapatu baten. Etorri nitten ta domekan joan nitten erromerixera, Zugastara, Zugastan eitten zan erromerixe, baia Gerniketika eta etorten zan Zugastara jentie, Zorrontzatik eta Gerniketika bueno holantxik jentie, hor erromerixe terriblie zan. Ta etorri gara horra, joan naz horra ta "Txikito" esaten otsiena, hemeko bat "Txikito" ibiltzen jakun ezpata-jantzari erakusten, "Gora ta gora Euzkadi, trantrantrata" indde, ba ezpata-jantzari erakusten hor, ta korreaje dobliaz ta pistola bi alderdi banatan. Mekauen la mar, ikusten dot ta ikeratu nitten, esan naben baze: "'Gora ta gora Euzkadi' ta oin pistola biaz ta korreaje dobliaz?", ba etor jaten eta esan osten baze: "Ze Felipe?", "ba hamentxe" ta "ba bixer

Gernikera joan /bizu/ biher dozu Goarda Zobilletara deklaraziñoak emoten". "Ta oin zer?", "ba 'Gora ta gora Euzkadi' kanteu" /esasten/ esan osten, "'Gora ta gora Euzkadi' kanteu ta" "Heuk erautsi euskuan!", berak erakutsi oskun kantetan-ta, ataa netsen tarjetie tarjetie ataa netsan ta esan netsen baze: "bittu, ez Goarda Zobilletara ez Marra Zobilletara", gehixau niri ez osten txintik be atara. Ta arrebie entereu zen ensegidako, hartun ta kartzelara. Lelengoan harrape baeuen, ta ezebez ein bakoa, ezebez! koitteda bat! baia esne-saltzen ibiltzen gintzezan ta zentralien hor ba abadie hor be hil eben, baia zentralien parte emon zotsiela, hamen behien zentrala dauen lekuen, parte emon zotsiela zerari, milizianueri, ba ha abadie hiltteko ta ha koittedie, esnie eroaten zotsien hareri zentralekoari ta Bilbora saltzen gendun guk orduen esnie. Letxerue izen zan partikularra bera, baia Bilbon egon zan hemeko Iburriko don Juanen arrebie, ezkonduete Manologaz Bilbon, ta harek eroan euen arrebie hara, ta handik, ba euki giñun zera, amistadie handik euki giñun. Ta gero, eroan ebien kartzelara ta atara giñun ha, Jainkoak dakizen moduen atara giñun ha, baia firmantie orduen alkatien andrie izen zan, ta gure ez txarrixek firmeu ez dekela kulperik eta atarateko, firmeu gure ez. Ta bueno, atzenien atta giñun ta aitte difuntue kartzelatik ekarri giñun hiltteko. Gero kontajixeu ein zen, kontajixue, ta ensegideko hil zen. Ta halantxik gure gazte-denporie.

3.20. Gerran etxetik alde egin behar

- **Hizlaria(k):** Esturo Orue, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** MUX-037/008
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:15:20. **Bukatu:** 00:19:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Gerran, etxea utzi zuten ganadu eta guzti, eta Larraskitura joan ziren aitaren lana zela-eta. Handik Gueñesera joan ziren, gau bakar baterako. Gueñesen elizan pasa zuten gaua, batailoi bateko kideekin batera. Handik Karrantzara eta Santander aldera egin zuten alde. Azken bidaia horretan, tren bagoietan animaliak bezala joan zirela dio.

Transkripzioa

- Ze gu zerera joan gintzezan: lehenengo, Larraskiture; ze gure aitte bakizu, Iberduerok tirtuten euen, segun zelan datorren frentie, halan. Ta ba Larraskiture. Gero Larraskitutik be atara gaittuezan, Gueñesetik, ta Gueñesien ein geñun /einddun/ geu bet ein geñun /einddun/ Gueñesen. Ta ganadu ta guzti karroan. Ta nun lorik be ein ez, ezebez. Gaba ta gure amuma Arratixeko koittadie, gure amaren ama, gure aittek burdixen ganien eruan auen. Ze koltxoiek-eta danak eroan biher izen zittuzen-ta. Hantxe ganien. Gueñesera aillega gintzezan zu! Ta danak gaba izen arren, illuntzixen danak bentanetatik-eta urtenda. Ta gure amamak, saladie zan bere urtetxuk euki zittuen, baia: "Gureztat badeu posadarik?", handik burdixen ganetik. Iñorik iñok usiñik be ez. "Hay posada pa nosotras?". "Hamen, ez euskeraz ez erderaz dakixe iñok bez". Gero, bakizu nun lo ein geñun /einddun/? Elizan. Elixu barrure sartute elizako atiek egon zien-ta. Ta gu han, elixan holan kontratxu baten gauzela, batailloa bat sartu jakun lo

eitten elizara. Ta, bai ba, batailloi batek bakizu zenbat mutil eukitten euen? Ta gradien erdittik behera, esateko moduen, errekie. Txize eindde harek, errekie datorrela iturruxe handik. Eta gero hurrungo egunien jagi ta ixartzen gintzezan. Harek txahal bat hil euen ta pentseu eben eurek be, ba luzero egongo dizela han. Ta esan oskuen: “Bueno, goserik ez paseu. Geuk emongo dotsuau okelie, jaten nehikoa. Hau txahala danen arten be ezin geinke jan-eta”. Baia zer pasa jakien? Bezkerixe-armuzue ein euen ta esan otsien: “Bueno, tal frentera joan biher da”. Ta bertan okelie be itxi biher. Ta guri esan oskuen: “Bueno, oin hori zeuentzat geratzen da”. Bai, guk itxi ein biher izen giñun. Guk be aurrera. Ta Gueñesetik be Torrelavegara, ez Karrantzara. Ta gero Karrantzatic joan gara, egon gintzazan, ba han hillebete-edo ein gun. Ta han eon gaitzezan [...en], Karrantzako mendiko kueba batera, abioiengaittik. Ta jentiek esaten oskun: “Ene! Zoratute zauzie. Horrek zer ein biher deue?”. “Zer ein biher deue? Ikusko dozue!” Bueno ba, han be, handik gero, gure aitteri ba Santanderrantz esan otsien joateko. Bueno, joan gintzezan. Santanderrera bagoaz, aittek zerakin, ganaduekin ta gu trenien. Trenien barik, zeretan: kotxietan barik, bagoietan sartute. Animalixek bakizu zelan jueten dien? Halantxeik, bagoietan sartute. Ta klaro, Santanderrera aillega gintzezanien, abioie bat etorri jakun geure partetik. Bueno, geure partekue esango dotsut ba, faxistena barik, geurie bestie, geurie. Ta klaro, pañueluaz-ta guri ba kanpora urten gendunien trenetik, ba señaiek-eta emoten, ezta? Ba, guk ez dogu jakin. Ta han estaziñuen kontran, eurreratxau eon zan soloa, artuaz-ta, lastoaz, ezta? Gu danak haraxe. Ba hemen billdurtute juen gintzezan-ta. Hango jente guztixe barreka, barreka bai.

3.21. Torrelavegan, kobazulora ezkutatzera

- **Hizlaria(k)**: Esturo Orue, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MUX-037/009
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:19:35. **Bukatu**: 00:21:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Gerran, Santander aldera heldu ostean, Torrelavegara joan ziren. Bertan zeudela, hegazkinen erasoak jasan zituzten. Kobazuloan babestu zen. Bigarren bonbardaketak harrapatuz gero, hil egingo zirela dio.

Transkripzioa

- Gero, handik esango dotsut, Torrelavegara joan gintzezan. Hantxe, Torrelavegan ein gendun /einddun/ azkenengo zera. Ze, Asturiasetik sartu jakuzen ta erdixen harrapau gaittuezan. Ta gero ez aurrera, ez, hantxe. Ta Torrelavegan, bueno, gobiernuek emon oskun ganaduentzat-eta holako baserri ederra, alture baten. Zera be ikusten kanpo-abiaziñoa ta eurrien euki uzen. Ta geu kanpora jaten ta gure aittek badiño, kuadrillie gintzezan, hiru-lau matrimoniño-ta: itxunde dauela. “Ointxe dator han, kazako abioitxu txiki-txikitxu bet ta “ese ya nos empieza a bombardear””. Bere lagune, Iberduerukue, mutil zahar bat: “Cállate Miguel, ostia”. Ta “ya veréis”. Ha etorri, etorten die beste hiru, hasten diez botaten, kanpo-abiaziñora. Okalipptue guk etxien ondoan, nora joan be ez duu jakin, zu! Ta

han kueba-zuloa nik ez dakit zerenak eonde eon zien, jentie haraxe barrure. Esan nauen: "Han eon bazan trokie, zuloa, desa... danak hantxe hilgo gintzezen, hantxe danak. Ta gure lehengusiñe bat okalipitu bateri, punte-puntera igotzen, zu. Baia zelan? Estaturik zer ein leixen! Ta erramarik be ez, ta hara puntera? Ta gero bajatu ezin izen eban koittediek. Ta ezin deuela bajatu-ta harek mutil zaharrak: "subir, ya has subido. Baja ahora si quieres sino estás ahí". Bueno bajatu eben tatarrez zero ala. Ba bigarren bonbardeuek harrapetan bagaittu, bertan garbitzen gara.

3.22. Erreketeek abisatuta salbatu ziren

- **Hizlaria(k)**: Esturo Orue, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MUX-037/010
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:21:45. **Bukatu**: 00:24:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: Gerran, Torrelavegara egin zuten alde. Erreketeek izara guztiak hartu zizkieten landetan jarri eta hegazkinei abisatzeko. Milizianoak zituztelakoan joan ziren eurengana. Erreketeek esan zien handik alde egiteko, berriro bonbardatu behar zutelako; hori dela-eta salbatu ziren.

Transkripzioa

- Etor jakuzen, honek faxistok sartu zien. Reketiok, Reketiek esaten otsozen. Etorri zien, guk zerien, etxien euki guzen izera guztixek han euki guzenak be danak ipiñi zittuezan kanpoko landan zabalduete. Bai ba, abiaziñuai esateko eurek sartu dizela. Ta euren banderak-eta zerak-eta. Ta bagatoz, neuk, handik zuloatik esaten dot: "Nik itto biher dot /biot/ ni neu banoa". Ta gure lehengusiñiek: "Hilgo zaittue". "Hil neixiela, banoa-ta". Banoa, zu, ta, etxe buelta guztixe te etxien, atien sartukerie be ametralladorakin plantaute, reketiek. Ta ni ze ein. Ta eurek badiñostie: "Etorri, etorri", erderaz. "Ez jatzu /etxatzu/ ezer ingo-ta. Nun zauzie?". Ta esan nontsen: "Hor beheien, kueba-zulo baten. Nik ez dakit zelako zuloa dan be", esan nontsien. "Ta nortzuk zauzie? Badeukezue milizianurik?", "Ez. Aittek, geure edadekoak, geure aitte eta beste fameliko zerak", esan nontsen, "gizonak". "Ta aber ba, nun dauz? Erakutsi". Ta pistolak, ametralladorakin urten neuen ba: "Ointxegu danok akabauko gaittue. Nik ein dot bihera!" Neu billurtu ba, zerien-ta. "Beno ba, urten danok, hortik". Ta listo, "gora ixon", esan oskun; "ze ointxe dator bigarren bonbardeue ta hametxe botateko esparantzie dekie. Danok hilgo zaittue-ta". Ta halantxeik zen. Danok ixon gun. Etxien sartu gintzezan ta ba Mendixolan, alturen bestekaldien, geuk ikusten dogu, zelan hango etxe, zer guztixek apurtu dittuezan. Ta esan oskun, ha niri lehenengo topeu neuenak: "Beittu, hor eon bazintxien, zuek be hortxe danak hildde". Ta halantxeik salbeu gintzezan. Neu atrebidie nitzelako eta ixon neuelako; ostien, hantxe hiltte gaittue danak. Ta ez gaittuezan jakingo hamen parajien nun gaeuzan bez, ez hil bagara be ez, ez bizi bagara be ez. Asike, zer ingo dozu?

3.23. Itsasontzian bueltatu ziren etxera

- **Hizlaria(k):** Esturo Orue, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-037/011
- **Iraupena:** 0:04:08. **Hasi:** 00:24:08. **Bukatu:** 00:28:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena:** Etxera bueltatzerakoan, bideak, zubiak... apurtuta aurkitu zituzten. Ganadu barik bueltatu behar izan ziren konfiskatu egin baitzizkieten. Santanderreko portura joan ziren etxera bueltatzeko. Hiru egun pasa zituzten portuan. 4.000 pertsonatik gora etorri ziren itsasontzian. Komunik gabe zelan konpontzen ziren. Zorrotzaurrera heldu eta bi egun egin zituzten bertan. Txabola batzuetara sartu eta errebisatu egin zieten.

Transkripzioa

- Ta gero ba, akabeu zanién, etxera etor gure. Baia treneko zer guztixek be, zubi guztixek be apurtute. Kamiñoa be bai. Ganadurik be ekarri ezin ta ganaduek han, aitte zerien. Ta kendu oskuezan gero honek sartu, honek ez. Euki dogunen /eukiunen/ parajerik onena; ganaduek bi. Ganaduek, ganadu bi, baia behi bi, itzelak. Bixek kendu oskuezan. Ta geu etorteko etxera ta bueno ba, ez dauela zerik. Santanderrera bajatzeko, barkue ipiniko deuela-ta. Santanderrera bajatu gintzezan zu, muellien ein giñuzen /eindduzen/ hiru egun. Muellien lo, kanpoan geure erropatxuen ganien. Goixetan jagiten zarenien, holan eskue paseu ta iruntzek, garoak, dana busti-busti eindde. Ta hantxe. Gero, ipiñi oskuen barku zahar bat, lau mille ta piku persona barku zaharrien. Tae san gendun: "Hau da". Barkure ixoteko, soka batzuk holan ipinitte. Jeusten zien erropak, maletak jeusten zienak? Iñok altxeu bez, kittu! Ta neuk amari esan notsen: "Ama, oratu fuerte, ze geu be jeusten bagara, iñok ez gaittu altxeuko-ta". "Ene alabie! Ez eizu esan hori". Bai, bai. Sartu gintzezan, hainbeste zu! Esango dotsut: gero ez eskuseurik, ezebez ez zan. Ta hainbeste egun ein geñuzen /eindduzen/ ta emoten oskuen inddeba inddeba zurixe, potajie egositte, nik ez daitz zegaz, haxe jateko. Ta esango dotsut, gero noberan nezesidadiék eitteko be, txize edo zera, bakizu zer in euen jentiek? Zuloa holan barkure. Ta jentiek diñotso: "Hortik zulotik hasten bajaku betetan, danok jun biher dogu /biu/ urpera. Ta nezesidadiék eitteko, holan kuadrillie planteu tapeako. Bueno, bueno. Horrek kontuek pentseten dozu? Ta gero aillegeu gintzezan Zorrozaurrera. Bueno, ariñago alta marrien. Alta marrien sartukeran barkue bakizu? Olatuek gora ta behera-ta bakizu ba. Ene! "Gu honek alta marrien botako gaittue, alta marrien botako gaittue!" Danak, billurraz. "Gu ez gara aillegeuko, alta marrien botako gaittue". Danak, marietu ta danak. Ni ez nitzen hil, ez dakit nik: ala Jainkoak ha grazixe emon edo ez daitz ba. Aillegetan gara Zorrozaurrera zu, ta han be ba geldi. Egun bixen Zorrozaurren barkuen. Ta alderdi batetik eta bestetik, hainbeste guardi, Guardi Zibillek, orduen, guardixek. Ta henbra batek esan eban, ixon barkure gora ta: "Jolín, parece que hemos hecho crímenes", "No sabemos si habéis hecho o no", kontestue otsien guardixek zu. Ta gero hirugarren egunien, famelixek famelixetara junteten otsuezan. Ta eindde euki euen holan txabola modu bet, olakin ta haraxe sartzen gaittuezan. Errebixetan, ia zer dakarrun, daroagun-edo. Erropen barrenak eta danak, ebai. Tipo modue.

3.24. Gerrateko botikina etxean

- **Hizlaria(k):** Esturo Orue, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-037/012
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:28:16. **Bukatu:** 00:30:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- **Laburpena:** Gerratean etxetik alde egin behar izan zuten; eta, etxera bueltatzerakoan, dena hutsik topatu zuten. Beraien etxean gerrateko botikina jarri zuten; hori dela-eta, usain jasanezina egon zen. Martxotik irailera arte egon ziren kanpoan.

Transkripzioa

- Grazixek gabaz aillegau gintzezala etxera. Ta hor, orduen kamiñorik ez zan egon ta Euntzaganetik behera, hortik. Ta gu Euntzaganetik behera ba, geure parajien berbetan. Ta hamen etxe inguru guztixe, argixekin beterik, lapurretan jentie. Ezebez topeu. Ez. Hamen, gure etxien, botikiñe ipiñitte euki eben gerratien. Usin bet botikiena! Dana, mueblik be eroanda. Etorri hona, ta lo eitteko be ezebez, ezebez! Ha tristie zan, tristie.

- Ta botikiñe egon zan hamen?

- Bai. Hamentxe, kuretan ei zittuezan zer guztixek. Ze sartukeran be, bakizu? Egoten zien botillek be, bai. Usin bet hori botikiñena. Sartzen zara, ezta zeretan? Igual, bazoaz medikuana ta emiten... Zeu useute ez bazauz, ensegida usiñe, ezta? Ba usiñaz ezin leixen egon be ein. Gure aittek karie ekarri, kare bizixe, ein letxerie han etxien, etxe guztixe harexaz emon otsen /emotsen/. Bueno, bueno, bueno, baia zan, tristie zan ha, tristie.

- Zenbat denpora egon ziñien kanpotik, azkenien?

- Ba, urten gendun guk, marzoan-edo. Ba setienbre, setienbrera arte. Geure jaixetarako, bai. Hortxe egunetan etorko gintzezan.

4. Baserria

4.1. Lehengo behiak ez ziren esne-behiak

- **Hizlaria(k):** Mandaluniz Gorroño, Zeperino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-012/019
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:42:29. **Bukatu:** 00:43:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** 3-4 behi baserri guztietan egoten ziren, baina ez ziren esne-behiak. Esne asko ematen zutenak geroago jarritakoak dira. Ardiaren esnea gazta egiteko erabiltzen zuten.

Transkripzioa

- Ez orduen esne-behirik ez euan. Orduan ba etxerako esnetxue batu eta biharrerako ganaue egoten zan. Hiru-lau bat behin, horixe egoten zan.
- Esne-behirik eta ez?
- Ez, ez, ez. Orduen esne-behirik iñok be ez hemen. Honek esne-behixek gero ipiñikoak die, gero gero. Honek esne-behixek hemen ipintten hasi zien ta hor berrogeta hamar-hamabost urte, hemen [...]. Hamen lehenau esne-behirik ez zeuan.
- Esnie zer zan ardixena? ze esne edaten zenduen zuok ba?
- Guk behixena, ardixenagaz gaztaie eitten zan, ointxe Sabineke eitten dauen moduen.
- Bai gaztaiek eta gatzatuek-ta.
- Ez gatzatue ez jate gustetan niri, gatzaturik neuk ez dot gure gatzaturik.
- Etxekoa be ez? Sabinen esniegaz eñikoa?
- Gatzatue? A ba gatzatue esan gure dozu? A esne-ure pentseu dot, baia. Gatzatue bai! Ene gatzatue nik hasi zanien nabil jaten, gusteu horixe eitten jat gatzatue. Gatzura aittu dotsut nik, gaztaieri kenduko ure pentse dot nik.
- Gatzatue, "cuajada".
- Hori bai, hori bai gustetan jat. Hori bai.

4.2. Mauma jendez lepo

- **Hizlaria(k):** Baraiazarra Albizu, Serafin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-014/004
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:04:49. **Bukatu:** 00:05:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena:** Bere umea zenean, Mauman jende asko zegoen. Udagoienean jende asko aritzen zen iratan eta elkarri laguntzen.

Transkripzioa

- Ze akordu dekozu zuk umetako honena parajiena edo, Meume.
- Meume zan jentie ta bueno, Meume zan uri bat. Jentie eta bata bestie laguntzen eta udegoixenien eta honetan dana idie izeten zan eta etorten zien Abadiño aldetik eta Berriz aldetik-eta jentie, ta hamen geurien be egoten zien apopillo idi ebaten, idie prepartean. Ta hametik idie eruten eben. Ta hor piperra eta jeneroa hartzen zan hor behietan, eskandalue, bai. Ta hemen, hemen ezebez, atxurraz, artue eta babie ta garixe-ta, soloan, berton hartzen zan jenerue eta geri garie jotie izenien-ta. Oin gari jotierik-eta balego bixamonien garixe jo biher balitz bixer lez, gabien erreta dauz garixek.

4.3. Etxerik etxe gari-jotean

- **Hizlaria(k):** Baraiazarra Albizu, Serafin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-014/005

- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:05:43. **Bukatu:** 00:08:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Garia
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena:** Gari-jotearena behar gogorra zen, zelan moldatzen ziren kontatzen du. Makinarekin lanean hasi zirenean, lau urtean ibili zen inguruko herrietan lanean.

Transkripzioa

- Zelan izeten zan gari-jotiena-eta?
- Gari-jotie gogorra. Ze lelengo makiñiegaz joten zien, makiñie ibiltzen zan. Hemen en jeneral hor Mendatako bat etorten zan, Santi. Ta harek apurtzen zittun, baia gero gasoliñie akabeu zen, gasoliñie ez zan egon, ta gasoliña barik gari jo ezin, motorrak ezin-ta. Gero eskuz, urtietan eskuz, denpora beruaz ganera, zabalduite ipini garixek, eguzkixek berotzen ebanien ta beruan barriz granue ataten jaken. Ta pareu illaran ta ipini zozer behien, ta harri losak, ta hantxe joka. Heutse ta bueno! biherra gogorra.
- Ta ze eitten zan udegoixenien?
- Hori? ez, abuztuen jeneralien, abuztue izeten zan. Bueno abuztue eta bestie be bai garagarrille-edo esaten jako, baia, eurreko hille, hor hil bixetan izeten zan. Gero bai gero hasi zien makiñak eta zerak-eta hasi zien. Ta neu be bai, neu be lau urtien edo ibil nitzen hasi Lumon eta Kortezubittik, Belendiztik, Arratzutik hor zerin gari joten, baia trilladoriaz, garixe jo eta galtzue trilleu ta tubuen botaten eban sabaire ta haregaz. Ta eitten nittuen San Pedro bezperan eruten zien makiñak Lumora, Lumotik honako hametiko parteko espaldara, ta San Pedro bixamonien hasi. Ze hor garixek prest egoten zien San Pedrotarako, ta hantxe hasi beti. Ta lau urtien ta bosgarrenien makiña bat ahalegin ein zosten /eisten/, baia ez nitzen juen. Gustora ibiltzen nitzen e! baia ardura handixe, ze harek makiña zaharrak-eta eukitzen zeban zer eta ituli edo eitteko ta harek katxarro zaharra, ta korreatan eta historixetan beti, beti zeretan. Orduen ni gustora ibiltzen nitzen, gaztie-eta. Ze ibilli nitzen hogeta lau urtetik hogeta zortzi urtera ta ibiltzen nitzen ba itzel. Makiñe bat etxetan lo ta jan, makiña bat etxetan ein dot nik horretan.
- Ta udan izeten zan ganera. Gero jairik jai be ibilko ziñen.
- Bai, dana. Neskatan be bai, danetan. Joe hor ibiltzen nintzen itzel, baia gero.

4.4. Elgetatik Zaldibiara ardiekin

- **Hizlaria(k):** Baraiazarra Albizu, Serafin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-014/011
- **Iraupena:** 0:04:19. **Hasi:** 00:22:06. **Bukatu:** 00:26:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena:** 15 urte zituela saldu zizkioten ardiak zaldibiar bati. Zaldibiarainoko lagundu behar izan zion artaldearekin eta bertarainoko

bidea kontatzen du. Pasarte honetan, Elgetatik aurrerakoa dakar gogora. Txakurra galdu zuen bidean, Zumarragan.

Transkripzioa

- Goizien urten gendun han ta Bergarara. Bergarara orduko ezin ardirik eruen, gose ardixek, gose bezperatik ezer jan barik, ta gose ta ezin eruen ta "deu" jatekoa ikusten deuen lekure. Ta txakurre ona ta txakurrek domineten zittuen. Esan notsen: "Tomas!", "zer?". "Ardixeri jaten emon biher dotsezue, ostantxien ardirik ezin eruen". "Jatekue hemen dau ta hortxe dauz etxiek eta hortxe bate edo baten baten horkoziena da hauseguramente, hau soluu. Ta jun zaittez horra, neu eukiko dittut hamen geldi ta txakurregaz-ta". Jun zan ta etorri zan gizon bat, beraz ez dakitz nik aittu edo zer ein zen, etor zen ta "hola" ta "hola" ta "ze guzu ba?", "honexei jaten emoteko [nunun] ze gosiaz amorrotute dauz -ta". Zerien "bai, bota horra" esan osten. Laster jun zien bai, ordu eta erdi inguruen euki genduzen, baia jan, [...] jatekue. Jan eben eta bueno, urten eta eurrera. Bergara paseu gendun eta eurrera Zaldibiara. Zaldibian barrue, erdi-erdixen barruen bertan nau zer batzuk hango giputz batzuk Bizkaire, ardixekin honantza ta gu harantza, ezin kurtxeu, guardasola be han galdu nabn ta txakurre be bai. Haren berbetie eta aittu ez txakurrek eta txakurre ba billurtu ein eben gure txakurre, ta txakurre desapadezidu jaten. Kauen, eskerrak ardixek juanda egon zien eta ba eurrera. Harekin kurtxeu giñen ta. Hantxe Bergaran salida-salidan goiezela: "Serafin!" didarra. "Ta ze kristo dau hamen?". Beittu nabn gora ta Luzia, hamengoxe Asteikue, Asteiko alabie, hara ezkonduete, ointxe etxe zaharra ointxe barrixe ein dabe hor, hortxe zaharrekue alabie zan. Hantxe berba bi ardixen eurretik joan nitzen ni-ta, ta txakurre albotik eruten nabn ta hantxe berba bi, eurrien hau zesto palizakin zerak eitteko fabrikie, otzarak-eta besoko horrek alfadunek eta holakoxiek eitteko fabrikie eurrien eta hantxe pare-parien, beste aldien eurrera. Gero Deskargara, Deskarga esaten jako han aldapa bat igon ta goixen, han paradie. Han eindde egon zan lekue, alanbrakin, hiru leku, pastore bi etorten bazien be, ezta? baktzari lekue eindde ekezan harek, ze han pastoriek hemetik harantza eta honantza etorten zien ta puntue hartute deskantsue eitteko. Han geldittu giñen ta kamiñuen beheko partetik euen baserri-etxe bat, ganau pillue eta idixek-eta pillue eta han gabien, ño! ez nabn aittu be eitten esaten ebena be, "titaute" pareten jaten zera ta aittu be ez nabn eitten, ta desesperaute, dios! bueno, bixamonien egunek zabaldu eban ta eurrera. Joan giñen eta hurrungo egunien gabien allegeu giñen hara, zerien, illundute Beasaien, dana soldaue han, Beasaien soldau asko euen orduen, soldau euezan-ta, dana soldaue ta gabien danak etorritte ta txakurrik barik, segiten eusten ardixek baia beste horrek atzetik ez zittun manejetan eta eurrera. Ta gero han trenbidie paseu ta eskumera hartzen da gora [...ra] juteko eta allege giñen, ez daitz ze ordu izengo zan illundute, illundute paseu giñen Beasainen be ta.

4.5. Ardien usainaren atzetik Zaldibiara

- **Hizlaria(k)**: Baraiazarra Albizu, Serafin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MUX-014/012
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:26:25. **Bukatu**: 00:29:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena:** 15 urte zituela saldu zizkioten ardiak zaldibiar bati. Zaldibiarainoko lagundu behar izan zion artaldearekin. Bertara heldu zirenekoa kontatzen du. Afaltzen zeudela Zumarragan galdutako txakurra azaldu zen, usainari jarraituz topatu zuen Serafin.

Transkripzioa

- Jun giñen ta allegeu giñen, itzelezko kortie eken ardixentzako ta sartun genduzen ardixok eta zerera, pisure, bigarren pisuen pentseten dot, lelengokoa ala bigarrena zan ez daitz. Baekezan gitxi lau bat pisu-edo eurek bizi zien lekuen. Joan giñen eta andrie euen han, lau ume, baia ume edarraurik! Pentsetan egon nitzen, beittu netsen hareri umieri ta beittu notsen berari ta "kauen dios" ha henbrie be itzela e, baia umiek? zelako umiek! Lau. Ipin oskun aparixe, aparixe zelebrie ganera, nik ez dot etxien sekule jan: urdixe lelengo, bota eban sartanera ta gero tomatie. Ta tomatie urdixe paretan da laban eskasau tomatien eindde urdixe ta urdixe paretan da, ta bueno zozer jan gendun-ta. Jaten gauzela, "kikiki", txakur-irrintzie atien. Pisue, bigarren pisue dala pentseten dot e, bigarren pisue igonda atien txakurre, ensegida irrintzie entzun naben ta pentse neuen: "horixe da txakurre!". Jun andrie, zabaltzen deu atie ta "rreu" neugana, sartun jaten ta altzora ta txakur hori, bueno! orduntxe umorie orduntxe etor jaten, kauen, ha txakurre? estimauau euki nauen txakurre, txakur ona bazan txakur gorri bat, laranja-laranjadie txakurre ta biherrien-ta dios ha txakurre. Burutik be kendu eziñik egon nitzen, ta etor zanie, bueno.

- Ta tope ein otsun.

- Bai, ia Beasainen galdu txakurre Beasainen ez, Zumarragan, Zumarragan galdu txakurre ta usiñera nora etor zen, bueno usiñera fasil egon zan, ardixetatik eta zerien usiñera, baia ardixetatik gero hara habitaziñora etortie txakurre, orduen ba atiek-eta zabalik egoten zien. Oin atie behien behien joteko, zabaltzeko, tinbrie jo eta historixak ein biher die; orduen atiek zabalik egoten zien. Txakurre sartu, igon eskillaratan gora eta atien txakurre. Ta gero neure onduen. Ba andri horrek esan eban ba: "kuartuen bertan euko dozu gabien be", manta bat bota otsen ohien eurrien, ta ni ohien ta manta baten ganien txakurreeurrien euki neuen. Dios buruen pasetan, dios!

4.6. Ardi-latxak eta sasi-ardiak

- **Hizlaria(k):** Baraiazarra Albizu, Serafin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-014/017
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:38:30. **Bukatu:** 00:40:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena:** Inguru honetan ardi-latxa baino ez da egon. Orain sasi-ardiak ere baditu bere semeak. Bildots-salmenta ugaria zen.

Transkripzioa

- Ta ardixek bakarrik latxie eukin zenduen?

- Bai.
- Hamen parajien beste ardirik ez da egon.
- Ez hemen ez da egon besterik, ez da egon. Oin honek semiek eta horrek Karmelok-eta dekez hor, horrek sasi-ardixek esaten jakenak, buru gorri txikitxuek, baia horrek barrabasak baiño txarrauk die horrek, horrek, horrek. Horrek? horrek noberan ganetik be bardin-bardin be joaten die. Bai, bai. Estutxen bazu horrek ganetik bardin, saltue horrek! Igezko negue hemen gure landan paseu eben. Ze horrek billotsak, ontxe dauz billotsak eitten. Ez dekiez hirogeta, hirugeta hamerren bat-edo, holako bat dauz, ez deke pillo handirik. Ontxe dauz billotsak eitten ze horrek ahariyek berandu botaten dotse, udabarrire billotsak eitteko ze negu-neguen horrek egon die basuen ointxartien. Ointxe dala zemat? Hamabosta-edo ez da izengo kortan sartun dittuela, oin kortan dauz, bai. Baia, horrek ez die bitxuek.
- Horrenbeste ardi eukindde ta gero bildotsak, ez zenduen okeletarako saltzen-edo?
- Billotsak bai, billotsak danak. Eurrerako izten genduzen ba emiek zienak, urrusak, eurrerako ba izten zien ba hogeta hamar-hogeta hamabost urtien izeten zan hazten zienak, ze gero zaharretatik kendu eitten zien holako bat eta eitten zan, ostantxien billotsak lehen billotsa oin egon be gitxi dauz.

4.7. Gaztetan beti beharrean

- **Hizlaria(k):** Martitegi Iturrioz, Felipe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-023/002
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:01:57. **Bukatu:** 00:03:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Gaztetan behar asko egindakoa da. Erromeriara joanez gero, arin erretiratu ez arren, hurrengo egunean goiz altxatzen ziren lanerako.

Transkripzioa

- Ta ba holantxik. Baia gure gazte denporie, gure gazte denporie, ze esango dotsut ba? biher ta biher, ta domeka arratsaldie harrapetan bazan jai, ta astelehenien-edo jaitxue izen ezketiño Gernikera, baia oin ez, oingo moduen ez. Berandutxu etorten bazara, hurrungo goizien goizetik altxe biher. Ta oin lo, gaztie lo eitten dabe oin. Gabaz juergan eitten badeue, egunez lo. Ta "¡vivid y viva la virgen!". Bai, halantxik de-ta.
- Ta lehen biher ta biher.
- Ta lehen biher ta biher. Hau, guk erromerittik, bueno jai bet izen badan urrixen atzena edo holako jai bet, berandutxu etxera etorten giñenien, hurrunguko goizien aittek ariñau altxe ogetik ta biherrera.
- Baserriko biherratan.
- Baserriko baserrixen. Guk hementxe ataten giñun bizimodue, hementxe baserrixen. Zuen aittittek eta amumak ataa deuen moduen.

4.8. Idiarentzako baba, zahia eta ardoa

- **Hizlaria(k):** Urkiza Etxebarria, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-033/012
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:29:40. **Bukatu:** 00:32:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 - Aisia » Kirola » Herri-kirolak
 - Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Gauez baba eta zahia ematen zieten eta Zornotzako probetara joan aurretik ardoa ere bai. Ardoak berotu egiten ditu idiak. Idi bakoitzari azunbre erdi ardo ematen zieten, litro bat. Santi Morga ezagunak kapritxozko idiak zituela dio.

Transkripzioa

- Ta entrenatako ze emoten zotsazun idixeri-eta probatako ta ze jateko edo ze?
- Jan guk? Guk geuk ezebez, ididxeri babie, ididxeri babie ta gabetan horra Zorrontzara joateko ba ardaua emoten notsien gabien.
- Ardaue?
- Bai goizien babie ta zahidxe ta gabien ba jatekoa ostantzien ta ardaua. Ba sarri euki giñun ogetik jai ta mantetute mejore dittezen apur bet ta izerditten egoten zien korta, ta.
- Ta ardauek ze eitten otsien ba?
- Ardauak berotu, berotu, bai. Hemen koadrilla bat junteu zen gero ba jokatzeko ba euren artien, ta harek pageu ostiezan ardauak-eta.
- Bai ze merke ez dotsun urteko ba.
- Ez, ez zauen zorrik-edo, baia pozik hantxe zerien-ta. Nik neuk ez betiko jatordue bai, baia babie ta zera ardaua ba koadrillien konture.
- Ta zemat ardau emoten tsazuen ba?
- Bakotzari azunbre erdi ardau ingeru.
- Zemat da hori?
- Litro bat.
- Litro bat.
- Litro bat bai.
- Eta bestiek be hori emoten bien, beste probalarixek -eta be bai ardaua-eta emoten zotsien?
- Bai, bai.
- A orduen normala zan?
- Bai, bai, bai. Ardaua holan proban-ta dabillenak asko, babie, zahixe ta ardaua. Bai, bai esaten euen honek Santi Morga, hemengo Morgako bat, afanekoa zan ta idixek be onak eukitten zittun onak beti ta oillotan be baztarrak eukitten euen. Ta andriek esaten euen eurenien jaixoten dien arrutzek erdixek idixek jaten dittuela, gizonak erregular gabetan arrutzek, bai bai. Ta proba asko irebazten euen, asko, idixek be kapritxokoak ekezan ta, beti zan, "nor?" ta "Santi Morga". Ta Santi Morga ta bai, lbarran zera zan hori, andrien aitte.

4.9. Buztarriak zelan egiten diren

- **Hizlaria(k):** Urkiza Etxebarria, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-033/017
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:40:50. **Bukatu:** 00:43:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena:** Buztarriak egiteko pagoa eta intxaurra behar izaten zen. Pagoa handia izanez gero, ziriekkin laurentzen zuten presara bota aurretik. Uretan izaten zuten behar zen arte. Morgako buztergin batek egin zuen Jesusen buztarria. Urkia ere erabiltzen zen inoiz. Ziriekkin zelan laurentzen zuten azaltzen du, laurendu ostean urtera bota behar izaten zen ez sikatzeko. Buztarria egiterakoan, egosi egiten zen eta ostean seboa eman ez arrakalatzeko.

Transkripzioa

- Eta Buzterrixek?
- Buzterrixek ein ein biher. Neuk be Barrutabeñan orduen buzterrixek eitteko pagoa edo intxurre edo holakoa izeten zan, en /bidana/ biher dana. Ta ze eitten euen? Ba pago batek zera bada, zirkunferentzi handitxu bada, laurendu zirixekaz ta gero presara bota. Ta neuk be ezin neun topeu zerik, buzterrixek, oniñogarren buzterrixek kamaran dau, ta laurendu ta han uretan euki /bidanerako/ biher danerako. Ta hara handik atara ta ekarri ta Mendigurenen /eisten/ ein osten Morgako buztergin batek. Buzterrixek holan.
- Merkiek be ez zien izengo ezta?
- Tire ba. Orduen orduen be, orduen be dirue kostetan zan-ta, baia ba /bideunak/ biher deuenak /bideu/ biher deu ta ein ein biher.
- Orduen zer zan intxurre ta...
- Intxurre ta pagoa jeneralien, urkixek be bai, baia jeneralien hori.
- Ta esan dozun hori "laurendu"-eta eitten zala-eta. Zelan eitten zan?
- Laurendu zirixekaz, honekaz porriegaz jo ta arrakalatu erdittik ta gero erdi bi eitten zan lelengo, ta gero, ha erdixek, ha be erdi bi, ta gero segiduen ein biher ez badeu uretara bota siketu ez ditten, bai gogortu ez ditten.
- Ta gero berari be ze emoten jakon ganetik, barnixek moduko zozer, edo ze emoten jakon buzterrixeri?
- Seboa guk.
- Seboa?
- Bai.
- Seboa, ta zetako izeten zan seboa?
- Arrakalatu ez deitten. Lelengo egosi eitten zan buzterrixek balde baten-edo, ostantzien arrakalatu eitten dala ta sostenitako ta gero seboagaz bai.
- Baia buzterri bat bizi guztireko, ezta?
- Bai zera! Bai zera, ke ba!
- Estropietan zien?
- Bai, igual idi pareja bakoitzeko ba buzterri bet-edo, halan.
- Baia zemat zematero barriztu biher izeten zan buzterrixek ba?
- Buzterrixek barrizteu ein lei, baia segun nundik. Kasu baterako, idixek kokot handixek badeko, ba orduen hemengo zera naseittu ein /bitsezu/ biher dotsezu ta /eittetsie/ eitten dotsie barrutik jan, ta adar-lekuek-eta.

4.10. Urebarro: Zornotzakoa eta estraperlo etxea

- **Hizlaria(k):** Esturo Orue, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-037/022
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:45:01. **Bukatu:** 00:47:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Urebarro, Juanitaren jaiotetxea, beti egon da Zornotzako lurretan; Autzagana aldeko etxeak, ostera, Etxanokoetan. Urebarro estraperloko etxea izan zela dio, ardo zahagi asko saltzen ei zen.

Transkripzioa

- Eta honen etxien historixw apurtxo bat kontauko dozu?
- Honen etxien historixe, zer kontauko dotsut nik, gazte nintzen-ta? Nik, ezetu...
- Baia Gorozike, Zorrontza edo...?
- A, bai.
- Etxano...
- Ez, ez. Hau etxie, beti-beti izen da aiuntamentuz, Zorrontza. Ta beittu, Euntzagane ,hor oin tapaute dauz, hor beste Zabale, Dorre San Juan, beste bat hor dauz. Horrek danak, Etxano. Ta Euntzagane, beittu eizu, bertou dau-ta. Hori be Etxano. Ta gu beti- beti izen gara Zorrotza ta beittu eizu hau nun dauen. Ta hau etxie izen eizen lehenau, kontrabandoko etxie. Hamen arda asko saltzen ei zeuen hemen etxien. Larrabetzure-ta mendixetatik, ze lehen estraperloan ezin ei zeben saldu, zeretán, holan, nik ez dakit ba, zelan izengo zan. Ta hamendik Larrabetzure-ta eroaten egiten ei zeuen gabaz arda asko. Ta bertora be hortik Etxanotik. Ba hor bastante hurrien basoa-ta zerien, Euntzaganarantzako honeri toketan jakozenak. Hara sartu arte billurraz. Gero, hara sartzen zienien Zorrotzara, pozik. Ba horrek lehenako zaharagixek, zuk iguel ez dozuzan ezeutuko.
- Ikusitte iñoiz bai.
- Harek zaharagixek lepoan hartute, hona ekarten ei zittuezan. Ta hamen gero upilako afarixek eta zerak-eta. Hamen, hainbeste arda saltzen ei zen. Tabernie ez, baia kuadrillie etorri, ardaue bille ta gero hamen, juerga itzelak.
- Negoizoa be bai?
- Bai. Dana saltzen ei zen hametik. Ta gure aittek ni gaztie nitzen, baia oindiño neuk be, zeozen akorduen dekot. Neu be, geuze asko eindde nau-ta.

4.11. Etxea eta medikua Zornotzan; eskola eta ortusantua Gorozikan

- **Hizlaria(k):** Esturo Orue, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-037/024
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:48:10. **Bukatu:** 00:51:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen

• **Gaia(k):**

Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak

- **Laburpena:** Zornotzako lurretan dago Urebarro baserria eta Zornotzako Kortederra auzoko baserri bat Gorozikakoa (Muxika) da. Lehen bakoitza bere herriko ortusantura joan behar izaten zen, baina jada bakoitza hurbilenekora doa: Urebarrokoak Gorozikakora eta Kortederrakoak Zornotzara. Eskolara ere Gorozikara joan zen lekua zegoelako, osterantzean Zornotzara joan beharko litzateke. Medikua beti izan dute Zornotzan.

Transkripzioa

- Ba beittu eizu, ointsungo etorri zaniel hona alkatie, esan notsen, Zorrontzakoa: "Jjakin dozu, hau baserrixe nun deukezun be?", "Ez, ointxe zerien, izena be, nun dauen ez dot jakin". "Ba, onak egon gara gu alkatiek jakin ez geure etxie, nun dauen be!".

- Ta iñoiz ez dozue ein ahalegiñik edo Gorozikera pasetako hau etxie, aiuntamentuz?

- Eske, beittu eizu, eingo ete deuen be bai. Kortederren dauko Gorozikek, etxie. Bakizu, ezta?

- Bai.

- Ta gu ba, ortusantuz be, hor enterreu, ezta? Ta lehen ez ei zen eitten.

Lehen, Zorrontzara. Bai. Lehen-lehen, lehenau. Baia gero, Kortederren hori zertu zeuenien, Kortederrekoak Gorozikera ekarten eitten ein zittuezan. Ta gero konbenixoa ein ei zuen /ein ixueun/ aiuntamentuek eurek. Halan ibili barik, gu Goroziken zertzeko ta harek Zorrotzara joateko. Holan arreglau ei zan, esaten deue.

- Bai ze, hau dau...Hau da Zorrontza ta bestie, Etxano.

- Bai.

- Ze diferentzi dau hori, Amorebieta ta Etxanon artien edo ya, Zornotza beste geuzta bat da edo...?

- Eske, aiuntamentu bi eon zien orduen. Etxanok, beren aiuntamentue euki euen ta Zorrotzak berena. Ta gero unidu zien; hako, Gorozike Muxikeaz ein zen moduen. Orduntxe ingeruen zertu zen. Eskolara be hametik lehen, nire lehengusiñek albokoak? Zorrontzaraiño juen biher izeten euen.

- A, bai?

- Bai, bai.

- Ta zu Gorozikara?

- Gu Gorozikera.

- Ta zeba hori?

- Ze esango dotsut. Gero gu Gorozikera, gure ama joan zan maistrina. Ta Gorozikekoak esan eben lelengo, guri ez jakule toketan hara. Eskola nazionala zan, gobiernuen eskola nazionala. Ta gure amak esan eban, joan zan eta esan otsen, esplikeu ein otsen maistreri. Ta esan ein ei otsen:

"Bueno, zu bota hona, ze iñok ez deko deretxorik ba zure umieri galazoteko. Ze,hau gobiernuena da. Oin, kupoa beteta egon ezkerro, herrikoak diz lelengo. Baia bixen bittartien kupoa bete barik badau, bota zuk umiek". Ta gu holantxe hasi gintzezan Gorozikera.

- Ta zuek Zorrontzara ezertan juen biher izen zarie, iñoiz? Medikure edo holan?

- Bai, beti.

- Medikure, Zorrontzara. Gorozikera, ez?

- Gu mediku ta zer guztixe, aiuntamentue Zorrontzara. Ta Zorrotzako medikuek be hona etorri biher izeten deu, bera Zorrontzakoa.

4.12. Zornotzako aguazila oinez Urebarroraino

- **Hizlaria(k):** Esturo Orue, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** MUX-037/025
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:51:12. **Bukatu:** 00:54:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak
Lanbideak » Udal langileak
- **Laburpena:** Gerra denboran errazionamenduaren bila Zornotzara joan behar izaten ziren oinez. Aguazila ere bertara arte joan behar izaten zen txerria pisatzera. Aguazilak ezer egin aurretik albaitariak eman behar izaten zion onarpena.

Transkripzioa

- Gerra denporan beittu eizu, errezionamentue emoten eben: libretxu bet orixo, hau, bestie, kilotxu bet garbantz. Pingoak, pingoak. Zorrontzaraiño bajatu biher izeten giñun /izetegun/. Han kolan planteute, orixotxue hartzen, libretxu bat-edo. Orixo, azukre morenoa ta jaten orduen useu. Asike, oiñez, e! Lelenguen bakizu taxistiei ze esan notsen? Esan eusten: enee! Neuk esan notsen: "Beittu lehenau, oiñez etorri biher izeten giñun /izeittun/. Ta ez hutsik; kargeute. Zestillie bete, errekaduekin, zera-ta". "Eske nahikue eitten dozue!", "Bai". Ta esan notsen: "Ganera lehenau bakizu zer? Aguazille Zorrotzakoak be honaxe etorri biher, honaxe etxera etorri biher izeten euen". "Zegaittik ba?", "Zorrontzako partie zan. Ta lehenau txarrixek hiltten zienien be, aiuntamentue etorten, pisadie hartzen txarrixena". Gero, kobrau eitten euen pisadatik-eta. Pisuek hartu lepoan, horrek pisuok, "romanos" esaten dotsie, horrek neusixok" ta aguazille etorten zan Urebarrora. Txarrixixe pixeu ta hartu bere pisue lepoan ta joaten zan. Ez dosten sinisten zerak, taxistik.

- Eutzagane igon ta bajatu edo ze basotatik joaten zien, ba?

- Ba, hametik egoten zan; hortixik soloetatik Euntzaganera, ezta? Hortik ensegida ixoten zan. Bueno, ensegida edo ba zera. Baia buelta guztixe barik ba, hortik zerien-ta. Ta Zorrontzan hasi te oiñez etorten zien, euren pisuek hartute; ze orduen aguazillek be kotxerik be ez eben eukitzen-ta. Ta pisuek lepoan hartu ta piseu. Ta hamen ba gure amak beti emoten otsen ba, tragotxue ta zeozer jateko. Jan, politto juten zan beran pisutxuekin. Gure aitte zera zan ta: "bebe hombre porque tienes que subir la cuesta de Autzagane y con estos pesos y todo. Bebe". Albo-alboka, ala, ixoten euen. Ta betenarixoa be txarrixixe hiltten zani, honaxe: ona bada edo ez ikusten. Ta betenarixoak ikusi arte, ezertan hasi bez. Tripek-eta atara. Etorten zan, betenarixuek ikusten eben ta: "Ondo dau". Orduentxe zer guztixe.

- Holan geuza, aiuntamentuko gauzstarako, beti Zorrontza?

- Bai.

- Aguazille ta holakoak?

- Dana. Ezer zerik badau be, aguazillek etxera notizixe emoten.

5. Herria, azpiegitura

5.1. Gernikara trenez; etxeko ardua

- **Hizlaria(k):** Mandaluniz Gorroño, Zeperino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-012/029
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:59:19. **Bukatu:** 01:00:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gernikako bonbardaketako egunean, trenez joan ziren Gernikara. Sasoi hartan, Zugastietako tren-geltokia hurbil zegoela iruditzen zitzairen, ohikoa baitzen oinez joatea; Gernikaraino ere askotan joaten ziren oinez Undatik. Bonbardaketa ostean tren-zerbitzua bertan behera gelditu zen. Etxekoek Gernikako eraso aurrez aurre ikusi zuten eta arduratan egon ziren zain.

Transkripzioa

- Gernikera han astelehenien zelan joan ziñien?
- Trenien. Undetik trena. Orduen hur-hurrien eukitten gendun estaziñoa, ez gendun pentsetan urrun dauenik guk. Zugastietara pentseu be ez! Ta baten baiño sarrixau, ta baten baiño sarrixau Gerniketetik be oiñez be, Undera. Bai. Oingo moduen, oingo umiek ez dauz holan useute.
- Bonbardeo eta gero ez trenik ez ezebez ez zan geratu han.
- Ez. Guk danok anaixa difuntue eta ni eta beste lehengusue handik urten giñunien ba! "¡Echando rayos!".
- Eta Undera heldu ta zer? ze konte zenduen?
- Ze konteko geñun ba? Paseu zana. etxien arduretan.
- Entereu zien, ala?
- Gernike zelan apurtzen, zelan apurtzen ta bonbak botaten ikusiko zeuezan ba Undetik. Jesus, Maria ta Jose! Horixe bai! Horixe bai. Undetik hori urrin, baia bistan dau. [...]. Arduretan etxien. Bai, harek denporak paseu zien. Ta holantxik paseu zan.

5.2. Undan zenbat gura ur zuten

- **Hizlaria(k):** Mandaluniz Gorroño, Zeperino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-012/037
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 01:12:22. **Bukatu:** 01:13:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena:** Undan etxe aurrean zure zenbat gura ur. Izan ere, garbitoki handia zuten eta beste auzo batzuetara ere horko ura eramaten zuten. Burdaria auzokoen arazoak izaten zituzten ur gabeziagatik.

Transkripzioa

- Eta zuek uretan nora joaten ziñien, ur bille?
- Unden? Unden bertan etxe eurrien geunken ure, zemat gure, labaderoaz. Goidxen goiko kofradidxen hiru bizimodu dauz ta gero ermittie eta ermittie orduko nire jaidxotetxiedau, beste hiru etxe dauz han. Haren hiru etxien eurreko partie labaderoa eta goikoak be igual-igual euren labaderoa eukien. Uren faltarik ez euan. Ba horkoxe ure dau eroanda lborri danera ta, danera. Burdidxera horkoxe ure dau eroanda.
- Oin ur deposittoa be han dau.
- A oin hori depositeo neusidxe? Hori honetarakoa da, hori honetarakoa da.
- Ta ganaduentzako ure be bai? Handik hartzen zenduen?
- Ene! labaderoan ganaue, zemat gure, gure dan beste ure. Eta ure zerien barik etor zanelez, zangan etorten zan ure ganauek gure bana edaten eban ure. Unde uraaz ondo egon da beti. Ondo. Burdidxe txarto. Burdidxe uraaz-ta txarto ibiltzen zan. Burdidxen hemendik edo ez daitz nundik gora, ba horrek be [...]. Oin bai, oin hemengoxe ure, hemendixik doan ure doie danien. Gero depositeo ein euren hor, [...] baiño gorau ta hori danera doie.

5.3. Ertzillatik jasotako argindarra; petrolioa

- **Hizlaria(k)**: Mandaluniz Gorroño, Zeperino
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MUX-012/038
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 01:13:46. **Bukatu**: 01:16:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena**: Undan Oka auzoko Ertzillak sortutako argia zuten. Baina askotan ez zuten izaten argi nahikorik Gernikarako argindarra ere bertatik igortzen baitzen. Bestelakoan, petrolioa erabiltzen zuten. Karburua heldu zenean, aurrerakuntza handitzat hartu zen. Elektrizitatea ezkondu ostean jaso zuten.

Transkripzioa

- Eta argidxe?
- Argidxe lehenau lehenau, hemen honetan ez euan argirik, baia Undan egon zan argidxe Erzillana. Erzilla Okakuena egon zan, baia zer? erdixetan bez argirik. eta egoten zanian be kandela bat hoba argidxe baiño be. Bai, klaro! Harek berak indder gitxi lehen eta gero luzetu eban, Gernikera artien luzetu eban linea, eta emon ezin. Argirik emon ezin, emon ezin. Gero ba jentiek ez, gero ba itzi ein otsien /eintsien/.
- Eta karburua-eta ez zenduen ibilli zuek?
- Karburua. Lehenau petrolioa, petrolidxa lehenau, karburua agertu zanian handidxe zan. Eta gero butanoa agertu zanian, ez zan biher argiirk.
- Eta petrolixoagaz zelan ibiltzen ziñien, ba?
- Kandillien. Holako kandiltxu bet, farola? ta sartzekoa eta petrolioa beteten zan metxiaz, metxia hartzen zan gioittik behera eta petrolidxo usin bet etxe guztidxen be negargarridxe. Baia orduen petrolio usiñegaiztik bardin-bardin. Geur die, geur die honek [enpaidok]. Orduen petrolio usiñegaiztik zer zan bez.
- .- Eta etxe danetik ibiltzen ziñien horregaz argittasunegaz?

- Bai.
 - Sabaira ta dana?
 - Farolaaz, baia. Farola zertxu bet, holan koadrotxu bet, kristelaaz ta han barruen joaten zan zera eta batundekoa goidxen eta bat eusten eta bestie sabaire joaten baziñen beste bat eusten zerori. Gero karburua joe, karburua handixxe zan. Gero butanoa agertu zaniene butanoa izen zan ba geurko argiriik, elektrizidaderik handixena baiño edarraua. Bai.
 - Ta Undera etxe danetara batera heldu zan argidxe?
 - Bai, gero bai. Iberduerok, batera.
 - Eta hori oin dala zemat urte heldu zan? zuk ezkondu eta gero edo eurretik?
 - Gero. Muniketa geroau. Hemen geroau, Muniketa eta hona. Hemen gero, hemen oniño argidxe etor dala zemat da ba? hau ekarri deuela hona, Meumera eta? Hogei urte?
 - Gehitxuau izengo da.
 - Hogeta hamar ez, ba zen eingo die, hogeta hamar urte edo, ete da gero? ete da gero?

5.4. San Pedro ermitan bataiatua

- **Hizlaria(k)**: Baraiazarra Albizu, Serafin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MUX-014/002
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:00:18. **Bukatu**: 00:02:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
 Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
- **Laburpena**: Bera jaio zenean, 1929. urteko azaroan, Ibarruriko eliza eraikitzen zeuden eta San Pedroko ermitan bataiatu zuten. Bere ahizpa izan zen eliza zaharrean bataiatutako azkena; eliza zaharra gaur egungo frontoiaren atzealdean zegoen. Sasoi hartan bere aita Ibarruriko zinegotzia zen.

Transkripzioa

- Veinti nuevien, nobienbrien zortzixen, hogeta zortzixen. Iburriko elizie eitten egon zan, bai ta ni bautixeu nitzen San Pedron, ze eitten ibil zien eta ikusi ein naben trapu artetik.
 - Orduen San Pedron bautixenikue.
 - Ba horrek dekoz ba larogei urte. Bai, inaugure zala, akabeu ebela gehitxuau tardeuko eben.
 - Ba ume asko ez die egongo San Pedron bautixenikoak.
 - Ni ta hau Txoidxenekue, Pilar be bai, hori be diferentzi txikikue da-ta. Bittori Goikoetxekoa, ez daitz ba, ha zozer hille batzuk gatziaue da-ta.
 - Ze Bittori, zure lehengusiñe?
 - Ez zerekue, Goikoetxekue. Pastoriegaz ezkondu dauena.
 - Nire aitten lehengusiñe.
 - Bai. Ze nire arrebie ta Karmen Etxeandikue atzenengo eliza zaharrien bautixenikuek, han frontoien atzienen elizie lehen, ta horrexek azkenengo bautixenikuek hor. Ze nire aitte konzejal izen zan Iburri ta harek ekizen horko zerak, mobimientuek, ze han geldittu zien papelok eta zerok, harek erretire zittuezan zati batzuk, baia gehixenok erre ein ei zien. Ta Karmen

Etxeandiko eta nire arrebie, Zornotzan bizi zan, ta harexek bixek atzenengo bautixeunikuek eliza zaharrien. Gero atzeraukuek ez dakitz, edo eurreraukuek esan gure izen dot. Harexek agertu ziela atzenenguek.

- Ta orduen eliza barrixe ein bittartien, mezie ta dana zer eitten zan San Pedron?

- San Pedron.

- Eta intierruek eta be bai?

- Eingo zien, ez daitz hori. Intierruek be bai besterik ez zeuen, elizie akak eta bestie akabeu arte. Ze treintan-edo zertu ebela, ineugure ebela zer hori, barrixe. Entzunikuen nik be, baia. Gurien aitte difuntuek horrek ekizen, horrek bueno martxok.

5.5. San Roman eta Ugarte arteko mugak

- **Hizlaria(k)**: Ajuria Duñabeitia, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MUX-017/004
- **Iraupena**: 0:04:58. **Hasi**: 00:06:59. **Bukatu**: 00:11:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Amona auzoaren izena berria dela dio, beraien etxea San Roman auzoan sartzan dela. Errekak zehazten du muga Ugarte eta San Romanen artean. Udaletxea ere berez San Romanen dagoela dio.

Transkripzioa

- Ze hamen berton, Amonan, ez dau ezebez, ezta?

- Hori "Amona" entzun be ez dot gure.

- Ez, zelan da ba?

- "Barrio San Roman". Honen entzuterik be ez dogu euki. Hau nundik datorren iñok be ez daki, "Amona".

- Nik be ez dakitz, nik be entzunde.

- Bai, bai, bai. Hau "Barrio Amona" nire karnetak ez deko "Barrio Amonarik" esan naben eta nik ez dot kanbidxetan San Roman ez dot kanbidxetan nik "Amona" guztidxegaitzik be esan notson, esan netsien, ta beittu karnetien ta "Barrio Amona".

- Ta hori izena nundik dator ba? "Barrio Amona"? Zuk beti ezetu dozu "San Roman"?

- Bizi guztidxen. Bizi guztidxen San Roman eta San Romanek entzutie itzela euki deu. San Romanen lehenau eitten zien erromeridxek, beuno! Ez zeuen eduki, ez zeuen euki zerik bez.

- Baia honek etziek San Roman, elizaz San Roman da orduen hau etzie?

- Ba ba hau zera handiko partie errekie oin errekie kurtzetan deu, handiko partie Ugarte da. Ta honeri behekoari, ez daitz ze esaten dotsen, baia Ugarte, Ugarte da. Ha Elizaldetik datorren errekie, ta honen bestie errekie ha ndik harantzekoa Ugarte da, ta hau hametik honantzukoa San Roman. Astelarrekoa, Astelarren ez daitz nun dibisiñoa eitten da, Ariatzako partien sartzan da hor.

- Ba nik beti eduki dot entzunde "Amona". Niretzat hau be geuza barridxe da.

- "Amona" ontsukoa da, ontsukoa da "Amona". Zemat? Hondiño urte gutxi dekoz "Amona" k, urte gitxi-gitxi. Astelarrak ez daitz ibilli bazan hau, baia San Romanaz ibilli da hau beti, San Romanaz.

- Zuek beti esaten dozue San Romanekoak zariela?

- Bai, bai.

- Guretzat San Roman da han goidxen dauen euzunie.

- Estaziñotik gorantza, estaziñotik gorantza bai. Handiko zereraíño, trokaraiño, San Roman. Ha Elizaldie Elizaldie atrapetan deu goittik behera etorritte, han [Kolaganeko] ha errekatxue bet sartzen da hara ta bestie gero errekie dator hor, ta han errekien hona hametiko partetik San Romanekoak diz. Asike eske ha Elizaldeko Pertikena Pertikan hara, zera harek ze izen deke ba, etze bi dauz aiuntamentuen beste aldetik, aiuntamientue dau hamen, Ugarte. Ez, aiuntamientue ha be zerien badau, San Romanen.

- A bai? Errekien beste aldien dauelako?

- Aiuntamientue be San Romanen dau! Nik bestiek, nau bestien zeranak, baia aiuntamientue San Romaneko partie.

- Errekie han goittik beherako errekiek ebaten deu ta gero bestie bestie beste errekiek ebaten deu asike eske, aiuntamientue, Muxikeko Elizaldekoa, San Romanen. Ta hau bestie, hau lehengo aiuntamientue eskolie dauena, Ugarte, "Barrio Ugarte".

- Eta oin hamen "Amona" esaten dotsiena ze etze sartzen zarie hor?

- Ba ba errekatik hona harek Zubietako etziek, Astelarran, Astelarran harek etziek, "Luparidxa", Galtzape, ta honek eiñiko honek txalet honek bidxek, hau alabiena eta bestie konsuegroagaz ein beheratxuau beheraukoana, ta hametik Borikene. Ta gero dibisiñoa dau hor gorau, Ajangiz sartzen da-ta, ya hor norbera bajatzen bada Ajangiz dau hamen. Hau hamen, hona behera, ez, bajatzen zarenien, handiko partie Ajangizkoak die horrek, "Barrio Kanpantxu".

- Zuek hurrau zauzie Ajangiztik Muxiketik baiño.

- Haidxe Elizaldie, ha Elizaldie urriñau dau, Elizaldie urriñau dau, Elizalderako juteko, Elizaldie Muxikekoa baiño Ajangizkoa zera urriñau dau. Ostantzien, ha arraidxan-arraidxan dekogu dana, han goidxen hasitte, zereraíño beheraíño, Ajandiz dau berton.

5.6. Kurtzeroko eskola

- **Hizlaria(k)**: Ajuria Duñabeitia, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MUX-017/005
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:11:57. **Bukatu**: 00:12:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Umetan Kurtzeroko eskolara joaten ziren oinez. Domeka eta jaiegun guztietan mezara joaten ziren, bestela bekatu mortala zen. Kurtzeroko eskolan inguruko ume guztiak batzen ziren. Kanpantxuko (Ajangiz) batzuk ere Kurtzeroko eskolara joaten ziren hurbiltasunagatik.

Transkripzioa

- Zuek umetan hemendik nora joaten ziñien eskolara-ta? Horra, Kurtzerora?

- Kurtzerora. Oin, oin ezin deu iñok bez deu hoan hara harantzaxuau dau ta gu oiñez egunien bieja bi. Baitte zera be, elizara be, orduen domeka ta jai guztidxetan mezie biher izeten /bizeten/ zan pekatu mortala izen zan ha ez juatie eta ez entzutie, mezie ez entzutie-eta.

- Ta Kurtzeroan nungo neska-mutillek batzen ziñien ba eskolan?

- Eskolan ba barriada guztidxe, San Romanekoak, barriada guztidxe. Beittu hori hortiko partekoa, Ajangizko partie da, ta honadxe Muxikeko eskolara ibiltten auen, hori neure kinttoa da.

5.7. Ibarrurikoak harroagoak ziren

- **Hizlaria(k)**: Etxeandia Etxeandia, Mari; Isasi Amuriza, Amaia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MUX-026/013
- **Iraupena**: 0:02:54. **Hasi**: 00:23:51. **Bukatu**: 00:26:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Garizuma bukatzeko desiratzen egoten ziren erromeriara joan ahal izateko. Gorozikan ez zen domeketako erromeriarik egoten, Zugastietara joaten ziren. Ajuria auzoko jendearekin ondo konpontzen ziren, Ibarruri aldekoak, ostera, harroak zirela diote. Ibarrurin hain harroak ez zirenak Muniketako erromeriara joaten ziren.

Transkripzioa

- Mari: Baia garizumie ta jantzan, desietan garizumie akabetako jantzan hasteko. Zugastietara joaten gintzezan, soiñue joteren hasten zan, ta jantzan. Ta gero danok etxera iladan.

- Hamen ez zan egoten erromeririk ala?

- Amaia: Ez.

- Mari: Ez, Zugastietan. Gure ama-eta itxeroten egoten ziren hor hiru andrak eta "ontxe datoz gure gaztiek". Bai ba, gu gure bozien hor kamiñoan gora, danok batera.

- Ta Zugastietan nun izeten zan?

- Amaia: Kurtzeroan.

- Mari: Kurtzeroan.

- Amaia: Kurtzeroan. Adxudxeakoak (Ajuriakoak) egoten ziren handik aldetik, Iborrikoak bestetik eta ta Gorozikekoak han zieren.

- Mari: Adxudxeakoak eta gu gintzezan estilo batekoak, hor Iborrin bat edo bi harroak egon ziren.

- Amaia: Buf, Iborriko jentie.

- Mari: Ostera gu Adxudxeakoaz bat eittie izen zan danakaz.

- Amaia: Iburrikoak Txomin abadiari esan ei etsien Gorozikarrak izen gariela harroak.

- Mari: Igual

- Amaia: Bai. Txominek esan eban baten.

- Mari: Orduen guzurre esan deu baten Txominek be.

- Amaia: Esan botsie berari.

- Mari: Hori esan batsie, guzurre esan dotsie batan batek.

- Amaia: Iburrikoak takoiekin ta ipelako zerakin, gu abaraka-galtziaz be

igual.

- Mari: Bai gu Adxudxekoak-eta estilo batekoak izen gintzezan gaztetan, estilo batekoak.

- Ta lburrukoak-eta harroauak zer, jazkeran edo izekeran be bai.

- Amaia: Jazten, jazten, jazten.

- Mari: Danak ez, baia batzuk egon zien harroagauak.

- Amaia: Gehixenak. Ze danak ekiezan nebak Bilbon, bata ez daitz nun, ta bestie batai nun ta bestie nunun, ta eurek be joaten zien Bilbora ta ba beti egoten zien elagantetxuau Sagastitarrak eta bueno. Ta gero, lburrin be apur bet gure antzekoak Muniketara joaten zien. Harek Muniketara. Zuen Begon amuma-eta eta horrek Muniketara.

- Mari: Izengo zien bai.

- Amaia: Goikoak, baia honek Sagasti ta honek beheko zerak.

- Bego zure errenan amuma ta diñozu?

- Mari: Bai.

- Amaia: Bai, harek Muniketara joaten zien.

- Harek Aluzekoak die.

- Amaia: Bai Aluzekoak eta hango jentie Muniketara ta beste elegantetxuauak Zugastietara. Hor egoten zien.

- Mari: Zugastietara elegantetxuaua zen ta.

- Ta orduen Zugastietako erronerixen hori egoten zan, diferentzixe lburrikoan artien ta...?

- Amaia: Bai. Nebak-eta be gorbatakin etorten zin horrek mutillek, horkoak.

- Mari: Baia estudxietan-eta egon zien-eta.

- Amaia: Ba horregaittik ba. Estudixetan ta biherrien Bilbon-ta, ta Bilbokoak gorbatakin etorte zien.

-Mari: Lehenau kolejixoan eon zienari be igerri eitten jaken. Oin kolejixoan dauena be iguala da, bestielakoa.

- Amaia: Danak dauz kolejixoan oin.

- Mari: Oin ez da igertzen, oin igerri bez.

- Baia han diñot. erronerixen, ze egoten zien bi zati moduen, batzuk...?

- Amaia: Ez. Jantzan nahaste.

- Mari: Ez, nahasteu, baia zuri eskatu eitten otsun baten batek jantzan joateko ta joaten zintten jantzan. Ta gero akabeten zan soiñue akabeu ta gero igual beste bategaz hasten zan.

5.8. Bera jaio aurretik izan zuten telefonoa

- **Hizlaria(k):** Esturo Orue, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-037/014
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:32:24. **Bukatu:** 00:33:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- **Laburpena:** Bere aita lrurak-bateko langilea zenez, etxean telefonoa jarri zieten. Beraz, Juanita jaio aurretik jada telefonoa zuten etxean. Argirik ez, baina telefonoa bai.

Transkripzioa

- Gure aittek, telefonoa hasi zaniene, etxien ipini etsien.

- Ze urtetan, hori?

- Ba, beittizu.
 - Zu jaixo aurretik? Berak hamabost urte dekozela?
 - Berak hamabost urte dekola sartu zan ta hogeta bost urtegaz, gure amak esaten euen, ezkondu zala bera, hona, ezta? Ta aitte be ba ez dait ba, urtebete-edo zaharragoa zan. Asike, pentsei eizu.
 - Ta argixe ta dana?
 - Argixe ez. Telefonoa bai ta argirik ez.
 - Hori?
 - Ez duun /eztun/ euki. Ta telefonue etxien.
 - Bakarrak izengo ziñien, herriko telefonoa egoten zan, han ezta sasoi?
 - Bai. Berak hametik, linean ezer dauenien deittuteko Bilbora, Larraskitture edo Larrabetzure, Markiñera, hona zentralera, zer guztixetara. Ta argirik ez.

5.9. "Madrid Txikito"

- **Hizlaria(k):** Irazabal Ertzilla, Pablo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-044/039
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:50:45. **Bukatu:** 00:52:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Zugastietan auzoari "Madrid Txikito" deitu izan zaio beti. Auzoko batzuk besteak baino garrantzistuagoak ei ziren jende inportanteagaz ezkondu ta zeudelako. Ibarrurikoekin eta Gorozikakoekin hartu-eman ona zuten, sarritan joaten ziren Ibarruriko elizara mezara.

Transkripzioa

- Zugastietan? bai. Zugastietan Madrid Txikito deitzen jako eta oin be horrexeaz izenagaz jarraitzen deu. Bai jente inportantie egoten zen. Honek Apraiztar eta horrek, bai.
 - Alkatie zan.
 - Alkatie Apraiz bai, Antonio Apraiz. Eta horren lobak-eta guztiz inportantiek zien. Ezkondu jente handixeaz ta bai, egoten zan. Hori, hori egongo zan bai hori diferentzixue, hori harrokerixue-edo.
 - Eta zuek zelan erosten ziñien Iburririkoakaz?
 - Zelan Iburririkoakaz? ni ondo Iburririkoakaz, bai. Joaten nintzen Iburririko be sarri, oin baiño sarrixau. Orduen elizara eta Okan eukin gendun guk ermittie. Hortik aparte Gozorike be bai eta Iburririko be bai. Eta Iburririko akordetan naz ba asko joaten gintzezan, amak-eta bialdute: "Elizara joan geur Jesus ez daitz zeren egune da-ta, geur hau da ta bengal!". Iburririko sermoilarixek edo misioneruek-edo bestiek-eta, bai."

6. Aisia

6.1. Muniketako taberna, bolatokia eta erromeria

- **Hizlaria(k):** Mandaluniz Gorroño, Zeperino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-012/039
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 01:16:29. **Bukatu:** 01:18:20

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
Aisia » Taberna giroa » Jokoak
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena:** Muniketan bi taberna ezagutu ditu. Bolatokia ere taberna bat zegoen etxearen aurrean egon zen. Inguru guztietako jendea batzen zen bertan. Domeka eta jai arratsaldetan erromeria egoten zen; Serafin zen soinu-jotzailea.

Transkripzioa

- Muniketan aittatu dozu eta ez doguz esan. Muniketan tabernie be egon zan, ezta?

- Egongo ez zan ba tabernie! Ni jokoan joaten nazen lekure beti ba arratsaldetan joaten naz. Harek be jubileta dauz: Patxi, Jose Luis ta Daniel jubileta dauz eta han pasetan dot denporie, jokoan ez badan kontu kontetan. Eta tabernie hantxe egoan nire akordu guztidixen. Eta gero hak itzi otsen eta gero Goikoetxetik ipiñi eban, beran koiñetuek ipiñi eban gero, Goikoetxetik ipiñi eban. Eta gero ha joan zan biherrien zera biherrien papelerara joan zan, sartun zen. Ta gero ha joan zanien gero ya han tabernan ez zauen zertu, ez eban zertu.

.-Eta bolatokidxe egon zan?

- Bai, botatokidxe be bai. Etxe eurrien, etxe eurrien bolatokidxe, bolatokidxe be. Eta horra batzen zan jentie! Baie Gorozike aldetik, Etxano, Oromiño, Mendata, Mendata aldetik be dana jentie batzen zan hor. Hori beterik egoten zan domeketan. Soiñue, jeneralien Serafin egoten zan orduen, Serafin soiñu joten.

- Ze izeten zan domekatan-edo?

- Domekatan. Domeka atsaldetan eta jai atsaldetan. Serafin jeneralien egoten zan. Bai domeketako haixe. Eta jentie batzen zan gero asko!

- Eta nungoa zan ba Serafin? nungo semie?

- Serafin kamiñerue izen zan hori. Hori Zugastietan bizi zen. Hori Zugastietan bizi zen, untxe Eujenio bizi dan etxien uste dot bizi zala Serafin, kamiñerue zan hori. Eta gero hortik bota auen Arratixara edo horra destiñau eben hemendik. Ta gero Zornotzan bizi zan azkenien, hantxe hil zan, Oromiñokoa semie zan hori. Oromiñokoa.

6.2. Txakur handi bat erromeria bakoitzeko

- **Hizlaria(k):** Mandaluniz Gorroño, Zeperino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** MUX-012/040
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 01:18:20. **Bukatu:** 01:21:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- **Laburpena:** Erromerietan denek zuten nahiago baltseoan aritzea, baina mutilek txakur handi bat ordaindu behar izaten zuten. Ordaintzen zutenei tiket bat jartzen zien jakiteko nork ordaindu zuen. Batez ere Muniketako erromeriara joaten ziren. Zugastietako erromeria

errepidean bertan izaten zen. Zugastietan oilar-borrokak eta ahari-topekak egoten ziren.

Transkripzioa

- Eta zelakoak izeten zien horrek erromeridxe?
- Alegriek. Alegriek, erromeridxe alegriek horrek.
- Eta agarrauen-eta ibiltzen ziñien?
- Ba klaro baze. Agarrauen hoba ez! Jentiek, jentiek agarrauen gurau solten baiño. Bai agarraue izeten zan, agarraue eta soltie bidxe zien, bidxetara, bidxetara.
- Eta jantzan eittie debalde zan?
- Ez! Txakur handidxe pagetan zan. Bat egoten zan batzeko txakur handidxe edo holako bat. Gero, gero gehitxuau zala penseten dot. [...] Neuk nire akorduen txakur handidxe, txakur handi bat izeten zan atsalde guztireko jantzan eittie. Nik jantzan, gitxi gusteu jat neuri.
- Eta eukitten zendun ala domekero txakur handi bat pagetako dirue?
- Ba txakur handi bat orduen be ez zan, bai. Ta orduen dirue zan bai. Baia txakur handi bet bai.
- Eta danok pagetan zenduen?
- Bai, bai, jantzan eitten eben danari.
- Neskari be bai?
- Ez, ez neskari ez, parkatute. Neskak hor be suertie. Henbrak dielako harek libre.
- Eta pageu eitten zenduen eta gero ze pasetan zan?
- Ezebez. Tiketak ipintzen otsuen paparrien. Papertxu bet ipintten eben.
- Eta arratsalde osoa libre?
- Bai harik eta akabau artien libre, libre.
- Eta nungo erromeridxetara joaten ziñien gehidxau?
- Hamen Muniketatik iñora bez. Hementxe egoten zan erromeridxe-ta.
- Eta Zugastietara-ta, ez?
- Bueno, iñoz bai. Baia beti jokerie hona. Iñoz Zugastietara be bai. Zugastietan erromeridxe bakizu nun eitten zan? orduen denporan? Herriko tabernako herriko kamiño-kamiñoan. Kamiñoan, kamiñoan jantzan eitten zan. Orduen kotxerik bez, ze ibiltzen zan, ba? "Al año San Juan" kotxetxuen bat pasetan bazan. Han kamiñoan eitten zan erromeridxe.
- Eta nungo jentie hurreratzen zan hararte?
- Batzen zan. Gorozike eta hamendik Iborri aldetik, Iborri aldekoak sarriten hona etorten zien. Zugastietako aldien jente asko hona batzen zan, hemen asko jentie, asko. Gero ez, gero ya gitxittuten hasi zen, baia ez. Ni gaztetzue nitzenien batuten zan hemen jentie, bueno! Gero sarriten egoten zan oilar-burrukie, ahaitto-burrukie-ta ipiñitte Josek. Bai sarri egoten zan. Orduen oillar-burrukie eta ahaitto-topekie eta horrek lekutan jentie Jainkoak [...] lekutik, geur ez inportantiek, geur iñor ez litteke egongo. Baia ordureko geuzua handidxe zan orduen, orduen sasoién, bai, jentie batzeko.

6.3. Andra Mari jaietako danbor- eta danbolin-jotzaileak

- **Hizlaria(k)**: Mandaluniz Gorroño, Zeperino
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MUX-012/042
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 01:22:52. **Bukatu**: 01:24:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena:** Ibarruriko Andra Mari jaietan txistulari eta danbolina egoten zen, soinua noizean behin. Zeperino sekula ez zen izan dantza zalea. Danborra jotzen Ajuriako Otxategi baserrikoa izan zen eta danbolin-jotzailea Ariatzako "Txistu".

Transkripzioa

- Eta Andra Maridhek Iburrin zelakoak izeten zien?
- Andra Maridxetan ba tanboliñe egoten zan eta gero soiñue be bai, filarmonikie. Bai, gero horrek. Baia jeneralien tanboliñe, txistularidxe, tanboliñe eta tanborra. Tanborra, tanborrerue eta bestie txistuegaz tanboliñe eta erromeridxe.
- Ta han be jantzan?
- Bai. Nik neure denporan jantza asko ez dot ein. Jantzan ez jat gusteu egundo bez, ez ez, egundo bez.
- Neskañe hurreratzeko-ta.
- Bai, baia hamentxe. Jantzan ez jaten gustetan. Nik hemen Muniketan be hor beste batzuketan be Muniketan hor be jeneralien nik jantza asko eindde ez, jantza asko eindde ez.
- Ta Iburrin nor egoten zan tanboliñe eta filarmonikie-eta joaten ba?
- Ba hor egoten zan tanbolinterue Adxudxeko Otxatikoa. Bai tanborraz. Ta tanbolinterue gero egoten zan, zera Aritzakoa "Txistu" esaten ostien Aritzako eoten zien bai. Eta horregaz lehenau egoten zan hori baiño ariñau, beste bat egon zan Otxatikoa tanboliñe bata eta tanborra bestiek jotzen eban. Ta gero zerekoak azkeneko egoten zan Aritzakoa, Aritzakoa, Aritzakoa egoten zan.

6.4. Inguruko jaietako erromerietara

- **Hizlaria(k):** Ajuria Duñabeitia, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** MUX-017/003
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:05:41. **Bukatu:** 00:06:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- **Laburpena:** Gaztetan Zugastietaraino joaten ziren erromeriara. Astelarran ere egoten zen erromeria. Kanpantxura (Ajangiz) San Juanetan baino ez ziren joaten.

Transkripzioa

- Ta zuk umetako ze akordu dekozu hamen parajien-edo? Zuek hemendik, hemen mobiduten ziñien, Kurtzerora joaten ziñien-edo.
- Gu apur bet edadien hamazortzi edo gitxiau, Zugastietara erromeridxera. Zugastietaraiño joaten giñen, bai oiñez, etorri oiñez goizaldien etorten giñen-ta. Ba Juan trenien-edo joaten giñen. Ze hamen, erromeridxe hamen be eitten zan, Astelarren erromeridxe eitten zan, baia hangodxe jokerie hartun gendun unada baten ta kuadrillie joaten giñen, neskatillek be gero tope genduzen, hurrungo bueltan gero bertan izteko, baia. Gero hurrungo

tanda baten, Morgara hasi giñen ostabe ta ez daitz zemat denpora segidu gendun Morgan be, ba neskatiillie topeu ta neskatiillie-lagune topeu-ta, han be hainbeste.

- Ta Kanpantxu partera be joango ziñien ba?

- Jaidxetan bai. San Juanetan-eta, San Juan untxe hamen eitte da ermittetxu baten. Ostantzien Asentzidoak eta hamengo bueltako erromeridxetara danatara, danatara joan.

6.5. Harginek bere etxean bazkaltzen zuten

- **Hizlaria(k):** Irazabal Izundegi, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-028/015
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:19:16. **Bukatu:** 00:21:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
 - Lanbideak » Arotzak
 - Lanbideak » Etxeginak
- **Laburpena:** Elkarrizketatzaileari bere birraitona bertako harrobira joaten zela lanera azaltzen dio. Bertako beharginei berak ematen zieten jaten. Lehen etxeak harriarekin egiten zirenez lan asko egoten zen. Harrobietako lana eskuz egiten zuten.

Transkripzioa

- Kanteratan biherrien.

- Bai etorten zan handik biherrien, zera etorten zan harrixek leuntzen, etxien kantoiek eitteko ta horra kanterara etorten zien automobillekaz ta ba biher eitten horraxa etorten zan, ta jaten euen hementxe, hor ezkatz, zerien, ta neuk bezkarixe ipintten notsen hangoari.

- Ta nungo bihergiñek etorten zien ba kanterara?

- Bueno, horko beste etxeko gizonak be hoixe biherria "canteros"-edo esaten dotsie horrerri, ta ba hementxe eitten eben ta ba. Orduen etxiek be harrixegaz eitten zien orduen sasoién harrixegaz, ta hemen kanterie harrixena ta hariena be egon zan, ta harie be eroaten eben masie eitteko. Baia gero beste geuzá batzuk urten zeuelez ba hor zarratu zien danak. Gernikeko Casa Vasca? ba hemengo harrixegaz dau eindee. Ta zure aittitte-ta ba, aittitte edo bisabuelo izengo zan, ba lantzen ibiltzen zien ezkiñetako zerak harrixuek, eta horko beste etxekoa be bai. Klaro zuek oin horretariko, barre eitten ostie niri, neure alabak be kontetan hasten nazenien.

- Ta bihergin asko egon zien?

- Bueno, "canteros" ba igual lauen bat-edo egongo zien.

- Asko ez.

- Ez ez.

- Horrek tamaiñue badeko ta funtzionamendue eukiko eban ba.

- Bueno, gero Etxanon be badauz kanterak be asko e. Ta harena gorrixie da, gorrixkie, ta harena gehixau, zer gahixau, benta gehixau euki eban ta etorten zan kamioiekaz-ta.

- Ta hamen zer? hasikeran eskuz ingo eben biher ezta?

- Eskuz, eskuz. Zeragaz, "ta-ta-ta-ta", jo maillutxuaz-ta "tta-tta-tta-tta", ez daitz zelan esaten otsien eta, danak ipinitte. Hemen Goroziken zera be

badau, egon zara elizan? komuniñokoa ha egoten dan lekue bakizu, harrixegaz-eta ez dakizu zelan dauen? ha hortxe eiñekoa da, han horkoxe harrixegaz. Bai ta ba zure aittitte aitte, aittitten aitte izengo zan, ta ba harek eta horko gizonak ein euezan horrek. Asike zelan dizen geuzek.

6.6. Islandera

- **Hizlaria(k):** Esturo Orue, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-037/027
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:55:51. **Bukatu:** 00:57:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena:** Zornotzara lehengusinarengana joaten zen eta harekin batera dantzak ikasten aritzen zen. Islandera aritutakoa da. Larrabidean irakasten zieten.

Transkripzioa

- Zorrotzara bai joaten nitzen, lehengusiñe Zorrotzan-ta. Hara be. Prakerrerren egoten zien ezpata-jantzie neskei erakusten islandera-ta. Ta gure lehengusiñe zanez, neu be han ibiltten nitzen jantzan ikesten-ta.

- A bai?

- Bai. Ni neurik eindde nau.

- Zornotzan?

- Bai.

- Nora joaten ziñen-edo?

- Tienera, tia geunkiun han. Ta lehengusiñe ni baiño ba, urte bi zaharraua. Ta Prakerrre izeten zan tanborinllerue ta jantzan islandera-ta. Ni islandera-ta ibillitte nau, jantzan-ta.

- Ta ze jantza ikesten zenduen?

- Soltie ta islandera. Bakizu, harek paluek, ez dozuz islanderak iñoiz ikusi zinttek-eta?

- Bai.

- Horrexendan ibiltten gintzezan.

- Soltie, islandera, ze jantza gehixau eitten zenduen? Ze jantza eitten zenduen, zintakaz eta?

- Zintakaz ta gero, ba, zinttekin zertzen geunien, geuk, tanboliñek jotzen euen soltie ta hantxe jantzan.

- Ta Zornotzan nun ikesten zendun hori?

- Han zer baten eskolen ondoan eoten zan. Eukitten euben horrek, berentzat holako saloa bat ta hantxe.

- Ze Larrabidien?

- Bai. Haren etxien, bai.

- Ta hori ze, solteratan?

- Bai. Gaztetxue, zenbat urte eukiko nittun nik ba? Hamaika-hamabi.

6.7. Gaztetako San Juanak

- **Hizlaria(k):** Juaristi Alberdi, Isidro

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zelaieta Gerediaga, Luis Mari
- **Erref**: MUX-042/003
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:03:35. **Bukatu**: 00:05:57
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » San Juan
- **Laburpena**: Lehen Ibarrurin erromeria itzelak egiten ziren. Ibarruri, Gorozika zein Maumako mezak abade berak ematen ditu. Ajuria auzoko jaiak San Isidro eta San Juan dira. Ibarrurikoak Andra Mari eta San Pedro. Berak 20 urte zituenean, inguruko herri guztietako jendea hurbiltzen zen San Juanetara.

Transkripzioa

- Aber Isidro, ta zuk ze iritzi dekozu geur egungo Ibarruridax?
- Nik Ibarruridax ez dekot nik ez naz...
- Oin Ibarrurin zer, lehengo Ibarrurin zer? lehengo Ibarrurin ambiente gehixau egoten zan?
- Zatixe! Ai esan gure dozu /guruzu/ zelan bizitzen zan jentie. Lehen eitten zan erromeridxe, eitten zan dibersiño itzela, ta oin ezebez. Danak oin eskape dauie: oin ez soiñurik, ez mezarik be kasik ez, ezebez. Abade batek eitten dotsu Gorozikeko, Iborriko (Ibarruriko), Maumeko, Aidxudxeko (Ajuriako)... danak. Han asko eskapeute, oin ya kasik erdidxek.
- Jaidxek-eta ez die eitten geur egun Ibarrurin?
- Bai, Ibarrurin eingo dittuez. Baia guk barriadan San Juan deku ta San Isidro, San Juan ta San Isidro [...] santu [...]. Ta Iborrin Andra Maridxe eta San Pedro. Baia oin, San Juanetan be ez zala egon ezebez kasi esan ostien: jokulari batzuk egon ziela, premidxuek Gorozikera atara zittuela, besterik ez. Bolaka ta pelotaka, frontoie eindde dau, baia iñor bez esan eban, esan eben, ni neu ez nitzen joan, baiña.
- Eta zuk hogeit urte euki zeñuzenien, ze ambiente egoten zan Ibarrurin?
- Hogeit urte nik neukenien, San Juanetan-ta han erromeridxe ta jente alegrie. Muxiketik, Goroziketik, ta Maumetik, Gerrikaiztik, Albiztik, Mendatetik, "todo eso" dana hori, zona guztidxe egoten zan San Juanatan, San Juan egune, bigarrenien, hirugarrenien. Oin iñor bez, oin iñor bez. Gabaz, gabaz dau oin.
- Ta ze lehen gabaz be, gabaz be ez zan egoten jaixe?
- Ez, hamabixek, gabeko hamabixetan fuera!

6.8. Zugastietan baltseoa libre

- **Hizlaria(k)**: Irazabal Ertzilla, Pablo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MUX-044/037
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:48:47. **Bukatu**: 00:50:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena**: Zugastietako Hipolito Inunziagak eta bere aitak hil-kutxak egiten zituzten. Hantxe kamiñeroaren taberna zegoen eta

kamiñeroa bera soinularia zenez, kurtzeroan erromeria egoten zen. Gernikan eta Zornotzan galarazita zegoen baltseoan egitea eta inguruko jende asko hurreratzen zen Zugastietan.

Transkripzioa

- Bai, Hipolittok honek Inunziagak horrek eitten biezana atatek, bai.
- Hipolitto kurtzeroakoa.
- Bai. Hipolitto horrek gero Bilbon tabernien ipin bien eta zera, Inunziaga bai.
- Han ez zan egon herratokixe?
- Bai herratokixe exaktamente, hantxe, hantxe, hantxe eitten biezana horek be. Bai.
- Eta berak be eitten bazen?
- Bai Hipolitto zaharrak bai. Eta haren aittek be bai, Felipe, Felipe. Zera izan zen aitte harena.
- Horren etxien be erromeriek asko eitten ei zien, ezta? horren etxe eurrien.
- Bai, Hipolittok han bestie, ha egon zan tabernien zerena, zelan zan kamiñerue zan, kamiñerue bera be soiñularixe izen zan. Han, han eitten zan erromerixe. Gero kurtzeroan fubolien esaten otsien, fubolien jokatzen zan. Kurtzeroan be bai erromerixe eitten zan Zugastietan, bai gerraostien guztiz inportantie. Orduen ez zan egoten baltsioa-eta eitten ez eben itzitten Gerniken eta Zornotzan-eta, "en cambio", Zugastietan bai. Eta hara etorten zan jente asko, trenetan eta oiñez be bai.
- Eta ibiltzen ziñien neskatan-eta?
- Ez, ni ez, ni kobardie izen nitzen, ni ez.
- Bai, seguru!
- Bai, seguru.

6.9. Zugastietako jaiak

- **Hizlaria(k):** Irazabal Ertzilla, Pablo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-044/041
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:53:23. **Bukatu:** 00:54:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- **Laburpena:** Zugasteitako jaiak Gorozikako jaien errepikapenetan ospatzen ziren, iraileko Andra Marien ostean. Ariatza auzoko jaiak, sasoi berean direnez, Santa Kurtzeak, jende asko bertara joaten zen eta Zugastietako erromeria eskasagoa izaten zen.

Transkripzioa

- Ta Zugastietako jaiak esan dozuz.
- Bai.
- Ze egoten zan?
- Ba Zugastietako jaiak izeten zien Goroziken ba irailien zortzixen, Gorozikeko Andra Marixek eta gero hurrungo domekie suertetan bazan zortzixen ba ez, baia gero hurrungo domekie izeten zana errepetiziñoa. Gorozikeko jaiak errepetiziñoa Zugastietan, kurtzeroan. Hori izeten zan jaiak. Baia Ariatzak jaten otsen /jatetsen/ asko, ze Ariatzak be karo, Santa

Kurtziek hamalaun eta bestie eta horkoa, herri batera suertetan bazan, jentiek Ariatzara gurau izeten eban, Zugastietakoa eskasaua izeten zan erromerixe, bai Ariatzara.

6.10. Okako jaiak; 3 herrien muga

- **Hizlaria(k):** Irazabal Ertzilla, Pablo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-044/043
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:56:08. **Bukatu:** 00:58:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak
- **Laburpena:** Okako jaieguna abuztuaren 4a da, Edurretako Ama Birjinaren egunean. Ibarruri, Muxika eta Gorozika (lehen 3 udalerrri desberdin ziren, gaur egun bakarra osatu arren) arteko muga bertatik pasatzen zen errekek zehazten du. Erromeria hiru herrietako batean egiten zen, komeni zenean: udalerrri batean galarazita bazegoen bestean ospatzen zuten. Okako Torrebarri, erdi jausita dago, baina Pablok ezagutu zuen bertako familia.

Transkripzioa

- Eta horko jaixetan ze egoten zan?
- Ba Edurretako zerien, agostuen agostuen lauen edo bostien izeten zan, bai. Hor hor jaixetan egoten zan jaleoa. Ze hor dauz hiru, osake Iburri, Gorozike eta Muxike. Hortxe dibididetan diez. Eta batzuten Goroziken galazota erromerixe eittie edo zera eta orduen eitten zan Iburriko partien igual. Eta Iburrin galazoten bazan Muxiken. Bertan hurrien holan, holakoak be eitten zien eta gero hori bez eta ba.
- Hor mugie ez deu marketan errekiek-edo?
- Errekak bai, errekiek marketan deu. Zugastietatik doan errekiek handiko partie Iburri, eta hametikoa Gorozike eta gero beste bat hor matxoie, trenen matxoen azpittik dator beste errekatxu bet eta harek Muxikegaz. Errekakin, oin be errekek mojoie izeten die.
- Eta han egoten zan Iburriko partien lekue, erromerixe eitteko-edo?
- Hantxe Torrebarri. Oin etxie jeusten dau, han lekuen hantxe, leutada apur bet eta hantxe, hantxe eitte zan.
- Zuk hor jentie ezetu zendun han bizitzen? Torrebarri?
- Honbre! Ezetuko ez nabe ba Jose Torrebarri. Jose Torrebarri izen zan horko aittitte. Osake, oin pelotaka jokatzen den ba Apraiz batek altu batek Gernikekoak? Horren aittitten aitte ezetzen neuen nik, Jose Torrebarri. Idi batzuk eukitten bazen eta harekin proban be eitten eban eta bai, Torrebarri.

6.11. Alokaturako autoan bertso-saiora

- **Hizlaria(k):** Irazabal Ertzilla, Pablo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-044/055

- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 01:15:15. **Bukatu:** 01:16:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Bertsolaritza
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- **Laburpena:** Pablo oso bertsozalea da bere ama bezala. Euskal Herriko txapelketa nagusiko final guztietan egondakoa da azkenekoan (2009) izan ezik. Autoa alokatu eta Donostiaraino joaten ziren.

Transkripzioa

- Eta Doñostiraiño-eta joaten ziñien?
- Ba bai. Andriaz be bai. Andriaz nobixotan be egonda nau, bai. Alkilleu kotxie, kotxe bat alkilleu eta ez gu, ze [...] guztiz zazpi batera-edo. Gero geuk hartun geñun kotxie, Land roverra eta han. Donostire bai. Orduen sasoie makala.
- Kotxie nun alkilletan zenduen, ba?
- Kotxe bat egon zan hor zera, horrek euki eban, 'Beti' esaten otsiena, 'Beti'. Han zerien, [...] zan, lburrire joateko hartze dozu kurtzeroan azkeneko kurtzeroa eliza aldera joateko eta beste kamiñoa han Kurtzeroan dau etxe bat eskoatara, ta horkoa zan 'Beti'. Oin alabie egoten da hor. Horren aittek euki eban furgoneta bat eta haregaz be ibiltzen gintzezan. Ta gero antziñau han zerien be, Muniketarrantza be, harek be eukin eban eta harezeaz be. Eta gero geuk eukin geñun Land Roverra eta gero ordun ba geuk, geu joaten gintzezan.

6.12. Bertsolari arteko giro ona

- **Hizlaria(k):** Irazabal Ertzilla, Pablo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-044/056
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 01:16:41. **Bukatu:** 01:18:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- **Laburpena:** Pablo oso bertsozalea da. Bertsolariek beti izan dute festazale fama giro ona sortzen dute-eta. Garrantzia asko ematen zitzaien horri ez baitzegoen ez irrati ez telebistarik. Bera ere aritu izan da inon lagunartean bertsotan.

Transkripzioa

- Ba bertsolarixek beti euki dabe juergista famie.
- Bai badekie, bai.
- Irabaziniko famie da edo...
- Bueno ba, izen zien, bai. Alaittu eitten eben ingerue, osake erromerixe, osake hori. Abestixekin eta jente, ademas bertsolarixe beti izen da herrixen zera, herri gizona, ezta? hori. Gero hortik ba abilidade itzela kantetako eta inprobisetako eta. Eta hori gustu eitten zan. Oingo beste telebisiño eta antzerki ez zan egoten orduen. Hori horrerri emoten jaken, bai.
- Zu sekule ez ziñen ibilli?
- Nik ibilli, ibilli ez, txapelketan-eta ez, baia kantetan bai.
- Lagunartien eta tabernan eta bai.

- Bai eta elizan ta bai, elizan be asko.
- Mezatan-edo...
- Bai. Igual intierru baten, intierru, hainbeste intierrutan kante dot nik, Gorozikeko elizan be.

6.13. Zahagiaren hileta ospatzeko arazoak diktaduran

- **Hizlaria(k):** Sardui Enbeita, Deunoro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-049/017
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:41:41. **Bukatu:** 00:42:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Antzerkia
Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- **Laburpena:** Ariatza auzoko jaietan ospatzen den "Saragiaren hileta" ospakizuna 1889 urtetik dator, baina antzerkia 1960ko hamarkadan egin zuten lehen aldiz. Sasoi hartan, diktadura garaian, beti izaten zituzten arazoak.

Transkripzioa

- Ostantzien zaragixena, teatroa-ta? Hori joe lelengoko biderrez izen zanian, burdixek azpigarrixegaz-eta ekarritte ta enei! Mille bederatzirehun ta hirurogeta asko barik.

- Eta problemarik ez zenduezan eukitten guarda zobillekaz-eta?
- Beti guarda zobillen menpien, beti ia zer, ia nundik doan asuntoa. Txibatoak egon zielez euzoan, itzelak, itzelak. Tabernan be zeuzer esaten bagendun be taka jakitten eben herri guztixen ensegidakoa ta guarda zobillek be igual-ta. Ta abisue beti: "Kontuz gero hara tabernara joaten zarenien, kontuz ze esaten dozuen!". Etxien hori entzun barik ez giñen joaten tabernara. Hori. Ba holantxik.

7. Euskara

7.1. Abadeari, medikuari eta albaitariari "jauna"

- **Hizlaria(k):** Baraiazarra Albizu, Serafin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-014/056
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 02:27:40. **Bukatu:** 02:29:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Euskara » Tratamenduak
Euskara » Tratamenduak » Berorika
Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- **Laburpena:** Serafinek ez du hitanoa erabili. Abadeari, medikuari eta albaitariari "jauna" esanda egiten zitzaion berba.

Transkripzioa

- "Bajak eta ez dok", zerin hor Bolibarrek eta hor Munittibarretik-eta hasitte hor "jakok" eta "jakak".
- Zuk "hi" eitten dozu berba, ezta? Basiilogaz-eta "hi" eingo dozu edo "zu" eitten dozu Basiliogaz-eta, edo bertoko jentigeaz?
- "Zu".
- . "Zu" Eitten dozu, "hi" ez?
- Ez, ez hori ez. Hori batzuk, oingo gaztiek "bai dok " eta "ez dok". Baia lehen hori "bai dok " eta "ez dok" gitxi euen. Bai.
- Zulk zure anaiekaz-eta ez dozu ein?
- "Zu".
- Eta abadieri zelan eitten jakon lehen?
- "Jaune!". Beterinaxueri be jaune, medikueri be jaune. Oingo gaztiek hori ezin dozu esan eta berotu eitten die.
- Beterinarixoari be bai?
- Bai.
- Besteraz ein ezkeroz, ño!
- Baia abadieri, Txomiñeri ez dotsazu eingo geur egun"Jaune".
- Txomiñegaz nik danetara ein dot, txarrera, onera, dana. Gizon fiñe da, ezebez ez jako kendu biher.

7.2. "Izábale" vs "Izabale": azentuaz bereizitako auzo-izenak

- **Hizlaria(k)**: Susaeta Onaindia, Gloria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MUX-051/019
- **Iraupena**: 0:00:17. **Hasi**: 00:28:35. **Bukatu**: 00:28:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- **Laburpena**: Beraien auzoari ahoz "Izabale" esaten zaio eta elkarrizketatzailearenari ere bai, baina azentua da bereizten duena.

Transkripzioa

- "Izabale" be esaten dotsie, baia izetex "Caserío Aurtenetxe", Aurtenetxe baserria.
- Bai, baia barridxa "Izabale".
- Bai barridxa "Izabale".
- Eta geurie?
- "Izabale". azentu diferentiek.

8. Iritziak

8.1. Neska-lagunari ezin musurik eman

- **Hizlaria(k)**: Martitegi Iturrioz, Felipe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MUX-023/004
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:04:19. **Bukatu**: 00:07:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena:** Neska-lagunari ezin izaten zitzaion musurik eman, bekatu mortala zen-eta; musua luzea izaten bazen, ostera, barkaezina. Gaur egunekoa ere larregikoa dela dio Felipek. Ibarruriko don Juan zen Gorozikako abadea, eta 15 urterekin etxean egon behar izaten zuten. Emaztea eskola garaitik gustatzen zitzaion.

Transkripzioa

- Ta biher ta biher ta besterik ez. Ba erromerixera joaten gintzezanien, ta nobixie ta ba nobixieri be mosurik emon eziñik ze pekatu mortala, ta luzie izen ezketiño, parkatu ez itteko modukoa. Ta inpernuko billurraz, ba mosurik emon barik egon biher. Ta oin, oin larrei, ezta? oin larreixen. Egixe da ala ez da? Oin larreixen, oin larreixen. Ta holantxik da mundue. Ta ondo eitten dozue ganera, barriz, ze gartzetan disfrute /bide/ biher da. Ze guri pase jaku gazte denporan, ba hamabost urte ta abadiak dotriñera, don Juan eta don Pedro horrek Iburrikoak izen zien, ta don Juan egon zan zerien, Goroziken, ta dotriñera, kankak ikesi dotriñekoak ta illuntzetxuen esan: "hala, oin arin-arin etxera, ze kanpaie jo orduko etxien egon /bizue/ biher dozue e!". Ta ariñeketan etxera hamabost urtegaz. Ta oin zer? oin hamabost urtegaz, bueno, bueno, hor dabiz aidien danak. Bueno holantxik. Ta mundue zelan kanbixeten dan bakizu? holantxik kanbixeten da mundue.

- Ta orduen zer, nobixieri ez mosutxurik emon ez ezebez?
- Pekatu mortala. Ta luzie izen ezketiño, parkaziñorik bez.
- Baia iñok ikusten ez banien-ta, illunetan-eta egoten ziñenien etxerako bidien-eta?
- Ez, illunetan egoten zanien bez, ezin emon mosurik.
- Gero ez konteu abadiari.
- Bardin-bardin ikusten deuela Jainkoak eta, illunetan izenda be. Zer ba, zer ba? ta holantxik, holantxik.
- Nobixieri noz /emontsazun/ emon zotsazun lelengo mosue ba zuk?
- Ba ezkontzeko egunetan, ezkontzeko egunetan lelengo mosue. Bittu zemat, ta ibil nitten ba eskolatik, eskolatik euki neuen bijileute, eskolatik bai, eskolatik. Eskolara arkalegaz joaten gintzezan, harek Zorrontzakoak zien, baia Gorozikera elizaz, ta eskolaz Gorozikera etorten zien. Ta eskolatik ein zeaz ta arkalegaz ibilite hamen pasoan dana, elizara ta eskolara ta, danien pasoan ibilite ba handixik. Gero ba hogeta sei urte euki zittun andriek eta nik hogeta zortzi urte ezkondu nitzenien. Ba guk arkalegaz eskolatik [...].

8.2. Ibarruriko elizara ortozik; Erretxina, petrolioa, argizaria eta kandela

- **Hizlaria(k):** Juaristi Alberdi, Isidro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zelaieta Gerediaga, Luis Mari
- **Erref:** MUX-042/005
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:07:45. **Bukatu:** 00:09:11
- **Multimedia:** audioa online entzungai

- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena:** Ibarruritarrak baserririk bizi ziren gehienbat. Jendeak ez zuen behar gauza askorik bizitzeko. Bere jaunartze egunean, Ibarruriko elizaldera arte ortozik joan zen, abarketak bertan jantzi eta erantsita. Argia erretxin grisarekin, petrolioarekin, argizariarekin eta kandelarekin egiten zuten. Kandela aurrerapen handizat zuten.

Transkripzioa

- Ta jentie Ibarrurin eta Ajuriasen-eta zertara dediketan zan? diñot baserriittik bizi zan edo...?
- Baserrittik! Han joaten bazien batzuk Bilbora-edo fabriken batera-edo, ba eskapetan baeben banakan batek ba biherrik ez dekonan batek edo biher eitteko moduen dauenan batek, ostantzien bestiek lurrien han, han [hutsei zerrike] tragetan, errementetan.
- Ta gitxi ataraten zan.
- Gitxi? ni eindde nau "primera comuni6n" abarketa zinttak ein, lotu eta galtzabe modu batzuk barrure sartun ta ortozik kilometo bi mendiritten joanda, ha handik Ajuriastik Iborriko elizaldera. Han abarketak erantsi ta jantzi ta atzera ipiñi ta etxera ortozik, ortozik! Argixe erretxin griseaz, gero petrolixuaz, ta gero argizaizaz, ta gero kandelie. Ene! kandelie izen zan, ene, bo kandelie! kandelie eta petrolixoa. Ta gero ipiñi eban hori beste zer hori ta gero hau ta holantxik. Ezer ezin ikusitte, ezer ezien.

9. Lanbideak

9.1. Perratokiak Zugastietan eta Urrutxun

- **Hizlaria(k):** Urkiza Etxebarria, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-033/016
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:38:15. **Bukatu:** 00:40:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena:** Ganaduarentzako perrak jartzeko perratokia Zugastietan egoten zen, Hipolito zen perratzailea. Urrutxura ere Zornotzako Txomin perratzailea joaten zen astean behin.

Transkripzioa

- Herradurak-eta?
- Herradurek Zugastan oin zerak dekona, zelan da, Angel?
- Bai.
- Harek eken han, oin etxie eindde dau, han herratokixe. Ta han herratokixen herraduretan zien hemengoak, ta ostantzien ha baiño hobie zala-ta, Urrutxure etorten zan Zornotzako herradore bat, Txomin, ha etorten zan. Ta harek herradureu ta bueno. Herradurek oin iñor ezin lei topeu herradore bat be iñun, baia orduen sasoi en ba edozein egunetan joan Zugastara ta berak ipintze otsun gero egune be ta gurieri be horrako probarako, ze pisue ekien txikitxu, gitxitxu. Eitten euen laban, ta horrek

herradureu zittuen ta herradureri ataa zetsiezan punten gantxoak, hauxe izetie lez ebai zerriaz lelengo, ta gero, dobleu ebatu deizon behieri, halan zertu osten /zertusten/, bai. Horrek horrek ba biher asko eitten euen Hipolittok. Eta Urrutxun ez daitz egunetan edo noz egoten zan, bai, Txomin.

- Ta orduen Gorozikeko danak Zugastara bajatu biher.

- Bai Gorozikekoak eta Iburrikoak be bai, danak.

- Ta Eutzaganekoak-eta?

- Eutzaganekoak be bai. Ta ostantzien, Zorrontzan, horrek Txominek beren herratokixe Zorrontzan eken, baia fazilidaderako Urrutxun gero beste bat monte u euen, herratoki hutse, bai.

- Urrutxun nun?

- Urrutxun han Santi bizi zen hegali en, han.

- Han Santi beste alderdixen edo bertan Santin.

- Santin partetik, bai, bai.

- Eta herradurak-eta be diferentiek izengo zien ezta? Idixetzat izen edo astoantzat-edo.

- Sendoaua, bai, bai diferentiek die total. Oin, idixentzako beti sendotxuauak behixentzako baiño, ta tamaiñue ze biher deuen /bideuen/ eta holan herradoriek zertzen euen.

9.2. Artezilari lana

- **Hizlaria(k):** Urkiza Etxebarria, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-033/024
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:52:44. **Bukatu:** 00:54:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Etxeginak
- **Laburpena:** Erretiratzeko sasoia zuenean artezilari lanetan hasi zen Harrobian. Artezilariaren lana zein den azaltzen du.

Transkripzioa

- Gero horrek Lemoakoa zementoko etor zen, hareri /emontsen/ emon zotsen erdixe-ta, ta horrexek /esaesten/ esan esten, gizona majoa, bai. Ta "Jesus" ta "zer?" eta" zuk erretireute egon ein /bizenke/ biher zenke ze urtiek eindde dekozuz-ta. Ta baia beste geuze beat ein /bidu/ biher dogu apur bet gehitxuau geratu jatzun. Lehen zauzelez "como" eskabadorien txofer moduen ta zera, ba ipiñiko zaittut "como artillero primero", ta halan /ipiñisten/ ipiñi eisten eta halan zertun be eitten nitzen.

- Artilleruen bihera zein zan ba?

- Artillerruen bihera horkoxe etxe errotakuen osabie izen zan artillerue ni sartu orduko, ta izeten zan, barreneu ta gero ha kargeu polboriaz, tapeu ta zer bat, pistoa bat izeteko moduan, "un detonador "-edo esan gontsen guk. Ta hareaz sue emon ta harrixe apurtu. Ta handixe geratzen bazan, harri handitxue geratzen bazan harek eskabadorien zeraz horrek oin dabizen zerak, halakoakaz apurtu txikixauak, eta gero, patxakadorera, gero trituradorara, gero klasifikeu ta bihera.

9.3. Bolbora eta Guardia Zibila

- **Hizlaria(k):** Urkiza Etxebarria, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-033/025
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:54:36. **Bukatu:** 00:56:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Polizia
Lanbideak » Etxeginak
- **Laburpena:** Bolbora Rio Tintotik ekartzen zuten. Guardia Zibilak askotan etortzen ziren harrobira. Behin guardia zibil batek detonagailu batzuk eskatu zizkion, baina Jesusek ez zion eman.

Transkripzioa

- Ta polborie-ta nundik ekarten zenduen ba?
- Polborie zeretik, zelan da? hemengo..
- Emaztea: Galdakanotik.
- Galdakanotik, Rio Tinto.
- Rio Tinto?
- Emaztea: Galdakanon estaziño eurrien-edo dau.
- Bai, estaziñotik gora joanda. Guarda Zobilek-eta etorten zien hona, ta Jesus!
- Hona kanterara Goarda Zobilek? Zer dala ta edo zetan?
- Zaintzen. Aber ETari pasetan botsu-edo, antza. Bai, bai, bai, bai. Sei-zortzi guarda zobil etorten zien. Furgonetan muniziñoa, ta eurek atzetik eta eurretik "como escolta" etorten zien, bai.
- A baia eskolta moduen. Orduen?
- Bai,bai, bai,bai Guarda Zobilek bai, Guarda Zobilek ea zeuen biherrik eitten, zaindu geu, nundik gabizen ta zer eitten dun ta holakoxiek. Ta batek eskatu /eisten/ ein osten: "Oyé, no sé el nombre pero me podias dar un par de detonadores o tres?", "no" esan notsen, "no, tengo la obligación de no dar nada a nadie, ni al guardia ni a otra persona". "Hombre, nosotros queremos para hacer las pruebas". "Oyé, para eso teneis alli en Rio Tinto y vais alli y alli os daran las pruebas". Halantxik.

9.4. Aita Irurak-bateko behargina

- **Hizlaria(k):** Esturo Orue, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-037/002
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:03:55. **Bukatu:** 00:05:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Lanbideak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Bere aitak Irurak-baten egiten zuen lan, Iberduero izango zenean. Gizonezkoen zein andrazkoen beharrak egiten zituen Juanitak. Beraiek 3.000 boltioko linea zuten etxean. Larraskituraino (Bilbo) joaten zen aitari laguntzera.

Transkripzioa

- Gero, mutil-biherrak ein biher izeten nittuzen; ze gu hiru aizta gintzezan. Ta nire aitte zan Iberdueroko enplieue. Beno orduen Irurak-bat. Hori zentrala, ez dakizu behekoa? Hori lehen Irurak-bat zan. Ta gero kanbixau eben Iberduerora. Ta nire aitte hamabost urtetik gehixau, biher ein eben ba, erretirue arte. Ta nik ba aitte juaten zan lez ta neu zerien, neuk ein biher izeten neban ganadu-biherra. Hamalau urterako e! Soloan garixek erain ta baf! Zenbat geuze. Ta aittegaz, harek hamen linea altie eukitzen gendun /eukittun/ guk. Hortik, Irurak-batetik Bilboraiño basorik baso liñea altie hiru mille boltiokoa. Ta aittek juen biher izeten eban errekorridue eitten linea haretik. Ta igual ba denboraldi txarretan ta zerin-ta zeozer apurtute ba zerari, honeri, bidietan obreruek zerien ta igual, zeozer jeusi ta apurtu ta zerak-eta. Ni joaten nitzen aittegaz, hametik Larraskiture oiñez. Notak hartzen ba, zerak, Jesus, zelan esango dotsut? Landetan-ta ezer zertu badeue, alanbriek-eta ezer apurtu badeu arbolarik-eta ba, pageu eitten otsiezan Iberduerok propietarixuari. Ta haren propietarixuen notak hartzen ni aitteaz juaten nitzen. Sasoie orduen!

9.5. 15 urterekin hasi zen aita Irurak-baten

- **Hizlaria(k):** Esturo Orue, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-037/013
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:30:08. **Bukatu:** 00:32:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Beste batzuk
- **Laburpena:** Gerratean zehar ere bere aitak jorjala jasotzen zuen. Etxera bueltatzerakoan, lanpostua kendu nahi izan zieten, baina postua mantendu zuen. Bere aitak Irurak-bateko (gero Iberdrola) lanpostua zelan lortu zuen azaltzen du; 15 urte zituela hasi eta erretiratu arte egon zen. Zugastietan egon zen zentrala.

Transkripzioa

- Ta gero [...] zer euki giñun /eukittun/? Gure aitteri ba, beti esku ba beti bageten otsien, zerien egon nahiz zerien. Ta orduen “la que tenía”, platie dekonak, ogixe jaten euen, ostontzien, bapez.

- Orduen, zure aitxek be Torrelavegan ta Santanderren-ta biher eitxen eban?

- Biher, ez ebanien eitten, baia korriduarazo eitten otsien ta zeozer zera ba, deittu eitten otsien, ezta? Baia zer guztixek pagau otsiezan. Ta gero hona etorri zanien, beren puestoa kendu ein gure izen otsien hamen. Hamen beste batzuk planteu jakozan eurretik. Ta injiñeruek esan otsien: “no”. “Ha argittuko da; argitzen ez bada, bien. Baia oniño argittuko da ta beren puestue iñok ez deu kenduko”. Ta etorri ta justo, emon otsien ensegida. Jentie ostien danetako egoten zan, lehen be.

- Ta zure aitxek hori puestue zelan hartu eban ba hasikeratan?

- Ba beittu: hametik linie joan zan, propiedadetik, ezta? Ta hamengo aittek eta amak esan ei otsien: “Bueno ba, izten jatzue”, ze telefonoa ta linea altakoa, joan zan hemen, gure propiedadetik. Ta, “Baia Justiño neure semie, sartziegaittik hor zerien”. Ta orduntxe sartu eben, hamabost urte euki zittuezenien nire aitte sartu ei zen hor, Irurak-batien orduen. Irurak-

bat zan. Ta gehixau erretirau arte hortxe ibilli de gure aitte.

- Hor beheien, Zugastan?

- Hortik ba, euki eittuen harek zerak...Zera, hortik Bilbora linia, ezta? Zentrala, Larraskitun. Ta gero Markiñera be bai joaten zan. Ta Zugastan bizi zen orduen zera. Zugastan, Zugasta baiño goratxuau dau zentrala. Hortxe eon zan zentrala lehen.

- Hori be Gorozike da hori etxie?

- Bai. Ha Gorozike da. Ta gure aittek gehixau hantxe segidu eban.

9.6. Urrielduko "Txikito" postaria

- **Hizlaria(k)**: Esturo Orue, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MUX-037/026
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:54:11. **Bukatu**: 00:55:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Udal langileak
- **Laburpena**: Postaria Gorozikako zuten, Urrielduko "Txikito". Gerra garaian, lan asko izan ei zuen. Beraien etxea Zornotzako lurretan egon arren, bizimodua Gorozikan egin izan du.

Transkripzioa

- Ta karterue Zornotzakue edo?

- Gorozikekoa. Txikito esaten gontsen /esateontsen/ Urrieldekoa. Karteru eoten zan. Ta gerra denboran esango dotsut, kantsaute kartak ekarten, Urrebarroa. Bakizu hemengo mutil gaztiek ba frentera joanda, eroan otsuezan, ezta? Ta honek, hemengo zerak, ba guri kartak eskribitako, han mutilleri, laguneri, zerak emon. Ta beti kartak eskribiten, beti. Holako montoiek nik be, eukitten nittuzen. Ta hona etorten zan zera-ta. "Barriro ez natorren. Hainbeste karta-ta zera-ta". "Tirozu ba Liandro, Liandro aiba!, Tirozu tragotxue animetako apur bet-eta." Nik eitten notsen eta bueno; ostien, karterue Gorozikekoa. Oin, Zornotzan dekot ipiñitte. Baia halan ta guzti be, Gorozikera kartak etorten diz.

- Geuza batzuk Gorozikekoak eta beste batzuk, Zorrontzakoak.

- Bai.

- Baina zu, nongoa zara zeu?

- Ni neu, hamen jaixokoa, Zornotzako.

- Baina zuk ze esaten dozu, zornotzarra zarela edo Gorozikekoa zarela?

- Niri, danak esaten deste: zu, Gorozikakoa. Ni ez naz Gorozike, Zornotza baiño, esaten otsiet.

- Bai baiña zu, zeuretzat zer zara, Gorozikekoa?

- Ni Gorozike, ez? Beti, eleixara, neure lagunek hor, eskolara neure denpora guztixen horra...

- Famelixe be, berton?

- Dana. Gero, lagunek be, danak bertokoak.

9.7. Txerria hiltzean dirua pagatu behar

- **Hizlaria(k)**: Esturo Orue, Juanita

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MUX-037/029
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:58:09. **Bukatu**: 01:00:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Udal langileak
Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- **Laburpena**: Hildako txerriak zuen pisuaren arabera ditu kopuru bat ordaindu behar izaten zuten udaletxean. Udalak aguazila eta albaitaria bidaltzen zituen. Pablo albaitaria aipatzen du.

Transkripzioa

- Eta esan dozu lehen, hori aguazillena, txarrixeko kobretiena. Hori zelan izaten zan, txarrixeko hiltziena?

- Aiantamentuek kobretan auen.

- Hilttitarren?

- Hilttitarren ez, pisue. Segun ze pisu dekezun, gero pisutik kobreten otsuen hainbeste pezeta edo hau zentimo-edo. Pisuko, aiantamentueri pageu ein biher izeten otsezun, hori pisue.

- Ta hori zer dala-ta edo?

- Nik, ez dait, haixe aiantamentue zertzeko. Ta gure horrek taxistiek: "Keba, hori!" "Pregunteu, aitte bizi dozu?", esan notsen. "Pregunteu otsezu Ze, hona etorten zan moduen, Boroara be joango zan", esan notsen. Ze aguazille leku guztien ibiltten zan-ta. Pregunteu otsezu; ze guk beti-beti abixetan izen dotso txarrixek hiltten dizanien. Aiantamentuen parte emon ta aiantamentuek botaten euen aguazille. "Tal fecha", zelan txarrixeko hiltten dan. Ta aguazille botaten eben ta betenarixoa. Betenarixoi be zer ba? Txarrixeko hiltten zan, baia ha, probetako lelengo solomilloa-edo berari, etxera eroateko. "A saber". Jaten euen berak-eta.

- Eta nor zan betenarixoa han sasoi?

- Arkario. Ez, nire Arkario ta eurrera, Pablo. Holan akordeten naz, morrozko haundi bet. Hamen kaballoak-eta eukitten zittuezan basuetan ta kaballo atzien ibilli ta beste bere lagun batz kaballoak nun dauzen zerien-eta. Tokeu ein jakien lo eittie, ez dakit nungo baserrixen baten. Gabe eindde ba, belu-edo ta: "Ene, Pablo!" betenarixuai esan ei otsen lagunek: "Hau dok hotza", ohien-ta. "Gizonak beroan ez jok /etxok/ lo ein biher ohien. Oskorri, oskorri egon biher deu /bideu/, erdi hotzaz; ondo osasune eukitteko", eitten ei otsen harek. Eske bera zan bruse baltzaz. Bruse bakizu hori zera? Halako baltza, handi batz, bere katxaba haundi batz-ta ibiltten zan. Bera puf! Harek ba hotzik sentidu bai harek?, neuk eitten neuen. Baia ha zan bueno, bueno, itzela. Ta ha be honaxe etorten zan.

10. Ekonomia eta industria

10.1. Kotxoiak garbitzeko "bolas maravillosas"

- **Hizlaria(k)**: Esturo Orue, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MUX-037/016
- **Iraupena**: 0:03:36. **Hasi**: 00:35:14. **Bukatu**: 00:38:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen

- **Gaia(k):**

Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

- **Laburpena:** Arropak etxean xaboiu ostean errekarara joaten ziren. Koltxoiak garbitzeko "bolas maravillosas" erabiltzen zuten. Horiek garbitzeko prozesua azaltzen du. Urtean behin garbitzen ziren koltxoiak.

Transkripzioa

- Ta garbittasunek-eta zelan eitten zenduezan?

- Ba etxien garbitten giñuzen, jabonaute. Ur beruaz ta frega-harrixen edo horrek, balde zabal handixek eoten zien, asta bikoak. Han, ipini beratzen-ta ta gero, jaboneu, hartu buruen ta errekarara, ha jaboie kentzen. Ta beste geuze bat esango dotsut, hori baiño, koltxoiek orduen, lanazkoak eoten zien. Ta gurien koltxoiek beti, pastorie kenduarazo ta pieza osoak, e! Zatixek barik, pieza osoak. Ekarten zien harek ta "bolas maravillosas", oin be akorduen dekot. Ze biher ein ezkeru, akordeten jatxu txikitten-ta. Halako balde bi edo hiru ipini harek lanak beratzen, hurrungo egunien jaboneu bitsetan. Porkeri guztixe kentzen otsien. Bueno, ha ure kendu, barriro beste...Gure amaz ibili bihe, ze gure ama zan garbixe, bueno! Ta beste ur batzutan ipini halako "maravillosa" zerakin ta garbittu. Astoa ipini aparajuekin ta hor, beherau ure upilako, uger-ta eitten geñuzen lehen. Lehen, lehenau han, uger; neska-mutillek hara bajatute. Hantxe, planteu errekan, hankak zabal- zabalik eta: "blas-blas", zabal-zabal, kendu ondo, ekarri etxera, ipiñi euzkitten eta gero, hartu holako, siketzen zienien, hartu palu bet ta harek astindu, ta jo ta jo. Ta geratzen zien aputz-aputz. Gustoa zan. Ta gero ipini koltxoien telie be, garbittute ipini. Ha ipini ta bueltie gero. Ipintten dozuzen danak, koltxoieri bueltie emonda ta ha bueltaka-bueltaka...Ez holan sartu eskuaz. Ha bueltaka, koltxoieri bueltie lanie barruen dala, emon biher izeten jakon. Baiña koltxoa batzuk, gero geratzen zien...Esaten da: "Oingo koltxoiek?" Bai baia itzunde aputz-aputz. Uf, gustoa! Ta urtin-urtin ein biher gure amaz, garbittu biher koltxoiek, zu. Esaten notsen: "Ama, hurrengo urtien, ba!" Urte guztitan garbittu biher gure amak.

- Ta "bolas maravillosas"?

- "Bolas maravillosas" zien: etorten zien papel baten batute; bastante, holan bola zertxuek. Ta harek? Kentzen otsuen, zu! Nik, ez dakit ze eukitten euen. Ipintten otsuezan, baia edurran moduen. Edurren moduen. Lelengo neusixena ba bakizu: ardixeri kendu ta beti eoten da zera-ta. Ta ha lelengo ipintten zan. Gero, garbittu ha lelengo ta gero beste ur batzutan harekin ipini. Ta urtetan otsun lanie, zuri-zuri-zuri-zuri-zuri, zu. Makiña bat holako biher ein duu. Ta ein biher ez danik be ez. Hartu astoa, juen ta altxeu erropak goraiño ta astindu uretan ta ala!

11. Bestelako kontuak

11.1. Joxemiel Barandiaranekin

- **Hizlaria(k):** Sardui Enbeita, Deunoro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUX-049/011
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:22:31. **Bukatu:** 00:24:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

- **Gaia(k):**

Bestelako kontuak » Historia orokorra

- **Laburpena:** Deunoro Joxemiel Barandiaranekin aritu zen hark behar zuen kontu batean laguntzen. Sasoi hartakoak dakartza gogora.

Transkripzioa

- Ba Barandiaranegaz zetan ibil ziñen zu?

- Ni Barandiaran etor jaten baten, entzun ein dabela, entzun baten batek esanda, harri espezialen bat, harri haundi espezialen bat dauela hamentxe Ajengizko trokan, Maierretik eurrerau joanda hortxe, eta haixe topetan lagundu biher dotsetela /bitsetela/ eta domeka goiz baten joan giñen. Eta orduen esplikeu osten hori Peru eta Marixe nun egon zien exakto, Marixe nun eta Peru nun ta holan joan giñen. Hor egon giñen arratsaldeko, bokadillo bana janda, berak ekarri osten /ekarriten/ bokadilloa, bokadillotxu bana janda, illuntzera arte ibil giñen buelta ta buelta ta buelta eta pregunteka danari-ta. Bai hortxe atzera etor giñen Muxikeko estaziñora ta ni Aritzara bizikletie hartunde. Domekako bihera.

- Ba bera lekutetik etor zan.

- Bai, zeretik Ataunetik, Bai baia Santimamiñen egonda egon zan ariñau. Hametik hortik paseute egon zan mille bederatzirehun eta hogeta batien eta hogeta lauen be. Berak esan konte osten /kontesten/ hogeta batien egon zala Marixe jeusitte. Ta hogeta lauen etor zanien, Peru be jeusitte-edo egon ei zen, usteldute-edo, usteldute. Ni hirurogeta bost edo seixen joan nitzen ni haregaz. Ez daitz zein urte.

- Bera be ya edadekoa.

- Bai, bai zahartxu egon zan bai.

- Zelakoa zan bera?

- Bueno, ixere neure besteko alturie euki ban. Baia argal-argal-argala, txapelagaz beti, surre be neure antzeko luzetxue. Ta politto, euskeraz eitten eban politto, gipuzkueraz. Ta ni irakurritte asko ta egon nitzelez ordureko bertsoan-eta hortik ibillitte, ba ondo konpontzen giñen.

- Eta nun ezetu zendun ba bera Barandiaran?

- Zornotzan batzar baten hori ta Nikolas Ormetxea "Orixe" ha be bai.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. 'Piperra' ezizena (MUX-001/002)

Apalondo baserrian jaio zen, baina baserria ezizenetik da ezagungagoa Piperrere. Bittorreri ere Piperra esaten diete bere aurrekoei bezala.

2. Muxika: 3 herri 1 eginda (MUX-001/003)

Muxika oso herri zabala zen. Gaur egun udalerrri bakarra dena lehen hiru ziren: Muxika, Ibarruri eta Gorozika. Auzo nagusiak aipatzen ditu.

3. Bataio eta hiletak parrokian baino ez (MUX-001/004)

Gaur egungo Muxikan hiru udalerrri zeuden. Muxikan bi eliza zeuden: Ariatzakoa eta Elizaldekoa. Hala ere, lehen bataioak eta hiletak ez ziren Ariatzako elizan egiten, Muxikako parrokian baino. Ibarrurin ere berdin, nahiz eta Ajurian eta Mauma eliza egon Ibarrurin ospatzen ziren elizkizun horiek.

4. Etxean bertan harrobia eta ura (MUX-001/006)

Ariatzako eskola egiteko beraien etxetik ekarri zituen bere aitaitak losak. Etxe azpain losa asko zeuden, 1983ko uriolek dena desegin zuten arte. Etxe ondoan zuten harrobia. Eta etxe barruan bertan, azpian, zuten ura. Argi gerraostean jarri zuten; ordura arte karburua eta petrolioarekin erabiltzen zuten.

5. Ume-umetatik beharrea (MUX-001/009)

Umetatik hasi zen etxeko beharretan. Askotan eskolara joan barik egoten zen baserriko lanak zirela-eta. Iturrean, behi aurretik behia gidatzen, aritzen zen asko. Arto asko ereiten zuten. 9 neba-arreba etxean lortzen zenarekin bizi ziren.

6. Arto-lanak (MUX-001/012)

Artoa apirila erdialdetik San Isidro bitartera ereten da. Gero ondo jagon behar da: jorratu, kukulua kendu (ganaduari emoteko) eta artaburua heltzen utzi. Iraila-urri bitartean ebaki behar da, heldutasunaren arabera. Aroa zuritu ostean, kapatza kenduta, urte guztian zehar kamaran izaten zuten.

7. Tifusa zela-eta berrogeialdian (MUX-007/021)

Bere anaiak eta beste auzoko batzuk Sopuertaraino joan ziren. Handik tifusarekin etorri ziren; ondorioz, berrogeialdian egon behar izan zuten. Berrogei egunez ura edaten egon ziren. Nola pasatu zuten kontatzen du.

8. Anaiak Sopuertara joan ziren; zilarrezko ogerlekoak (MUX-007/023)

Zortzi urte zituen tifusaz gaixotu zenean. Maumako osaba bat zutenez Sopuertan, anaia biak hara joan ziren. Sopuertan ere gerra zegoen. Arreba, bitarte horretan, Mauman egon zen. Zilarrezko ogerlekoa erabiltzen zen orduan. Lapiko batean sartu, eta sats artean gordetzen zuten dirua.

9. Dirua sats artean gordeta (MUX-007/025)

Bere amaren etxean, zilarrezko ogerlekoak lapiko batean sartu eta sats artean gordetzen zituzten, dirua inork ez aurkitzeko. Lotan zeudela, burko azpian gordetzen zituela gogoratzen du, bizirik jarraituz gero, zerbait izan zezan.

10. Trintxerak gertu, baina auzoko inor ez frontean (MUX-007/027)

Beraien etxe ondoan trintxerak egin zituzten Mendataranzko aldean. Auzoko inori ez zitzaion egokitu gerrara joan behar izatea.

11. Ogi beltza gerra sasoian (MUX-007/028)

Gerra sasoian ogi beltza jaten zuten, zahiaz egindakoa. Garirik eta, erein ez zenez, krisi itzela egon zen. Aurrera zetorrena jaten zen. Geroago, ereiten hasi zirenean apur bat hobetu zen bizimodua.

12. Eskola itxita, partikularretara (MUX-007/029)

Ajuriako eskola itxi zen garaian, Francoren irudia egoten zen eskolako horman eta Cara al Sol kantatzen zuten sartzean eta irteteen. Orduan, arratsaldeetan klase partikularretara hasi ziren Okara; oiloak alde batean eta eurak bestean.

13. Letxugak erretzeko, txiza onena (MUX-007/030)

Ume bihurriak ziren bera eta lehengusu bat; behin, biak zigortuta zeuden, eta oiloen pertxatik egin zuten alde. Beti leporatzen zieten errua. Letxugalandareei txiza egin eta erre ere egin dituzte.

14. Domeketan erromeria (MUX-007/032)

Domeka arratsaldeetan egiten zen erromeria aurreko auzoan, Agarren (Agirren), neska eta mutil batzen ziren.

15. Etxebizitza gutxiago orain (MUX-007/035)

Lehen hamasei bizimodu (etxebizitza) zeuden. Bota dituzte etxe batzuk: Torre Aurrekoa eta Torre atzekoa Izebalen.

16. Errotak prezintatu (MUX-007/036)

Inguruan lau errota egon ziren. Eurak Okara eta Iberlatxura joaten ziren. Prezintatu egin zituzten errotak, eta gauez ibiltzen zen baten bat.

17. Garia Durangoko errotetara, artoa Okara (MUX-007/038)

Durangoko errotetara, Tabirara eta Lapikora, eramaten zuten garia, eta irina ekarri. Lehenago astoan, bakoitzak bi asto eramaten zituen; geroago kamioian.

18. Labeko sua (MUX-007/039)

Larunbatetan labeko sua egiten zen etxe guztietan, bakoitzak berea. Aste guztirako ogia egiten zen orduan. Okina heldu zenean amaitu ziren kontu horiek.

19. Pospolinak eta erbiak (MUX-007/040)

Lehen kakalardorik ez zen egoten. Garia ereiten zen garaian, pospolinak ibiltzen ziren. Gerraostean erbiak ugaritu ziren. Ehiztariak hiruzpalau harrapatzen zituzten; inoiz baten bat kortan sartu ere bai. Gurdiak zapaldu zuen behin bat. Orain orkatzak dabilta.

20. Katamixarra, igela eta apoa (MUX-007/042)

Mixarra (katamixarra) lehenengo aldiz ikusi zuenean, erabat harritu zen. Lehen ugaraxoek (igelek) asko kantatzen zuten; orain ez. Apoari zotza sartu eta eskegita uzten zen; haren txistua txarra zela uste zuten.

21. Beltzik urtebete edo bi (MUX-007/044)

Baten bat hilez gero, beltzik jantzi beharra zegoen; urtebete edo bi. Tindatu egiten ziren arropak; Gernikan bazegoen tinategi bat.

22. Jai egunetan elizara (MUX-007/045)

Derrigorrez joaten ziren jai egunetan elizara; ez oraingo moduan. Orain parranda egin eta gero lo.

23. Ordu erdi belauniko (MUX-007/046)

Aste Santuan Ibarrurira joaten ziren elizara, ordu erdi belauniko egoten, penitentzia egiten. Orduan debeku gehiago zegoen, paparra ere ezin zen erakutsi oraingo moduan.

24. Dena zen pekatu (MUX-007/047)

Ibarrurin hiru abade egoten ziren. Apaizetako batek esaten zuen emakumeek buruan "falta de riego" zutela. Aitortzen ere denbora gehiago ematen zuten emakumeekin, eta galdera itzelak egiten zizkieten. Jauna hartzeko baraurik egon behar zenez, kontuz ibili behar zen aurpegia garbitzean.

25. Gaubeila, eta jatordua hiletaren egunean (MUX-007/049)

Hil-kanpaiak ezberdinak ziren hil zena gizonezkoa edo emakumezkoa izan. Gaubeila egiten zen hildakoaren etxean. Auzoan bertan egin ziren hileta batzuk, baina orain Ibarrurin denak. Andariek eramaten zuten hilotza Ibarruriko elizara. Joandakoek, apaizekin eta andariekin batera, bazkaria izaten zuten.

26. Primerako eta segundako hiletak (MUX-007/050)

Primerako hiletan, kandela gehiago jartzen zen aldarean. Dirua zutenek, ugazabek, primerako hileta izaten zuten. errentan zeudenek segundakoa. Alberto apaizak kendu zituen hiletan inguruko jatorduak.

27. Ganadua metrailatu (MUX-007/051)

Zortzi urte zituela izan zen Gernikako bonbardaketa. Lanean zegoen ganadua metrailatu zuten. Eguerdi inguruan, paper erreak eta, ekarri zituen haizeak. Arbazegin ere bonbaren bat bota zuten.

28. Esan beharrekoak neurtu egin behar (MUX-007/052)

Ez du gogoan bonbardatu ondoren ikusitako Gernika. Gero ere, erreketeeek gorriek erre zutela esaten zuten. Auzoko batek erreketeeek erre zutela esan zuenez, soldaduen kapilauak familiari semea babesteko esan zien.

29. Larrinagatik etxera tuberkulosiarekin (MUX-007/057)

Osaba Anastasio eta Hilario Larrinagako espetxera eraman zituzten preso gerra garaian. Gaixotu egin ziren bertan, tuberkulosiarekin, eta etxera bidali zituzten. Baserrian, gaixorik, etxeko guztiekin batera egon ziren, besteak kutsatzeko arriskuarekin.

30. 1927an Txoriena baserrian jaioa (MUX-008/002)

1927an ekainaren 14an jaio zen, Mauma auzoko Txoriena baserrian.

31. Eskolako zigorrak; dotrina abadeagaz (MUX-008/005)

Zigor moduan bazkaldu barik uzten zuten maistrak; edozer jaten zutela dio. Goizetik gauera eskolatik irten barik ere egoten zen. Maistrak bazekien euskaraz; hala ere, gaztelaniaz egiten zuen. Eguerdietan ordu erdiz abadeagaz dotrina ikasten zuten. Ez baziren joaten abadea joaten zitzaien etxera bila. Abade gaztea nesken gustukoa zela dio.

32. Herriko abadeak eta jaunartzea (MUX-008/007)

Ezagutu dituen abadeak aipatzen ditu: don Luziano, don Iñaki, don Rikardo eta don Jesus, besteak beste. Gerraostean egin zuen lehenengo jaunartzea; gaztelaniaz egin zuten. Eskolako atean Cara al Sol kantatzen zutela dio.

33. Jaunartzeko arropak (MUX-008/009)

Bere lehenengo jaunartzea anaia zaharrenen trajea jantzita eta abarketa zuriekin egin zuen. Jaunartzea egin ostean segituan aldatu behar izan zituen arropak ez zikintzeko. Ostean olgetan joan barik, behiak jagotera joan behar izan zen.

34. Bataioak eta hiletak Ibarrurin; jaunartzea Maumen (MUX-008/011)

Umea jaio eta segituan udaletxera joan behar izaten zen parte ematera eta jaio eta bizpahiru egunetara amabitxiarekin eta aitabitxiarekin bataiatzen zen umea. Bataioak eta hiletak Ibarrurin egiten ziren, jaunartzeak ostera, Mauman. Ibarrurira joateko egiten zuten bidea aipatzen du. Hildakoak Ibarrurira eramateko bide luzea egin beharra zuten eta askotan sufritu egiten zuten. Auzokoren bat hildakoan gaubela egiten zen eta elizatik irten ostean andareentzako eta senitartekoentzako jana egoten zen Etxandiko tabernan.

35. Maumako baserrien izenak (MUX-008/015)

Mauma ez da asko aldatu bera gaztea zenetik; baina, lehen 33 etxebizitza ziren gaur egun 6. Maumako etxe-izenak aipatzen ditu: Txarroa, Txosna, Astei, Imatxena, Usinbaltza, Errotazar, Maiora, Poto, Otzatibaso, Andramaribaso... Errotazar errota ei zen, baina berak ez zuen ezagutu.

36. Argindarra: petrolioa eta karburoa (MUX-008/017)

Hasieran petrolioa eta karburoa erabiltzen zuten; beranduago jarri zuten motor bat eta beraiek bakarrik zuten argia. Karburoagaz ez ziren sabaira eta kortara joaten; farola erabiltzen zuten.

37. Azpigarrirako ira (MUX-008/018)

Azpigarrirako ira basotik ekartzen zuten, iraleku zabalak zeudela dio. Gaur egun sasia eta otea baino ez dagoela dio. Lehen saldu egiten zen ira, bolantekada bakoitza (4 gurdikada) 10 ogerlekoren truke. Ira inguruko herrietara ere saltzen zutela dio. Lehen udagoiengan arbia ereiten zen ganaduarentzat. Lan asko izaten zuten askotan lo gutxi egiten zuten.

38. Aitarekin izandako gorabeherak (MUX-008/019)

Aitak gutxitan jotzen zutela dio, baina jotzen zuenean gogor egiten zuen. "Txorizena" medikuak etorri beharra izan zuen behin oso gogor egin ziolako. Berak ere behin aitari mailua jaurti eta belarri ondoan zauritu zuen; ume gaiztoa zela dio.

39. Familiaren jatorria (MUX-008/020)

Bederatzi neba-arrebatatik hirugarrena da bera. Aita bertakoa zen eta ama Burdaria auzoko Otxortia baserrikoa; Burdaria eta Urrutxu artean zegoen. Beraien abizenaren jatorria Bilboko San Antonen dago, bere aitita urikoa zelako.

40. San Anton abizena; soldadutzako istorio bat (MUX-008/022)

San Anton ijitoen abizena dela dio. San Anton gutxi daudela dio. Soldadutzan ezagutu zuen bere abizen bereko bat, harekin bizi izandako kontakizunak kontatzen ditu. Mandozain zegoela ipurditik palo bat sartuta hil zuen mandoa. Albaitariak atake batek jota-edo hil zela esan zuen.

41. Soldadutzako istorioak (MUX-008/023)

19. infanterian egon zen 18 hilabetez; ordura arte denbora gehiago irauten zuen soldadutza garaiak. Bertan ere ez zela ondo portatzen dio. Behin zigor legez ilea moztu behar izan zioten baina sarjentu euskaldunaren laguntzari esker libratu egin zen. Beste behin nahiago izan zuen tren-geltokiko jesarleku batean lo egitea kuartelean egotea baino, goizeko lehen trena hartzeko. Iruñetik Arrasatera eta handik Durangora arte joaten ziren trenez.

42. Gerran hildakoak (MUX-008/025)

Gerra pasatu zenean, 10 urte zituen Basiliok. Makina bat hildako ikusi eta lurperatutakoa da; oraindik gogoan du non dauden lurperatuta. Potoko seme bat eta Errotazarreko beste bat kanpoan hil zituzten Gernika erre zuten egunean; bata ura edaten zegoela aho barrura tirokatuta hil zuten. Abioiak-eta pasatzen zirenean, kortako txahalen atzean ezkutatzen ziren atakeak irauten zuen bitartean.

43. Ama Durangoko plazara (MUX-008/027)

Bere ama astean birritan joaten zen Durangoko plazara oinez astoarekin, zapatuz eta martitzenez. Beranduago behorra eta gurdia ekarri zituzten. Durangora joateko egiten zuen bidea azaltzen du; bi bide ezberdin zeuden.

44. Frontea Arronan (MUX-008/029)

Frontea Arrona mendian egon zen; erreketek ziren. Tiroka aritzen ziren bertatik eta mutiko bat zelan hil zuten kontatzen du. Muniketaganeko etxeari ere eraso ziotela dio; oraindik ere, agian, bertan egongo da kanoi-zuloa. Kanoikadak ez zuen inor harrapatu. Unda auzoan ere trintxerak zeuden tiroak egiteko.

45. Errazionamendua (MUX-008/031)

Ibarrurira joan behar izaten ziren errazionamenduaren bila; aste osorako zena egun bakarrean bukatzen zuten. Azukrea morea zela gogoratzen du eta ogi tartean jaten zutela.

46. Garia, artoa eta txerria entregatu beharra (MUX-008/032)

Garia eta artoa entregatu behar izan zuten, abastorako arduradun batzuk zehazten zituzten kontrolerako. Txerria hilez gero ere entregatu behar izaten zuten, eta hiltzearen ere ordaindu egin behar izaten zenez askok gauez hiltzen zuten. Auzoko baten behin txerria jo beharrean bere hanka jo eta apurtu egin zuen.

47. Domekan beharra egitea galarazita (MUX-008/034)

Entregatu beharreko ez baldin bazen entregatzen isuna ordaindu behar izaten zen. Domeketan baserriko beharrak egitea txarto ikusita zegoen eta bere aitak isuna ordaindu behar izan zuen garia garantzearren; 10 ogerleko isuna ordaindu behar izan zuen. Dirurik ez zuenez, etxera bueltatu, Potoneko auzokoek dirua utzi eta Ibarrurira bueltatu behar izan zen ordaintzera. Elizarentzat ere bekatua zen antza.

48. Ibarruriko alkateak (MUX-008/035)

Bere aitari isuna jarri ziotenean Ibarruriko alkatea Burdariako Erramon Derteano zen. Beste alkate asko aipatzen ditu: Seberiano Begoña, eta Ajuriako Goiko baserriko Isidro.

49. Estraperloa (MUX-008/038)

Errotariak egiten zuen estraperloa. Ardoarekin eta pattarrarekin ere egiten zuten; Durangotik harako bidean aguazilak egoten ziren. Undan zegoen Errafael izeneko aguazila; harekin gertatutako pasadizoa kontatzen du.

50. Aita errukiagatik ez zuten hil (MUX-008/040)

Reketeei bere aita gorria zela esan zioten eta bere aitaren bila etorri ziren hiltzeko asmoarekin; beraiek umeak ziren arren guztia ikusi zuten. Etxe gaineko bidegurutzean eztabaidan hasi ziren moroak beraien artean, eta haietako bat umeak ikusita errukitu egin omen zen eta Basilioren aita aske utzi zuen. Ibarruriko Etxandiko Pedro Jose horrela hil zutela dio.

51. Pedriñen errota (MUX-008/042)

Pedriñen errotara joaten ziren; errota hori non dagoen aipatzen du. Ingurukoak ere hango errotara joaten ziren. Gerra sasoiari gauez joan behar izaten zuten; Berriztik ere hurbiltzen zen jendea.

52. Gerra sasoiari errotak zarratuta (MUX-008/043)

Gerra sasoiari errotak zarratuta egon zirenez, kontrabandoan aritzen ziren; urtebete inguruan egon ziren zarratuta. Hala ere, errotariak jakiten zuen noiz eho eta noiz zarratu, harrapa ez zezaten. Errotaria Potoko semea zen.

53. Maumeko presoak; udaletxeko milizianoak (MUX-008/044)

Potoko bi seme egon ziren kartzelan; eta beste bi hilda. Bilboko kartzelan egon ziren. Aita gauez irteten zen Maumatik Bilbora oinez hurrengo goizean bueltan egoteko. Bertako miliziano asko zegoen, tartean bere koinatu bat; Ibarruriko udaletxea ere milizianoek jagoten zuten. Behin udaletxea zaintzen zeuden miliziano horiek udaletxera sartzen norbait ikusi zutenekoa kontatzen du, alkatea zen eta ia-ia hil egin zuten.

54. 21 umeko familia (MUX-008/046)

Maumako familia batek 21 ume izan zituen, Zelara baserrikoek. Teresa deitzen zen 21 seme-alaba zituen emakumea.

55. Euskaraz abesteagatik hila (MUX-008/049)

Gerran ibilitakoak gazte hil zirela dio, urte asko egoten ziren gerran. Bere koinatu baten anaia, Genaro, soldadutza garaian tabernan euskaraz abesteagatik hil zuten. Eskola sasoian ere jolas-orduan euskaraz berba egiten harrapatuz gero, zigortu egiten zuten.

56. Don Juan medikua (MUX-008/051)

Maumen ezagutu zuen lehenengo medikua don Juan izan zen, berak ekarri zuen bertara lehenengo bizikleta ere. Medikuari herriak ordaintzen zion, ez gaixoak.

57. Txorizena medikua (MUX-008/053)

Amak seme-alaba guztiak elkarrekin batera jarri arren Basilio ez zen gaixotu. Medikua txertoa jartzera etxera etortzen zenean bera ezkutatu egiten zen. Don Juan eta gero Txorizena egon zen. Txorizena bizarduna zen; antza, bizarra azpian zituen marka batzuk estaltzeko zuen. Ehiztaria zenez, ehiza-garaian askotan gaitza zen bera aurkitzea.

58. Don Juanen autoa eta anaiaren bizikleta (MUX-008/055)

Don Juan medikuak bizikleta eta gero latorrizko autoa erosi zuen, gaur egungo bizikletek dituzten erroberen modukoak. Sasoi hartan bizikleta izatea gauza handia zen. Bere anaia zaharrak izan zuen auzotarren artean lehenengo bizikleta, beharrera joateko erositakoa; ingurukoek errekadutarako, medikutarako-eta eskatzen zioten. Ostean, banaka-banaka jendea tailerretan beharrean hasi zenean ugaritu ziren bizikletak.

59. Itsasoa gurutzatzeko txanela (MUX-008/057)

Gonbidatu joaten ziren etxe batera eta bertara joateko txanela hartu behar izaten zuten eta berari beldurra ematen zion. Hondartzara gutxitan joan da, behin olatu batek harrapatu eta ura irentsi zuenez gehiago ez da uretara sartu.

60. Erromeriak eta Maumeko San Lorentzoak (MUX-008/059)

Oromiñon, Muniketan, Zugastietan eta Albizen domekero egoten zen erromeria. Mauman San Lorentzoetan meza, aurrekua, igel-jokoa eta erromeria egoten zen.

61. Zugastietako Serafin eta Satur soinu-jotzaile (MUX-008/061)

Serafin Zugastietakoak jotzen zuen soinua eta bere anaia Saturren bonboa (jaiotzez Oromiñokoak ziren). Oizeko jaietara ere bera joaten ziren beste soinu-jotzaile askogaz batera.

62. Oromiñoko eta Muniketako erromeria (MUX-008/063)

Oromiñoko erromeria Alberdi tabernan egoten zen. Hango erromeriak bukatu zirenean Muniketako erromeriara joan zen jendea. Ez zen dantzan egiteko arazorik egoten. Gizonezkoek 2 erreale-edo ordaintzen zuten dantzan egin ahal izateko. Behin Muniketan mutil batek kalabazak eman zizkion neskari belarrondokoa eman zionekoa kontatzen du. Muniketan Bittorren tabernan egiten zen erromeria. Oromiñoko "treinta" eta Torreburuko Jose aritzen ziren soinua jotzen.

63. Domekeroko dirua, "kinttenatxue" (MUX-008/064)

Amak ematen zien domeketerako dirua: "kinttenatxue". Gero, bueltak amari itzuli behar izaten zizkieten, eta gastatutakoa azaltzeko gezurrak kontatzen zizkion amari. Erromeriara oinez. Erromeria bukatutakoan neska laguntzen egin behar izaten zuten.

64. Undako San Markosak eta Ajuriako San Juanetara gonbidatu (MUX-008/083)

Undako San Markosetan meza eta hamaiketakoa egoten zen baina ez erromeriarik. Ajuriako San Juanetan gonbidatu joaten ziren Izebalera. San Juanak artzainen jaiak omen dira eta ahuntzainena San Martin.

65. Ibarruriko frontoia (MUX-008/086)

Ibarrurin egoten ziren pilota-partiduak; Etxezarreko anaiak, Juanjo eta Rubio, onak zirela dio. Kanpoko jendea ere hurbiltzen zen bertara eta bertakoak ere kanpora.

66. Mutilak pilotan; neskak banderetan eta taixan (MUX-008/090)

Mutilak pilotan aritzen ziren Maumako frontoia eta neskek banderetan eta taixan. Basilioren emaztean azaltzen du zelan izaten zen banderen jokoa eta taixan. Arreburrikitoan neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren

67. Kubike, arreburrikitoan eta sokadantzan (MUX-008/092)

Kubike ere aritzen ziren olgetan. Basiliori arreburrikittoa gustatzen zitzaion gehien neskekin jolasten zuten-eta; mutilak azpian jarri behar izaten zuten. Sokadantzan batez ere neskak aritzen ziren; mutilak horretan baldarragoagoak zirela dio. "Al cocherito lere" abesten du.

68. Abarka-kordelak zelan egiten dira? (MUX-008/095)

Etxean egindako abarka-kordelak erakusten ditu eta zelan egiten diren azaltzen du pausuz pausu. Bideetan kakatza asko egoten zela dio eta abarkak beharrezkoak ziren.

69. Zinemara joan eta lokartu (MUX-008/097)

Nobiotan joan zen lehengo bider zinemara Santa Teresari buruzko pelikula bat ikasten eta lokartu egin zen; ez da berriro joan.

70. Abadeari berori eta erreberentzia (MUX-008/099)

Abadeari berorika egiten zioten berba erreberentzia eta guzti. Abadeak ez ziren tabernara sartzen. Mauman bi meza zeuden egunen zehar; goizez eta

iluntzean. Mauman bertako hiru abade egon dira, behin horietako bati Mauma egin zionean esan zion berari ez egiteko berba horrela.

71. Arrebagaz hika (MUX-008/101)

Basilioren etxean denek egiten dute hika, baina Basiliok arreba gazte bati baino ez dio egiten hika beste anai-arrebei ez eta gurasoei ezta pentsatu ere.

72. 54 urtez artzain (MUX-008/103)

54 urtez artzain lanetan aritu izan da Basilio etxeko artaldeagaz; idiekin ere ibili izan da.

73. Artzainaren egunerokoa (MUX-008/107)

Berandu jota bostetan altxatzen ziren egin beharreko lanak egiteko. Egun normal batean egiten zituztenak azaltzen ditu; ordubete ere ez zuten libre izaten. Bildotsak saltzeko-edo ateratzea galarazita zegoen, hala ere eramaten zituzten; behin harakin bati gertatutako pasadizoa kontatzen du.

74. Zelan egiten da gazta? (MUX-008/109)

Gazta etxean bertan egiten zuten. Gazta zelan egiten zuten azaltzen du; gaur egun ere berdin egiten da.

75. Ohiko jatordua (MUX-008/113)

Armozutan sardina zaharrak taloa eta esnea jaten zuten; bazkaritan, bada eta aza patatakaz askotan jaten zen, besteak beste; txahala era etxe danetan hil zen. Fruta ugari izaten zen, sagarrak zein gaztainak.

76. "Seseñe" (MUX-008/114)

"Seseñe", txahalaren okela banaketa. Ohikoa zen txahal bat hildakoan haren okela banatzea. Lantzean behin ardiak ere hiltzen zituzten; ardiak dauden tokian ez dago okela faltarik.

77. Eguneko 3 arrautza gordin edan (MUX-008/116)

Untxia domeketako jana zen. Arrautzak ere askotan jaten zituzten gordinik; eguneko 3 arrautza.

78. Ardi latxa (MUX-008/118)

Inguruetan egon den ardia latxa izan da, ez du besterik ezagutu.

79. Azerien erasoak (MUX-008/121)

Basilio artzain zebilela arazo gehien azeriekin izan zuen; azeriak ardiengana baino gehiago oiloengana hurbiltzen zen. Negu batean bi ardi hil zizkioten azeriek. Azeria asko galdu dela dio basoan agertu zen hazteria dela-eta; ardiek harrapatu zuten hazteria azerietara pasatu zen, horregatik gaur egun ardiak botikarekin garbitu behar izaten dira.

80. Ugaraxoa, katamixarra eta kirikolatza jaten (MUX-008/124)

Lehen ugaraxoa (igela) jatea ohikoa zen; legatzaren antzeko gustua duela dio. Katamixarra eta kirikolatza ere jaten zirela dio; kirikolatza bizirik larrutzen da. Basiliok ez ditu sekula probatu katamixarra eta kirikolatza.

81. Muniketako bolatokia (MUX-008/128)

Muniketan bolatokia egon zen; dirua jokutzen zen txapelketetan. Parte hartzea debaldekoa zen.

82. Auzoko baserri izenak (MUX-009/003)

Auzoko eta inguruko etxeen izenak.

83. Ama barik gizon artean hazi zen (MUX-009/005)

Ama barik hazi zen bi urte zituela hil baitzen. Gizon artean hazi zen 11 urte zituela amuma ere hil baitzen. Arropak garbitzen Goikoerrotaraino joaten zen eta bertako Gregorik garbitzen zizkion arropak. Altamira inguruan ez zuten ez urik ez biderik.

84. Ezkontza Bilbon ospatu zuten (MUX-009/007)

Bere ezkontzako bazkaria Bilbon ospatu zuten. Lutoz ezkondu zen, bere aitagarreba lehenago hil baitzen Ibarruriko zubitik jausita. ezkondu ostean, bi egun egin zituzten Bilbon bertan.

85. Eskolan gauza gutxi (MUX-009/009)

Ibarruriko eskolako maistra Elena zen. Gauza gutxi ikasi zuen eta baitzen egunero joaten.

86. Mezak eta Ibarruriko abadeak (MUX-009/010)

Umetan amumari eskutik helduta joaten zen mezara. Abade asko ezagutu ditu. Don Ezekiel eta don Rikardo durangarra aipatzen ditu, don Rikardo urte askoan egon zen. Mezak atzez eta latinez ematen zituzten.

87. Bataioa eta jaunartzea (MUX-009/011)

Umea jaio eta segituan bataiatzen zen. Bere semea ere elurtza handi bateko sasoian bataiatu zuten. Bere lehen jaunartzea zuriz jantzita egin zuen.

88. Erromerietako giroa (MUX-009/012)

Erromeriara joan aurretik arrosariora joan behar izan zuten. Muniketa eta Zugastietako erromerietaraino joaten ziren. Andrazkoak ez ziren tabernetara sartzen, ezta bururatu ere. Zugastietako erromeria non izaten zen kontatzen du. Dantza lotua egiteko ez zuten arazorik izaten. Domeketan baino ez ziren izaten. Zornotzara eta Gernikara urtean behin baino ez ziren joaten erromeriara. Esnea berak batu behar izaten zuen aitzak ez baitzekien.

89. Muniketako erromeria (MUX-009/013)

Muniketako erromeriara inguruko jende asko azaltzen zen.

90. Ibarruriko jaiak: San Pedroak, San Markosak (MUX-009/014)

Ibarruriko San Pedroetara jende asko hurbiltzen zen. Meza ostean erromeria egoten zen. Unda auzoko San Markosetara gonbidatu joaten zen beti.

91. Desagertutako Madalenako ermita (MUX-009/015)

Altamira ondoan bazegoen Madalenaren omenezko ermita bat. Duela 80 urte inguru-edo jausi zen. Bertara letania egiten zen. Hainbat letania egoten zen: Ajuriara San Juanetan, Oizera San Gregorioetan. Auzoan desagertutako etxe bakarra dago: "Berrintxe".

92. Gerran soldaduen beldur (MUX-009/017)

Espainiako Gerra Zibilean, soldaduak etxe albora agertu zirenean, beldur handia izan zuten. Frontea ondo-ondoan zuten. Behin soldadu bat etxera etorri zenean, korrika egin zuen ihes beldurrez. Arrautza bila-eta joaten zitzaizkien.

93. Jateko eskasia, Durango eta Gernikaraino irinetan (MUX-009/018)

Gerra sasoiaren jateko eskasia zegoen. Okako errotan ere ez zegoen irina, Gernikaraino joan ziren behin bila. Errazionamendu bila Ibarrurira joaten ziren. Zugastietan abastokoak egoten ziren jeneroa kontrolatzen. Astoz Durangora irin bila joandakoa da. Abastokoa galarazi egin zieten erroterei ehotzea.

94. Goikoerrotara diru bila (MUX-009/019)

Frontean zeuden nebei dirua bidali behar zien eta ez zuten izaten zer bidali. Goikoerrotara joaten zen bila.

95. Nebak frontean (MUX-009/022)

Bi neba izan zituen frontean. Bat Larrabetzu aldean harrapatu zuten preso. Gaztea Langileen Batailoian egon zen, eta, Gernikako bonbardaketa ostean, kamiñero aritzea egokitu zitzaion. Carmenek ez du gogoan noiz joan zen lehen aldiz Gernikara erre ostean. Oso txarto pasatu zuten sasoi hartan.

96. Medikuri ez, Jenara partera (MUX-009/025)

Ez du medikuarenera joatearen akordurik, umeak izaterakoan baino ez. Aluzeko Jenara aritzen zen partera lanetan. Bere seme nagusia elurtza handi batean izan zuen.

97. Ur eta garbigailu barik (MUX-009/027)

Arropak garbitzeko asta biko baldeagaz joaten zen Goikoerrotara. Kontsumorako ur bila Ormetxeko iturrira joaten ziren. Garbigailua izan arren, elkarrizketa egin zitzaionean, nahiago zuen oraindik eskuz garbitu.

98. Oizera San Gregorioetan (MUX-009/028)

Egur bila inguruko basoetara joaten ziren, pinu asko zegoen. Oizera San Gregorioetan joaten zen letaniarekin. Mauman bazkaltzen zuten.

99. Hiletak oso desberdinak izaten ziren (MUX-009/029)

Auzokoren bat hiltzen zenean, gaubeila egiten zuten. Gorpua ez zen elizara sartzen; gela ilun batean egoten zen hilkutxa hutsa jartzen zuten. Lehenengo lurperatu egiten zen eta gero izaten zen meza. Hiletak goizez izaten ziren eta Etxandin ematen zen bazkaria.

100. Tokadak (MUX-009/032)

Inguruko auzokoren bat hiltzen zenean umeak ibiltzen ziren etxerik etxe abisatzen. Hil kanpai, tokada, desberdinak zeuden: emakumezkoentzat 2, gizonezkoentzat 3 eta umeentzakoak. Carmeni ere suertatu zitzaion etxean umea hiltzea.

101. Gurdiak eta azpigarria (MUX-009/037)

Gurdi mota desberdinak ezagutu ditu. Udagoienean, urri bueltan, gurdia azpigarriz bete-beteta ekartzen zuten inguruko mendietatik. Azpigarria zelan egiten zuten azaltzen du.

102. Gari lanak (MUX-009/038)

Gari-ebaten zerrarekin ibilitakoa da. Metak egiten zituzten. Garia eskuz jo eta sikatu behar izaten zuten. Lepoan igotzen zituzten sabaira (lastategira).

103. Baserriko tresnak (MUX-009/040)

Baserriko hainbat tresna eta hauen erabilera azaltzen du: Aitzurra, "mokil-heuskixe", sardea, eskubara.

104. Narra, alperrarria eta "inteiek" (MUX-009/042)

Sekula ez du laia erabili. Mokilak apurtzeko narra erabiltzen zuten. Alperrarria ere erabiltzen zuten. "Inteiek" ere erabiltzen zituzten soloan.

105. 'Hijas de María' eta luistarrak Ibarrurin (MUX-009/052)

Ibarrurin Hijas de María eta luistarrak egon ziren. Maiatzena jai handiak egiten ziren.

106. Ogia zelan egiten zuten (MUX-009/056)

Labean egiten zuten etxerako ogia. Prozesua azaltzen du. Zortzi egunetik behin egiten zuten.

107. Kupoa entregatu behar (MUX-009/057)

Baserriarrek udaletxean kupoa entregatu behar izaten zuten: garia, artoa... Garia zelan garbitzen zuten.

108. Perratzailea eta perratokia (MUX-009/061)

Ganaduarentzako perrak (herradurak) jartzen nor ibiltzen zen aipatzen du. Ibarruriko Belaustegi "Belosti" baserrian zegoen perratokia.

109. Ajuriako eskola; meza-laguntzaile (MUX-010/004)

Umetan Ajuriako eskolara joan zen, neska-mutilak elkarrekin ibili ziren maistra bakarrarekin. Umetan okerra ei zen. Meza-laguntzaile ere aritu izan zen urte askoan; bertan egindakoak-eta kontatzen ditu. Abadeagaz "untziñoa", azken bedeinkazioa, ematen aritzen zen.

110. Mediku bila bizikletaz (MUX-010/005)

Mediku bila ere aritu zen umetan, Muxikaraino joaten zen gaeuz bizikletaz don Juan medikua abisatzera Astelarrara.

111. Medikua kontrabandoan (MUX-010/006)

Balkoitik medikua noiz zetorren ikusten zuten eta Maumatik zetorrela medikuak Ajurian kolpea izan zuen eta Zugastietan pasatu behar zuen kontrabandoa eta Mauman baten batek emandako bildotsa zekarren medikuak. Medikua ezin izan zuenez jarraitu Maximok lagundu zion astoan eramanda bildotsa; astoa okerra zela dio.

112. Kontrabando-laguntzaile eta fielatoa (MUX-010/007)

Ajuriatik bajatzeko fielatoa pasatu behar zuten eta hura pasatzea ez zen erreza, baina astoz pasatu zenez, alderdi batean arkumea eta bestean ardia zituela inork ez zion kasurik egin; medikua eta bere emaztea oinez pasatu ziren. Alabak azaltzen du zer zen fielatoa; Irripen eta Zugastietan zegoen.

113. Gurasoak gazterik hil zitzaizkion (MUX-010/008)

Gazterik galdu zituen gurasoak. Ama Arratiako tranbiak zapalduta hil zen; aita hargina zenez, laneko hautsak bularrera eragin zion.

114. Ama Birjinak lagunduta gerran (MUX-010/011)

Gerran, Ama Birjina izan zuela laguntzen dio, inoiz ez zitzaiolako ezer gertatu bala artean ibili arren. Teruelen eta beste hainbat lekutan egon zen.

115. Gerrako kontuak: frontea, hildakoak... (MUX-010/014)

Frontea altuera denetan zegoela dio: Askarin eta Bizkargin, besteak beste. Ajurian, Solabarriko seme bat hil zuten, bere anaiarekin batera egun pasa joan zirenean: bideak ebaki zizkieten eta abioi bat ikusterakoan areka (kuneta) batera joan zen; ikusi egin zutenez, tiro bi eman zizkieten. Ganadua errekiatu zieten, 12 bat buru zituzten.

116. Baserriko bizimodu gogorra (MUX-010/016)

Anai-arreba asko zirenez baserritarrak izan arren gosea pasatu zuten; galdara batetik jaten zuten denek, amak hondakinak jaten zituen. Askotan eskolara joan beharrean baserriko beharretan aritu behar izaten zen, eta maistrari azalpenak eman behar izaten zizkion. Hala ere, aurreko egunean egin gabekoak egin behar izaten zituen berdin-berdin.

117. Errotak (MUX-010/017)

Okako, Usinbaltzako eta Ikerixeko errotetara joaten ziren; gauetz joan behar izaten zuten. Txakurragaz joaten zen errotara baten bat agertuz gero abisatzeko. Guardiak denean egoten zirela dio; beraientzat zorroa bete eta besteei utzi ez.

118. Kupoa entregatu beharra (MUX-010/018)

Hartzen zen jeneroaren portzentaje bat entregatu egin behar izaten zen herriarentzako. Behin ez entregatzea pentsatu zutenekoa kontatzen du.

119. Errazionamendua banatzen osabagaz (MUX-010/019)

Bere osabak zuen errazionamendua banatzeko ardura eta bera aritzen zen laguntzen.

120. Parranda eta erromeria gutxi (MUX-010/021)

Okako okindegian artxoa erretzen zuten eta bertan egindako txakolina izaten zuten eta bertara joaten ziren. Erromeria gutxitara joan zela dio, ez zutela horretarako astirik.

121. Neska-laguna ezagutu zuenekoa (MUX-010/023)

Munitibarreko entierro batera joan zen eta bertan ezagutu zuen neska-laguna. Handik bueltan Ajuriako San Isidrotan gelditu ziren eta neskari etxera arte, Ibarruriko Aluzera arte lagundu zion. Arerioak zituela dio eta bizikletako erroberak zulatu zizkieten. Aitagarreba herriko aguazila izan zen.

122. Isidro Undabeitia alkatea (MUX-010/025)

Bere familiako bat, Isidro, alkatea izan zen; berbetan ondo zekiela dio.

123. Amaginarreba partera (MUX-010/026)

Bere amaginarreba herriko partera zen, urruneko auzoetara ere joaten zen oinez borondatearen truke.

124. Sagardoa (MUX-010/028)

Sagardoa egiteko Berroja auzora joan behar izaten zuten; ardorik ez zegoen garai hartan. Emakumezkoek ere edaten zutela dio.

125. Luto sasoian ezin dantzarik egin (MUX-010/031)

Soinu-jotzaileari gizonetzkoek ordaindu behar izaten zioten. Lutoa eraman behar zutenean, urte beteetan ezin zen dantzarik egin, eta Maximok denbora asko pasatu zuenez, horrela ez zuen dantza askorik egin.

126. Labako sua; laietan (MUX-010/033)

Aste osoko ogia labeetan egiten zuten. Laietan ere aritutako zen; solora ezin zen astorik sartu zapaldu egiten zutelako.

127. Lehenengo autoa medikuarena (MUX-010/035)

Lehenengo autoa medikuak ekarri zuen Ajuriara. Errebuelta batean kolpea izan zuen eta beheko errebara jausi zen. Maximok berak irabazitako diruarekin erosi zuen bizikleta.

128. Barbero ibilitakoa, pezeta bat ilea ebakitzearren (MUX-010/036)

Arreo moduan ohea ekarri zuen. Barbero legez ere ibili izan zen, domeketan Urrutxura joaten zen; pezeta bat kobratzen zuen.

129. Eztei-bidaiaik olio kontrabandoan (MUX-010/038)

Eztei-bidaian Donostiara joan zen eta handik olio ekarri zuen kontrabandoan.

130. Idahora artzain lanera (MUX-011/003)

Ezkondutuan, bi umeak, andrea eta aita etxean utzi eta AEBra, Idahora, joan zen beharrera, artzain legez. Osabak zituen bertan eta, dirua irabazteko aukera zegoenez, hiru bidaia egin zituen AEBra. 10 urte inguru egin zituen guztira.

131. Ibarrurin medikurik ez (MUX-011/005)

Ibarrurin ez zuten medikurik eta Muxikara joan behar izaten zuten. Medikua abisatzea ere ez zen erraza.

132. Lehengo etxea eta bizimodua (MUX-011/006)

Bere jaiotetxea asko aldatu da; lehen zelakoa zen azaltzen du. Urioletan dena bustitzen ei zen, goitik beherako bidean lehen etxea da-eta. Jatekoa galdaian prestatzen zuten. Ibarruriko eskolara egunean bi bidaia egiten zituzten oinez eskolara joateko.

133. Ibarruriko maisu-maistrak (MUX-011/007)

Ibarruriko eskolan mutilek maisua zuten eta neskek maistra. Herriko etxean bizi ziren maisu-maistrak. Don Luziano erdalduna zen eta urte askoan egon zen herrian.

134. Ameriketan euskaldunekin gustura (MUX-011/008)

Carlosek 10 urte egin zituen Idahon. Bertan ikasitako ingeles apurra nahikoa zen harremanetarako. Amerikarrak euskaldunak laguntzeko prest zeuden beti. Medikutara edo garrantzizko zerbaitetarako bertakoek laguntzen zieten.

135. Eskola garaian artzain (MUX-011/012)

Eskola garaian, Mauma auzoan egoten zen artzain lanetan luzaroan aitona-amonen etxean. Lehen Jaunartzea egiteko ez zuten aparteko prestakuntzarik egiten.

136. Gerran etxea utzi eta botikina jarri zuten bertan (MUX-011/013)

Gerra Zibilean, botikina egon zen beraien etxean. Auzoko etxe batean satsagaz (simaurre) egindako babeslekua zegoen. Gerra zetorrela-eta, auzotik alde egiteko agindua jaso zuten; alboko babesleku horretara joan ziren orduan. Bitarte horretan, beraien etxea botikin bezala erabili zuten. Ingurua nahiko apurtuta utzi zutela dio. Eskolak ere bertan behera gelditu ziren.

137. Motosierra aurrerapen handia izan zen (MUX-011/016)

Ikusi zuen lehen motosierra Gernikako Toñarena izan zen Mauma auzoan. Lehen dena egiten zuten eskuz eta apeak lepo gainean garraiatu. Lehen elur asko egiten zuen.

138. Ganadua oinez garraiatu behar (MUX-011/017)

Ganadua beste nonbaitera eroan behar izanez gero, dena oinez egiten zuten. Askotan bezperan irten behar izaten zen.

139. Txerri boda auzokoen artean (MUX-011/018)

Ur bila iturrira joan behar izaten zuten eta etxerako bueltan fruta ekartzen zuten. Urte osoan zehar txerria hazten zuten: auzokoen artean hiltzen zuten txerria, zapatu bakoitzean etxe batean. Karta-jokoan, Kulipan, aritzen ziren.

140. Ura iturrian, manantialean eta garbitokian (MUX-011/020)

Bi iturri zituzten inguruan: Antonisolo eta Sakonan, Ibarra, dagoena. Handik edaten zuen ganaduak. Manantialak Arroeta du izena eta handik dator ur printzipala. Ortuak askotan ureztatzen zituzten bertako urarekin. Garbitokian (labaderoa) hartzen zuten lapikorako ura zein garbitasunetarako. Lehen ez zuten dutxarik eta ez zuten inolako aurrerapenik.

141. Auzoko lehenengo txapak (MUX-011/021)

Etxean ez zuten inolako aurrerapenik: ez dutxarik, ez txaparik... Auzoan lurjabe handiak ziren batzuk eta igeltseroak ziren batzuk baino ez zuten izan horrelakorik hasiera batean.

142. Gurdibideak eta belar-lanak (MUX-011/022)

Etxe aurrean euria egiten zuenean, baza asko pilatzen zen. Ota bota eta satsa egiteko aprobeztatzen zuten. Dena zen gurdibidea, ez zegoen besterik. Azpigarritarako iratan Goroñora joaten ziren kodainarekin. Belarra ere kodainagaz ebaki, sardagaz eragin, eskoberagaz batu eta behiekin sabaira ekartzen zuten.

143. Gari-lanak auzolanean (MUX-011/023)

Gari ebaten bata bestearen etxeetara joaten ziren elkar laguntzera. Garia heltzerakoan, zerrekin ebaki, azpelak egin (txortak) eta eskutadak ilaratan banatzen zituzten. Beste batzuk lotzen aritzen ziren. Pilo handia egiten zenean, sikatzen uzten zuten eta ostean gari-jotea egin behar izaten zuten. Beste lan asko ere auzolanean egiten zituzten.

144. Laietan (MUX-011/024)

Laietan bizpahiru urtez egin zuen Carlosek, gero goldea azaldu baitzen. Laia zelan erabiltzen zen azaltzen du pasarte honetan.

145. Gari eta arto goldaketa (MUX-011/025)

Solo eta ortu guztiak landuta egoten ziren, artoa eta garia ziren nagusi. Lanketa eta erabilitako tresnak azaltzen ditu.

146. Arto-lanak, errota eta labeak (MUX-011/026)

Artoa heltzen zenean, artoa trukuluetan ekartzen zuten etxera. Burua kendu eta trukutza behieri ematen zitzaien; artaburua labean berotuta garandu eta errotara eramaten zuten arto-irina egiteko. Irina azpiran gordetzen zuten eta bertan egiten zen ogirako oreka eta taloa. Ondo egindako taloa oso gozoa da esnetan. Errotan nahi bezala ehotzen zuten, finago edo lodiago. Etxe guztiek zuten labea, auzokoekin batera zein banaka. 12 bat ogi sartzen ziren labean.

147. Errotak (MUX-011/027)

Unda auzotik Oxinbaltzako errotara joaten ziren; osterantzean, Maumako beste batera joaten ziren. Txarroa baserriko Juan Jose errota-pikatzaila zen, inguruetan oso ezaguna.

148. Argindarra eta ura (MUX-011/031)

Hasieran ura auzokoek jarritako depositutik hartzen zuten. Argindarra Oka auzoko Ertzillatarren ur-saltotik hartzen zuten. Argia egiteko beste trikimailu batzuk ere izaten zituzten. Petrolioia eta karburua ere erabiltzen zuten, karburuak argi asko egiten zuten eta petrolioia zikinagoa zen. Auzoko batzuei etxea deskuidu batean erre zitzaien.

149. Ume askotako familiak (MUX-011/032)

Lehen etxe bakoitzean ume asko zeuden, auzoan bertan 11 umedun bi baserri zeuden. Horrenbeste ume izan arren, euren amak soloan ere aritzen ziren lanean bularra bertan emanaz.

150. Unda auzoko baserri-izenak I (MUX-011/034)

Unda auzoko goiko aldeko baserrien izenak: Jauregi "Jeuri", Barrenenego, Tantai, Etxetxiki...

151. Undako Ageda, etxerik etxe jostun "sorgina" (MUX-011/035)

Beraien auzoko batek, Agedak, atzekoz aurrera egiten zuten korrika. Sorginduta zegoelako zurrumurrua zegoen. Oso andre ona zen. Josteko-makina lepoan hartu eta etxerik etxe joaten zen lanean.

152. Unda auzoko baserri-izenak II (MUX-011/036)

Unda auzoko goiko aldeko etxe batek Undagoitia du izena, beheko batek Undabeitia duen moduan. Behean Undabeitia bera, Aurtenetxe "Urtentxi" eta Erregene baserriak daude. Lejarzegi, Etxebarri (jausita) eta Tantai baserriak ere badaude.

153. Domekero Undagoitiako etartean jokoan (MUX-011/037)

Undako auzotarrak domeka arratsaldetan Undagoitia baserriko etartean batzen ziren Kulipan, karta-jokoan, aritzeko. Goizean mezara joaten ziren. Andre zein gizon batzen zen bertan. Astegunez ez zuten horretarako astirik izaten.

154. Eusebia postari (MUX-011/038)

Beraien auzoko Errafael Ibarruriko postaria eta aguazila zen; Zugastietako tren-geltokitik ekartzen zituen gutunak. Beste lan batzuetan ere bazebilenez, haren arreba Eusebia aritzen zen banaketetan.

155. Ogia egiten (MUX-011/043)

Astean behin, artoa igartzen zuten: horitzen hasten zenean burua kendu, eguzkitan jarri, trukutza behieri eman eta labean sartzen zuten. Txokorra garandu behar zen errotara eroateko. Ogia zelan egiten zuten azaltzen du pausuz pausu.

156. Sagar motak (MUX-011/045)

Sagar mota asko izan dituzte: limoia, urtebetea, san juan sagarrak, urdin sagarrak... Sabaian zabalitzen zuten patata bezala.

157. Sagardoa eta txakolina (MUX-011/046)

Beraiek ez zuten sagardorik egiten, baina auzoko batzuek bai. Sagardo sagarra ez da gozoa jateko, baina bai edaritarako. Undabeitia baserrian nahi zuenak bertan sagardoa eta txakolina egiteko prentsa zuten. Mahatsa etxean jateko baino ez zuten beraiek. Prentsa zelakoa zen azaltzen du.

158. Ibarruriko tabernak (MUX-011/047)

Ardaularregi edaten zuten lehen. Ibarruriko sakristauaren etxea, Etxeandin, erosten zuten ardoa. Etxezarran eta Pedrope egon zen etxean, Martzelinak ere taberna izan zuen. Belaustegiko eta Bikandiren tabernak geroagokoak dira.

159. Ardoa garrafoian eta zahagian (MUX-011/048)

Ardoa garrafoian erosten zuten tabernan. Eskuleku bigaz zumitzagaz egindako tapa izaten zuen. Kanterak 16 litro zituen eta kantera erdik 8; lepo gainean edo astoan hartunda eroaten zuten etxeraino. Ardoa zahagietan izaten zuten gordeta tabernan. Txakille baserrian ere taberna zegoen, Zugastieta auzoan ere hainbat taberna egon ziren.

160. Muniketako taberna eta erromeria (MUX-011/051)

Muniketa auzoan taberna bakarra ezagutu du. Erromeria ere bertan ondoan egoten zen, Josek jotzen zuten soinua. Erromerian denetarik jotzen zuten, soltea zein "agarraua". Karburu-argia erabiltzen zuten.

161. "Agarraua" bekatu; musurik ez (MUX-011/052)

"Agarrauan" hurre-hurre dantza egitea bekatua zen. Erromeriatik bueltan neska-lagunari etxera laguntzen zion mutilak. Hilabete asko pasa arren, ez zioten musu bat bera ere ematen elkarri.

162. Undako San Markosak (MUX-011/053)

Inguruko jaietako erromerietara joaten ziren. Undako San Markosetan sekula ez du erromeriarik ezagutu. Meza ostekoa bertako etxe batean egiten zuten abadeek eta fraideek; gastuak eskotean ordaintzen zituzten.

163. Oizera letanian; Maumako tabernak (MUX-011/054)

San Gregorio egunez, Oiz mendira letanian joaten ziren. Hiru-lau atsedean egiten zituzten bidean. Handik bajatu eta Mauma auzoan kuartilu bat ardaularregi balio zituen txartela ematen zien. Mauman hainbat taberna zeuden. Letania zer den azaltzen du.

164. Maumako eta Ibarruriko parterak (MUX-011/056)

Mauma auzoan bi partera zeuden erditzeetan laguntzeko. Maumako etxe batean 19 ume jaio ziren eta bat bera bera ere ez zen hil. Ibarrurin Aluze baserrian zegoen beste bat, Jenara.

165. Ibarruriko abadeak (MUX-011/058)

Aste Santuan egunero egoten ziren elizan sartuta. Ibarrurin egoten zen parroko nagusia nahiz eta beste elizetan (Ajuria eta Mauma) beste abade batzuk egon. Aste Santutan kanpotik etortzen zen fraidea bertara. Durangoko don Rikardo ezagutu zuen Carlosek.

166. Dotrina eta abadeak (MUX-011/060)

Dotrina eskolan ikasten zuten. Arratsaldean abadearengana joaten ziren sakristiara. Dotrina liburua ere bazuten. Don Rikardo, don Jose María eta beste bat ezagutu zituen Txominen (azkena, elkarrizketa garaian zegoena) aurretik. Don Rikardoren aita iratan joaten zen bolanteagaz Ibarruri aldera.

167. Soldadutzan granjako arduradun (MUX-011/063)

Donostian egin zuen soldadutza baserriko lanak egiten kuartelean barik. Gero arduradun moduan jarri zuten. Kuartelean hiltzen ziren mandoak bertan lurperatzen zituzten; horrekin lotutako anekdotak kontatzen ditu. Sarjentuak esandakoa ez betetzearren ilea ebakitzeko agindua eman zuten, baina ez zuen ebaki.

168. Soldadutzan zigorrik ez (MUX-011/064)

Soldadutzan baserriko lanetan aritu zen eta bertako arduraduna zen Carlos. Behin galtzua ez zuten ondo pilotu, baina ez zioten zigorrik jarri.

169. Perratzailea eta perratokia (MUX-011/066)

Zugastietako Hipolito perratzailearengana joaten ziren. Ibarrurin perratokia zegoen, baina ez perratzailearik; hori dela-eta, norberak egin behar izaten zuen dena.

170. Baserriko tresnak (MUX-011/068)

Baserriko tresnak: goldea, narra, area, uztarria, aitzurra, "sokil hustia"... "Sokil hustia" eta area zelakoa eta zertarako den azaltzen du. Alperrarria ezin da edonon erabili; horretarako narra erabiltzen zuten.

171. Ermandadea: ganaduaren aseguru (MUX-011/069)

Ganaduari zer edo zer pasatuz gero, aseguru legez, ermandadea izaten zuten. Hilabetero joaten ziren ermandadekoak behiak ikustera eta tasatu egin zituzten. Hilez gero-edo, ordaindu egiten zizuten bere balioa. Ezin bazen okela aprobetxatu, beraiek lurperatzen zuten inora eroan barik.

172. Alkoholerako Oromiñoko fielatoa (MUX-011/072)

Durangotik edari alkoholdunak ekartzeko Oromiñoko auzoko aldatz hasieran fielatoa zegoen. Txartel bat ematen zizuten eta bertan entregatu behar izaten zuten. Ibarruriko Errafael aguazila bertan egoten zen. Txartela ez zuenari dena konfiskatu eta gero enkantea egiten ei zen, baina Carlosek ez zuen sekula enkante baten berri ere izan.

173. Fielatoan edaria ez kentzeko bertan edan dena (MUX-011/073)

Beraien auzoko Errafael izan zen Ibarruriko aguazila. Maumako jai batzuetan, San Lorentzoetan, bere osaba Oromiñoko fielatora heldu zenean, Errafaelek ez zion utzi pasatzen edariarekin. Honek buelta eman eta Durangoko lurretan edan zuten dena. Aguazilak ernegatuta eman zuen buelta. Poto baserrikoak behin txahala ostutzeko ahaleginetan harrapatu zituen batzuk.

174. "Kuarteroie" erretzen zen lehen (MUX-011/074)

Tabakoa zigarroan erretzen zen, pipan ez. "Kuarteroie" izenezkoa erosten zuten Ibaruriko Sakristauaren etxean zegoen estankotan, horixe zen gehien erretzen zutena.

175. Tabakoa erein (MUX-011/076)

Beraien etxean bi tabako mota erein zituen bere aitak pare bat urtean.

176. Ilargiaren garrantzia txerria hiltzerakoan (MUX-011/078)

Ilargiak badu garrantzia. Txerria ilberritan hilez gero, ur hutsa izaten da. Oraindik ere auzotarren artean banatzen dute txerrikia. Klimari ere beti egin die kasu.

177. Lainoei begiratzuz gero, eguraldia igarri (MUX-011/079)

Zein eguraldi egingo zuen lainoei begiratuta jakiten zuen bere aitak: iluntzean Muniketa eta Bizkargi aldean laino gorriak egonez gero, biharamunerako eguraldi ona; goizean laino gorriak egonez gero, iluntzera orduko euria egingo du.

178. Burdiak eta erroberagileak (MUX-011/082)

Burdi mota bakarra ezagutu da, burdinazko erroberaduna (gurpilduna). Barruan ola zuten eta egurrezko ardatza, goitik behera beste bi egur zituen. Eguzkia egiten zuenean, errobera ondoko egurrak xaboiarekin bustitzen zituzten laban egiteko. Zugastietako Hipolitok egiten zituen burdinazko ardatzak eta erroberak; Aurtenetxe "Urtentxi" baserrikoak ere bazekizkien egiten. Gero gomazko erroberak agertu zirenean, asko poztu ziren.

179. Martitik Gabonak arte ardi artean Boisen (MUX-011/084)

Ezkondurik eta semeak jaio ostean joan zen Ameriketara lanera. Ibaruriko beste batzuk ere bazeuden han eta haien bitartez joan zen. Hiru urteko kontratuarekin joan zen. Martian hasi eta Gabonak arte mendian egon behar izaten ziren bi gizon; ezinbestekoa zen ondo konpontzea. Zaldiak, mandemea eta kanpadenda izaten zuten bertan 3.000-4.000 ardi eta bildotsekin batera. Bakoitzak arma bat izaten zuen eskura.

180. Boisen sukaldari eta kanperero (MUX-011/085)

Carlos Ameriketara, Boiserara, joan zen lanera. Artzainaren ondoan sukaldari lanetan aritzen zen martitik Gabonak arte. Artzaina bere auzoko baten lehengusua zen, bolibartarra. Sukaldari lana ere gogorra zen.

181. Boiseko bizimodua mendian (MUX-011/087)

Zaldi gainean zihoazela erriflea eta aizkora izaten zuten esku bakoitzean. Kanpalekua egurra eta ura zegoen lekuan jarri behar izaten zuten. Kaskabelak zein otsoak aurki zitezkeen bertan. Mendian guarda-etxeak zeuden eta bertakoak laguntzeko zeuden. 10 egunerik behin maiordomoa agertzen zen jatekoagaz, janari faltarik ez zuten. Nahiz eta mendian egon gutunak idazten zituen etxera. Maiordomoa arduratzen zen horretaz. Ogia ere bertan egiten zuten.

182. Otsoekin eta koioteekin kontuz (MUX-011/089)

Boiseko mendietan otsoekin (hartzak) kontuz ibili behar izaten ziren. Ezin zitezkeen hil hiltzeagatik, oso maitatuak dira eta. Udaberrian bildotsei koioteak erasotzen zien. Karrokanpoagaz egoten ziren mendian. Bideak egon arren dena zen harea eta kontuz aritu behar izaten ziren. Arrantxotik egunero igotzen zuten ura kamioian.

183. Hotzetarako ardiak (MUX-011/090)

Boiseko ardiak ez ziren Euskal Herrikoak bezalakoak, merinak dira. Han hemen baino euri gutxiago egiten du, baina hotza ikaragarrikoa da, ez du hemengoaren antzik. Mendira joan aurretik ematen zieten txertoa ardiei.

184. Triskiladoreak eta bildotsaren balioa (MUX-011/091)

Triskilatzaile profesionalak zeuden Boisen. Arrantxoan bildots eta ardi asko zeuden eta horrelako lanbideak behar izaten ziren. Artilearen eta bildotsaren balioa asko jaitsi zen.

185. Artzain onaren ezaugarriak (MUX-011/092)

Artzain ona goizean goizetik itzartu behar da, ardiak itzartu aurretik. Ardiek mendian gora egiten dute beti gaua pasatzeko. Artzainak eta kanperoak beti errepikatzen dute leku bera, bietako bat lehendik ibilitakoa izan behar da, ezin da izan biak hasiberriak izatea.

186. Umetatik artzain lanetan (MUX-011/093)

Umetan Mauma auzoan egoten zen osabarenean artzain lanetan. Sasoi hartan ez zen eskolara joaten eta oso gustura egoten zen. Denetariko lanak egiten zituen. Gaztari sobratzen zitzaion gatzura edaten zuen Carlosen, amumak txerriei ematen ziena loditzeko

187. Bildotsak Durangon saltzen zituzten (MUX-011/094)

Bere amumak gazta egiten zuen etxean. Etxeetara zein Durangora saltzen zuten. Bildotsak ere saltzen zituzten Durangora, Migel Haundigaz egiten zuten tratua. Bertako hiltegiara eramaten zituzten eta harakinek eurek hiltzen zituzten.

188. Pilotaka (MUX-011/097)

Burdinazko aroagaz eta tronpan asko aritzen ziren. Pilotaka auzokoaren etxeko etartean, Ibarruriko frontoian zein Maumako eskolako frontoian ere aritzen ziren.

189. Abarkak eta haria egiten (MUX-011/102)

Bere aitak behiaren larruagaz egiten zituen abarkak. Berak ere askotan egin izan ditu eta zelan egiten zituen azaltzen du. Etxerako baino ez zituzten egiten. Artileagaz haria egitea ez da hain sinplea. Hariagaz kordelak egiten zituzten. Neguan abarka desberdinak nahiago ditu. Galtzak egiten ez du inguruetan inor ezagutu.

190. Fielatoa (MUX-011/103)

Iurretako Oromiño auzotik Ibarrurira bidean fielatoa zegoen. Fielatoa zer den azaltzen du.

191. Barberuak (MUX-011/104)

Bere auzoko Errafael eta Aluze baserriko Maximo aritzen ziren barbero lanetan.

192. Lehen auto, motor eta kamioiak (MUX-011/105)

Inguruko lehen kamioia, Pegasoa, bere auzoko Antonek ekarri zuten; oraindik balkoiak dago haren marka. Beharrera joateko askok motorra, Vespa, zuten. Ibarruriko Sakristauaren etxeokak esne-banatzaillea moduan aritzen ziren eta agian haiena izan zen bertoko lehen autoa.

193. Jendea baseritik kalera joaten hasi zenekoa (MUX-011/107)

Jendea etxetik kanpora, lantegietan, beharreen hasi zenean eta bideak atondu zituztenean autoak erabiltzen hasi ziren. Horietako asko kalera joan ziren bizitzen. Pinudiekin asko aberastu egin ziren.

194. Eskolara gutxi, maisua beti jokoan (MUX-012/002)

Umetan etxean behar asko egin arren, eskolara gutxi joaten ziren. Hala ere, Ibarruriko eskolara joaten zenean, maisurik ez zutenez izaten olgetan aritzen ziren. Maisua. Pradera abizenduna, jokoan aritzen zen eskolara joan beharreen. Erdara ez zuen eskolan ikasi, soldadutzan ikasi zuen dakiena.

195. Arriandira morroi (MUX-012/003)

12-13 urtera arte eskolan ibili zen, gero morroi joan zen lurretako Arriandi auzoko Akañana baserrira. Soloko eta kortako lanez arduratzen zen. Gabonetan eta Andra Marietan baino ez zen bueltatzen etxera. Hiru urtetara utzi zuen.

196. Gerra hasi eta segidan, frontera joan zen (MUX-012/004)

Morroi lanak utzi zituenean, nabigatzen joateko asmoa zuen; baina gerra hasi zen, eta gerrara joan beharra izan zuen. Hiru egun Zugastietako Hipolitoren ferratokian egin ostean, Barakaldora joan ziren. Biharamunean, Langileen Batailoietara eraman zituzten. Eskolapioetan kintak osotu eta frontera eraman zituzten: Bizkargira, Sollubera, Artxandara eta Santander aldera. Castro-Urdialesen Ibarruriko alkatea aurkitu zuen: Burdaria auzoko Ramon Derteano. Hurrengo egunean, handik beste leku batera bidali zuten, Lizarrara (Nafarroa).

197. Cantabria, Teruel, Guadalajara... Sei urtez soldadu (MUX-012/005)

Cantabriako frontetik Lizarrara bidali zuten, "Regimiento [Arapili?] número siete"ra. Handik Teruelera joan zen, eta han bataila gogorrek bizi zituzten Muela mendian. Gero Guadalajara eta Singüesara eraman zituzten. Lizentziatu ostean, etxean zegoela, anaiaren partez berriro joan zen soldadu: beste 4-5 urtez egon zen, eta guztira sei urte egin zituen. Bigarren txanda horretan, beste gerra baten beldur ziren, eta hiru kinta mobilizatu zituzten. Sei urte egin zituen soldadu eta hiru urte inguru egon zen etxera etorri barik. Gutunak noizean behin idazten zituen.

198. Ibarruritar asko hil zituzten gerran (MUX-012/008)

Euskal Herriko fronteak baino gogorragoak izan ziren Teruelgoak. Beldur-egoerara pertsona moldatu egiten dela dio Zeperinok. Inguruko asko hil ziren; auzorik auzo aipatzen ditu hildakoak eta desagertutakoak.

199. Fusilak eskuan (MUX-012/009)

Fusilak eta metrailadoreak erabiltzen zituzten; berak beti erabili zituen fusilak. Esku-bonbekin eta balekin hornituta joan ziren. Ez zuten inolako prestakuntzarik, baina ikasi beharrekoa arin ikasten ei da. Teruelgo frontea Muela mendian izan zen eta nagusitan hurbildu zen berriro bertara.

200. Hiru anaietatik bat soldadutzatik libratzen zen (MUX-012/010)

Hainbeste urtean frontean eta soldadu ibili arren, sekula ez zen zauritu. Sei anaia egon ziren frontean. Zortzi anaia ziren eta bi libratu egin ziren, 3 anaietatik bat libra baitzitekeen. Gurasoek erabakitzen zuten zein bidali eta zein mantendu etxean. Zeperino bigarren aldiz joan zen anaia bat ordezkatzuz. Sekula ez da damutu horretaz, baina berriro ez luke egingo.

201. Trintxera-zuloetan lotan (MUX-012/011)

Teruelgo frontean, trintxera-zuloan motxila jarri eta bertan egiten zuten lo; lo egin zezaketenean, noski. Arerioen erasoetarako prest egon behar izaten zuten beti. Segurtasunerako, ez zuten ezer erabiltzen.

202. Kupoa udaletxean entregatu beharra (MUX-012/017)

Ereiten zuen baserritarrak kupoa entregatu behar izaten zuen Ibarruriko udaletxera. Batez ere garia entregatzen zuten. Bertan batutakoa norentzat zen inork ez zekien. Ganaduarentzako pentsua ere errazionamenduan hartzen zen.

203. Artaldea konfiskatuta (MUX-012/018)

Gerran, ardiak eta bildotsak kendu zizkieten. Auzoko bati ere dena kendu zioten. Bere gurasoak, 5 seme frontean izateaz gain, ezer barik gelditu ziren. Soldadu asturiarrak aritu ziren konfiskatzen.

204. Errota asko prezintatuta (MUX-012/021)

Errota batzuk prezintatu egin zituzten; beste batzuk, ostera, zabalik mantendu ziren. Beraiek Osinbaltzako errotara joaten ziren, ez zuten zarratu; hori dela-eta, beraiek ez zuten arazorik izan. Osinbaltzara jendea urrunetik joaten zen. Txakileko eta Zugastietako errotak prezintatu egin zituzten.

205. Errotaria eta estraperloa (MUX-012/022)

Osinbaltzako errotaria Pedrin zen, bertako errentadorea zen. Eramandako jenerotik parte bat kenduz irabazten zuen dirua. Estraperloko sasoiaren dirua asko irabazteko aukera izan zuen.

206. Morokila eta ogia (MUX-012/024)

Arto-irinarekin morokil asko egiten zuten. Duela 60 urte baino gehiago ez duela jan Zeperinok morokilik. Oso gustura jaten zuten, ez baitzegoen besterik. Etxean egiten zuten ogia gariarekin egiten zuten. Astean behin egiten zuten, ez ei zen gogortzen.

207. Gernikako bonbardaketako lekukoa (MUX-012/027)

Gernikako bonbardaketak bertan harrapatu zuen. Kaixao tabernan zegoela, jendea arineketan ikusita, Pasealeku azpiko babeslekuan ezkutatu ziren. Handik irteterakoan, dena sutan ikusi zuten eta etxeraino, Undaraino, oinez bueltatu ziren anaia eta biak. Babeslekura sartu eta segidan hasi ziren bonbak botatzen. Dentistarenera joan zen egun hartan. Ez zuen pentsatzen bizirik irtengo zirenik.

208. Maisua jokoan, eurak olgetan (MUX-012/031)

Eskola sasoiari, Ixerka eta pilotaka olgetan zuten. Maisua sarritan ez zen azaltzen jokoan aritzen baitzen Zugastietan edo eskola ondoko etxe batean. Pilotak etxean egiten zituzten artilearekin eta larruarekin.

209. Maisu-maistren etxea eta udaletxea (MUX-012/032)

Neska-mutilek ez zuten elkarrekin olgetan. Eskolan ere gela banatan egon ziren. Maisu-maistrak ondoan bizi ziren. Udaletxea ere bertan ondoan zegoen. Eskola-liburuak alferrikakoak ziren, ez baitzuten ezer ikasi.

210. Ibarruriko tabernak, denda eta hiltegia (MUX-012/033)

Ibarruriko Etxeandi baserrian taberna, estankoa eta herriko telefonoa zegoen. Etxezarren eta Belaustegi "Belosti" ere taberna egon zen. Bertan egon den azken taberna, Bikandi, lehen abade-etxea zen. Ondoa, Martzelinaren taberna zegoen. Gerra sasoiari azken taberna hori hiltegi bezala ere erabili zen. Handik urte askotara Martzelinak denda jarri zuen bertan. Martzelina gorozikarra zen, baina Undan bizi zen.

211. Zugastietako tabernak (MUX-012/035)

Zugastietan hiru taberna ezagutu zituen: "Estaziñokoa", herriko etxekoa eta Etxe Nagusiko Inaziorena. Eugeniok eta Tomasek ere bazuten; azken horrek estanko eta guzti.

212. Praka "mil rayas"ak (MUX-012/045)

Praka "mil rayas"ak erabiltzen zituzten. Egindako arroparik ez zen egoten, josi egiten zituzten. Urrutxuko Mariaren ama izan zen jostun lanetan aritzen zena.

213. Ermandadea (MUX-014/007)

Zugastieta auzoko Hipolitok eta beste gizon batek etxeak tasatu egiten zituen, Etxea errez gero, horrela jakiten zuten bakoitzari zenbat zegokion. Ganadua ere horrela aseguratzeko zuten. "Listeru" moduan bi pertsona egoten ziren. Behia-edo hilez gero, lurperatzeaz ere eurak arduratzen ziren. Auzoen artean oso ondo konpontzen ziren. Durangora edo Gernikara joateko, oinez hurbiltzen ziren joan beharreko lekura.

214. Zazpi urtetatik artzain eta baserriko beharretan (MUX-014/009)

Eskolara oso gutxi joan zen. Zazpi urterekin 140-160 ardi hartuta Oromiño (Iurreta) aldera joaten zen. Segan ere umetan ikasi zuen.

215. Maumatik Elgetara ardiekin, Zaldibiara bidean (MUX-014/010)

15 urte zituela saldu zizkioten ardiak zaldibiar bati. Zaldibiarainoko lagundu behar izan zion artaldearekin eta bertarainoko bidea kontatzen du. Pasarte honetan, Elgetarainokoa azaltzen du.

216. Orduko zazpi kilometro oinez (MUX-014/013)

Ardiekin Zaldibiara joan ostean, galdu barik bueltatu zen Maumara. Bidean, Elgeta ondoan, gerratean Ajuria auzoko abadea zenarekin egin zuen topo. Etxera bueltan orduko zazpi kilometro egin zituen.

217. Gazta asko egin eta saltzen zituzten (MUX-014/014)

Ia 160 ardi saldu zituzten Zaldibian. Ordura arte gaztaia egiten zuten batez ere. Bere aman 85 urte egin zituen langintza horretan. Gazta asko egiten zuten. Gernikan eta Zornotzan saltzen zuten.

218. Gazta egiteko prozesua (MUX-014/016)

Gazta zelan egiten den azaltzen du: esnea, legarra, gatzura... Gazta egiteko esku hotzak izan behar dira.

219. Ira saltzen; pospolo-kaxa dirua gordetzeko (MUX-014/018)

Mauma beti izan da artzain auzoa, etxe guztietan zeuden ardiak. Basoetan ez zen otarik ere egoten. Ira asko saltzen zuten bolantekadaka. Umetan pospolo-kaxa erabiltzen zuten kartera legez. Diruak balio asko galdu duela dio.

220. Ume meharra (MUX-014/019)

Umetik oso-oso meharra zen serafin. Behin hori dela eta gertatu zitzaien pasadizo bat dakar gogora.

221. Maumako zerrategia (MUX-014/020)

Ardiak saldu zituztenean zerrategian hasi zen beharrea. Mauman bertan egon zen zerrategia, bertako baso batean. Bertako ingurukoak ibili ziren beharrea: Gorozika, Berroia, Ibarruri, Mauma... Zornotzako "Compañía Vizcaina"rena zen zerrategia. Kable bidez egon zen komunikatuta zerrategia Maumarekin.

222. Egurra zelan garraiatu (MUX-014/022)

Basotik zerrategira egurra zelan kargatzen eta garraiatzen zuten azaltzen du. Zerrategia luzaroan egon zen martxan. Eguneko zazpi pezeta irabazten zuten. Domeketan baino ez zuten hartzen atseden.

223. Soldadutza gogorra (MUX-014/025)

lurretako etxe batean morroi egon ostean, Durangoko abere-hiltegia egon zen lanean. handik Lizarrara joan zen soldadu Carrascalera joan aurretik. Soldadutzako bizipen gogorrak kontatzen ditu pasarte honetan.

224. Gari joteko makinarekin beharrean (MUX-014/027)

Soldadutzatik etxeratu ostean, betiko betebeharrak bueltatu zen. Gari joteko makinarekin ere aritzen zen lanean era Lekeitiora ere esnea saltzera joaten zen. Garia kodainarekin (sega) ebakitzen zuen.

225. Durangoko hiltegia lanean (MUX-014/029)

lurretan morroi zegoela, Durangoko hiltegia aritu zen lanean. Harakin baten bitartez hasi zen. Bakoitzak bere txahala hiltzen zuen bertan, ez gaur egun bezala. Erremintak, osterak, gaur egungolakoak ziren. Inguruko baserriak denak joaten ziren Durangora. Gernikan eta Bilbon ere bazeuden hiltegiak.

226. Dotrina eta eskola maistrak (MUX-014/031)

Eskolara joateko asti gutxi izaten zuten. Bi maistra ezagutu zituen: Ajuria auzoko Auzokoa baserriko Anita eta muxikar bat. Eskola eta dotrina erdaraz ikasi zuten. Dotrina maistrak ematen zien. Muxikakoa Ajuriakoa baino hobea zen.

227. Pilotan, arbiagaz futboleak eta banderak (MUX-014/032)

Arbiarekin jolasten zuten futboleak. Pilotak, osterak, eskuz egiten zituzten. Mauman egon zen pilotan oso abila zen bat, Damian. Bere osaba bat ere trebea izen. "Banderak" ere jolasten ziren neskekin batera.

228. Gerra hasiera eta Gernikako erasoak (MUX-014/033)

Gerra hasierako oroitzapenak. Ama autobusez etxera heldu zen, eta berak esan zien gerra hasi zela. Beraien etxean ere izan zituzten soldaduak. Gernikako bonbardaketako egunean harako bidean ikusi zituen hegazkinak. Bere aita Gernikan zen.

229. Mauman asko hil zituzten (MUX-014/036)

Mauman asko hil zituzten gerran, hiru aste iraun baitzuen borrokak. Horri buruzko hainbat azalpen ematen ditu zehaztasunekin. Zelaia baserriko Genaro euskaraz abesteagatik hil zuten.

230. Auzokoa gurdiak buelta emanda hil (MUX-014/038)

Maumako Goikoetxearen aitite idiekin gurdikadarekin zetorrela, gurdiak buelta eman eta bertan hil zen.

231. Maumako eta Ibarruriko abadeen haserreak (MUX-014/039)

Maumako abadeak kanposantua nahi izan zuen jarri bertan, baina Ibarrurikoek ez zioten utzi. Hildakoak Ibarruriraino eramane behar izaten zituzten.

232. Bulda ordainduz gero jatekoa libre (MUX-014/040)

Mezara joatea derrigorrezkoa zen. Garizumako buldak zazpi pezeta balio zuen eta hori ordainduz gero, denetarik jan zitekeen.

233. Idiak goldaketarako (MUX-014/042)

Beti izan dituzte idiak, baina lanerako, ez probetarako. Beste etxe batzuetara ere joaten zen bere idiekin goldaketara.

234. Ferratzaileak eta buztarginak (MUX-014/043)

Idientzako ferratokiak Urrutxun eta Zugastietan egon ziren. Buztarginik ez du inguruetan ezagutu, Arratiatik edo Elorriotik etortzen ziren.

235. Animalia hotsak (MUX-014/046)

Animalien hotsak: astoak arrantza, ardiak "orrue", behiak "orroie", zaldiak irrintzia, oiloak "ko-ko-ro-ko", oilarrak "kukurruku".

236. Animaliak ume-eske (MUX-014/047)

Animaliak ume-eske hasten direnerako, bakoitzak bere hitza du egoera horri esateko: Txakurra ozal egoten da, behia "susara", astoa altan, txerria irustu egiten da, zaldia altan egoten da, eta ardia eta ahuntza erkerera.

237. Poxpolinak oilo artean (MUX-014/048)

Garitan poxpolin asko egoten ziren. Poxpolinen arrautzak oiloekin jartzen zituzten lokatzeko.

238. Ahuntzak eta ardiak nagusi (MUX-014/050)

Lehen azeriak eta basurdeak ugariak ziren; gaur egun, ostera, orkatzak ugaritu dira. Lehen ardiak eta ahuntzak ziren nagusi Mauma aldean. Ahuntzak basoak garbitzeko erabiltzen zituzten.

239. Mixarrak eta ugaraxoak (MUX-014/051)

Mixarrak (urtxintxa) eta ugaraxoak (igelak) beti izan dira ugariak. Jendeak jaten zituelako uste du desagertu direla.

240. Erbiak eta untxiak (MUX-014/052)

Erbiek edonon egoten ziren eta erremolatxa jaten zuten. Urte batean untxi asko izaten zituzten eta indaba gehien jan zien. Etxezarreko Odon erbitan eta untxitan aritzen zen.

241. Inguruko euskara (MUX-014/055)

Inguruko herrietako euskalkiek inguruko hausnarketa. Ondoko auzotik Maumara desberdintasunak daude.

242. Zarragoikoa eta Zarrabekoa obusez erasotua (MUX-015/003)

1913ko Natibitate egunean jaio zen Zarragoikoan. Zarra Bizkargirako bidean dago. Etxea gerra denboran apurtu zituzten obusekin bertako bi etxeak, Zarragoikoa eta Zarrabekoa. Beraiek Gandariasen errentadoreak ziren eta ugazabak ez zuen nahi konpondu, baina eurek etxeak konpondu zuten eta Gregori han bizi izan zen ezkondu arte.

243. Umetan beti mutil artean (MUX-015/007)

Amak marimutila zela esaten zion ez baitzuen neska zen lagunik. Etxean neba bat zuen eta alboan bi lehengusu, guztiak mutilak.

244. Elizaldeko eskolara 3 orduko bidea (MUX-015/008)

Elizaldeko eskolara joan zen. Eskolarako bidean aldats beheara zegoenez ordu erdi tardatzen zuten, baina bueltan hiru ordu. Dorreko erlojuaren kanpaiei esker jakiten zuten zein ordu zen. Maisuak bere nebari estimua zion, oso azkarra zen. Gaur egungo udaletxearen azpiko aldean zegoen eskola.

245. Urdai zati bategatik soldadutzatik libre (MUX-015/011)

Bere neba marinatik joan zen soldadu. Auzoko bat, "Lemonatxo" eskean ibiltzen zen, eta bere amari esan zion berak lortuko zuela bere neba soldadutzatik libratzea pobrearen errezoak asko balio zuela esanez; urdai zati baten truke atera zuen. Osabak ere oilo pare bat eman zizkion. "Lemonatxo"k gizona ere gaixo zuen eta bizirauteko arazoak zituztenez, auzokoek laguntzen zioten.

246. Doña Regina maistra (MUX-015/027)

Elizalden bi eskola zeuden: bata mutilena eta bestea neskena. Lehenengo maistra doña Regina izan zen, erdalduna, Manolo eta Encarna ziren bere seme-alabak.

247. Kurtzeroko doña Pilarren eskolara zaldiz (MUX-015/028)

Eskolara gustura joaten zen, ikasteko ahalegina egiten zuen. Azkeneko maistrarekin jolastu baino ez zuten egiten. Bere neba marinara joan zen soldadu eta bere aitak zaldia oparitu zion Kurtzeroko eskolara joateko, doña Pilarren eskolara. Eskola partikularrean ez zuten katiximarik ikasi.

248. Sokadantzan elizpean; don Baldomero abadea (MUX-015/030)

Eskola garaian, urrun bizi zirenak eguerdian, bazkalostean, sokadantzan jolasten aritzen ziren; euria bazen elizpean. Abadeak harrapatuz gero soka kentzen zioten siestan egoten zelako. Maistrak eskola gainean zuen gela bat eta bertan bazkaltzen zuen. Don Baldomero abade errigoitiarra zen Muxikako abadea, artziprestearen laguna zen eta sermoia emateko hari deitzen zion.

249. Elizaldeko abadeak (MUX-015/032)

Elizaldean don Baldomero, don Pedro "Garratza" eta don Bizenti abadeak ezagutu zituen. Domekero elizara joatea derrigorrezkoa zen. Eskola-egunetan baino denbora gutxiago tardatzen zuten domeketan.

250. Heriotza: gaubela, andariak, hileta... (MUX-015/042)

Lehen hildakoaren gorpua etxean izaten zen gaubelarako. Auzokoan joaten ziren etxera arrosarioa errezatzeko. Etxetik elizara andariak eramaten zuten, auzoko mutil gazteek.

251. Sepulturak (MUX-015/043)

Sepultura zer zen kontatzen du. Norbait hiltzen zenean, kandela batzuekin otzaratxo baten gainean trapu dotore bat jartzen zen eta bertara diru apur bat botatzen zen. Abadeak meza ostean bertan errezatzen zuen.

252. Behia exijitzen (MUX-015/052)

Aitaginarreba Frantziara joan zen ihesi. Gregori ezkondu eta gero, bere aitaginarrebak etxeko behiak eraman zituen. Batek behia eman zion amaginarrebari, eta gero behi hori emateko exijitu zion; baina berak jada ez zuen behirik. Kartzelara eramango zutela mehatxatu zioten. Istorio horretan gertatutakoa zehatz-mehatz kontatzen du Gregorik.

253. Errota asko (MUX-015/055)

Ariatzako Iberlatxuko errotara joaten ziren. Hainbat errota egon ziren Muxikan: Kurtzeroan, Astelarran, Elizalden...

254. Ermandadea (MUX-015/059)

Ermandadeak ganadua hilez gero dirua jasotzeko balio zuen. Borondatezkoa zen. Asko egoera horretaz aprobetxatze ziren.

255. Goldaketan, laietan... (MUX-015/063)

Soloa goldatu aurretik laiatu egin behar izaten zen. Golda aurrerapen handia zela dio. Laietan zelan egiten zuten kontatzen du. Area eta narra ere erabiltzen zituzten.

256. Aita uztargilea (MUX-015/066)

Bere aitak lantzean behin, auzokoren batek-edo behar zituenean uztarriak egiten zituen. Urkiaren egurra erabiltzen zuen.

257. Ilea maiatzean ebaki behar (MUX-015/070)

Ilargiaren garrantzia. Bere amak ilea maiatzean ebaki behar zela esaten zion, baina Gregorik lehenago gura izaten zuen. Bi txorta izaten zituen.

258. Animalia-hotsak (MUX-015/073)

Txakurrak ahausi egiten du, behiak "morroza" (marruza), txerriak "irrintze", astoak arrantza, oiloak "kuku", oilarrak kukurruku eta katuak miau.

259. Astelarrako erromeria (MUX-015/079)

Parranda gutxi egindakoak direla dio. Ezkondu ostean ez zuten parranda askorik bota. Oizeko jaietara, Bizkargi egunera eta domeketan Astelarran egoten zen erromeriara joaten ziren. Astelarran "Itsua" egoten zen soinua jotzen, eta dantzan egiten zuten gizonezkoek txakur handi bat ordaindu behar izaten zuen. Iluntzerako etxera joan behar izaten zuten. Batzuetan mutilen batek lagunduta joaten ziren etxera.

260. Soloak bedeinkatu; bijilia; garizumako abestia (MUX-015/085)

Erramu egunez gurutzeak bedeinkatzen ziren soloan ipintzeko. Garizuman bijilia egitea garrantzitsua zen. "Garizuma santu zazpi astekoa, makailau buzten zorigaiztokoa..." abesten du.

261. Azpigarri-meta azpian ezkutatuta (MUX-015/097)

Gerra denboran, patata errekisatu egiten zuten. Etxerako patata gordetzeko, bere nebak azpigarri-metari azpian laku egiten zion bertan gorde ahal izateko. Frontea zetorrela-eta, bere neba alboko pinudi batera joan zen tapaki batekin bertan ezkutatzera; baina, beldurtuta, etxera bueltatu zen. Neba ere azpigarri-meta horretan ezkutatu zen. Auzokoak azpigarria eramaten hasi zirenean, handik irten behar izan zuen.

262. Bonbardaketan izekoaren etxean (MUX-015/099)

Gernikako bonbardaketan, izekoaren etxean egon zen. Erromeria ostean, izekoaren etxean geratzen zen biharamunean joateko etxera. Astelehen hartan, arratsaldez Gernikara joateko asmoa zuen. Bonbak entzun zituztenean, ezkutatu egin ziren. Gernikan zeuden auzoko denak onik irten ziren, Lumorako bidea hartu zuten-eta.

263. Berorika eta hika (MUX-015/103)

Abadeari, maisuari, medikuari... "berori"esaten zitzaion, gaztelaniaz "usted". Hitanoa mutilekin berbetan ikasi zuen, baina ahaztu zaiola dio.

264. Muxikako futbol-taldea (MUX-017/010)

Muxikan futbol-taldea egon zen, baina Jose Mari ez zen zalea. Jokalari batzuk aipatzen ditu.

265. Soldadutzan bizikletaz Plentziara (MUX-017/012)

Neskekin ez zuten inolako harremanik izaten. Bizikleta zaharra eta eskasa baino ez zuten izaten. Soldadutza Plentzian egin zuen eta bizikletaz joaten ziren bertara. Zapatu-domeketan etxera bueltatzen ziren.

266. Muxikan txirrindularitzarako zaletasuna betidanik (MUX-017/014)

Muxikan txirrindularitzarako zaletasuna beti egon da, txirrindulari asko egon baitira: Oscar Elgezabal, Barruetabeña, Juantxu... Pilotaririk ez da egon inoiz, ez baitzegoen ezta frontoirik ere.

267. Lehen animalia eta pizti ezberdinak ikusten ziren (MUX-017/016)

Hondartzara berandu hasi ziren joaten, errekan bainatzen ziren. Errekan, arrainkariak, kaskailuak egoten ziren, kangrejoak erreka txikietan egoten ziren, baina jada ez daude. Lehen erbi asko zeuden, azeriak ugaritu zirenean urritu ziren. Lehen ez zegoen orkatzik, gaur egun asko.

268. Azpigarritan (MUX-017/018)

Azpigarritan basora joaten zirenekoa. Gurdiarekin joaten ziren, baina gurdia astuna izaten zen. Solo guztietan behar izaten zen satsa.

269. Goldak eta burdin-hariak (MUX-017/022)

Goldak eta burdin-hariak orain ez dira erabiltzen. Garia ebakitzeko makinak etorri zirenean, horien erabilera desagertu egin zen.

270. Lehen txori ugari (MUX-017/023)

Lehen garia zein artoa ereiten zuten. Poxpolinak, elaiak eta usoak ugari egoten ziren lehen. Elaiak kabiak bazarekin egiten zituen. Ehizan asko ibili da Jose Mari. Behin orkatza zelan harrapatu zuen kontatzen du.

271. "Pedro y medio" errementaria (MUX-017/024)

Errementaria etxetik hurbil zuten, eta bertan jartzen zizkieten perrak ganaduari. Lehenago "Pedro y medio" errementaria egon zen, baina berak ez zuen ezagutu. "Pedro y medio"ren istorio bat kontatzen du.

272. Astelarrako taberna (MUX-017/026)

Astelarrako auzoan taberna bat zegoen eta bertan batzen ziren askotan. Elizalde auzoko Kimerako Jose Mari Oar-Arteta alkatea ere bertan egoten zen.

273. Emagina eta bizargina (MUX-017/028)

Bere amak 10 seme-alabak auzoko batek lagunduta izan zituen. Bizarginarengana Etxeko tabernara joaten ziren, zapatuetan egon zen.

274. Baserriari esker bizirik (MUX-017/030)

Muxikako Kurtzero auzoan denda bat zegoen. Hala ere, Gernikara joaten ziren sarritan, bere ama esnea saltzen joaten baitzen. Baserritik lortu zutela bizirik irautea dio, gaur egungo egoera ez dela krisi-egoera, lehengoa bai krisia.

275. Gerrako garai gogorrak (MUX-017/033)

Gerra aurrean zein ostean, berdintsu egon zirela dio: txarto. Gernikako bonbardaketaren osteko egunean, bertan egon zen. Etxetik irteteko hainbat abisu izan zituzten, baina ez ziren inora joan.

276. Gerrako soldaduak eta hildakoak (MUX-017/034)

Denetariko soldaduak egon ziren inguru horretan gerran. Beraien ondoko baserriko bateko gizona hil egin zuten. Abade asko ere desterratu eta hil egin zituzten.

277. Gerratik ihes egindakoak etxean (MUX-017/035)

Gernikako asko Muxika aldera hurreratu zen bonbardaketa ostean. Arrien familia Galtzape baserrian egon ziren. Beraien etxean Morgako batzuk egon ziren.

278. Ugarteko eskolara (MUX-019/002)

Eskolara ez zen askorik joan, 14 urtera arte baino ez. Eskolan ordu erdiko jolas-ordua izaten zuten. Intxaurren jolasa azaltzen du. Elizpean pilotaka aritzen ziren, artilezko pilotekin. Eskolan ez ziren neskekin egon. Beraiek maisua zuten eta neskatilek maistra.

279. Eskolan kopiatzen eta osteko zigorrak (MUX-019/003)

Eskolan ondoan izan zuenari kopiatzeko egindakoak dakartza gogora. Maisuaren zigorrak ez ziren batere gogorrak izaten. Don Vicente Millan izan zen bere maisua. Maisua bertan bizi zen, tabernan egon zen ostatur. Maistrarekin, Gernikako Patrociniarekin, ezkondu zen maisu hura.

280. Maisu erdalduna izan arren, eurak euskaraz (MUX-019/004)

Eskolan dena egiten zuten euskaraz nahiz eta maisuak ez jakin; hala ere, ondo konpontzen ziren. Eskolan beste bi lagun zituen, baina bera omen zen "jefie". Inoiz, eskolara joan barik basora joaten ziren. Elizaldeko eskolan arbela izaten zuten eta gehien zekiena irteten zen idazten.

281. Inguruko lehenengo bizikletaren jabe (MUX-019/005)

Muxikako Elizaldetik Morgara arte ez zegoen beste eskolarik; hori dela-eta, bide horretan bizi zirenak Elizaldera arte etortzen ziren oinez. Sasoi hartan inork ez zuen bizikletarik izaten. Bera Gernikara hasi zenean ikasten, 12 urte ingururekin, bertara joateko bizikleta izan zuen eta bera izan zen inguruko bizikletadun bakarra. Errepiderik ere ez zegoen, gurdi-bideak bakarrik.

282. Esnea banatzen autoz (MUX-019/006)

Gernikako tailer batera joan zen ofizioa ikastera. Lehenengo arotz moduan aritu zen eta gero Bilbora joan zen ofizio bera ikasten. Bere lagun bat esnea banatzen aritzen zen eta harekin batu zen karneta atera ostean, autoarekin egiteko banaketa. 1946. urteko gidabaimena du esku artean. Inguruko etxeetako esnea banatzen zuten inguruko herrietan.

283. Esne-banatzaitetik kamioi-gidarira (MUX-019/007)

Beste lagun batekin aritzen zen esnea banatzen, baina bestea fabrikari hasi zen lanean. Zuten ibilgailua saldu eta txahal biren diruarekin beste ibilgailu bat erosi zuen. Gernikako obretan hasi zen lanean, eta ostean, Miranda de Ebrora joan zen. Sei urtez egon zen bertan. Azken 44 urteak Gernikan aritu zen kamioiarekin.

284. Aroztegian txerriak jagoten (MUX-019/008)

Hamabi urterekin Gernikara joan zen aroztegia batera. Pintxe moduan zegoen, baina bertako txerria zaintzea ere egokitzen zitzaion. Ofizioa ikasten zegoela-eta, sekula ez zuen zentimorik jaso. Utzi egin zuen lan hura.

285. Gerran hildakoak lurperatzen (MUX-019/009)

Gerra sasoiari, 14 urte zituen Fernandok. Etxe inguruko kanoiak non egoten ziren azaltzen du. Fikan egon zen frontea eta han ondoko etxe baten ingurura joaten ziren kanoikada guztiak. Eurak bertan egon ziren, ez ziren mugitu. Nazionalek deskuidu bat izan zuten, bonba bat botata beraien soldaduak hil baitzituzten. Bertako gizonak lan ugari egitera derrigortu zituzten. Fernandoren aitak gorpuak lurperatzeko betebeharra zuen Muxikako kanposantuan, eta bera ere aritzen zen laguntzen.

286. Errota barik ogirik ez (MUX-019/011)

Ortuak izan arren, miseria izan zuten ogi barik. Etxeko garia ehotzeko etxean bazuten eskuzko makina bat eta bertan ehotzen zuten gauez. Artoa, osteria,

ezin zuten eho, errotak zarratuta egon baitziren. Ogi gutxirekin hazitakoak dira. Ogi beltza, zahiarekin egindakoa, izaten zuten.

287. Oka auzoraino errotara (MUX-019/012)

Oka auzoraino joan behar izaten zuten errotara, hurbil zuten errota prezintatuta baitzegoen. Antonio errotaria gauez egoten zen jendearen zain. Bere Arrietako osabak bi errota zituen, baina hark ere prezintatuta. Astelarra auzoan Olabe errota zegoen eta Ugarte auzoan beste bat. Kurtzero auzoan ere bazegoen errota, baina sekula ez zen hara joan. Errotariak "mendie" kentzen zuen, eramandako artoaren edo gariaren ehuneko zehatz bat. Morokila zelan egiten den azaltzen du. Morokila esnearekin oso gozoa dela dio.

288. Labeko sua, ogia (MUX-019/014)

Bere aitak lantzean behin egiten zuen labeko sua, etxeko ogia. Gernikako lagun bati eramaten zion ogia, beraientzako gauza handia zen. Baserrian batetik edo bestetik lortzen zuten zer edo zer, kalean ez. Labeko sua zelan egiten zuen azaltzen du: labea otearekin berotzen zuten eta ondo garbitu ostean sartzen zuten ogia. Arto-opilak ere egiten zituzten.

289. Esne gutxiko behiak (MUX-019/015)

Esne-eskasia ere ezagutu zuten nahiz eta behiak izan. Behiek soloan lan asko egiten zuten eta ez zuten pentsurik izaten jateko; hori dela-eta, esne gutxi ematen zuten behiek, ez gaur egun bezala. Diru gutxi izaten zuten, ezta meza ateratzeko ere. Hileta ostean gisatua ematen zitzaien jaten kanpotik etorritako senideei, eta horrek ere dirua balio zuen.

290. Anaia "Rebelión de la sal" batailoikoa (MUX-019/017)

Bere anaia zaharrena frontean egon zen, "Rebelión de la sal" batailoian. Boluntario joan zen Euzkadiren alde borrokatzera, behar baino lehenago. Gero Gasteizko kartzelan egon zen.

291. Lehenagoko zaharrak karlistak ziren (MUX-019/018)

Muxikako lehenagoko zaharrak karlistak zirela esaten zen. Errepublikazaleak ez zituen ezagutu.

292. Gerra osteko alkateak eta aldaketak (MUX-019/021)

Gerra osteko lehenengo alkatea Ziriako izeneko bat izan zen, Kurtzeroko trenbide-pasagune ondoko etxean bizi zen. Haren ostean, Kurtzeroko zerrategiko Esteban Elorriaga egon zen alkate. Azken honek Ugartetik Kurtzerora eraman zuen udaletxea, gaur egun eskola dagoen lekuan, eta frontoia eraiki zuen alboan. Gero Jose Maria Oar-Arteta eta Tomas Elorriaga "Bagera" egon ziren.

293. Muxikako aguazilak; Ugarteko tabernak (MUX-019/022)

Gerra denborako aguazila eta postaria Roman errotaria izan zen. Gero Felipe egon zen. Azkenak Gorozikakoa (herriak batzerakoan) eta "Urtain" izan ziren. Gutunak tabernako mahai gainean izaten zituzten. Ugarten hiru taberna izan zituzten. Andrak etxean gelditzen ziren bitartean, gizonak joaten ziren tabernara.

294. Ugarteko Maiatz-pazkoak eta Astelarrako erromeria (MUX-019/023)

Tabernarako dirua apurra izaten zuten. Elizaldeko Maiatz-Pazkoetan jai handiak egiten ziren: txirrundularitza-lasterketak, Gernikako banda, borroka librea... Astelarra auzoko erromeriara joaten ziren domekero, jende asko batzen zen. Gizonezkoek ordaindu egin behar izaten zuten dantzan egin ahal izateko. Goizetik bueltatu behar izaten ziren etxera.

295. Astelarrako erromeriako kalabazak (MUX-019/024)

Gizonezkoek eskatzen zieten emakumeei dantzan egiteko. Bere emaztea izan zenak ezezkoa eman zionekoa gogoratzen du: ezezkoa jaso osteko domekan berak eman zizkion gero kalabazak. Bere emaztea bere auzoko Zizperrene baserrikoa zen.

296. 10.000 erreal balio zituen etxeak (MUX-021/003)

Feliren aita Barakaldon jaioa zen, baina Muxikako ortusantu ondoko Buluku baserrian hazia. Bere aititak 10.000 erreal ordaindu zituen etxearengatik, 2.500 pezeta.

297. Gernikara esnea eramaten (MUX-021/006)

Umetan Jesus-eta behiak zaintzen egoten ziren. Barandika auzotik Gernikara joaten ziren esnea eramatera. Gerra aurretik mojetara eramaten zuten esnea.

298. 15 urtegaz karretero, hildakoak batzen (MUX-021/008)

16 urte bete orduko, Jesus karretero ibili zen Bizkargi menditik hildakoak bajatzen. Ganadua zuten mutilak aritu ziren behar horretan.

299. Frontea Bizkargi mendian (MUX-021/009)

Bizkargi mendian frontea egon zen. Bizkargin hildakoak Muxikako kanposantuan lurperatzen zituzten ilara batean.

300. Gerran auzokoen etxera (MUX-021/012)

Jesusen etxezkoak beraien etxea utzi eta, ganadu eta guzti, auzoko beste batera joan ziren. Bi txerri hil zizkieten. Kontuz ibili behar zuten etxezko kea ikus ez zezaten.

301. Gerrako erasoak: Feliren jaiotetxea erre zuten (MUX-021/013)

Gerran, kanoiak egon ziren inguruan. Jesusek-eta ganaduak auzoko korta batean gorde zituzten. Felik auzoan egoten ziren tankeak ditu gogoan. Feliren etxea erre egin zuten ganadu eta guzti, eta Kurtzeroko Zubietara joan ziren izeko baten etxera. Gero, gerraostean, Ugarteko Etxebarrin soldaduak izaten zituzten eta nahi beste jateko izaten zuten.

302. Errepublikan ama arduratuta (MUX-021/015)

Errepublikan, erregea kendu zutenean, bere amak negar egin zuen. Eskoletatik gurutzeak kendu zituzten eta horrek arduratzen zuen, dotrinarik jasoko ez zutelakoan. Baziren errepublikazale batzuk herrian, horietako batzuk aipatzen ditu. Errepublikazaleak izan arren, mezara joaten ziren. Karliten eta abertzaleen mitinak egoten ziren.

303. Jeneroa entregatu behar udaletxean (MUX-021/021)

Baserritarrek jeneroa entregatu behar izaten zuten udaletxean: patata, indaba, garia... Baserriaren tamainaren arabera ematen zen jeneroa, baina ez zioten kasurik egiten senide kopuruari.

304. Eguneroko indaba eta porru-patatak (MUX-021/022)

Eguneroko jana porru-patatak eta indaba izaten ziren. Bakailaoa ere jaten zuten noizean behin. Zezina etxerako banio ez zuten egiten.

305. Ugarteko eskola (MUX-021/024)

Jesus Ugarteko eskolara joan zen, baina etxean lana egoten zeneza gutxitan joaten zen. Don Felix San Millan arabarra izan zen maisua. Eskolan euskaraz egitearren zigortu egiten zuten jolas-ordu barik; hala ere euskaraz egiten zuten, zekitena.

306. Ugarteko maisu-maistrak (MUX-021/025)

Feli pare bat urtean baino ez zen joan eskolara, etxean lan asko egoten zena. Doña Cesarea maistra andaluziarra izan zuen. Eskola gainean bizi ziren maisu-maistrak. Jesusen maisua Gernikako Patrocinia maistrarekin ezkondu zen gerraostean.

307. Dotrina eskola baino garrantzitsuagoa (MUX-021/027)

Dotrinara sarri joaten ziren, eskolan zein elizan ematen zuten. Feliren sasoiari, don Juan eta don Pedro anaiak izan ziren abadeak. Zazpi urterekin egin zuen lehenengo jaunartzea. Euskaraz egin zuten dena. Dotrinari eskolari baino garrantzia gehiago ematen zieten. Lehenengo meza goizeko zazpi eta erdietan izaten zen.

308. Sermoiak, prozesioak eta letaniak (MUX-021/028)

Antzinako sermoiak oso gogorrak izaten ziren, Aste Santutan fraideak etortzen ziren. Prozesioak nondik nora izaten ziren azaltzen dute. Letania asko egiten ziren: Ariatzara, Bizkargira...

309. Arreba mojak 10.000 pezetako dotea ordaindu behar (MUX-021/030)

Jesusen arreba 18 urte gaz joan zen moja. 10.000 pezetako dotea eman behar izan zuten moja joatearren; dotez gain arrea ere eraman zuen.

310. Ezkontzako arrea eta dotea (MUX-021/031)

Jesus eta Feli ezkondu zirenean Felik mojetan egindako arrea ekarri zuen.

311. Tabernako lan gogorra (MUX-021/032)

Tabernako lana gogorra zen: lan asko eta diru gutxi. Hala ere, bost seme-alabak atera zituzten aurrera, ikasketak eta guzti. Feli barra atzean eta sukaldean egoten zen. Antzinako hiletetan jaten ematen zitzaizkien gonbidatuei. Zopa, garbantzia edo indaba eta gisatua jaten zen hiletetan. Jende asko izaten zuten jaten, etxe guztian zehar egoten ziren sakabanatuta bezeroak.

312. Tabernan gehien saltzen zutena (MUX-021/033)

Mezara joaten zen jendeak koñaka eta anisa hartzen zuen tabernan. Askotan berandura arte egoten ziren bezeroak karta-jokoan tabernatik ezin aterata. Ardo zuria eta beltza edatea zen normalena, likorerik ez, bakarrik jaietan. Andrazkoak bermuta, mostoa eta jereza edaten zuten.

313. Zahagiak eta garrafoiak (MUX-021/034)

Ardoa beti zahagietan izaten zuten, 90 kilokoak. Ardoa garrafoian saltzen zuten, 8 litroko garrafoietan. Gabonetan zahagia hasi eta bukatu egiten zuten. Bilboko Arratetik ekartzen zuten, alondigatik. Astean bi zahagi inguru saltzen zituzten.

314. Beharginak ostatu hartuta etxean (MUX-021/035)

Basoetan lanean zebiltzan beharginak ostatu hartzen zuten beraien etxean. 1956. urtean, arratiar asko egon ziren. Kafearekin diru asko irabazten zen.

315. Bertsolariak tabernan (MUX-021/037)

Ariatza auzo inguruko bertsolariak tabernan egoten ziren sarritan. Ezkontza aurreko agur-afariak ere askotan ospatzen zituzten bertan, bakailaoa janez.

316. Ugarteko tabernak eta Maiatz-pazkoak (MUX-021/039)

Ugarte auzoan hiru taberna egon ziren: Kimera, Felizianonekoa eta beraiena. Kurtzeroko Ziriakoren tabernan zapo-jokoa egoten zen. Maiatz-pazkoetan, Ugarteko jaietan, barra etxe kanpoan jartzen zuten.

317. Nobio kontuak (MUX-021/040)

Gaztetan Astelarra auzoko erromeriara joaten ziren. Mutilekin dantzan egiterakoan, kontuz ibili behar izaten zirela dio Felik. Betidanik ezagutzen ziren elkar, tabernan ezagutu ziren-eta. Jesus astoz bajatzen zen bertara.

318. Bere aita politikan eta herrigintzan ibilitakoa (MUX-023/005)

Bere aita gizon ikasia zen, Lizarrako ikastetxean ibilitakoa: politikan murgildua, komiteko jueza, eta udaletxeko kontribuzio-biltzailea; kartzelaratu ostean, heriotza-zigorra kondenatua izan zen.

319. Kantabriara morroi (MUX-023/006)

Kantabriara joan zen morroi lanetan arrebarekin batera, Aparecidara eta Ampuerora.

320. Kantabriatik Bilbora (MUX-023/008)

Kantabrian morroi lanetan zebilela, Aparecidan, mediku baten etxean, egon zen. Nazionalak sartu zirenean, mediku hori alkate jarri zen. Orduan, etxera bueltatu ziren, Bilboko bidea erraztu baitzieten. Gorozikako batek Bilbon zuen taberna eta harengana joan ziren.

321. Nazionalak Kantabrian sartu zirenekoa (MUX-023/010)

Kantabrian morroi zegoela, nazionalak sartu zirenean, Ampuero herriko zubiak apurtu zituzten bideak ebakitzeko. Aparecida herriko korta batean egon ziren. Nahiko esne izaten zuten edateko, behintzat. Ostean, kobazuloan ezkutatu ziren.

322. Gerrara soldadu, "Cuarta división de Navarra"n (MUX-023/011)

Kantabrian morroi egon ostean, etxera bueltatu eta gerrara joan zen. Bertako lau egon ziren beraien kintan: bi boluntario joan ziren eta beste bi, Felipe bera tartean, ez. Dibisio txarra tokatu zitzaion, "Cuarta división de Navarra". Iruñetik, Valentziako Castell de la Planara, Ebrora, Saguntora, Aranjuezera, Madrilera eta Bilbora joan ziren, Iruñeara bueltatu aurretik.

323. Zazpi urte eta zazpi egun soldadu (MUX-023/012)

Cuarta División de Navarran ibili ostean gerran, eta etxera bueltatu ostean, berriro bueltatu behar izan zuten. Guztira, zazpi urte eta zazpi egun egin zituen soldadu. Gorozikatik boluntario joan ziren biak hil egin ziren; derrigortuta joan zirenek, ostera, bizirik iraun zuten: Jose Urkizak eta berak.

324. 81eko morteroekin frontean (MUX-023/014)

81eko morteroak erabili zituzten frontean. Horrek salbatu zituela dio.

325. Galtzak ere usteldu ezin zapatak kenduta (MUX-023/015)

Gerran, harri gainean ere lo egiten zutela dio. Galtzak zapatak kendu barik usteldu egiten zitzaizkien, ez baitzuten aldatzekorik; eta, sarritan, ezta denborarik ere. Ura lortzearren borrokatzen ziren, putzuetako ura ere edaten zuten. Soldaduen trajea eta bi manta zituzten lo egiteko.

326. Ebron nazionalak larregi aurreratu ziren (MUX-023/016)

Ebro izan zen fronteko lekurik txarrena. Nazionalak erratu egin ziren: larregi aurreratu zirela dio.

327. Fronteko bizipenak (MUX-023/017)

Frontean jateko hotza jaten zuten, mairuek ematen zizkieten latak. Neska-lagunari gutuna idazteko papera ere ematen zieten. Ofizialekin musean aritzen ziren.

328. Gutunak frontetik (MUX-023/018)

Frontean zegoela, gutunak idazten zizkion neska-lagunari. Nafar askok ez zekiten idazten ez irakurtzen, eta beraiek laguntzen zieten, askotan ez zirenak ere esanez.

329. Auritzen eta Izaban soldadutzan egindako gaiztakeriak (MUX-023/020)

Frontetik etxera bueltatuta, berriro eraman zuten. Nafarroa aldera joan zen muga zaintzera: Izaban, Auritzen, Elizondon, Beran... egon ziren. Alemaniarrak

egon ziren Frantziako mugan orduan, eta pasa ez zitezen egon ziren muga zaintzen. Behin Auritzeko erromeriara joan ziren eta kristonak eta bi egin zituzten: telefonoak ebaki... Iزابako kuartelean egon ziren eta bertako neska guztiak ofizialen atzetik zebiltzan. Neska horiek ile-apaindegira joaten ziren eta haiei abesten zieten kanta bat abesten du.

330. Auto-istripu larria soldadutzan (MUX-023/021)

Soldadutzan zegoela Iruritan auto-istripua izan zuten. Bi hil egin ziren eta bera luzaroan egon zen Iruñeko ospitale militarrean. Ospitalean Bidaniko (Gipuzkoa) lagun bat egin zuen eta haren arreba zen moja-erizainaren lagun ere egin zen. Bere bitartez ospitaleko sukaldean hasi zen lanean.

331. Gorozikako eta soldadutzako neska-lagunak (MUX-023/022)

Soldadutzan istripua izan zuenean, bere gurasoak eta betiko neska-laguna bisitan joan zitzaizkion. Iruñean beste lagun bat ere bazuen hango kuadrillakoa zena. Momentuan bi neska egon ziren batera. Iruñean bertan ezagutu zuen Bidaniko moja-erizain baten mutil-laguna Esturo auzoan hil zuten gerran.

332. Trena Zugastietan eta autobusa Autzaganen (MUX-023/024)

Soldadutzan istripua izan zuenean, etxekoei oso larri zegoela esan zieten eta Autzaganen autobusa hartuta joan ziren haraino gurasoak eta neska-laguna. Bilbo edo Zornotzara joateko Autzaganen hartzen zuten autobusa. Gernika aldera joateko, trena Zugastietan. Oso tren eta autobus gutxi egoten ziren.

333. "Rojillos" euskaraz berba egiten zutenei (MUX-023/026)

Soldadutzan "rojillos" deitzen zieten euskaraz berba egiten zutenei. Sekula ez zioten utzi euskaraz berba egiteari. Gaztelaniaz ondo konpontzen ziren.

334. Leioako Udondoko eskola (MUX-026/004)

Leioako Udondoko eskolara joan zen umetan, bertara joan baitziren familiakoak. Ez zen eskola zalea eta askotan huts egiten zuen nahita. 14 urteaz Leonera (Espainia) joan ziren bizitzera eta ez zen eskolara bueltatu.

335. Leon ez zitzaion gustatzen (MUX-026/005)

Leonen ez zen gustura egon. Gutunak jasotzerakoan, negar asko egiten zuen. Euskaldunak aurkitzerakoan edo euskara entzuterakoan asko pozten ziren. Bera bi urteren ostean Gorozikara etorri zen amumarenera, baina bere etxeakoak han gelditu ziren.

336. Asuagoikoa baserriko eskolara (MUX-026/007)

Mari Asuagoikoa baserrian hasi zen eskolara joaten, eskola berrira joan aurretik. Gorozika herriko guztiak joaten ziren bertara, baina Esturo auzokoak Zugastietara joaten ziren. Neskek maistra izaten zuten eta mutilek maisua.

337. Gorozikako eskola: maistrak, zigorrak, entziklopedia... (MUX-026/008)

Gorozikako herri-eskolan, agur egun barnetegia dagoen lekuan, Bilboko maistra izan zuten, okerra baina irakasten ona zena. Zigorrak aipatzen ditu. Doña Marina Rodriguez zen maistra hori. Eskolan entziklopedia baino ez zuten izaten, liburu bakarra. Eskolara egunero joaten ziren, eguen arratsaldea izan zuten libre eta eguerdian etxera joaten ziren bazkaltzera.

338. Mezak eta sepulturak (MUX-026/011)

Elizara sartu orduko elizpean abestu egin behar izaten zuten eskua altxatuta. Umeak goizeko mezara joaten ziren eta gurasoak beranduagokora. Sepultura ondoan batzen zen familia. Sepultura baten bat hiltzen zenean jartzen zen eta familia bakoitzak zuen berea. Mezak lehenago latinez izaten ziren. Andra bakoitzak bere meza-liburua izaten zuen.

339. Gorozikako Andra Mariak (MUX-026/014)

Mutilak joaten ziren neskei dantzan eskatzera. Soinulariak. Gorozikan jaietan baino ez zen egoten erromeria. Andra Marietan gonbidatuak izaten zituzten etxeetan. Ibarrurikoek ez zuten Gorozikara joateko joera askorik.

340. Bizkargi eguna (MUX-026/015)

Bizkargi eguna Santa Kurtz eguna izaten zen, maiatzaren 3a. Hiru egunez ospatzen zen: aurreko domekan, egunean bertan eta errepikapenean. Letania egoten zen ermitaraino. Hiru soinulari egoten ziren.

341. Zugastietako, Okako eta Autzaganeko jaiak (MUX-026/016)

Zugastietan Santo Domingo ermita egoten zen eta jaietan meza ostean erromeria. Hurrengo egunean Okan Edurtzetako amaren ermita inguruan txistua eta danbolina egoten zen. Autzaganeko San Bartolometan orkestra egoten zen domekaz eta astelehenez. Bertsolariak ez ziren hain ugariak izaten, Amaiaren osaba, Xabier Amuriza bertsolariaren aita, Autzaganen egoten zen bertsotan.

342. Erromeriara eta kalera diru gutxirekin (MUX-026/018)

Ariatza auzoko Santa Kurtzetara, irailaren 14an, ere joaten ziren. Erromerietan ez zuten ezetakorik edaten, eta edatekotan gaseosa. Gernikara joaterakoan ere ez zuten ezer hartzen. Amaiak gogoratzen du Gernikako Arrien tabernan behin ezagun batzuk ikusi zituenekoa. Trenerako eta kakahueteetarako dirua baino ez zuten izaten.

343. Gernikako Lizeo zinemara (MUX-026/019)

Gernikako Lizeoko zinema-aretoa egun zehatz batzuetan baino ez ziren joaten. Peparenean kakahueteak erosi, jan eta azalak lurrera botatzen zituzten. Zineman behin lagun bati gertatutako istorio barregarria kontatzen du, pantailakoa bere gainera zihoala pentsatzen baitzuen. Ezkondu ostean, Mari behin baino ez zen joan zinemara.

344. Auzoko guztiak Mariren etxera telebista ikustera (MUX-026/020)

Pelikula batzuk galarazita egoten ziren telebistan zein zineman. 3R ikusi behar ez zena zen. Mariri irratia aitabitxiak oparitu zion ezkondu zenean. Ana Rosa nobela entzuten zuten; soroko lanak ere uzten zituzten horregatik. Amaiak gogoan du Mariren etxera joaten zela telebista ikusten; auzoko guztiak batzen ziren bertan. Lehenengo telebista don Agustin abadeak izan zuen.

345. Eskilasoaren-habietan olgetan (MUX-026/021)

Txori-habietan jolasten aritzen ziren. Mari eskilasoaren habiara igotzen zen. Patatekin jaten zituzten txoriak. Arbola gainera igotzen abila zen Mari; Amaia, ostera, ez da ibili sekula horretan.

346. Elaiak zeruko txoriak ziren (MUX-026/022)

Kurloiek eta elaiak jartzen zituzten habiak inguruetan, baina elaiak ezin ziren ikutu zerukoak ei ziren-eta. Elaiak zaindu egin behar izaten ziren, garrantzitsuak ziren. Gero eta elai gutxiago daude.

347. Kukua eta saguzarra (MUX-026/023)

Kukua entzuterakoak dirua poltsikoan izatea komeni da, aberastasuna omen dakar-eta. Gau-txoriak ere, saguzarrak, ugariak izaten ziren.

348. Loro mozkorra (MUX-026/024)

Ezagun batek behin etxeko loroari zigarroa eta edari alkoholaduna eman zien eta bizitu egin zen. Asko hitz egiten zuen eta etxeakoak ondo ezagutzen zituen. Azkenean, ostu egin zieten kaiola eta guzti.

349. Tabaka, marroka, ixerka... (MUX-026/025)

Tabaka, marroka, ixerka... olgetan zuten. Jolas hauek azaltzen dituzte. Pantailaz kanpora daude Amaiaren alaba eta auzoko beste bat, Tere, eta beraiek ere ematen dituzte azalpenak.

350. Kromoak, txapak, tabak eta txirrinkola (MUX-026/026)

Kromoekin eta txapekin era jolasten ziren. Tabak etxe guztietan egoten ziren. Mutilak txirrinkolakin ibiltzen ziren.

351. Mutilak pilotaka eta neskak panpinekin (MUX-026/028)

Mutilak pilotaka aritzen ziren. Etxe aurrean edo frontoian aritzen ziren. Amaiaren ahizparen lehenengo panpina kartoizkoa izan zen, berea ez. Mariren ahizpari panpina beltza oparitu zioten, eta ez zitzaion gustatu. Edozerekin olgetan zuten.

352. Sokadantza eta diaboloa (MUX-026/029)

Sokadantzan eta diabolorekin asko ibiltzen ziren. Jokoetako abestiek erdaraz izaten ziren.

353. Antzinakoek ez zekiten gaztelaniaz (MUX-026/030)

Antzinako zaharrek ez zekiten ondo gaztelaniaz berbetan. Mariren gurasoak bazekiten ondo kanpoan lan egindakoak ziren-eta."Sagarra manzana, iketza carbón, mujer, andrea ta hombre gizon" ikasten zuten eskolan, gero abesti bihurtu zena.

354. Eguneroko eta jaiegunetako jatorduak (MUX-026/033)

Indaba eguneroko jatekoa izaten zen. Iturriko urarekin taloa egiten zuten. Aste Santuko barikuetan patata-tortilla edo bakailaoa jaten zuten. Gonbidatuak zeudenen, etxeko oiloa hil eta gisatua eta arroz-esnea prestatzen zen. Gabonetan eta Andra Marietan zopa, garbantzua, aza, gisatua, arroz-esnea... egoten zen. Urtebetetze egunean, auzokoengana joaten ziren anisarekin eta gailetekin ospatzera.

355. Arrain-saltzaileak (MUX-026/035)

Arrain-saltzaileak joaten ziren Gorozikara. Batez ere antxoa eta sardina jaten zuten. Bisigua lehen ez zen luxua, Gabonetan beti jaten zuten. Ez zuten hozkailurik izaten.

356. Sakristauaren etxera ezkondu (MUX-028/002)

Pagaibekoa jaiotetxetik Gorozika bertako Goirietxebarrira ezkondu zen, sakristauaren etxera. Etxe honetan 3 sakristau egon dira: bere senarraren aitita, aita eta baita bere senarra ere. Sakristauaren lana abadeari laguntzea zen.

357. Kanpai motak (MUX-028/003)

Kanpai-hots ezberdinak daude. Andrazkoaren hil-kanpaiak "kanpa dobliek" dira, bi kanpai jotzen dira; gizonezkoari, osterara, hiru. Bizkargi mendiko Santa Kurtzeko egunetik, maiatzak 3, Ariatza auzoko Santa Kurtze egunera arte, irailaren 14a, hamabietan 12 kanpai jotzen ziren. Umeak hiltzen zirenean edo abade edo fraide baten ama hildakoan ere, ezberdinak izaten ziren tokadak. Etxe bat erretakoan ere kanpaiak jotzen dira jendea batu dadin laguntzeko. Gaur egun oraindik mantentzen dira tokadak.

358. Umea jaio eta segidan bataiatu (MUX-028/007)

Gaur egun ume bat bataiatzeko gurasoek ikastaroa egin behar dute, lehen ez zegoen horrelakorik, umea jaio eta segidan bataiatzen zen-eta.

359. Ezkontzak txikiak ziren (MUX-028/009)

Lehen ezkontzak txikiak izaten ziren. Hurbileko senideak batzen ziren eta etxean jaten zen. Bere etxean taberna zuten eta berak ere zerbitzatu eta prestatu ditu hiruzpalau ezkontza.

360. Ezkontza asko prestatu ditu etxean (MUX-028/011)

Ezkontzetarako auzoetatik platerak-eta hartzen zituzten. Bere etxean ospatu eta zerbitzatu dituzte hiruzpalau ezkontza.

361. Goirietxebarri 1757an eraikia (MUX-028/016)

Gorozikan harrobiak egon arren, bertako etxeak ez daude bertako harriaz eginda, etxeak zaharragoak dira-eta. Bera bizi den etxea, Goirietxebarri, "Sakristauena", 1757. urtean eginda dago.

362. Eliza elizpe barik eraiki zuten (MUX-028/017)

Elizari hasieran ez zioten elizperik egin. Kanpandorrea eta erlojua udaletxeak eginak dira, eliza egin eta 200 urte ingurura. Mariaren aititak kontatuta daki hori berak. Kanpandorrea suteak zirenean abisatzeko eraiki zuten.

363. 12 urte zituela ama hil (MUX-028/019)

Umetan akordu onak zein txarrak ditu. 12 urte zituela ama gaixotu eta hil egin zitzaion. Ama hil aurretik, bere urtebetetze egunean estreinatu zuen jaka urdin bat eta laster belztu behar izan zuen.

364. Primerako eta segundako hiletak (MUX-029/002)

Lutoa eraman beharreko denbora oso luzea zela dio. Alargunek bizi guztian erabili behar izaten zuten. Emakumeek mantila erabiltzen zuten. Hiletak maila desberdinetakoak egoten ziren: primerakoak eta segundakoak azaltzen ditu.

365. "Kasementeruek" (MUX-029/003)

Bere aitite diruduna zen. Ezkontzerakoan dotea eman behar izaten zen. Herrietan "kasementeruek" zeudela azaltzen du, bere aititek berari kontatu zionez. Inguruko mendietako jaiegunetan batzen ziren "kasementeruek", dirudunak diru gabekoekin batzeko eta ezkontzak adosteko. Oso jende gutxik zuen dirua sasoi hartan; etxeak eta jabetzak bai, baina dirurik ez.

366. Gurasoek ezkontzak adosten zituztenekoa (MUX-029/005)

Bere aitaren aldeko aitona-amonen ezkontza hitzartua izan zen. Euren gurasoek batu zituzten seme-alabak, ezkongabeak zirela-eta beraiek ezagutarazi eta prestatu zieten ezkontza. Bere aititek soldadutzara ez joateko ordaindu egin zuen.

367. Hitzartutako ezkontzak; bota-gabak (MUX-029/007)

Hitzartutako ezkontzak izatea normala zela dio, horretarako egoten ziren "kasamenteros"ak. Ezkontza asko diruarengatik ospatzen ziren. Burdaria auzoko hargin batek kontatu ziona dakar gogora, Ibarruriko sakristauak hitzartutako ezkontzan ezkondu zela. Bota-gabak egiten ziren: zahatoekin eta soinuarekin andregaiaren etxera joaten ziren.

368. 12 urtegaz etxeko ardura (MUX-029/010)

12 urte zituela hil zitzaion ama eta asko bizkortu zen. Umea izan arren etxeko ardura hartu zuen, ama baten ardurak, umetasuna alde batera utziz. Hala ere, eskolan jarraitu zuen.

369. Dantzan egiteagatik zigortu eta eskola utzi zuen (MUX-029/011)

Eskola berak utzi zuen bere borondatez. Andra Marietan mutilekin dantzan egin zuelako maistrak zigortu egin zuen. Maistra moduan oso ona zen, baina

zigortzerakoan txarrena. Hilabetez jan barik egotea izan zen zigorra. Berak eta ikaskide batek eskola uztea erabaki zuten.

370. Eskolako bazkariak; doña Marina (MUX-029/012)

Matematiketan ona zen Maria. Eskola ondoko etxe batean, Goirizaran, bazkaltzen zuten eskola egunetan. Maistrak hilabetez jan barik egotera zigortu zuen Maria; orduan erabaki zuen eskola uztea. Doña Marina maistra Munitibarreko idazkaria zen don Ramonekin ezkondu zen.

371. Maistrarentzat sermoia erdaraz (MUX-029/014)

Doña Marina maistra ona izan arren, oso gogorra zen. Abadea bera ere derrigortu zuen berarentzat gaztelaniazko sermoia egitera. Elizatik irteerakoan umeak eskua altxatuta egoten ziren elizpean.

372. Aita preso (MUX-029/015)

15 urte zituela, bere aita Donostian atxilotu zuten. Gero Bilboko Larrinagan egon zen. Epaiketako datuak kontatzen ditu.

373. Gorozikako abadea hil zuten (MUX-029/016)

Gerran, Gorozikako abadea hil zuten asturiarrek eta Estartabarrena baserri ostean lurperatu, hankak bistan zituela. Asturiarrek salaketa bat jaso zuten abadea hiltzeko aginduz.

374. Sakristaua heriotza-zigorrera kondenatu (MUX-029/017)

Sakristaua, bere aitagarreba, heriotza-zigorrera kondenatu zuten Donostian, abadearen kontrako salaketa zela-eta. Bilbora eraman zutenean, Ajuria auzoko batekin topo egin zuen eta hark eman zien gertatutakoaren berri etxekoei. Etxekoak Bilbora joan ziren eta Markinako Gaitán de Ayala "Gaitantxu" diputatuaren laguntzaz etxera onik ekarri zuten.

375. Sakristaua kartzelan zela, semea eta andrea hil (MUX-029/018)

Sakristaua, bere aitagarreba, heriotza-zigorrera kondenatua egon zen bitartean emaztea eta seme bat galdu zituen: 12 urteko semea, behiak zaintzen zebilela, esku-bonba bat lehertu zitzaion. Emaztea handik bi hilabetera hil zen bera bisitatzera joan zenean. Hori dela-eta, Mariaren senarra ama eta anaia barik gelditu zen, aita kartzelan zuela.

376. Bozka bidez aukeratu zuten aita alkate (MUX-029/022)

Bere aita herritarrek bozka bidez aukeratua izan zen. Ordura arte etxe jabeak izaten ziren alkateak, txandakatuz. Hauteskunde haiek dakartza gogora.

377. Herri-lurrak (MUX-029/023)

Alkatearen betebeharrak zeintzuk izaten ziren. Etxe ingurua norberak garbitu behar izaten zuen. Gorozikak herri-baso asko ditu, eta horiek jagon egin behar izaten ziren.

378. Gorozika Muxikako udalerrigaz batu zenekoa (MUX-029/024)

Gorozikako eta Ibarruriko herriak Muxikakoagaz batu ziren udalerrri bakar bat sortuz. Baina Mariak uste du hobe dela herri handi bategaz batzea, Zornotzagaz esate baterako. Hala ere, berak sekula ez du esaten muxikarra denik, gorozikarra baino.

379. Hiru eskola eta hiru maistra (MUX-029/028)

Bere aita Gorozikako alkatea zela zabaldu zuten herriko eskola, gaur egun aterpetxea dena. Bera udaletxean zegoen eskolan ibili zen Asuako etxe batera joan arte; lehengo neska-mutilak batera egon ziren eta gero bananduta. Errepublikako sasoian, errepublikako bandera jarri eta gurutzeak kendu zituzten eskolatik. Doña Marina maistra etorri aurretik beste maistra bi ezagutu zituen. Maistrak Gorozikako etxe batean bizi ziren.

380. Maistra herriak ordaintzen zuen (MUX-029/029)

Gorozikako azken eskola eraiki zuten lekua, gaur egun aterpetxea dagoen tokia, soloa zen. Bere aita alkate zela eraiki zuten eskola hori eta zati bat herriak ordaindu zuen. Doña Marina maistrari ere soldataren zati bat Udaletik ordaintzen zitzaion. Gogoan du aitaren partez maistrari 30 pezeta eman izana.

381. Eskola berria zelako zen (MUX-029/031)

Gorozikako azken eskola, gaur egun aterpetxea dagoena, eraiki zutenean zelako zen azaltzen du. Frontoia eraikin barruan zegoen. Han neskak eta mutilak bananduta egon ziren.

382. Katona, silebarioa eta liburua (MUX-029/033)

Goizetan eskolara sartu orduko aitaren egin eta errezatu egiten zuten. Matematikako ariketak egin ostean, txikienei katona irakasten zieten. Azken liburuagatik 5 pezeta ordaindu zituela du gogoan. Liburu bakar batean izaten zituzten ikasgai guztiak.

383. Diktaketak, ortografia ariketak... (MUX-029/034)

Eskolan arbela izaten zuten diktaketak egiteko. Doña Marinagaz neskek artez idatzi behar izaten zuten eta mutilek "cosido". Arbeletik koadernora kopiatu behar izaten zuten. Hilabete guztian akatsik egiten ez zuenarentzat elizako irudi bat izaten zen saria.

384. Goizetan ikasgaiak eta arratsaldetan josi (MUX-029/035)

Zapatuan ere eskola izan zuten, eta eguen arratsaldean ez. Zapatu arratsaldetan arrosarioa errezatzen zuten. Goizetan eskolako ikasgaiak ikasten zituzten eta arratsaldetan josi eta puntua egin. Mutilek arratsaldetan ere ikasi egiten zuten.

385. Inspekzio osteko opariak (MUX-029/036)

Opor aurretik inspekzioak egoten ziren eskolan. Dena ondo egonez gero, opariak izaten zituzten. Berak diablo bat eta yo-yo berde jaso zituen.

386. Kartoizko panpinak (MUX-029/037)

Kartoizko panpinak margoztu egiten zituzten gogortzeko. Panpinarentzako arropak josten zituzten.

387. Umetako jolasak nolakoak eta non (MUX-030/001)

Panpinak kartoizkoak ziren eta pilotak gomaz eta artilez egindakoak. Gorozikan eskolako frontoian aritzen ziren, eliza ondokoa ez zen gaur egungo modukoa; don Agustin abadea zegoela egin zuten berria.

388. Tabaka eta marroka (MUX-030/002)

Taba denboran tabatara aritzen ziren. Tabak gorriz, berdez eta zuriz margotzen zituzten. Saldu ere egiten zituzten, asko zuten-eta. Marroka ere aritzen zen, zelan olgetan zuten azaltzen du. Denak batera aritzen ziren, berdin zen familiaren maila.

389. Eskolako bata eta oinetakoa (MUX-030/003)

Eskolarako arropa etxera heltzerakoak erantsi egiten zuten hurrengo egunerako gordez. Neskek bata zuria izaten zuten eskolan eta mutilek urdina. Neguan gomazko botak erabiltzen zituzten eta bestelakoan, gomazko zapatak edo sandaliak. Abarkak ere erabiltzen zituzten, batez ere etxean ibiltzeko. Bere aittittek abarketak egiten zituen.

390. Gatza errekan kendu eta sikatzeko eskegi (MUX-030/004)

Txerria eta txahala urtero hiltzen zituzten etxean. Gatza kentzeko errekarera eramaten zituzten. Ostean sikatzeko eskegi egiten zituzten.

391. Abarkak eta galtzak (MUX-030/005)

Bere aititek abarkak egiten zituen etxean, zelan egiten zituen azaltzen du. Kordela erosi egiten zuten. Artilezko-mantekin galtzak egiten zituzten.

392. Galtzak zelan egin (MUX-030/006)

Mariak ere askotan egin ditu galtzak, oso gustuko zuen. Etxe denetan egiten ziren. Eskolan ikasi zuen langintza hori, maistraren senarrarentzat ere egiten zituen.

393. Jertseak egiten (MUX-030/007)

Jertse asko ere egin izan ditu, zelan egin azaltzen du.

394. Zugastietako ferratokiak (MUX-030/009)

Zugastietan ferratokia izan zuten Uribarrena okulistaren aitak eta Hipolitok. Gorozikan ez zen egon horrelakorik.

395. Sagarrak eta sagardoa (MUX-030/010)

Etxean beti izan zuten sagar asko, gehien urte-betea. Aitak sagardoa ere egiten zuen. Sagardo-botila ur-baldean izaten zuten hozten, ez baitzegoen hozkailurik. Sagarrondoek ondo egiten zieten lurrei.

396. Ardo-zopak eta turroia (MUX-030/011)

Beraien etxean ardoa jaietan edaten zen. Gabonetan, ostera, postre bezala txigortutako ogiarekin egindako ardo-zopak jaten ziren. Beraiek, umeek, Alacanteko turroia jaten zuten. Turroi gozoa Bilboko "Santiagito"n egiten zen.

397. "Santiagito"ko turroia eta tostadak (MUX-030/012)

Turroi gozoa Bilboko "Santiagito"n egiten zuten, Gabonetan jaten zituzten. Tostadak ere egiten zituen Mariak, zelan egiten zituen azaltzen du. Erregetan umeen txirindola

398. Erregetako zirindola (MUX-030/013)

Erregetan, umeen txirindolaren modukoak ziren gozoak jaten zituzten. Txirindola umeen jostailua zen.

399. Gabonetako jakiak (MUX-030/017)

Bakailaoa, arkumea eta azalora izaten ziren Gabonetako ohiko platerak beste askoren artean.

400. "Al comunismo" karta-jokoa (MUX-030/020)

Gabonetan kartetan aritzen ziren auzokoak beraien etxean, "al comunismo" jokatzeko zuten. Jokoa azaltzen du. Pezetak jokatzeko zituzten. Behin auzoko batek 700 pezeta irabazi zituen, sasoi hartan diru asko zen.

401. Gabonetako ogia bedeinkatua (MUX-030/022)

Gabonetan ogi zati gordetzen zuten hurrengo uretrako txakur amorratuari emateko. Lurrera ogia jausiz gero, hartu eta musua eman behar izaten zen bedeinkatuta egoten baitzen.

402. Soloetako bedeinkazioak eta gurutzeak (MUX-030/023)

Soloak etxerik etxe bedeinkatzen zituzten sakristauak eta abadeak. Erramu egunerako gurutzeak jartzen ziren.

403. Gorozikako tabernak (MUX-030/024)

Gorozikan bera bizi den etxean eta Aldanatarren tabernan baino ez zen egon: Aldana eta Legina. Sakristauaren etxean ia beti egoten zen taberna. Meza osteetan bertan batzen ziren. Hiletak goizez izaten ziren, eta hileta osteko bazkaria bertan, sakristauaren etxean izaten zen.

404. Gerran Gueñesera ihesi (MUX-030/027)

Gerratean Gueñesera joan ziren, bertako Casa Gotira. Inguruko denak bertako edo Gordexuelara joan ziren. Bi hilabetez egon ziren bertan.

405. Ezkerrekoa zelakoan eta txapel gorria soinean (MUX-030/028)

Gerratean Gueñesera joan ziren, bertako Casa Gotira. Bi hilabetez bertan egon ostean, etxera zetozela, hainbat oztopo aurkitu zituzten. Sodupera heldzerakoan, Casa Gotiko ugazaba txapel gorriarekin topatu zuten lotsatuta; denek pentsatzen zuten ezkerrekoa zela, baina, antza, beste aldekoa zen.

406. Etxea errekisatu zieten (MUX-030/029)

Gerran ganadu eta guzti joan ziren oinez Gueñeseraino. Etxea errekisatuta aurkitu zuten bueltatzerakoan; giltza udaletxean zegoela zioen kartel bat aurkitu zuten. Bere aita zen alkatea eta beldurrez egon ziren. Ez zen ordezeko alkaterik egon, baina agindua bere aitaren lehengusu batek hartu zuen.

407. Etxea erraz berreskuratu zuten (MUX-030/031)

Gerra sasoiari, etxera bueltatu zirenean, errekisatuta zegoenez, auzoko etxean egon ziren lotan. Ordura arte bere aita alkatea zen; baina aginpidea galdu zuen, eta bere ordezkari lehengusuak hartu zuen postua. Haren etxera joanda lortu zuten berriro etxeko giltza, bertan bizi ahal izateko. Gauza asko ostu zizkieten.

408. Aita meategietarako otzarak egiten (MUX-031/002)

Rufinoren aitak Ortuellako meategietako otzarak egiten egiten zuen lan. Bere amamaren neba bat ere bertan aritu zen; eta, etxean bere berririk ez zutela-eta, bere amama Bilbora joan eta handik oinez joan zen nebaren bila. Aurkitu eta etxera ekarri zuen.

409. Anaia 'Crucero Canarias'en hil zuten (MUX-031/003)

Rufino-eta bederatzi seme-alaba izan ziren, bera laugarrena. Bere anaia zaharrena gerrako Crucero Baiaresen hil zen. Lehenago "Sota y Compañía"ko Vapor Uria ontzian ibili zen Frantziatik ikatza ekartzen. Cervera itsasontziak beraiena hartu eta Ferrolera eraman zuten. Familiakoak Gueñes-en egon ziren ebakutatuta, eta irratiz entzun zuten berria.

410. Ferroletik dirua jaso zutenekoa (MUX-031/004)

Rufinoren anaia zaharrena gerrako Crucero Canarias itsasontzian egon zenean, denbora askoan egon ziren bere berririk jakin barik. Baina, halako batean, gutun bat heldu zen etxera: bere anaiarena zen. Gutun hura erantzun ostean, bueltan etorri zitzairen beste bat Gernikako banketxera joan zitezela esanez. Dirua bidali zien Ferroletik.

411. Gorozikar asko beraien artean ezkontuta (MUX-031/008)

Etxean labeko sua egiten zuten, ogia. Gorozikar asko ezkontu ziren beraien artean, gutxi batzuk ezkontu ziren kanpokoekin.

412. Asuako eskola, udaletxekoa eta eskola berria (MUX-031/010)

Rufino umetan asko egoten zen Diman, amaren jaiotetxean. Gerran ebakuzioan egon ostean, Diman egon zen hiru urtez. Pilar 7 urterekin hasi zen eskolara: lehenengo, Asuako baserri batean egon ziren eta gero joan ziren gaur egun barnetegia dagoen lekuan zegoen eskolara. Rufino-eta, ostera, udaletxeko eraikinean egon ziren. Eskolara ahal zutenean joaten ziren, etxean lan egin behar zen-eta. Pilarrek 14 urte gaz utzi zuen eskola.

413. Familiako tabernan beharrea (MUX-031/011)

Aita hil ostean, 15-16 urte gaz, amaren jaiotetxean, Gorozikako Goirietxebarrin zegoen tabernara joan zen lanera. Bertako osaba preso izan zuten, lehengusu bat soldadu eta beste bat esku-bonba batekin hil zen. Hori dela-eta, bera joan zen tabernara laguntzen.

414. 20 urtetatik 30era arte neskame (MUX-031/012)

Familiako taberna laguntzen egon ostean, Bilbora joan zen neskame lanetan. Gaixotu ostean, etxera bueltatu eta osaba-izeko batzuen etxera joan zen berriro ere neskame. 30 urtera arte, ezkondu arte, egon zen kanpoan. Gurasoen etxera, jaiotetxera ezkondu zen.

415. Gaztetan harrobian eta errementari ibilitakoa (MUX-031/015)

Soldadu joan orduko Gorozika bertako harrobian ere egon zen. Gernika berreraikitze lanetan bertako harri asko erabili ziren. Iluntzetan errementari lanak ere egiten zituen.

416. Harrobiko lanak (MUX-031/016)

Harrobian egiten zuten lana azaltzen du. Gernikako Taberna Vasca taberna-jatetxe ezaguna ere bertoko eta Munitibarko harrobietako harriekin eginda dago. Gorozikako elizako altara ere bertako harriarekin egin zuten. Ajuriako elizako potontzia, pila, ere beraiek egin zuten. Harrobian izandako istripu baten gizon bat hil zen.

417. Harrobiko beharginak (MUX-031/018)

Harrobiko beharginak zeintzuk aipatzen ditu: Eguskitzako Damaso eta Paulino, Rafael Arandia, Pagaiko Gregorio eta Esteban... denak ingurukoak. Gerraostean, etxera bueltatukoan, hasi zen harrobian lanean. Errementariaren lana Sotak egiten zuen eta ostean Rufino bera ere hasi zen. Harri handiak ebakitzeko pikeak zorrotzen zituzten. Sota gizon ona zen, baina jenio bizikoa.

418. Errotarriak ere egiten zituzten (MUX-031/019)

Gorozikako harrobiko harria oso ona zen. Oka auzoan ere bazegoen harrobia. Errotarriak ere egiten zituzten. Lemoako Basiliorekin eta Aldanatar "Mangantea" tabernariarekin bizi izandako istorioa gogoratzen du.

419. "Mangantea"ren kontura tragoa debalde (MUX-031/021)

Behin harrobitik lanetik irten eta etxeratzean tabernara joan ziren, sakristauaren tabernara. Tabernariari kontatu ziotenean zer egin zioten lehenago "Mangantea" tabernariari, tragoa eta jatekoa debalde atera zien.

420. Diman eskolarik ez, baina errezoak bai (MUX-031/026)

Rufinoren arreba bat jaiotzerakoan, 2 urte zituela, Diman egon zen bizitzen. Lehenengo jaunartzea egin arte egon zen bertan. Diman ez zen eskolara joan, baina errezo kontuak ondo irakatsi zizkieten etxean. Etxean derrigorra zen errezatzea. Gerraostean ere, berriro egon zen bertan, oso gustura gainera. Amumak domeketan diru apur bat ematen zion. Errotatik lortzen zuten apur bat.

421. Rufino errotarriak pikatzen (MUX-031/027)

Rufinoren amaren jaiotetxea, Dimako Zamakola, errota zen eta bertan egin zituen umetan zein gaztetan egonaldi luzeak. Errotan ere lan asko egindakoa da eta errotarriak pikatzen ere ikasi zuen. Gerraostean, Gorozika inguruan Zugastietako errota egon zen zabalik eta Rufino ere bertara joaten zen laguntzen. Ordura arte Mauma auzoko Juan Jose errotaria joaten zen laguntzera.

422. Errotako lanak; auzorako argindarra (MUX-031/028)

Rufino askotan aritu zen amaren jaiotetxean, Diman, errotako lanetan. Bertako lanak zeintzuk ziren azaltzen du. Gariaren errota bat zuten eta artoarenak bi. Horietako batetik argia jarri zuten auzorako.

423. "Mendie" eta errotako zorroak (MUX-031/029)

Errotaria baserritarrak eramandako ehuneko zehatz bategaz gelditzen zen, "mendie"gaz. 20 kiloko zorroak oso jende gutxik eramaten zituen lepoan, baina hori egiten zuen andre bat bazen Diman. Dimako Baltzola koben ondokoak astoz joaten ziren errotara.

424. Izekoari mutiko batzuek egin zioten gaiztakeria (MUX-031/030)

Rufinoren izeko bat, txikia izan arren, indartsua zen. Eta, behin, Rufinoren zerrarekin belarra mozten ari zela, inguruan zeuden mutil batzuek harriak jarri zizkioten otzaran. Hala ere, otzara altxatzea lortu zuen.

425. Anaia gerran (MUX-033/002)

Umetatik hasi behar izan zuten lanean bizimodua aurrera ateratzeko. Gerra hasi zenean, bere anaia nagusia soldadu joan zen. Teruelgo bataila ezagunean parte hartu zuen. Karreteroaren zen eta etxera erretiratu zen zaurituta. Gainerako bi anaia ere soldadu eraman zituzten.

426. Okako Itziar Erzillaren eskola (MUX-033/003)

Berak ez zuen izan eskolara joateko asti askorik. Soloko mokilak apurtzeko makinak harrapatu zuen eta 9 urtera arte ez zen joan eskolara. Nesken maistra doña Marina zen, baina mutilena behin eta berriz aldatzen zuten. Gorozikako eskolan fundamentu askorik ez zegoela-eta, Muxikako Oka auzoko Itziar Erzillaren partikularrera joan zen. Auzo ezberdinetako jende asko batzen zen Okako eskola hartan. Itziar maistra ona zela dio.

427. Inaziok Itziar maistrari egindako gaiztakeriak (MUX-033/004)

Askotan Okako Itziarren eskolara joan barik, igeri egitera joaten ziren presara. Behin Inazio Aretzaga maistrak harrapatu egin zuen eta hurrengo egunerako zigorra jarri zion, gainerakoak baino ordu bete gehiago geratu behar izan zen. Ordu horretan Inaziok arbelean maistra bere mutil-lagunarekin marraztu zuen eta hori dela-eta, beste zigor bat jarri zion.

428. Idiekin karretero eta probetan (MUX-033/005)

Eskola bukatutakoan osabarekin hasi zen lanean karretero bezala, idiak zituzten-eta etxean. Idi-probetan ere ibilitakoa da.

429. Zornotzako idi-proba (MUX-033/006)

Zornotzako probalekuan jokaturako idi-proba bat kontatzen du. Berak ez zuen dirurik jokatzeko ez baitzuen dirurik.

430. 30 urtez harrobian (MUX-033/007)

Etxe alboko harrobian 30 urtez aritu zen beharrez 62 urterekin erretiratu arte. Asura bizitzen joan zenean hasi zen.

431. Idi-proban gizon-proben kontra (MUX-033/008)

Lehenago Aulestiko bost gizonen kontra jokaturako idi-proba aipatu du eta horren azalpena ematen du: bost gizonak gizon-proban eta bera idiekin. Mundakarrak eta aulestiarrek aritzen ziren gizon-probetan.

432. Probetarako zaletasun asko zegoen (MUX-033/009)

Jende gehien Abadiñoko probalekuan batzen zen, bertako San Blasetan. Markina-Xemeinen ere zaletasun asko zegoen, baina Jesus bera sekula ez zen joan. Zornotzara baino ez zen joaten, garraiorako dirua behar baitzen. Zornotzan diru nahikotxo mugitzen zen.

433. Mendatako zaldi- eta mando-probak (MUX-033/010)

Probetan gizonen baino ez zuten jokatzeko dirua, andrek ez. Zornotzako probalekua ez zen ona, harria soltatu egiten baitzen. Mendatan zaldi- eta mando-probak egiten ziren. Harri bera izaten zuten zaldiek zein mandoek, baina zaldiari bestelako pisua gehitzen zioten.

434. Zaldiak eta idiak entrenatzen (MUX-033/011)

Zaldiak domeketan entrenatzen zituzten meza ostean. Sasoi hartan ez zegoenez probalekurik eliza inguruan aritzen ziren. Idiekin ez zuten aparteko entrenamandurik egiten.

435. Idien salerosketa (MUX-033/013)

Hasierako idiak Respalditzan erosi zituen osabarekin batera. Hortik aurrera aldaketa egiten zuten idi zaharrak eman eta berriak lortuz. Idi on batek 8.000-10.000 pezeta inguru balio zituen sasoi hartan, bera gaztea zenean.

436. Idiak baserri handietan baino ez (MUX-033/014)

Ibarrurin ere bazegoen idi-probetarako zaletasuna. Okolo baserriko Asentzio, Barrutabeña, Arandia... Idiak baserri handiek baino ez zituzten izaten. Askok baserriko lanetarako baino ez zituzten erabiltzen; Jesusek-eta, oster, basoko lanetarako ere erabiltzen zituzten.

437. Idi-probetako tranpak (MUX-033/015)

Idi-probetan tranpak, "tongoak", egiten zirela kontatzen du. Sarritan auzoak hondatzea baino ez ei zen asmoa. Idia mozkortzea normaltzat hartzen zen. Tranpak beti egon direla dio eta Zornotzako proba bat dakar gogora. Lurrean xaboa botatzen zuten batzuetan labain egiteko.

438. Matxin buztargina (MUX-033/018)

Morgako Matxin buztargina Gorozikara joaten zen noizean behin lanera. Etxezarraga buztarginak ere asko egiten zituen. Buztarri bat egiteak egun eta erdiko lana du.

439. Gorozikan proba gutxi (MUX-033/020)

San Isidrotan asto-probak egiten ziren Gorozikan. Oso gutxi erabili zen bertako probalekua. Azken proba Muxikako Urtaintxuk eta Irazabalgo Obietak egin zuten. Diru asko balio dute probek eta askotan ez da errentagarria.

440. Sagastik garraiatzen zituen idiak (MUX-033/021)

Ibarruriko Antonio Sagastik eramaten zituen bertako idiak inguruko herrietara bere kamioian.

441. Harrobiko eta baserriko lanak batera (MUX-033/023)

Askotan lan asko egoten zen harrobian bera hasi zenean. baserriko eta harrobiko lanak zelan tartekatzen zituen azaltzen du. Dirua ordaintzen onak ziren ugazabak. 36 pezeta jasotzen zuten eguneko.

442. Barrenador lana (MUX-033/027)

Barrenadora harrobiko lanpostu bat zen. Haren lana zein den azaltzen du. Postu batean ez bazen bestean arotzen ziren, sekula ez zuten lan faltarik izan.

443. Harrobiko harea lantzen (MUX-033/028)

Gorozikako harrobiko harea leku askotan erabiltzen zen, baina Etxanokoa hobe zen. Gorozikakoa kuartzoa zen eta ez zuen urik hartzen. Harea zelan tratatzen zuten kontatzen du.

444. Harrobian lehenengo putzuak garbitu behar (MUX-033/029)

Harrobian goizean goizetik egin behar izaten zen lana puztuak garbitzea izaten zen. Ostean bakoitza bere eginbeharretara joaten zen. Gehienez 12 behargin egon ziren harrobian.

445. Harriei forma zelan eman (MUX-033/031)

Jesus bizi den etxea bertako harrobiko harriekin eginda ei dago. Harriei forma zelan ematen zen azaltzen du. Gorozikako elizako aldarea ere bertako harriekin dago eginda.

446. Silikosisa (MUX-034/003)

Silikosisa harginen pairatzen zuten ohiko gaixotasuna zen.

447. Harrobia zarratu zutenekoa (MUX-034/004)

Gorozikako harrobiaren ardura Maruriko batek hartu zuenean zarratu zuten. Prozesua azaltzen du.

448. Harrobiko aldaketak (MUX-034/007)

Bera harrobian hasi eta utzi zuenera arte gauza asko aldatu ziren. Korronterik ere ez zuten hasieran eta bukaerarako mota guztietako makinak zituzten.

449. Urdaibaiko Erreserba zela-eta arazoak (MUX-034/008)

Harrobiko ugazaba aritzen zen tratulari lanetan. Urdaibaiko Biosfera Erreserba izendatu zutenean, arazoak izan zituzten errekarara ur zikina botatzen zutelako. Arrainkaria zen gehien arrantzatzen zena bertan.

450. Okako presa (MUX-034/010)

Oka auzoan presa bat dago. Lehenago Ertzilla familiak argia hortik jasotzen zuten. Okako harrobia be han ondoan zegoen.

451. Baserriko lanak gustuko (MUX-034/013)

Elkarrizketa egin zitzaionean oraindik baserriko lanetan aritzen zen. Gustuko du eta nahiago du horrela aritu, zer egina izatea. Lehen goldaketarako behiak eta idiak erabiltzen zituzten.

452. Gazteen zaletasunik eza (MUX-034/014)

Baserriko lanetan ez da horrenbesteko aurrerapiderik egon bere ustez, baina gazteek ez dute zaletasunik eta ordainik ere ez da jasotzen. Lehen etxe denetan zegoen labrantza eta ganadua.

453. Etxerik etxe gari-joten (MUX-034/015)

Lau prakadun, lau gizon, etxerik etxe aritzen ziren gari-joten. Erabiltzen zuten makinaren funtzionamendua azaltzen du. Gaur egun ez dago garirik eta baserriatik bizitzea ere ezinezkoa da. Orain arte pinuak asko lagundu du, baina balioa galdu du.

454. Baserriko tresnak eta erabilera (MUX-034/016)

Sekula ez da laietan aritu, bera umea zela aritzen baitziren horretan. Auzoko andre bat laietan abila zela dio. Area, hiru hortzekoa (medikua), narra, goldea... zertarako eta zelan erabiltzen ziren azaltzen du. Soldadutzan Elizondon (Nafarroa) egon zen eta han aurreratuago zeuden tresneria aldetik.

455. Ira etxerako zein saltzeko (MUX-034/017)

Ira zerrarekin (igitaia) ebakitzen zuten, gerora etorri zen kodaina. Metak eta satsa egiten zuten. Sats ugari egiten zuten, jada hori desagertzeaz dagoela dio. Ira ere bolantekadaka saltzen zuten.

456. Barberu Zugastietan (MUX-034/018)

11 urtegaz Zugastietan auzoan barberu lanetan aritu zen. Bizarra labainagaz kentzen zuten eta ilea makinaz eta artaziekin. Bertan bizi izandako hainbat kontu kontatzen ditu.

457. Abadearen salaketa faltsua tabernariari (MUX-042/004)

Ajuriako San Juanetan musika gaueko 12ak arte egoten zen alkatearen baimenarekin. Baina behin, abadeak tabernaria salatu zuen, baina salaketa faltsua izan zen. Gero, gerra etorri zen eta abade hori betiko gaixotu zen.

458. Lehen baino bizimodu hobea (MUX-042/008)

Grabazio egin zitzaionean, lehen baino bizimodu hobea zuela dio Isidrok. Nahiz eta eskolarik ez izan jendearekin berba egiteko sekula ez du izan arazorik.

459. Frontera joatetik libratu zen (MUX-042/009)

Gerra sasoiari, jeneralarekin berba eginda libratu zen frontera joatetik. Inguruko jendea, ostera, alde batetik bestera ibili zen astoa eta idi-uztarria hartuta.

460. Soldadutzara arte ez zekien gaztelaniaz (MUX-042/010)

Jende gehienak ez zekien gaztelaniaz. Isidro bera, soldadutzara joan aurretik, urtebete egon zen Karrantzan, eta bertan ikasi zuen zer edo zer, ordura arte ez zekien eta. Soldadutzara hiru egun berandu joan zen eta luzatu egin zioten egonaldia. Baina sekula ez ei zuen egin guardiarik. kapitainak begiko zuen. Oso bizkorra eta trebea zen. Bertako istorio bat kontatzen du. Euskaldunek fama ona zuten, langile fama soldadutzan zein Ameriketan.

461. Abadeen eta emakumeen aginpidea (MUX-042/012)

Lehen abadeek eta emakumeek gehiago agintzen zutela dio. Jesukristok kendu zion emakumeari aginpidea.

462. Bizimoduko aldaketak (MUX-042/014)

Nagusia izanda, sasoi horretako bizimodua egin behar dela uste du Isidrok. 1926. urtetik, Logroñetik, ez ei du ardorik edan. Soldadutza inongo dirurik jaso gabe egin zuen. Kapitainak begiko zuen eta gaztelaniaz ere moldatzen ikasi zuen bertan.

463. Aditz-erak I (MUX-042/016)

Aditz-morfologiako galderak. Elkarrizketatzaileak erdarazko galdera batzuk ematen dizkio itzul ditzan: "te he visto", "me han visto", "me habeis visto".

464. Aditz-erak II (MUX-042/018)

Aditz-morfologiako galderak. Elkarrizketatzaileak erdarazko galdera batzuk ematen dizkio itzul ditzan: "el te ha visto a ti", "ellos te han visto a ti", "yo os he visto a vosotros". Ostean, euskarazko esaldiak aditz barik esan zaizkio berak aditzak jar ditzan: "Nik zuori ikusi _____", "berak gu ikusi _____", "zuek gu ikusi _____"....

465. Aditz-erak III (MUX-042/019)

Aditz-morfologiako galderak. Elkarrizketatzaileak erdarazko galdera batzuk ematen dizkio itzul ditzan: "Yo le he traído a el un libro", "Nosotros a vosotros os hemos visto"; "nik hi ikusi hoat", "hik ni ikusi nok"

466. Aditz-erak IV (MUX-042/020)

Aditz-morfologiako galderak. Elkarrizketatzaileak erdarazko galdera batzuk ematen dizkio itzul ditzan: "El ayer me vio a mi", "el me vio ayer", "ellos me vieron a mi", "yo te vi a ti", "ayer el te vio ayer"

467. Aditz-erak V (MUX-042/022)

Aditz-morfologiako galderak. Elkarrizketatzaileak erdarazko galdera batzuk ematen dizkio itzul ditzan.

468. Hondartza zer zenik ere ez (MUX-042/024)

Gaztetan ez ziren hondartzara joaten, baserriko lanak egin behar izaten zirenetan. Mundakako hondartzatik obretarako harea ateratzen zutela du gogoan. Lehen hondartzak hutsik egoten ziren.

469. Sekula bizikletan ibili barik (MUX-042/026)

Sekula ez du errekan igeri egin Ajurian erreka txikiak baitaude. Bizikletan ere bi bider baino ez da ibili.

470. Okan bi fronteren artean (MUX-044/003)

Gerra Zibilean bi fronteren erdian egon ziren: Askari eta Bizkargi artean. Soldaduek jendea alde egitera behartzen zuten; baina, anaia txikia jaioberria zenez, ez zuten etxea utzi arriskuak arrisku.

471. Aita komunistekin frontera (MUX-044/004)

Bere aita frontera eroan zuten, komunisten Rosa Luxemburgo batailoira. Bilbo aldetik ibili ostean, Gasteiz inguruan harrapatu zuten; hala ere, libre utzi zuten. Aita gaixorik bueltatu zen etxera; hori dela-eta, umeak kutsa ez zitezen familiartekoen etxeetan banatu zituzten.

472. Okako okindegia (MUX-044/006)

Gerratean osaba bat hartu zuten etxean. Auzoan zuten Okako okindegia, garai hartako okindegi garrantzitsua leku askotan saltzen baitzuten ogia. "Okako Ogi Ola" kartela kendu eragin zioten euskarazkoa zelako.

473. Okan sortzen zen inguruetarako argia (MUX-044/007)

Okako okindegian inguruetarako argia sortzen zuten: urak turbinak mugitzen zituen eta dinamoak argia sortu; horrela, alanbre eta transformadore bitartez inguruetakoa auzo eta herrietara, Gernika-Lumoraino eta Mauma auzoraino heltzen zen.

474. Oka: errota auzoa (MUX-044/008)

Pablok beti ezagutu zuen argia etxean. Sikete sasoiak, urik ez zegoenez, ez zuten izaten. Oka auzoan hainbat errota egon ziren, errekek garrantzia zuten-eta: [Arbiñe], Olatxu, Panaderiko errota, Bekoerrota eta Ertzilla.

475. Zugastietako eskola (MUX-044/011)

Gerraostean, Oka auzotik Zugastietara joan ziren bizitzen. Gerra aurretik, sei urte zituela, arrebagoz batera joan zen Zugastietako eskolara. Eskola beterik egoten zen. Maistra Castrokoa zen. Hamahiru urtegar beharrean hasi zen. Zugastietako eskolan hainbat auzotako umeak batzen ziren: Oka, Esturo... Neskak eta mutilak bananduta zeuden.

476. Eskola erdaraz, dotrina euskaraz (MUX-044/012)

Jazinta Insausti maistra tolosarra izan zuten Zugastietako eskolan, guardia zibil baten semeagaz ezkonduakoa. Gorozikako abadea, don Felix, abertzalea

zen eta dotrina euskaraz ematen zien. Maistrak ez zuen holakorik nahi izaten, eta abadea joan orduko berriro hasten zen gaztelaniaz.

477. "Por Dios por la pata y el buey" (MUX-044/013)

Eskolan oinarrizko gauzak ikasten zituzten. Falangearen kanta goizero abestu behar izaten zuten. "Por Dios por la Patria y el Rey" esan beharrean, "Por Dios por la pata y el buey" entzun zion ondokoari Pablok eta sarritan zigortzen zuten.

478. Eskolako zigorrak (MUX-044/014)

Eskolan sarritan zigortzen zuten, hasieran abestu beharreko abestia txarto abestearren. Beste behin arreba defendatzearren zigortu zuteneko kontatzen du.

479. Eskolako inspekzioak (MUX-044/015)

Eskola-liburu denak Francoren aldekoak ziren, santu moduan tratatzen zuten. Eskolara ikuskatzaileak azaltzen zirenean, maistrak estutu egiten ziren. Behin, eskola utzi ostean, maistra bere bila joan zen eskolara joan zedin berriro ere.

480. Maistra Gernikatik trenez (MUX-044/016)

Zugastietako eskolan beti izan zuten maistra; Gorozikan, ostera, maisua. Maistra trenez heltzen zen Gernikatik. Eskolan ezkaratza (sukaldea) zegoen eta maistrak bertan jaten zuten.

481. Zugastietako zerrategiko hastapenak (MUX-044/023)

Zugastietako zerrategia beraiek sortu zuten. Hasieran arotz-tailerra baino ez zen. Zerrategiko hastapenak azaltzen ditu pasarte honetan. Fernando Etxeandiak ere bertan jarri zuen beste zerrategi bat. Zerrategian bertan lau pertsona inguruk egiten zuten behar, baina basoan jende gehiago zebilen. Batez ere eraikuntzarako ola egiten zuten pinuarekin.

482. Zerrategiko eta basoko lanak (MUX-044/028)

Basoko eta zerrategiko lanak eskuz egin behar izaten ziren. Enborrak askotan tatarrez eroaten zituzten idiek tiratuz. GMC kamioia erabiltzen zuten gero. GMCkada bakoitzean 5-6 metro kubiko sartzen ziren.

483. Lur jabeekin tratua (MUX-044/030)

Gorozikako herriak hainbat herri baso ditu, baina ez zitzaion egokitu horietan lan egiterik. Normalean, lur jabeekin egiten zuten tratua zuzenean. Hurrago edo urrunago, joan behar zen lekura joaten ziren.

484. Tratua etxeoandregaz; tasazioa (MUX-044/033)

Baserrian andreak agindu du beti, tratua beti andregaz egiten zuten. Basoa botatzen hasi orduko zati bat ordaintzen zuten eta bukatzerakoan bestea. Anaiagaz batera tasatzen zituen basoak: pinu kopurua eta metro kubikoak hartzen dira kontuan.

485. Gorozika eta Ibarruriko idazkaritza Zugastietako tabernan (MUX-044/047)

Bere aitari askorik gustatu ez arren, bere amak taberna jarri zuen beraien etxean, Zugastietako geltokiko etxean. Jende asko pasatzen zen bertatik.

Ibarruri eta Gorozika artean dagoenez, Udal biek bertan jarri zuten gela bat idazkariarentzat herritarrei erraztasuna emanez.

486. Taberna, denda eta jatetxea (MUX-044/048)

Bere amak tabernan prezio justuak zituen. Bakailaoa preparatzen ona ei zen. Jatetxe eta denda (baserriko tresnak batik bat) zerbitzua ere bazuten.

487. Zugastietan taberna ugari (MUX-044/049)

Zugastietan jateko-denda bat zegoen, Angelesena. Zugastietan 6-7 taberna zeuden: Irripa baserriko, Kamiñesarena, Melittonarena, Bittorinarena, Angeleserena, Pabloren etxekoa, Joakiñarena...

488. Ardoa Zornotza eta Bilbotik ekartzen zuten (MUX-044/050)

Pabloren etxean, Zugastieta auzoan, taberna zuten. Zornotzatik eta Bilbotik ekartzen zuten ardaa. Ibarruriko Antonio Sagasti Bilbora joaten zen errekadista eta handik ekartzen zien ardaa. Ardoa zen gehien edaten zena, beltza zein zuria.

489. Txikiteoan barik, mahai bueltan jesarrita (MUX-044/051)

Zugastieta auzoa ez zen txikiteorako auzo egokia. Jesarri eta jokoan aritzen ziren ardo pitxarragaz. Gernikan, ostera, bai egiten zen. Andrak etxean egoten ziren, ez ziren tabernara sartzen.

490. Bertsotarako debekuak (MUX-044/059)

Francoren sasoiari bertsotan egitea galarazi egiten zuten sarritan. Hala ere, zer edo zelan beti lortzen zuten aurrera egitea.

491. Bertso-saio zaharren testigu (MUX-044/060)

Inguruetan bertsolari ona asko egon dira. Bertsolari zaharren sasoiatik asko aldatu da bat-batean egiteko era. Xalbadorren txistu famatuaren testigu izan zen Pablo, besteak beste.

492. Deunoro: santu guztiak izen berean (MUX-045/001)

Bere izen osoa Deunoro Txaber da. Deunoro eta Txaber izenen jatorria azaltzen du. Urteberri egunez jaio zen, urtarrilaren 1ean. Hainbat izen desberdin izan zituzten gogoan bere etxekoek, eta izen denak batera jartzeko jarri zioten Deunoro, "Deun oro", santu guztiak batera. Izan bera duen pertsona bakarra ezagutzen du, bere besoetakoa den iloba.

493. Zubikoan jaioa (MUX-045/004)

Ariatza auzoko Zubikoa etxean jaio zen. "Fuenterrabia" izenez da ezaguna, baina, antza, izen hori berria da, gerora jarritakoa. Taberna zuten etxean. Bere aita zen bertakoa.

494. Amaren jaiotetxea jauregia izan zen (MUX-045/005)

Ama Usparitza auzokoa zuen, Urretxindorra bertsolariaren alaba. Amaren jaiotetxea jauregia izan zen antzina, Espainiako agintaria zen Cardenal Cisneros jaunak gaztelu guztiei dorrea kentzeko agindua eman zuen arte.

495. Ariatza: bertsolari auzoa (MUX-045/007)

Bere aita tabernako bertsolaria zen. Amaren familiakoak, Enbeitatarrak, ziren bertsolari ezagunak. Herrian hainbat bertsolari izan dira: Enbeitatarrak, Lopategi, Iturri...

496. Euskal Herriko lehen bertso-eskolaren sorrerako arazoak (MUX-045/008)

Euskal Herriko lehen bertso-eskola bere etxeok sortu zuten: Garriko. Bere osaba, Pedro Ajuriagojeaskoa, izan zen horren sustatzailea eta taberna zuenez, tabernan batzea onartu zuten. Gerraostea zenez, galarazita zegoen eta arazo asko izan zituzten, osabari taberna zarratu baitzioten. Deunororen etxea ere miatu zuten bertso-eskolako hainbat paper zituelako.

497. Bertso-saiorako Guardia Zibilaren baimena (MUX-045/010)

1966. urtean Gernikan bertso-eta bat antolatu zuten, eta Guardia Zibilaren baimena behar zuten. Bertsolari guztien izen-abizenak behar zituzten. Baimena lortzeko traba asko jarri zituzten. Estualdi horretan, 15 egun pasa zituen Bermeon bertako ontzi batean erdi ezkutatuta.

498. "Garriko" izenaren zergatia (MUX-045/012)

Bertso-eskolari "Garriko" izena zer dela-eta jarri zioten azaltzen du.

499. Txakolinetan herririk herri bizikletaz (MUX-045/013)

Gaztetan txakolinetan joaten ziren batetik bestera bizikletaz, Gasteizeraino joan izan ziren. Behin Eako txakolindegia batean eta beste hainbatetan gertatu zitzaiena dakar gogora.

500. Mutil artean beti, andrazkoa zer zen jakin barik (MUX-045/014)

Herririk herri txakolinetan herriko 14 gizon inguru ibiltzen ziren, emakumezko barik. Soldadutzatik bueltatu arte ez ei zekien andren inguruan ezer ere ez.

501. Hasierako bertso-eskolak eta saioak (MUX-045/016)

Beraiek sortu zuten lehen bertso-eskola. Gero, Azpeitiko bertsolariak bide bera hartu zuten. Lehen doinu gutxi batzuk baino ez zituzten erabiltzen, ez du zerikusirik gaur egungoarekin.

502. Eskolara hasi orduko irakurtzen zekien (MUX-045/019)

Ariatza auzoko eskolan zazpi urte bete aurretik lehen hasi zen. Gauero Grimm anaiei ipuinak irakurtzen zizkien amak, eta eskolara hasi orduko polito zekiten irakurtzen. Hori dela-eta, bera baino nagusiagoi irakasten zien.

503. Ariatzako eskolako argazkiak eta ikasle-zerrenda (MUX-045/020)

Ariatza auzoko eskola auzotarrek eraiki zuten, etxean ditu bertako ikasle guztien zerrenda eta hainbat argazki eta horietako asko ikus daitezke grabazioan. Lehen ikasturtean 7-14 urte bitarteko 46 neska-mutiko batu ziren.

504. Ariatzako lehen eskola (MUX-045/021)

Ariatza auzoko lehen eskola mutilena izan zen, eraikin hori agertzen den argazki zaharra du esku artean Deunorok. 1924. urtean sortu zen eskola eta orduko ikasle-zerrenda ere badu. Elizalde auzoko eskolako 1954. urteko argazki bat ere erakusten du bertako ikasleen izenekin batera.

505. "Letraue": Bilbora ikasten joan zen lehena (MUX-045/023)

Ariatzako eskolako dokumentu zaharretan sasoi hartako alkatea eta juntako idazkaria azaltzen dira. Idazkariari "letraue" esaten zioten, bera izan baitzen Ariatzako auzunetik Bilbora ikasten joan zen lehena.

506. Eskolako gurasoen sinadurak (MUX-045/024)

Ariatzako eskolako sorreran parte hartu zuten gurasoek sinatutako paperak erakusten ditu.

507. Deunoro izatetik Santos izatera (MUX-045/025)

Eskolako "cuadernos de limpio"ak erakusten ditu, diktaketetako erabiltzen zutena. Santos Sarduy bezala sinatu behar izaten zuen, euskarazko izenen debekua tarteko.

508. Nesken maistra gogorra (MUX-045/028)

Maistra gasteiztarra izan zuten mutilek Ariatzako eskolan, doña Dolores. Nesken maistra oso gogorra zen, berarekin izandako gertakizun bat kontatzen du.

509. Abadeak josteko makina ostu (MUX-045/029)

Gorozikako familia batean gertatutako kontatzen du. Bertako amak josteko makina bat zuen eta errekisatu egin zion. Semeak, Jonek, abadearen kamaran (ganbaran) aurkitu zuen makina hori beste askoren artean; amari esan eta abadeak belarrondoko itzela eman zion. Hala ere, azkenean, amak berreskuratu zuen berea zena.

510. Seminarioko zigorrak (MUX-045/030)

Latinez edo gaztelaniaz ikasteko dena ikasi behar izaten zuen buruz, ez baitzuen tutik ulertzen. Seminarioan euskaraz egiteagatik beti egoten zen zigortuta. Abade batek "desgraciado" deitu zion eta amak hasieran ez zion sinistu. Arteako seminarioan egon zen.

511. Erdaraz ez zekielako txarto ikusia (MUX-045/032)

Seminarioan txarto ikusia zen ez zekielako gaztelaniaz eta gorriak ikusi zituen hori dela-eta.

512. Seminariotik etxera bidali zutenekoa (MUX-046/001)

Arteako seminariotik irteteko gogoia zuen Deunorok berak, baina bertan egindako zerbaitek bideratu zuen irteera, ez bere nahiak. Komunean "Petalanda, surre janda" (Petalanda, sudurra janda) idatzi zuen bertako lagun bati erreferentzia eginez. Gero Deriokora joan zen, beste hainbat bertsolarirekin batera.

513. Eskolako ariketak eta arazoak (MUX-046/005)

Eskolan diktaketak eta matematika-ariketak lantzen zituzten doña Doloresekin. Erdaraz idazterakoan ortografia zalantzak izaten zituzten. Eskolako liburuez gain, kartak idazteko liburuxka bat ere bazuten. Arbela eta arbel-ziria (pizarrina) izaten zuten. Eskolako mutil batek oso-oso ondo margotzen zuen.

514. Auzo bakoitzaren ezaugarriak (MUX-046/006)

Ariatzan bere emaztearen izeko bat dago beatifikatuta. Usparitza auzoko ermitako Jesu Kristo biluzik dago, barrabilak-eta bistan dituela. Auzo bakoitzak bere ezaugarriak ditu: dorreak, errotak, ermitak...

515. Usparitzako San Migel San Isidro baino zaharragoa da (MUX-046/007)

Usparitza auzoko jaieguna San Isidro da, baina berez San Migel da. Antzinako istorio batean dago ospakizun horren jatorria eta horixe bera azaltzen digu Deunorok. Gaur egun ere bi egun horietan ematen da meza.

516. Umetako olgetak (MUX-046/011)

Ariatzako kaminoa oso estua zen eta bertan aritzen ziren olgetan. Zertan jolasten ziren azaltzen du. Pospolo-kaxa bila Gernikara joaten ziren futbol-partiduetako hondarrak batuz. Ixerka, tronpaketan, "vuelta de España", txirloka, intxaurrekin...

517. "Vuelta de España" oinez (MUX-046/012)

Bizikletarik ez zuten, baina "Vuelta de España" oinez egiten zuten. Lasterketa horren sasoia zenean, etapak elizari bueltaka burutzen zituzten. 22 etapa ziren eta egunerorako denbora-pasa izaten zuten.

518. "Taparrabos" a jantzita errekarara (MUX-046/013)

Udan, jolas-orduan, "taparrabos" a jantzita joaten ziren errekarara. Doña Petra maistrari zantarkeriak egiten zizkieten. Neskak ez du uste joaten zirenik.

519. Pilotan (MUX-046/015)

Pilotan aritzeko pilotak erosi egiten zituzten. Julio Onaindia gernikarragaz jolastu zuen askotan pilotari handien kontra.

520. Bertsotan hasi zenekoa (MUX-046/019)

Bertsotan zelan hasi zen berak ere ez ei daki oso ondo. Lehen saioa beraien eskolako maistraren senarraren bitartez egin zuen. Hurrengo batean, Natxituko (Ea) Santa Agedatan jakin zuen lehenengo bertsoaren bukaera pentsatu behar zela Uztapidek esanda. Gerora, Uztapide eta Basarrirekin Lekeition bertsotan egin zuenean, Uztapidek asko ikasi zuela esan zion.

521. Lopategik beste bertsokera bat zuen (MUX-046/020)

Lopategi beraiek baino beranduago hasi zen bertsotan. Kanpoan egon zen ikasten eta etxera hogeita piku urterekin etorri zen; orduan hasi zen bertso-eskolan. Ikasketak zituenez, beste bertsokera bat erabiltzen zuen honek, beste kategoria batekoa.

522. Bertsotan egin aurretik jakin beharrekoen garrantzia (MUX-046/021)

Mungiako Taket-egaz eta Ermuko "Etxain" egaz asko ikasi zuen. Gipuzkoan herririk herri asko ibilitakoak ziren eta ondo ikasi zuten beraiek irakatsi zien lez, bertsotan egin aurretik herriko eta herritarren berri jaso behar zela.

523. 'Txotxo Jeuri' tabernazalea (MUX-046/022)

Bere aitita, Urretxindorra, ez zen tabernako bertsolaria. Haren aita, Txotxo Jeuri, ostera, taberna zuloan egotekoa izaten zen. Behin apustu bat tarteko zela, astelehenetik zapatara arte egon ziren tabernan.

524. Aitite eta neba-arrebak ez ziren tabernazaleak (MUX-046/023)

Bere amaren aldeko aitite Urretxindorra bertsolaria izan zen. Bera eta bere neba-arrebak ez ziren tabernazaleak. Behin bere aititek, Pedro Jeuri auzokoentzat, ardoa eskatu zuen eta denak begira izan zituen.

525. Aitite Euskal Herri osoko bertsolaria (MUX-047/001)

Bere aitita bertsolari legez mitinlari bezala ere aritutakoa izan zen. Euskal Herri zabalean aritzen zen eta tokian tokiko euskara erabiltzen saiatzen zen. Urretxindorra ezizena zer dela-eta jarri zioten azaltzen du. Arrospide medikuarekin asko ibiltzen zen, eta behin bidean buelta hartu zuen herritarrekin zuen ardura zela-eta.

526. Dolores Ibarruriren abizenaren jatorria (MUX-047/002)

Ajuria auzoan kitanuak egoten ziren. Arrospide medikuak haietako bat artatu zuen behin, umea izatekotan zegoela. Kitanuei medikuak baldintza bat jarri zien, umeari abizen bezala herri horretako izena jartzea: Ibarruri (Ibarruri udalerria baitzen Muxikarekin bat egin aurretik, eta Ajuria bertako auzoa). Ume horren ondorengo Dolores Ibarruri zela diote. Bere aititek, Urretxindorrek, bertso batzuetan ere istorio bera kontatu zuen.

527. Kitanuak Muxikan (MUX-047/003)

Inguru hauetan agertu ziren lehen kitanuak nafarrak ziren. Muxikan Zubizabalen eta Elizalde inguruan ere egoten ziren, Besangizerako bidean.

528. Desadostasunak gipuzkoarrekin (MUX-047/010)

Gernika-Lumon antolatutako bertsoketa batean, baldintza bakarra hauxe izan zen: epaimahaikideak bertsolariei lepoa ematea eta puntuazioa kartel bidez ematea. Gipuzkoarren eta gainerakoen artean alde handia zegoen. Bere ustez bertsolariari kantatzeko era baino gehiago puntuatu behar zaio.

529. Bilboko alkatea siestan zegoela-eta, ezin kantatu (MUX-047/011)

Lehen ez zegoen bertsolari edo bertsozale elkarterik, erabakiak txapelketetan hartzen ziren. Bizkaiko bigarren finalean, Bilboko Areatzan (Arenalean) ospatutakoan, Bilboko alkatea, Kareaga andrea, siestan zegoela eta Guardia Zibila joan zen. Hainbat tokitan ospatu izan dira Bizkaiko finalak.

530. Umetako gerrako akorduak (MUX-047/014)

1934. urtean jaio arren, gerrako kontuak ezagutzen dituzte. Sasoi hartan Bilbon egon zen, bertara joan baitziren ihesi. Oraindik gogoan du hura. Ez zuen oso ondo ulertzen abioien etorrera eta sirenen hotsa.

531. Bi urtez ebakuatuta; etxea erdi suntsituta (MUX-047/015)

Bizkaiko frontean nazionalak sartu zirenean, etxetik alde egin behar izan zuten. Beraien etxea erreta aurkitu zuten bueltatzerakoan, ezkutuan izan zituzten koltxoi batzuk baino ez zituzten aurkitu. Bizkargiko fronteak bederatzi hilabete iraun zuen eta beraiek bi urtez egon ziren kanpoan.

532. Gerraostean apurka-apurka aurrera (MUX-047/016)

Gerraostean azukrea barik sakarina izaten zuten eta amamak ezkutatu egiten zien dena jan ez zezaten. Hala ere, jateko falta handirik ez zuten, amaren jaiotetxetik edo beste etxe batzuetatik jasotzen zituzten jakiak-eta. 14 urte zituela hasi zen beharrean.

533. Aita, izeko, osabak... preso (MUX-047/017)

14 urte zituela hasi zen beharrean, aita oraindik kartzelan zela. Aita, hainbat osaba eta izeko bat izan zituen preso. Izeko hori gaixotu egin zen eta urte gutxira hil zen, bigarren umea izan ostean.

534. Norbere hilobia zularazi (MUX-047/019)

Ezer egin gabekoak hil zituzten gerran. Hainbaten kasuan, beraiek zulatu behar izan zituzten euren hilobiak. 8 urte zituen mutiko batek dena ikusi zuen eta sekula ez zuen kontatu non lurperatu zituzten.

535. Denetariko kartzela-zigorak (MUX-047/022)

Bere senitartekoak Santoñako kartzelan egon ziren, 1.200 preso inguru ziren. Gudari gehienek pare bat urte egin zituzten bertan. Beste asko, karguren bat zutenak batik bat, denbora gehiago egoten ziren. Alkatearen oniritzia behar izaten zuten askok askatasuna lortu ahal izateko.

536. Ikastolaren hastapeneko buruko minak (MUX-047/024)

Gernika-Lumoko Seber Altube ikastolaren hastapenak gizarte-etxean daude. Herriak eraikitako eraikina zen, baina eliza jabetu zen. Jose Antonio Arana Martijak, Seber Altubek, Andone Ortuzarrek... parte hartu zuten sorrera hartan. Bi urtez egon ziren batetik bestera bueltaka baimena lortzeko, eta ez zen bide erraza izan.

537. Ikastolaren sorrera (MUX-047/025)

Pedro Omaetxebarria abadearen laguntzaz lortu zuten Gernika-Lumoko gizarte-etxean ikastola jartzea. 14 ume batu zituzten bi egunetan. Seber Altuberen izena jartzea erabaki zuten orduan. Bigarren ikasturtean 24 ume inguru batu zituzten. Lehen andereoa Pili Alberdi izan zen. Kurtsoa gainditzeko azterketak erdaraz egin behar izaten zituzten eskola publikoan, oso emaitza onekin gainera. Hirugarren urtean banaketa bat sortu zen ikastola barruan eta laugarrenean utzi egin zuen batzordea.

538. Gizarte etxetik gaur egungo eraikinera (MUX-047/028)

Ikastolako lehen ikasturtean 14 ume egon ziren eta hirugarrenerako berrogeitik gora. Azkenean Udalaren laguntzarekin gaur egungo eraikinera joan ziren.

539. Euskarazko gau-eskolak (MUX-047/029)

Ezkondu orduko euskarazko gau-eskolak ematen zituen gizarte-etxeko tabernan. Goiz-zale mendi taldearen izena ere berak erabaki zuen. Seber Altubek utzitako Josetxo liburuarekin ematen zituen gau-eskolak; liburu horren nondik-norakoak azaltzen ditu. Bertako ikasle batzuk banketxeetan kontratatu zituzten.

540. 'Alper' ezizena aldizkarietan idazterakoan (MUX-048/002)

Deunorok beti idatzi izan ditu ipuinak, aldizkarietan. Karmel, Zeruko Argia, Goizargi... aldizkarietan idazten zituen gaztetako ibileren kontuak. Euskal Herriko lurralde desberdinetako jendearekin izan du hartu-eman. Alper ezizena erabiltzen zuen idazkUNETAN.

541. 'Brisas guerniquesas' eta 'Sirimiri zornozano' herri-aldizkariak (MUX-048/004)

Aldizkarietan idazterakoan Alper ezizena erabiltzen zuen. Mota desberdinetako artikuluak idazten zituen. 'Brisas guerniquesas' eta 'Sirimiri zornozano' herri-aldizkarietan idazten zuen. 'Sirimiri zornozano'ko lehen orria berak idazten zuen hilabetero.

542. Euskara hutsezko aldizkariak (MUX-048/007)

Sirimiri zornozano Zornotzan argitaratzen zen, eta Brisas guerniquesas Gernika-Lumon. Euskara hutsezko aldizkariak ziren. Argia aldizkaria Arantzazun argitaratzen zen era klandestinoan. Santi Onaindiaren zuzendaritzapeko Karmel aldizkaria Larrean (Zornotza) ateratzen zen.

543. Neska-lagunarekin ezin ezer egin (MUX-048/008)

Neska-lagunarekin Gernikako Tiloetatik paseatzea larria ei zen, eskutik elkarri oratzearekin nahikoa zuten. Musu ematen ahalegintzea ere bekatu zen. Dena konfesatu behar izaten zuten. Deunorok Ariatzako abadeak zeintzuk ziren azaltzen du.

544. Neska-lagunaren berri etxean (MUX-048/010)

Amari neska-lagunarekin hasi bezain pronto kontatu zion. Ez zion grazia askorik egin emaztegaiak lantegian lan egitea, agian etxekoandre moduan ez zuelako balioko-edo pentsatzen zuelako. Martitzen batean ezkondu ziren.

545. Irratirako testuak eta grabaketak (MUX-048/015)

Bere gazte garaiko lehen beharretako bat irratirako testuak idaztea zen. Radio Bilbaorako eta Mungiako irrati batentzat idazten zuen. Mungiako irrati horren inaugurazioan parte hartu zuen, baina pare bat urte baino ez zituen iraun. Hilabetean behin Loiola irratirako grabazioak ere egiten zituzten Fuenterrabian, bere jaiotetxean. Etxean zuten irratia berak egin zuen. Radio Maymoko ikastaro batean ikasi zuen jakin beharrekoa, 2.000 pezeta ordaindu zituen ikastaroagatik.

546. Soldadutzan morse ikasi zuen (MUX-048/016)

Radio Maymon egindako ikastaro batek, soldadutzarako ere balio izan zion. Transmisioetan morse kodigoa ikasi zuen. Zelan ikasi zuen eta zein frogazaten zituzten azaltzen du. Azterketako emaitza onena berak lortu zuen.

547. Soldadutzan lantegian baino gehiago irabazten zuen (MUX-048/017)

Soldadutzako transmisioen atalean morse ikasi zuen. Azterketako emaitza onena atera eta hurrengo destinoa aukeratzeko eskubidea eman zioten. Getafera joatea gomendatu zioten eta bertara joan zen. Soldadutzan Gernikako Idiga lantegian baino gehiago irabazten zuen. Radio Primeran 1,5 pezeta irabazten zituen, destakamentuan 2,5, eta gero 6,5 eguneko. Sarjentuak 5 pezeta irabazten zituen.

548. Amuma diruaren arduradun (MUX-048/019)

Soldadutzan sarjentuak baino gehiago irabazten zuen. Bere etxeko dirua bere amamak administratzen zuen; beraz, baita berak soldadutzan irabazitakoa ere.

549. Lantegiko dirua amarentzat, bertsoakoa beretzat (MUX-048/022)

Dirurik gehien soldadutzan izan zuen, etxean zegoela irabazitako guztia amari eman behar izan zion-eta. Bertsoan irabazten zuena berarentzat izaten zen. Bertsoan gehien kobratu zuenean, 300 pezeta jaso zituen, lantegiko astebeteko jornalaren bikoitza.

550. Bertsolarien jorna (MUX-048/023)

Bertsolariei Udalek ordaintzen zien. Busturialdeko txapelketa irabazi zuenean, 1.000 pezeta jaso zituen. Bizkaiko finalean lehenengoak 1.500 pezeta irabazi zituen eta bigarrenak eta hirugarrenak 1.000; berak hirugarren postua lortu zuen. Lantegian 10 ordu lan eginda, asteko jorna 74,40koa zen. Diru hori amari ematen zion. Hurrengo batean, lehenak 3.000 pezeta jaso zituen eta bigarrenak 2.000; berak orduan bigarren hori eskuratu zuen. Bigarren postu horren sariaren erdia baino ez zion eman amari.

551. Gaztetako gastuak (MUX-048/024)

Bizkaiko final batean bigarren gelditu ostean, 2.000 pezeta irabazi zituen. Amari erdia eman zion eta beste erdia bere gastuetarako gorde zuen. Txakolinetara joaten zirenean, nahiko diru gastatzen zuten.

552. Amak eta amamak zuten diruaren ardura (MUX-048/025)

Irabazten zuen dirua amari eman eta amak behar zuenean ematen zion. Hortik aurreratzen zuena amamari eman eta hark gordetzen zion. Amak diru hori beharrezkoa zuen 8 seme-alaba aurrera ateratzeko. Gaur egungo gazteek ez dute horrelakorik ezagutu. Bere neba-arreba gazteek ere ez zuten etxean entregatu beharra izan.

553. 'Alejo Mungia' eskalea Okako Torrebarin (MUX-048/027)

Karmel aldizkarirako ipuinak idatzi zituen. Ariatza inguruko kontuak-eta idatzi zituen. Somorrostro aldeko meategiak zarratu zituztenean, langabezian gelditu zen Mungiako Alejo, Alejo Mungia, eskean aritzen zen. Oso argia zen eta bazekien zein baserritara joan eta noiz (txerria hiltzerakoan...). Oka auzoko Torrebarin gertatutako anekdota bat kontatzen ditu.

554. "Alejo Mungia" eskalea Usparitzan (MUX-048/028)

"Alejo Mungia" eskean aritzen zen etxerik etxe. Oso argia zen eta bazekien zein baserritara joan eta noiz. Behin Usparitza auzoko bizilagun batekin bizi izandako anekdota kontatzen du.

555. Fuenterrabia taberna (MUX-048/031)

Zornotzatik Gernika-Lumo aldera joaten ziren mutil edo gizon guztiak beraien osabaren Ariatza auzoko tabernan egiten zuten geldialdia. Asko bete-bete eginda agertzen ziren, txikiteo ostean azaltzen baitziren bertara.

556. Eperlanda eta "Erronda sastaia" (MUX-048/035)

Eperlanda erromeria tokia zen. lehenago Zugastietan batzen ziren. Handik Usparitzarako bidean "Erronda sastaia" zegoen.

557. Zahagi mutilen irudia (MUX-048/037)

Ariatzako zahagi mutilen koadro bi erakusten ditu. Inzunza margolariak egindakoak dira.

558. Eperlandako irudia (MUX-048/038)

Inzunza margolariak egindako Eperlandako koadro bat erakusten digu horri buruzko azalpenekin batera.

559. Asier eta Amaia "Amaia o los vascos en el siglo VIII"n (MUX-049/007)

Navarra Villosladaren "Amaia o los vascos en el siglo VIII"n Asier eta Amaiaren ipuina aipatzen da. Asierren jatorria judutarra ei da eta hor kontatzen dena kontatzen digu Deunorok.

560. Zahagiaren hiletaren jatorria 1889an (MUX-049/013)

Muxikako Ariatza auzoko jaietan, iraileko Santa Kurtzetan, urtero ospatzen da domekaz "Saragixen intierrue" herri antzerkia 1889. urtetik. Ospakizun ospetsu horren jatorria azaltzen du. Hileta 1921an egin zen lehen aldiz.

561. 'Aureskua' liburua (MUX-049/020)

Aureskua izeneko liburua argitaratu zuen Deunorok elkarrizketa hau egin baino arinago. Liburuko eduki asko jendeak ez ei ditu ulertu eta hori azaltzen du, zer den aureskua: arrak emeari egiten dion demostrazioa. Matriarkatuko oinarriak ere aipatzen ditu.

562. Bizkargin lehen aldiz ikurrina berak jarri zuen (MUX-049/025)

18-19 urte zituela, Gernikako Idiga lantegian zebilela beste lankide bategaz ikurrina eustekoa egin zuen. Bizkargi mendira igo eta teilatuan ikurrina jarri zuten bertako jaiegunean, guztiz galarazita zegoen sasoian. Ikurrina tente jarri zenean, Guardia Zibila agertu zen pinu artetik. Josu Mota izan zen bere lankide hori.

563. Okako Itziar maistra (MUX-051/002)

Oka auzoko "panaderixen" Itziarrek zuen eskolara joan zen. Gerra denboran, Ibarra auzoko Ibarlatxu etxearen ondoko zubipean egon ziren gau batean. Behin abade batek horrela eskatuta etxean izan zuten ezkutatuta. Eskolako maistra Gernikara joan zen beranduago eta Gloriak beregana joatea erabaki zuen, bizikletaz joaten zen.

564. Okako eskolara eta Zugastietako estankora oinez (MUX-051/006)

Oka auzoko okindegian jaso zituen eskolak, Etxera bueltan bertatik ekartzen zuen errazionamenduko ogia. Zugastietako estankora tabako-orri bila joaten zen. Zugastietara zein Okara oinez joaten zen.

565. Don Juan medikua zaldiz ibiltzen zen (MUX-051/007)

Gernikara bizikletaz joaten zen. Umeak jaiotzerakoan ere, Muxikako Astelarra don Juan medikua zaldiz etortzen zen. Berak etxean izan zituen 6 seme-alabak partera barik.

566. Inguruko erromeria guztietara oinez (MUX-051/010)

Erromerietara oinez joaten ziren. Gari sasoian, gari-lanak arrapaladan egiten zituzten erromeriara joan ahal izateko. Ibarruri, Ajuria, Mendata, Ariatza, Zugastietara... joaten ziren. Zugastietan Serafin egoten zen soinua jotzen eta asteburuetan hara joaten ziren. Soltean zein "agarrauan" aritzen ziren.

567. Inguruko auzoetara baino ez ziren joaten (MUX-051/015)

Normalean mutilek eskatzen zien dantzan egiteko neskari. Ezezagunei ez zieten kasu askorik egiten. Gernikara eta Zornotzara ez ziren joaten, ez zuten horrelako pentsamendurik ere izaten.

568. Umetako jolasak (MUX-051/017)

Tabaka, fidoka, sokasaltoan... jolasten ziren umetan. Mutilekin ere aritzen ziren. Jolasak eta kantak erdaraz izaten ziren, galarazita baitzegoen euskaraz egitea; hala ere, euren artean euskaraz egiten zuten beti. Bere ahizpa Edurne da, baina askok Nieves esaten zien.

569. Dotrinara Ajuriara (MUX-051/025)

Gloriaren jaiotetxea lehen Ibarruri zen udaletxez, gaur egun, osteria Muxika; hala ere elizaz Ibarruri izaten jarraitzen dute. Dotrina Ajurian auzoan jaso zuen don Bonirekin, gozokiak ematen zizkieten. Bi dotrina mota zeuden: handia eta txikia. Domeketan edo jai egunetan joaten zen.

570. Gerraostean jateko faltarik ez (MUX-051/028)

Gerraostean eskolara joan zen. Ez zuten jateko faltarik izan baserrian, baina larregirik ere ez zuten. Ogia etxeko labean egiten zuten; 8 bat ogi asteko.

571. Ogia, taloa eta morokila egiten (MUX-051/029)

Ogia zelan egiten zuten azaltzen du pasarte honetan. Etxeko mahaiaren bueltan asko batzen ziren. Taloa eta morokila ere jaten zuten. Platerik barik denek jaten zuten leku beretik.

572. Indaba, eguneroko jatordu (MUX-051/031)

Indaba, urdaiarekin, odolostagaz, txorizoagaz, porruagaz... jaten zuten. Ia egunero jaten zuten hori.

573. Iberlatxuko errotara (MUX-051/032)

Irinetan Iberlatxuko errotara joaten ziren. Han eroandako jeneroaren zati bat kentzen zien ordainsari bezala.

574. Argindarra eta ura (MUX-051/034)

Galdara zabal batean iturritik ekarritako uretan garbitzen zuten beraien burua. Argia Oka auzoko zentraletik hartzen zuten hasiera batean.

575. Komuna (MUX-051/036)

Komuneko paperik ez zegoenez, egunkaria erabiltzen zuten. Etxe aurreko txabolatxu batean zuten komuna, harri handi baten gainean; bertako kaka atera behar izan zen garbituta. Dutxa ezkondu ostean jarri zuten. 18 urtegar izan zen ama.

576. Aita ezkontzeko Ameriketatik bueltatu (MUX-053/002)

Ama Besangizkoa eta aita Mungiakoa. Ameriketara zen orduan aita, baina amak ezkontzeko Euskal Herrira itzultzeko agindu zion. Hamar seme-alaba izan zituzten.

577. 3. solairutik lurrera erori (MUX-053/005)

Frontea zela eta, Mungian eta Bilbon ere bizi izan ziren Jon, gurasoak eta arrebak. Bilbon bizi zirela, 3. solairutik erori zen Jon beheraino, eta berrogeita zortzi orduz konorterik gabe gelditu zen. Hiru arreba zaharrenak Iparraldera joan ziren bizitzera, hango laguntzak zirela eta.

578. Gernikako bonbardaketa estolda-zuloan (MUX-053/007)

Gernikako bonbardaketa gertatu zenean, estolda-zuloan ezkutatuta egon ziren, ilunpean. Gauean, Gernikako sua ikusten zuten herritik. Txikituta utzi zuten dena.

579. Azpeitiko maistra (MUX-053/009)

Gerraosteko eskolara joan zen Jon. Azpeitiko maistra zuten, eta neskak eta mutilak bananduta egoten ziren. Maistra euskalduna bazen ere, erdaraz egiten zien. Behin Jon zigortu egin zuen hizketan ari zelako.

580. Eskolan "viva España!" oihukatu behar (MUX-053/010)

Neskek beste maistra bat zuten. "Viva España" esan behar izaten zuten eskolara sartu orduko.

581. Fraidetzarako ikasketak Tolosan (MUX-053/012)

Sei urtez egon zen herriko eskolan, eta ondoren Tolosara joan zen fraide ikasketak egitera. Hamar urtez egon zen han. Oporrik ez zuten bertan. Urte gogorak ziren haiek, eta lehenengo hiru urteetan gosea pasa zuen.

582. Fraide-eskolatik ezin etxera idatzi (MUX-053/013)

Fraide eskolan oporrik ez zutenez izaten, bost urtean ez zen etxera itzuli. Gurasoak joaten ziren urtean pare bat aldiz bisitan. Gutunak erabat kontrolatzen zituzten eskolan, bidalitakoak eta baita jasotakoak ere. Hasiera batean dena erdaraz egiten zuten, baina gero familia abertzaleetako semeak elkartu eta euskara lantzen hasi ziren.

583. Hamar urteren buruan, etxera (MUX-053/015)

Fraide-eskolan batxiler moduko bat ikasten zen bost urtez, eta gero filosofia eta teologia ikasi zituzten. Hogeita bi mutikotatik bost gelditu ziren eskolan Jonen alde egin zuenean.

584. Donostian Francoren goardietan (MUX-053/016)

Fraide-eskolatik atera eta soldadu joan zen Jon. Urterik onenak izan omen ziren, aske sentitzen baitzen. Francoren goardiak egiten zituen bere taldeak.

585. Etxean esku zabalik hartu zuten (MUX-053/017)

Fraide-eskolatik bueltan, etxean irrifartsu jaso zuten, esku zabalik.

586. Maltan egotetik Apatan pentsua saltzera (MUX-053/018)

Soldadutzatik bueltan Maltara joan zen. Bost urte eman zituen Italian. Han zebilela, bertsotan hasi zen, eta 1962an Bizkaiko txapeldun izan zen. Handik gutxira, Durango ondoan Azpillagarekin bertsotan ari zela, pentsua saltzen aritzeko eskaintza egin zioten.

587. Lehen bertsoak soldadutzan (MUX-053/020)

Soldadutzako kanpamendu batean zeudela, larunbat gau batean bertsotan hasi ziren. Hernaniko eta Aiako bi gizoni bertsotan erantzuten hasi zitzairen orduan. Soldadutzatik bueltan, koplaka hasi eta larunbat arratsetan tabernetan bertsotan hasi zen beste hainbatekin.

588. Bizkaiko txapela lehen aldiz (MUX-053/022)

Anaia eta osaba Ameriketatik bueltatu ziren eta Mungiako kanporaketan parte hartzeko konbentzitu zuten. Irabazi egin zuen. Gernikako finalurrekoan, berriz, ez zen sailkatu. Sailkatu ez izanak amorratuta, hurrengo urtean parte hartu, eta Bizkaiko txapela irabazi zuen 1962an.

589. Bizkaiko Txapela beste hiru aldiz (MUX-053/023)

1964. urtean Ondarroan txapela irabazi zuen, eta 67an Durangon ere bai. Urte batzuetan ez zen Bizkaiko Txapelketarik egon, baina 87ko txapelketan ere garaile izan zen. Euskaltzaindia izan zen txapelketa haietako antolatzaile.

590. Bertsolaritza Francoren garaian (MUX-053/024)

Francoren garaian bertsotan aritzeko aukerarik ez zuten izan, eta prestakuntza asko mugatu zuen horrek urte haietan. Bizkaia mailan Azpillaga eta Mugartegi zebiltzan.

591. Azpillagarekin plazaz plaza (MUX-053/026)

Hasiera batean Iturri bertsolariarekin hasi zen bertsotan, baina gero Azpillagarekin hasi eta leku gehienetan elkarrekin aritzen ziren bertsotan. Urte batean 150 plaza egin zituzten elkarrekin.

592. Bertso saio gehienak Goierri (MUX-053/027)

Jonen autoan joaten ziren bertso saioetara. Mutrikun Azpillaga jaso eta Goierri aldera joaten ziren, saio gehienak Gipuzkoan baitziren.

593. Goierri eta Txorierri, bertso saioetan pareko (MUX-053/029)

Bizkaian Txorierri aldean egiten zituzten bertso saio gehienak. Gipuzkoako Goierriren pareko.

594. Astebete preso, isuna ez ordaintzeagatik (MUX-053/031)

Saio gehienak librean egiten zituzten, gaiak batez ere bazkarian edo bazkalostean izaten ziren. Bertsotan esandakoarekin kontuz ibili behar zuten. Behin astebete pasa zuen preso, bertso saioagatik jarri zioten isuna ez ordaintzeagatik.

595. Txapelketarik ez denbora batean (MUX-053/033)

Bizkaiko Txapelketarik ez zen egin 60. hamarkadatik 89ra arte. Euskal Herrikoa 86an ospatu zen. Lizasok irabazi zuen txapela. 89koan, aldiz, Jonek.

596. Buruz burukorik ez egitea erabaki (MUX-053/035)

1982an, aurretiaz ez egitea adostu bazuten ere, Txapelketa Nagusiko bi finalistekin buruz burukoa egitea erabaki zen. "Aizak hi mutil mañontzi" kantatu zuen.

597. Doinu berriak Amurizak ekarri (MUX-053/037)

Doinu berririk ez zen egoten garai batean, Amuriza izan zen berritzaileena arlo horretan. Neurriei dagokienez, zortziko handia erabiltzen zen batez ere.

598. Bittor, Lopategi bertsolariaren aholkulari (MUX-057/002)

Pentsu saltzen ibiltzen zen Lopategi, eta hilean behin bisita egiten zion Bittorri. 1964an ezagutu eta lagun egin ziren. Aberasgarria zen harekin egotea. Denetatik zekien, aberatsa zen sentimentuz eta jakituriaz. Bertsotan eten barik hasi zenean, gustatzen zitzaion politikaz eta abar janztea, eta

horretarako aholkularirik onena Bittor zuen. Bisitatu ere askotan horregatik egiten zuen, halako edo bestelako gertaera aztertzeko eta interpretatzeko.

599. Hamalau urteko mutikoa Bittorren baserrian trebatzen (MUX-057/004)

Aholkuak jasotzen zituen Bittorregandik, ez politikaz bakarrik, baita hizkuntzaz edo kulturaz ere. Azpillaga plazarako lagun ezin hobea izan den bezala, aholkulari gisa Bittor onena. Baserri kontuetan denetik zekien, behi zein baratz. Behin Mungia aldeko hamalau urteko mutiko bat ekarri zion Bittori baserriko lanetan trebatu zezan. Sei hilabete egin zituen baserrian.

600. "Otxandioko profeta haundi bat dogu Bittor Kapanaga" (MUX-057/006)

Bittor maixu haundia zen sentimentuak administratzen. Eta lagun eta aholkulari aparta. Omenezko bertsoa." ... Otxandioko profeta haundi bat dogu Bittor Kapanaga", amaiera.

601. Aurkezpen pertsonala (MUX-059/001)

Onintza Enbeita Maguregi, 1979ko maiatzaren 19an jaio zen, eta hiru alabetatik gazteena da. Kazetaritza ikasketak egin zituen eta egunkarian, irratan zein telebistako kolaboratzaile gisa lan egin du. Egun, politikan sartuta dago. Bere bizitza beti bertso munduari lotuta egon da.

602. Zertan dabil Onintza? (MUX-059/002)

Irratian kolaboratzaile gisa jarduten du. Euskadi Gazteako "Dida" saioan bere txokoa du astero; lankideek irratsaioaren haria jarraitzen laguntzen diote. Berak nahi duenari buruz askatasun osoz hitz egiten du eta gustuko du hori.

603. Euskadi Gaztea, hedabide garrantzitsua (MUX-059/003)

Politikan sartu izanak bere iritzia emateko ezarri dizkion mugen inguruan dihardu. Horrez gain, hausnarketa bat egiten du Euskadi Gazteak hedabide gisa duen garrantziaz. Izan ere, EAE mailan eta gazteen artean asko entzuten den euskarazko irrati kate bat da. Kolaboratzaile denetik, lehen zuen jarrera kritikoa alboratu du, belaunaldi oso baten erredua delako. Horregatik, gazteen kontsumoaz hitz egiten denean, kontuan hartu behar den baliabide bat da.

604. Kazetari gisa eta iritzia ematen, Berria egunkarian (MUX-059/004)

Irratian duen lana garai batean Berria egunkarian zuen lanarekin alderatzen du. Egunkarian euskara zuzenarekiko sortu zitzaion obsesioaz hitz egiten du. Egunkarian iritzi-artikuluek bere iritzia plazaratzeko aukera ematen zioten eta irratiak ere aukera hori eskaintzen dio. Kazetaritza mota hori gustuko duela dio.

605. Euskararen errealitatea gazteen artean (MUX-059/005)

Hizkuntza ereduaren inguruan, etengabeko gerra bat dagoela dio: zuzena (batua) eta kalean egiten dena. Euskadi Gaztean egiten den euskara oro har zuzena da. Hala ere, talka bat dago erabilerari dagokionez, gazteek euskaraz hitz egin arren, ez dutelako euskaraz zuzen jarduten. Erabileran eragiteko, hizkuntza errealitatea kontuan hartu behar da.

606. Gazteen euskara I (MUX-059/006)

Muxikako bertso eskolan gaztelaniazko esaerak ere erabiltzen dituzte. Gazteek euskaraz hitz egiten dute, baina erdal esaerak erabiltzeko ohitura dute, "¡Jo tío!" bezalakoak. Kaleko gazteen hizkuntzaren parte dira, eta hori onartu egin behar da, eredu egokiena izan ez arren.

607. Gazteen euskara II (MUX-059/007)

Gaztea bezalako irratietan, esaera horiek "¡qué pasada!" ohikoak dira, eta irradi horren arrakasta agian horrekin lotuta dagoela dio. Gazteentzat gertukoagoa izan daitekeen euskara eredu erabiltzen dute, baita euskaldun zaharrak ez direnentzat ere. Horregatik, kritikatu beharrean, kontuan hartzea komeni da.

608. Bere lagunartean: nola bizi dute euskara? I (MUX-059/008)

Bere lagunartean, muxikarren artean behintzat, euskararen maila ona dela uste du. Gernika zein Muxika euskal hitzun asko dituzten herriak dira. Muxikako euskara, ordea, aberatsagoa da bere ustez. Beste herri batzuetan baino errazagoa ei da hori (Ermua, Eibar...).

609. Bere lagunartean: nola bizi dute euskara? II (MUX-059/009)

Bere herrian euskarazko esapideak mantentzen dira ("mamali" bezalakoak, adibidez). Horren harira, anekdota bat kontatzen du. Egunerokoa erabiltzen dituen esapide asko beste euskaldun askorentzat arrotzak direla badaki.

610. Euskara batua eta euskalkiak (MUX-059/010)

Euskara batuaren aldekoa da, baina tokian tokiko esapideak eta hiztegia erabiltzea garrantzitsua da. Muxikako eta Gernikako eskolak aipatzen ditu: Gernikan asteko egunak bizkaieraz izendatu ordez, batuan izendatzen dituzte. Tokian tokiko aldarrikapen horretan koherentea izan behar dela dio.

611. Euskalkien zuzentasuna I (MUX-059/011)

Egun hitz egiten den moduan idazteko ohitura dago. Horretan, ordea, koherentea izan behar da. Hau da, bizkaieraz idatzi nahi duenak Bizkaian erabiltzen diren hitzekin egin beharko du.

612. Euskalkien zuzentasuna II (MUX-059/012)

Euskalkiei dagokinez, idazterako orduan garrantzitsua da koherentzia mantentzea.

613. Euskararen zuzentasuna eta euskara batua (MUX-059/013)

Euskarari zor diogun begirunea eta errespetua beste hizkuntzei zor dieguna bezalako da: ingelesez ez badugu hitz egiten dugun bezala idazten, euskaraz ere berdin egingo da.

614. Euskalkien zuzentasuna III (MUX-059/014)

Euskalkiak erabiltzearen aldekoa da, baina euskalkiak egoki, zuzen, erabili behar direla uste du. Joera batzuk ez ditu ulertzen, euskara batua kritikatzeko baita, euskalkiaren defentsan, baina gero ez da euskalkian zuzen idazten.

615. Gazteak eta aisialdia I (MUX-059/018)

Onintzaren ustez, modak zuzenean eragiten digu. Bera institutura joan zenean, moda Gernikan parrandan irtetea zenez, moda hura jarraitzen zuen. Egun, parranda zein aisialdiko moda aldatu egin da gazteen artean: parranda kalean egitetik lokal edo lonjetan egitera pasa da.

616. Gazteak eta aisialdia II (MUX-059/019)

Aisialdi ereduak aldatu egin da, eta aldaketa horretan euskararen erabilera gehitu egin da. Gazteak kalera ateratzeko, horren gazteak ez diren horiek (Onintza eta bere lagunak adibidez) espazioak utzi behar dizkiete.

617. Gazteak eta aisialdia III (MUX-059/020)

Aisialdian euskararen inguruan neurriak hartzeko, gazteak kritikatu beharrean, egokiagoa litzateke beraien azalean ipintzea. Neurri horiek hartzeko oinarria gazteengan baitago, eta ez garai batean gazte izan ziren haiengan.

618. Euskal kultura vs kultur eredu globalizatuak I (MUX-059/022)

Euskal kulturak gazteen artean dauden kultur ereduak kontuan hartu behar ditu. Modan dagoen hori aldatu nahi bada, eredu horiek ordezkatu dituen eredu bat sortu beharko da.

619. Euskal kultura vs kultur eredu globalizatuak II (MUX-059/023)

Moda jarraitzea egokia dela uste du, baina horren aurrean zerbait sortu behar da. Euskal ereduak zabaltzeko, euskal eredu berriak sortu behar dira. Moda hor dago, eta hori jarraitzea akats bat da.

620. Durangoko azoka: euskal kulturaren isla? (MUX-060/001)

Durangoko azokaren bilakaera: lehen nola bizi zuen eta orain nola bizi duen. Oasi bat da euskal kulturarentzat; urtean behin, ordea, eta horren atzean dagoena aztertu beharko litzateke.

621. Durangoko azoka eta Gabonak: kontsumo gizartea (MUX-060/002)

Durangoko azoka Gabonetako ospakizunei lotuta dago. Ospakizun hauek kontsumo gizartearekin lotuta daude eta, ondorioz, Onintzak zentzu gutxi ikusten die.

622. Euskal kulturaren aldeko ekimenak birpentsatzeko beharra I (MUX-060/003)

Euskal gizarteak Durangoko azoka bezalako ospakizunek betetzen duten funtzioaren inguruan eztabaidatu behar duela dio: zertarako balio dute azoka honek edo Ibilaldia, Kilometroak bezalako jaiek? Zer ematen diote euskal kulturari?

623. Euskal kulturaren aldeko ekimenak birpentsatzeko beharra II (MUX-060/004)

Euskal kulturaren kontsumora bideratutako baliabideen inguruan eztabaida irekitzea interesgarria litzatekeela dio. Proiektu batzuek irautea nahi badugu, garrantzitsua ei da hausnarketarako bidea zabaltzea.

624. Gustuko musika eta literatura (MUX-060/005)

Onintza Ruper Ordorikaren zale porrokatua da. Anari ere gustuko du. Literaturari dagokionez, irakurtzeko denbora duenean euskal zein erdal idazleen lanak irakurtzen ditu.

625. Letraren pisua gustu musikaletan (MUX-060/007)

Musika talde edo abeslari bat gustuko duen ala ez jakiteko berarentzat nahiko da abestiak dioena entzutea. Irizpide hori, ordea, pertsonaren arabera da; batzuek letrari erreparatzen dioten bitartean, beste batzuek melodiari erreparatzen baitiote.

626. Etxean jaso duen musika (MUX-060/009)

Etxean jaso duen musika euskal kulturarekin eta abertzaletasunarekin lotutakoa da. Lourdes Iriondo beretzat erreferentea da, eta haren kantak eskolan irakatsi beharko liratekeela uste du. Xabier Lete ere maisutzat du. Euren abestiak bere bizipenekin lotzen ditu.

627. Juan Mari Uriarteri abestutako bertsoak (MUX-061/002)

Juan Mari Uriarte Bizkaiko gotzain laguntzaileari abestutako bertsoak kantatzen ditu.

628. Bertsolariak hizkuntza edertu eta aberasten du (MUX-061/003)

Bertsolariak hizkuntza edertu eta aberastu egiten duela dio. Bertsoak idatziz egindakoan, orraztu egiten ditu; gainontzean, bertsoa garbia izan dadin ahalegintzen da. `Txirrita´ri behin erronka bota ziotela kontatzen du, errima zaileko puntua emanda, ezetz bertsoa bukatu.

629. Bertsolari ona (MUX-061/004)

`Txirrita´ Gipuzkoan bertsolari onena izan dela uste du. Bertsolaririk onena zein den esatea zaila dela dio. Gaiaren arabera, bertso ona egiteko aukerak zabalagoak edo murriztagoak izan daitezkeela dio. Hainbat bertsolariaren dohainak aipatzen ditu.

630. Bertsolariak negarrez (MUX-061/006)

Bertsolariek negarra barruan sentitzen dutela dio. Bertsotan negar egin izan dutela kontatzen du, Erramun eta Mattin adibidetzat jarrita.

631. Kepa Enbeita `Urretxindorra´ (MUX-061/008)

Bere aitari, Kepa Enbeitari, `Urretxindorra´ gaitzizena zergatik ipini zioten azaltzen du. Kantaera ederra zeukala dio. Bere semeen kantaera deskribatzen du. Segundo Olaeta aipatzen du.

632. Domingo Iturrateri jarritako bertsoak (MUX-061/012)

Liburu berrirako bildutako bertsoak ditu eskuetan eta azalpenak ematen ditu. Domingo Iturrate Erroman dohatsu egin zutenean, han bertan abestutako bertsoak kantatzen ditu.

633. Bertsolaritza euskararentzat beharrezko (MUX-061/015)

Herrietako berbetak ahoskeraz desberdinak direla dio, baina ez dagoela hainbesteko alderik berez. Bertsolaritza herriarentzat eta euskararentzat beharrezkoa dela dio. Euskara batuaren eta euskalkien osagarritasuna azaltzen du. Inguruko euskalkien adibideak ematen ditu.

634. Aita eta aitita bertsolari (MUX-061/018)

Aitarekin baino gehiago aititarekin egiten zuen bertsotan. Aita Gipuzkoan Bizkaian baino gehiago ibiltzen zela bertsotan esaten du.

635. Francisco Losada kartzelakideari gertatutakoa (MUX-061/019)

Aurretik argitaratu ezin izan zituenekin osatu du liburu berria, gerrako eta kartzelako bizipenak tarteko. Francisco Losada izeneko kartzelakide bati buruzkoak kontatzen ditu.

636. `Urretxindorra´ kantuz Lurdesen (MUX-061/020)

Bere azken liburuaren kontuak aipatzen ditu. Bere aita, Kepa Enbeita `Urretxindorra´, Lurdesera joan zen beste euskaldun batzuekin batera. Apezpikuetako batek bertsotan eginarazi zion, gora igota.

637. `Urretxindorra´ri ahotsa kaltetu zitzaionekoa (MUX-061/021)

Bere aitak, Kepa Enbeita `Urretxindorra´k, oso ahots ederra zeukala dio. Gripe gogor baten ondoren, ez zuen ahots hura berreskuratu ahal izan.

638. Xalbador, bertsolaririk onenetakoa (MUX-061/022)

Anekdotak bat kontatzen du, bere omenaldiari loturikoa. Argazki bati buruzko aipamena egiten du, zein bertsolari falta diren azalduz. Xalbador bertsolaririk onenetakoa izan dela uste du. Zelan hil zen kontatzen du.

639. Bertsolaria dabilen lekuan, euskara dabil (MUX-061/025)

Lau seme fraidetarako joan ziren, baina ezkondu egin ziren. Bertsolaritzak euskara indartu egin duela eta hala egingo duela uste du, bertsolaria dabilen lekuan euskara dabilelako.

640. Bizkaiko lehen bertso eskola (MUX-061/026)

Bizkaian lehenengo bertso eskolako sortzailea izan zen. 1958an eta 1959an Bizkaiko bertsolari txapelduna izan zen. Orduan erabaki zuen eskola egitea. Zelan hasi ziren kontaktzen du.

641. "Peru Dubakok" bertso-sortako lehenengoa (MUX-061/027)

Lekeitioko apaiz batek egindako bertso-sortako lehenengoa abesten du.

642. Jesusen Bihotza antzezlanaren (MUX-061/028)

Jesusen Bihotza izeneko antzezlanaren egin zuen Balendinek, dena bertsoz egin. Antzetzokiko zehaztapenak eta antzezlanaren ibilbidea kontaktzen ditu. Antzezlanaren bideo grabaketa ezabatu egin zioten.

643. Gabon-kanten lehiaketa (MUX-061/029)

Gabon-kanten lehiaketa batean parte hartu zuen Gernikan, beste lau lagunekin batera. Gaztelarazko kanta baten itzulpena errezitatzen du.

644. Ariatzan beti kantuzaletasuna (MUX-061/030)

Bere aurreko bertsolariak aipatzen ditu, Ariatzakoak. Beti kanturako eta antolakuntzarako prestutasuna egon izan dela dio.

645. Antzina euskaldunak bertsoz (MUX-061/033)

Antzina euskaldunek bertsoz jarduten omen zuten, gauzak gogoan hartzeko, Barandiarani entzuna dionez.

646. Andre zaharrak euskaraz Aragoi (MUX-061/036)

Xabier Peña aipatzen du, eta Sebe ere bai. Aragoi andre nagusiak kartetan euskaraz entzun zituztela eta. Euskara Kataluniaraino zabaldua zegoela kontaktzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-06-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com